


EIBARKO IDAZLIEN
ETA IDAZLANEN
ANTOLOGIXIA

Enrike IZAGIRRE
Miriam LIZARRALDE
Antxon NARBAIZA



Euskara
Batzordea

EIBARKO IDAZLIEN ETA IDAZLANEN ANTOLOGIXIA

Enrike IZAGIRRE
Miriam LIZARRALDE
Antxon NARBAIZA



Eibarko Udala
Euskara Batzordea

Izenburua: Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia

Egilliak: Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

Argitaratzaillia: Eibarko Udala, Euskara Batzordea

Diseñua eta maketaziñua: Koldo Mitxelena Zumaran

Inprimategixa: Antza S.A.L

ISBN: 84-89696-18-7

Lege Gordaillua:

2000ko otsailla

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	11
Sarrera orokorra	13
I. testu zaharrak eta ahozketasuna	19
Sarreratxua	21
1.- Acundia, lejarr(...)ga lejarbaga	23
2.- Arrateko zelaiko, bai floridadea	27
3.- Contubarribat zuçediduda	37
4.- Jaunac, en resumidas cuentas	44
5.- Del perdón de las ofensas	50
6.- Caleco biargiñac basarricueri	61
7.- Bertso eta kanta batzuk	68
Bibliografixa	77
II. Eibarko autore nagusiñak	81
Ezaugarri nagusixak	83
Romualdo Galdos	97
Antonio Iturriotz	111
Toribio Etxebarria	129
Juan San Martin	143
Bibliografixa	153
III. Testu labur soltiak ariketekin	157
Sarrera	159
1.- Zelebrekerixak	165
2.- Lehengo (antxiñako) kontuak	182
Bibliografixa	241

HITZAURREA

Eibarko euskeriaren corpusakin loturia daukaten hainbat publikazi-
ño egin eta gero, ondo dator Eibarko Idazle eta idazlanen Antologixia
liburu hau, bertoko euskeria erabiltzen erreferentzia izan diran autore
nagusiñak eta eibarreraz egindako testu eta artikulua esanguratsuetariko
batzuk erreferentzia moduan batzen diralako.

Aittatutako erreferentzia hori, gaiñera, benetan garrantzi haundikua
da, zegaittik eze, horretan oinarrituta dihardugu eibarreraren corpora
ikertu, jaso eta horren dibulgaziñua egitten. Horrek erreferentziorek,
gaiñera, inprobizaziñua alde batera laga eta hórrek iturrixok kontuan
hartzeko konbitta, eta, gaiñera, Eibarko euskeria idazteko be erabilia
izan dala adierazten desku.

Beste alde batetik, esan biharra dago, hórrek gaixok ez doiazela
soltian, esplikaziño eta testuen mamiña lantzeko ariketekin osatuta
baiño. Horrek, irakurritakua sakondu eta geure eibarreraren gaiñeko
jakitturixia neurtzeko aukeria emoten desku.

Aukeratutako testuak be, badaukate euren esanahixa eta, alde horreta-
tik, duda barik, sasoi bateko Eibarko girua eta orduko eibartarren pentsa-
tzeko modua eta joerak ezagutu eta dastatzeko aukeria emoten deskue.

Horra hor ba, beste batzuen artian, hau liburuau, irakortzeko arrazoi
eta motibo bat baiño gehixago. Horrekin batera, gure zorionak eta esker
ona hiru autorioi: Miriam, Antxon eta Enrikeri, lan interesgarriau eskein-
tziarren eta, zuri irakurle, betiko moduan, probetxugarrixa gerta dakizula.

Iñaki Arriola Lopez
Alkatea

Maria Jose Telleria
Euskara Batzordeburua

SARRERA OROKORRA

Eibar: hurbilketa historikua

Gure antologiari ekin baiño lehen, datu batzuk emon biharra ikusten dogu. Hain zuzen, gure idazliok, lehelengo hirurak behintzat, bizi izan eben sasoian kokatu gaittezen. Hasteko, ez dago zalantzarik Eibarren historia, bere industriari lotuta datorrela. Bere hurreko beste herri batzuk ez bezela, Eibar herri apala izan da Probintziaren kontestuan aurreko gizaldixetan. Diñotena sendotzeko Batzar Nagusiak begiratzia baiño ez dago. Foru Autonomixiaren ikur izan zan antolakuntza honetan gure herrixak ez eban berandu arte protagonismo haundirik euki. Izan be, Gipuzkoako herri koskor asko agertzen dira batzar-leku izentauta, gure herrixa, ostera, ez da iñundik be herri inportantia izan Probintzian XIX. mendera arte: adibidez, XIV. mendian, G. Mujikak esaten des-kunez, Probintzia osotzeko ekimenian Eibar agiri bazan be, ostera, XV. mendian, 1472an, Batzar Nagusiak egitteko apartau zittuan Gipuzkoako 18 herri inportantien artian Bergara, Elgoibar, Mondragoi, Deba eta Mutriku zeguazen gure ingurukuak, baiña gure herrixa ez¹. XIX. mendian, industria zabaltzen hasten darian, hartzen dau gure herrixak protagonismua. Haren eraginbian Eibarrek gorutz egingo dau nabarmen Probintziako beste herri batzuk oso gitxi hazi edo lehen bestian jarraitzen eben bittartian.

XIX. mende atzenian Eibarrek era askotako industriaren bide zuzena hartuko dau eta XX. mende hasieran, herri inportantia da Probintzian. Nahiz eta armagintzia bizibide nagusixa izan, bera be dibertsifikatuz doia. Dinamismo horrek demografixan be eragiña izango dau. Gregorio Mujikak bere monografi-xia eskribidu ebanian, Eibarrek, 1912xan, 8.000 bizilagun zeukazen, gero, 1920xan 9.000 bizilagun izango dittu. Hurrengo hamarkadan gertauko da hazkunde haundi samarra, eta 1930ian 13.000 bizilagun izango dittu ixa. Orduan momentu haretan Probintziako hirugarren herrixa izatera helduko da: Donostia 68.000kin eta Irun 17.000kin ziran haundiñak Gipuzkoan. Eibarrek, bada,

¹ (Monografia 1956: 210 eta h.h.). Ikus, baita be, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, XXI: 487

Geria hasi aurretik 1936xan 14.000 inguru zittuan. Artian, beragandik hurren Tolosak 12.000 pasautxo zeukazen. Azkenik, hurreratze historiko labur honetan detaille inportante bat agertzen jaku: Eibar izan zeikian gerra aurrian euskaldun dentsidaderik haundiña eukan hirixa. Hirigunerik euskaldunena.

Soziolinguistika apur bat

Esan doguna esanda, ikusten dogu Eibarko euskeria oingo mendiaren lehelengo hogeita hamar urtietan egoera benetan interesantian gertatzen zala edozein aztertzailemendako. Zelanbait adierazteko, atipikoa. Gaiñera, honako ezaugarriak zittuan:

Etorkizuna zeukan herrixa zan. Bere jardueria: industriak -krisixak krisi- ez zeukan itxurarik historiaren korrontien kontra zoianik. Nekazal ekonomia aldasbehera zoian bittartian industriguneak gehittuz zoiazan duda barik. Gauzak hola, ideologixa aldetik be, hau inportantia izango da, euskeria ez da gurian basarrixakin lotuko, edo harekin bakarrik, behintzat.

Ruralismuaren tentaziñorik ez. Lehenengo puntuakin lotuta, mundu euskaldunaren kosmogoniam nekazaritza-osageixak egon bazeguazen, baiña ez ziran inportantienak. Kalia eta basarrixa zeinek bere mundua zeukan. Euskalduna txapelaz, barautzaz edo torniuan ikusi zeikian.

Gaiñera, herrixa, inguruko basarrixetatik datorren jendiari biharra emoteko gei da, eta zuzen edo ziharka ekonomixa mistoaren bitartez hari eusten zetsan. Estualdiak estualdi, Eibar bere burua mantenitzen etorren herrixa genduan.

Herri elebiduna zan. Probintziako beste eskualdietan bezela, basarritarrak elebakarrak, *monolinguak* ziran, kaletarrak elebidunak estadio diferentietan, baiña elebidun edo *bilingueak*². Hori ona ete da? Hizkuntza bakotxak bere fun-

²*Eibarko aditza* lana ikusten badogu zertzelada horrek euskerian be bere eragiña izan ebala konturatzen gara: ezaugarri desbardin batzuk eukazen euskeriak kalekoa edo basarrikoa izan.

tziñuak bete ahal izateko esparru egokiak badittu, hizkuntza mintzatuak osasuntsu segitzen dau. Hizkuntzaren inguruan **barruan** kohesionauta badago, baita be giza-moltzua. *Barru/kanpo* identifikaziñua egitten zan bittartian. Eibarko egoeria halakua zan. Hori gizartiori ez da zenbaittek diñuan beziñ hauskorra gertatzen. Hizkuntz kontzientzia badago, horrek hizkuntziorrek bizittasuna seguru dauka.

Kanpotik etorren erdaldunak ez eban ondiok herrixa deseuskalduntzen laguntzen. Gure “Eibarkeraren Gutxiespena” lanian egitten doguzen gogoetak jarraitzen badittugu, konturatuko gara herrixak integrau ezin zeikian migraziño haundirik ez zala izan gizaldiaren lehelengo hogeita hamar urtiotan.

Euskalkixaren etorkizuna

Zer pasau da?

Zer gertatu da XXI. mende hasierara goiazen honetan Eibarko euskeriak erakusten daben horren egoera tristia ikusteko? Debaklia, desastria. Gerra ostian etorri zan aldaketia izugarrixa izan genduan. Diktaduria eta berarekin etorri zan kanbixua demasa izan zan. Euskaltzalerik onenak hilda, beste asko erbestian edo ixillixan, instituziñuen euskeriaren kontrako persekuziñua... Belaunaldi batian euskeria zihero narrastu da. Gurasoetatik seme-alabetara. Ze, gaur 40, 45 urte, 50 urte dittuan askok euskeraz jakin edo behintzat zelanbait moldau famelixiaren transmisiñuaren bittartez, euskeriak trinkotasuna galdu dau³.

Pertsona gitxi dira gaur egunian euskeraz bere funtziño guztiak betetzeko kapaz diranak. Edozein hizkuntzarendako hori desastre hutsa da. Eskoliak, etxiak, emigraziñuak, **premiñarik ezak...**, **danen artian** ekarri dabe hori hondamendixiori. Gerra osteko eibartarren elebittasuna erabat diglosikua bihurtuaz juan zan. Euskeria behera, erderia gora. Erderiak

³ Esan nahi doguna da, hiztun kopurua baiño, hórrek hiztunok zelan dagozen konzentrauta inportantiagua dala.

gero eta gustorago, euskeria baztatu ahala. Badirudi euskeria, batez be, eskolatik eta etxetik etetzen etorri dala.

Hizkuntza batek ezin dau iruntsi gurian pasau dan lez belaunaldi baten bueltan pasau dana. Hizkuntza baten situaziño txarraguetan be ez da halakorik gertatzen. Hizkuntza konpaktauta eguan lekuan, zelan galdu da euskeria holan? Puntuan esan doguzen **eskoliak, etxiak, emigraziñuak, gizarte erdaldunak** eragin haundixa euki dabe. Baiña danen erdixan (eta esango neuke buru-buruan) famelixa askotan egon dan itxikerixia, errezenera jotiak: inertzia madarikatuak, hau da, euskeriari eusteko borondaterik ezak eragin dau oin gagozen moduan egotea.

Batutik euskalkira

Gaur egun mass-mediaren, komunikabide nagusiñen esparrutik, haren eragiñetik aldentzen dan edozeiñ aukerak bizi-iraupen gatxa dauka. Biren arteko auzixa dirudixan honetan zer dauka esatekorik gure euskalkixak? Euskeriak berez badittu zailtasunak: hizkuntza minorizatu izatia, Administraziñuan ondiok aukera bardintasunik eza, gaztelaniaren aldeko inertzia etc. Hala ta guztiz be, *gure* alorrian, eskola eta komunikabide nagusixen bidez batez be, hizkuntza unformatzen daben batua deitzen dana daukagu. Gure mundu txikixan euskera batua botere txiki baten adierazlia da: eskolia eta telebista, euskaltegiko klasia edo partidu politiko baten aldarria batuan etorriko dira. Jaurlaritza edo Toki-administraziñuarekingo hartu-emonak eurak be, jakiña, hortik doiaz. Euskera batuari edozein hizkuntza arautu batek bihar leukian estatusa ukatu barik be, pentsatzen dogu herri eta eskualdeietako hizkerak lagungarri izan leikezela danon artian euskera aberatsagua lortu ahal izateko. Baiña horretarako gure euskalkixak bizirik iraun nahi badau, berak be botere horren zati txiki bat erabili biharko dau.

Erabilleriaren disfuntziñoak

Joan daneko hogeita hamar urtian euskera batua da hizkuntz eragillerik

haundiña gurian. Baturuzko joeria zabaldu bada, ez dau beti nahi gendukian ondorio onik ekarri. Guria moduko hizkuntza minorizatu batian arazuak biderkatu egitten dira. Horregaittik munduan modan dagan hizkuntza nahaste edo mistura horren antzera (francanglais, spanglish, euskañola) gurian be, geure txikitasunian, eta errezoari askoz haundixagoz, *eibarbatua*, *eibartueria*, edo deittuko gendukian halakoren bat sortuaz dator. *Norberarena* ikasteko asti barik estandarrian murgiltzen gara. Herri ixa erabat euskaldunetan ez bezela (Urola aldeko herri bat, esaterako), nun etxe-kuak eta estandarrak ez daben alkar zapaltzen, hizkuntzaren funtziño gehixenak euskalkixan egin leikezelako, batua oso funtziño garrantzitsu baiña era berian markatu eta mugatueterako lagatzen dalako. Gurian, barriz, funtziño hórrek guztiok euskalkixan emoteko ezintasunak, batez be euskalkixa bihar dan moduan ezagutzen ez dalako, hori anabasiari ekarri dau.

Hartu biharreko neurrixak

Guria moduko lanen betekizuna, ba, euskalkixaren autonomixiaren alde egittia izango litzake, batuaren errejistruak eibarreriak dittuanetik bereiztuaz. Hau , etxian, kalia, herriko euskeriaren oihartzuna baiño ez asko gehixago jaso daben gaztiari zuzenduta dator. Bide horretan Eibarko euskeriaren *corpus* interesgarri bat osatzen goiaz, politxo-politxo, eta zertzelada honek asko lagunduko dau euskalkixa ezagutzen. Azken buruan, euskalkixak asko lagundu leixiko euskeriari berari, hiztunaren hori berez-kotasunori lortzen badogu.

Beraz, euskalkixaren etorkizuna (bizkaieria gure kasuan) nahikua baltz ikusten bada, pentsau geinke guria moduko azpi-euskalki batena ez dala hobia izango. Dana dala, kontraesana badirudi be, herri-hizkerak bere esparruan erre-zago topau leike bizi-iraupena. Azken buruan, bizkaieria zelanbaitteko arau dan aldetik, beste gaiñ-arau bati egin bihar detsa aurre. Eta hor gertau leikez arazuak. Ostera, erabilleria askoz mugatuagua daukan gure azpi-euskalkixak halako *azpi-arau* bat osatzen dau. Ez dauka, bizi-iraupenaz kanpo, aparteko helbururik, bere

erabileremua ondo daki zein dan. Zergaittik ukatu bizirik jarraitzeko eskubidea?⁴

Labur esanda, ikusten dogu, Eibarreraren bizi-iraupena, dana dala, ikaste prozesuaren hiru adarretan ez eze, herri-komunikabide maillan be sendotu biharra daguala. Hasteko, famelixatik ahal bada, eskolan beste horrenbeste, ikasle-irakasliaren arteko harreman-hizkuntza izatia lortu biharko genduke. Zer esanik ez kalean. Azkenik, komunikabide idatzizak eta herriko irrati-telebistak zeregiñ horretan lagundu egin biharko leukie. Hiztuna bere hizkeraren prosodiara, freskotasunera, berezkotasunera azken fiñian, hurreratuko litzake. Euskeriak berak irabazten urtengo leuke.

Gure axiomia garbixa da: Euskalkixa indartuaz euskeria bera, euskera batua azkenian, indartu egingo da. Pisuzko arrazoi bategaittik: kultur hizkuntza moduan batua dalako ixa erreferentzia bakarra. Gaur egungo gizartian bizi-iraupena iñork izatekotan, kultur hizkuntzak baiño ez dauke. Itzulittakua, ostera, ez da segurua: euskera batua indartuaz, ez da nahitta-nahi-ez euskalkixa jasotzen.

Eibartarrongan, gaiñera, euskalkixaren guk uste baiño sustrato haundixagua dago. Indartu deigun berori, eta euskeria bera, adjetibo barik oinguan, indartuko da. Esaten dihardugun moduan, gure hizkuntzak berak irabaziko dau berezkotasunian eta batbatekotasunian.

⁴H. Kloss-ek egiten daben dialektuen sailkapenian *extended dialect* eta *normal dialect*-en artean dagan bide erdixan nahiko genduke gure azpi-euskalkixa. Lehenenguren estatusak haundi xamarra dirudi gure kasuan: “a dialect which is regularly used in domains which are usually reserved for a standard language (e.g. parliament, church, radio), such as Swiss German”; bigarreanean, barriz, zehaztu biharra dauka gure kasuan: “a dialect for which, unlike the “extended dialect”, the usual division of functions between language and dialect is valid” (Kloss, H., 1986, “On some terminological problems in interlingual sociolinguistics”, *International Journal of the Sociology of Language*, 57, 91-106). Hau da, euskalkixa estandararen azpitan bai, baiña ikusten dihardugun moduan bere erabileremuan helarazpena edo transmisioa indartzeko neurrixak hartuaz.

Testu zaharrak eta ahozkotasuna

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

Sarreratxua

Hiru zati egin nahi izan dittugu antologia honetan. Bat bihar eta liburuan ipintzian, hauxe suertau da lehelengua, testu zaharrena. Zaharrak izatetik aparte, testu batzueri beste ezaugarri bat ezartzen jakue, ahozkotasuna: ahotik ahora erabilli eta kantau izan dira eta geuganaiño aillegau badira, batari entzun eta ikasi, eta bestiari entzun eragiñ eta ikasi eraginda aillegatu dira. Buelbaka-buelbaka, morokillaren moduan.

Honek ez dau esan nahi, jakiña, gaur bertantxera arte, 1999ko San Andres egunera arte, modu horretan heldu diranik. Baleike ondiok *Arrateko zelaiko, bai floridadea* etxian ikasitta-edo kantatzen jakitzia iñork; eta hor, azkeneko partian sartu dittugun berso barrixak eta kantuak, hórrek bai dirala, asko, geure denporetan ipiñittakuak eta gaur be edade batekuak kantatzen dakixenetakuak. Baiña Akondiakua -iñoiz existidu bada- edo *Contu barri bat*, konparaziñuan, nahiz eta abesteko egindakuak izan, papelian eskribiduta jaso dittugu. Jakizu, baten batek iñun entzunda, honakuagaittik edo bestiagaittik idatzi egingo zittuan biharbada, biharbada beste batek handik papeletik ikasi, ha papela gorde —galdu igual— seme-alaberi edo lagunartian kantau, beste iñork ikasi, harek iguala... eta zer eta guk ha papel zaharra edo haren kopixa bat topau dogula gitxien espero genduanian. Zenbat holako! Eta holantxe pasatzen dira benetan.

Testuak komentatzeko orduan, ez gara sartu hizkuntzaren deskripziñua, eboluziñua eta hórrek gorabeherok aztertzeraz, ez dogu filologixia larregi egiñ; hurrenguan hori, ordurako talentutik gaur baiño gehixago bagara behintzat. Harrapau ahal izan doguzenetan, ahozkotasunaren berezittasun batzuk markau dittugu eta ez gara harutzago pasatzen atrebidu; bestela be, nahikua atrebenzia egin dogulakuan gagoz.

Bildurrik haundixenetakoa Eibarko euskeraz eskribitzeko konpromisuak emoten eskun, eibarrera jasuan-edo. Honetan be, borondaterik onenarekiñ ekiñ gentsan, baiña azkenian —eta azkenera aillegatzen bazara, seiñale ona

da— zeuk esan biharko dozu, irakortzaille ahalegindu horrek, asmatu ete dogun ala ez. Ez zaittez behintzat estuegixa izan eta pentsaizu Eibarren lagun asko bizi garala.

Eta horixe baiño ez. Geure gitxixan, halandabe, eskerrak emotia tokatzen jaku, lehelengo Miriam eta Antxoni. Eskerrak emotia ez, barkatzeko eskatzia da, liburuak hain berandu urtetzen badau, errua lehelengo zati honek daka-eta. Bigarren, heuri, Fernan, gauza bera. Hara, atzian geldittuta nenguala esateko deitzen netsan bakotzeko, iguala esaten zestan beti —*hau potruetakua emoten estana!*—. Sosegau hari, ba, oiñ azkenian! Eta eskerrak bene-beneta-kuak Unairi, sekretarixuana hain dotore egittiarren; Maripi eta Robertori, hai-bat gauzagaittik... Eta San Juanian bizi dittuten gurasueri, Toribiok esaten eban moduan, neuk be háretzek erakutsi zesten hizketia gura eta ahal izan dotelako hamen agiri.

1.- Acundia, lejarr(...)*ga* lejarbaga

Hau lehelengo testu motzau Koldo Mitxelena zenaren Textos arcaicos vascos¹ liburutik hartu dogu. Mitxelenak Ibarгүйen-Cachopin-en kronikatik jasotzen dau. Hauxe diñosku Mitxelenak:

COMIENZO DEL CANTAR DE LA BATALLA DE ACONDIA

En Ibarгүйen-Cachopin, cuaderno 70, hoy en Bilbao, que sitúa el encuentro en 1390. Según Gorostiaga, p. 47, éste fue entre Juan López de Gamboa y los Ibarгүйen de Durango, contra los de Unzueta, oñacinos, a quienes envió ayuda Gómez González de Butrón, el viejo. Los gamboínos, derrotados, huyeron.

... y llegados alla pelearon en el çerro de Acondia, que es sobre Vnçqueta, y hubieron fuerte pelea, y fueron vençidos los ganboinos, y murieron alli Juan de Ybarguen, que hera el mayor de los de Ybargoen y otros muchos, y dejaron las calderas llenas de viandas [antes se escribió *carne*. tachado] y muchas armas y toda artilleria y asemilas y tres asnas, y por ende se dijera aq(uel) cantar q(ue) comiença:

*Acundia, lejarr[..*ga* lejarbaga.*

Gorostiaga, en ortografía actual, completa y traduce: *Akondia Lexarraga lejarbaga* “Acondia, (el cerro) del fresno sin fresnos, aludiendo al abandono por parte de los gamboínos de sus armas”, para las cuales el fresno era la madera preferida, según el testimonio de Lope García de Salazar. Sin embargo, el ms. tiene un breve trecho ilegible, donde muy bien podía caber más de una letra.

(1) MICHELENA, Luis - SARASOLA, Ibón: Textos arcaicos vascos - Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XI, Gipuzkoako Foru Aldundia - Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990. 69. or.

Lope García de Salazarrek be jaso eban honen burrukiaren barri bere Las Bienandanzas e Fortunas-en 22. liburuan ².

Argibidiak

*Acundia, lejarr(...)*ga lejarbaga honek zer esan nahi ete daban edo zegaittik esaten dan, bersiño bi dakaguz:

1.- “(...) *abandono por parte de los gamboínos de sus armas* para los cuales el fresno era la madera preferida”, Gorostiagak emoten dabena. Hori dala-eta, ikusi Ramiro Larrañagak jasotzen dittuan dokumentu biren aittamena ³.

2.- Beste batzuen artian, Juan San Martin-ena : “(...) *Akondia, lehen leizarrez (=leixarrez) zana, burrukaren ondorean leizarrik barik gelditu zala. Esate honegaz burrukaren gogorra agertu nahi dau.*” ⁴.

Jesus Maria Leizaolak **proverbio épico-anecdótico** sailkatzen dau ⁵, eta berak emoten deskun refranaren interpretaziñuakiñ oso ados ez bagagoz be, refrantzat hartzia, ostera, egoki datorkigu. Refrana edo, gure iritxian, biharbada epikan **formula** izentau dan estrukturiaren antzeko zeozer. Esan nahi dogu kantu edo poema edo dana dalako luziago baten hasieria bada, Juan San Martiñek pentsatzen daben moduan ⁶, akaso euki geinkiala hor halako esamolde briztaratsu, adierazkor bat bi funtziño-edo betetzeko: bata,

(2) SAN MARTIN, Juan: Antzinako Eibar, Ego Ibarra, Eibarko Udala, 1993. 65. or.

(3) LARRAÑAGA, Ramiro: Síntesis histórica de la amería vasca, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1981. 385 eta 462. or.

(4) SAN MARTIN, Juan: Op. cit., 65. or

(5) LEIZAOLA, Jesús María de: El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica (I. Los géneros), in Obras completas de Jesús María de Leizaola (II. tomua), Sendoa argitaletxea, Donostia, 1981. 715. or.

(6) SAN MARTIN, Juan: Op. cit., 65. or.

gida modura hasieran ipiñitta, izan zeikian kantari edo esatarixaren memori- xia esnatu eta bideratu eragittia. Ezin geinke ahaztu orduan sasoi- an hola- ko literaturia, dana, kantatzekua zala, ahotik belarrira erabiltzen zana, eta papelezko edo beste ezelako soporte bakua. Horretara, kantari batek —edo jent- iak, gjeneralian— halako kantu asko eta asko izan bihar zittuan buruan eta kantuon lehelengo frasia referente garrantzitsua izango zan harittik tira- kadia egiñ eta akordau eragitteko. Eta bigarren helburua-edo, entzulen atenziñua bereganatzia izango leuke, abiapuntutik bertatik.

Aurrekuakin lotuta, refrana izan edo **formulia** izan, *la traducción oral tiene que contar con la memoria*, ziñuan Alfonso Reyes-ek ⁷. Eta *Hay una estética de la memoria: un cierto despojo, una necesidad de trabazón y una tendencia a los esquemas que facilitan la retentiva* ⁸. Esakerak-eta, lokuzi- ñuak-eta, baliabide asko eta oso diferentia- k erabillixaz osatzen dira eta iraun be, hórretxeri eskerrak irauten dabe. Hamen dakagun honetan argi ikusi leike deribaziñuan kargatzen dala indarra eta **lejarraga** oso esanahi bestelako **lejarbaga** bihurtzen dala. Kontrastia. Belarrira eta memorixara atzizki bixen arteko rimiak be lagundu egitten dau eta baitta, jakiña, ahozkotasunak bere- berezkua daban elipsisak: *Acundia, lejarraga lejarbaga*, xingle-xingle.

Zuk zeuk

1.- Biharbada, ariketa modura ez litzake zatarra Eibarko euskeraren esa- kerak eta bestelako berezitasun batzuk ⁹ liburutik ale batzuk etara eta ikustia estilistikako ze baliabide aprobeztatzen dittuen. Esateko, ba, hónetxek:

(7) REYES, Alfonso: *La experiencia literaria. Ensayos sobre experiencia, exégesis y teoría de la literatura*, Narradores de Hoy, Textos-6, Bruguera, Barcelona, 1986. 20. or.

(8) *Idem.*, 60. or.

(9) ARGOITIA, Juan Andrés; AZKARATE, Nerea; GEZURAGA, Xabier: Eibarko eus- keraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk, Euskara Batzordea, Eibarko Udala, 1995.

Aberatsa, infarnuko laratza; pobria, zeruko loria.
Barrittan, galbaiagaz be ura.
Berbia harrua eta poltsikua zimurra.
Burua berotu eta hankak hoztu.
Eguzkixa eta eurixa, martiko egualdixa.
Eguzkixak nora, zapixak hara.
Eibarko txittak, oilluak.
Hatza emon eta besua hartu.
Iñoren begixan lastua ikusi eta habia ez norberanian.
Lamain pupua eta lauзин trapua.
Lapikuak sartagiñari, ipurbaltz.
Ogi gogorrari, hagin zorrotza.
Oñezkorik nahi ez eta zaldunik agiri ez.
On billa, on billa, bonbilla.
Onutsa, onutsa, kakutsa.
Oskoletik urten baiño lehen, kukurruku.
Potia pote, nahiz pipar eta nahiz tomate.
Sasixan zaraparria danian, zerbait izaten da.
Txarrixa hildako astia eta ezkonduako urtia.
Ura juanda gero, presia egiñ.
Zelako lapikua, halako tapia.
Zer eragiñ, haxe batu.

2.- Ostiantzian, kantuaren lehelen-lehelengo zatixa badaukazu, Akondian burrukia izan zala be badakizu. Burruka horren gaiñian zeure kontura piska-txo bat gehixago irakorritta, kantua, igual, amaittu zeinke... *Akundia, lejarrraga, lejarbaga* estribillo aukerakua izan leike.

2.- Arrateko zelaiko, bai floridadea

Polikarpo Larrañaga —Don Poli— abadiaren bittartez jasotzen dogu honen baladionen barri, idatziz, estraiñeko ¹⁰. Honekin testuonekin batera, Arrate eta Arrateko Ama Birjiñaren gorabeheria darabixen beste kantu edo kantuen zatixak emoten deskuz; batzuetan esaten dau zeñi entzun detsazen edo nun topau dittuan, baiña beste batzuetan ez, eta gure baladiau bigarren moltzo honetakua dogu, lastimia.

Gerora, autore batek baiño gehixagok aittatu dau hau kantua, batera edo bestera: Aita Donostiak ¹¹, Don Polik bialdutako materixalekin; J.A. Lizarralde, ondiok argittaratu bariko Romances euskéricos de Aránzazu prestatu ebanak ¹²; eta baita Inazio Omaetxebarriak ¹³, Juan San Martiñek ¹⁴, Adolfo Arejitak ¹⁵, ¹⁶ eta Antonio Zavalak ¹⁷, bihar polittenak egindakuak esatiarren. Hónen ondotik eta ointxe ondiok, Pedro Gorostidik Arrateren gaiñian ezagutzen ziran kantu eta bertsuen bildumatxua osatu eta kaleratu dau ¹⁸.

(10) V.V.A.A.: Itzaldiak. Laugarren Salla, Euskal-Esnaleak, Donostia, 1926. 125-129. or.

(11) DONOSTIA, Aita: Obras musicales (IV tomua), 1966. 72. orrixan, letria; 40.ian, doiñua. Ik. baita 155. orrixan dakarren oharra. Hauxe berau, lehenago, “Zeruko Argia” aldizkarixaren 32. zenbakixan etara eban, 1921. urtian.

(12) Guk, egixa, ez dogu hau lanau erabilli. Adolfo Arejitak diñuana sinistu eta hamen aittatzen dogu.

(13) OMAETXE BARRIA, Inazio: “Del Folklore vasco. Sobre el poema viejo de Arrate”, Revista Eibar, 61. zka., 1963ko abuztua-irailla. 7. or.

(14) SAN MARTIN, Juan: Op. cit., 113-140. or.

(15) AREJITA, Adolfo: “Arrateko zelaiko bai floridadea, Birjiña Amandreari balada”, Idatz & Mintz, 21. zka., Labayru Ikastegia, 1991. 32-36. or.

(16) AREJITA, Adolfo; ETXE BARRIA, Igone; IBARRA, Jaione: Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia, Labayru, Bilbo, 1985.

(17) ZAVALA, Antonio: Euskal erromantzeak. Romancero vasco, Auspoa Liburutegia, Sendoa Argitaldaria, Oiartzun, 1998. 723-740. or.

(18) V.V.A.A.: Arrate, Parroquia de San Andrés Apostol de Eibar, Editorial Centro Unesco de San Sebastián, 1998. 83-95. or.

Beste alde batetik, esan nahi dogu askorendako **Hiru truku** musika taldiak etaratako bersiñua izan dala hau baladiau ezagutu eragiñ eta zabaldu eragin dabena ¹⁹. Gertatzen dana da hónek ez dabela kantatzen guk hamen emoten dogun bariantia, ezpada oso bestelako bat. Politta izan bada; oiñ, ikusi honen gaiñian —franziskotarrak eta— zer diñuen Arejitak ²⁰ eta San Martiñek ²¹.

Ahor ba, Don Polik jasotako hau bariante edarrau; gaiñerakuak Don Polirenian berarenian edo Lizarralde, Arejita, San Martin eta, batez be, Antonio Zavalaren aittatutako idazlanetan topauko dozuz:

	1
Arrateko zelaiko	bai floridadea;
andixek gora dago	zerura bidea.
	2
Aldatza igaro ta	zelai landa baten
Birjiña ta Semia	atsegin artutzen.
	3
Lirio berdez jantzirik	dago Arraten altaria,
aintxen kantatzen dabe	ederki Salbia.
	4
Zerura gura neuke,	zerura boladu
aingeruak balidakez	eguk prestadu.
	5
Eguak balituzkez	argizarizkuak
urtuko lituzkela	eguzkia klaruak.

(19) TAPIA, Joseba; ORDORIKA, Ruper; MARTINEZ, Bixente: Hiru truku, Elkar, Donostia, 1997.

(20) AREJITA, A.: *Op. cit.*, 34. or. Gaiñera 32. orrialdian hauxe esaten dau: “Birjina Amandrearen balada honetan urrun barik dabilela Aita San Franziskuaren izena esan dogu. Gehiago esango geunke: balada honeen sorreran urrun barik dabilela frantziskotarren baten eskua.”

(21) SAN MARTIN, J.: *Op. cit.*, 122. or.

	6
Bai eta ausi bere	ipartxo senduak
Bai eta ausi bere	ipartxo senduak.
	7
– Zerura nua ni ta	nork nai du etorri:
Orain etorri jataz	iru mandatari.
	8
Atzo etorri jataz	iru mandatari,
Uso zuri eder bat,	aingeru polit bi.
	9
– Uso zuri ederra,	zeruan ze berri?
– Zeruan berri onak	orain eta beti.
	10
– Zer dakazu bada	zeruko gauzarik?
– Ollibi adartxo bat	Birjiñak emanik.
	11
– Birjiñak emanik ta	noizko izentaurik?
– Erramu eguneko	bai señalaturik.
	12
Erramu urrin da ta	igar ezpaledi (sic: <i>ipar</i>)
ori igartzen bada,	beste bat ekarri.
	13
Zeruan asko dagoz	ollibi adarrik,
ollibi adarrik eta	lilio lorarik.
	14
Lilio lorarik eta	santu ta santarik;
ez dala igartuko	zeruko gauzarik.
	15
Aita San Pedro dago	zeruan giltzadi.
Ay Jaunak egin banindu	giltzaren jabedi!
	16
Atiak ereteko	aita neuritari,
lenengo aitari ta	urrengo amari.

Andik eta aurrera
andik eta aurrera

mundu guztiari,
mundu guztiari

Zer esana

Aspaldikuak dira hau eta honen moduko balada zaharrak, *bertsolaritzak indarra hartu eban baino aurreragoak, duda barik* ²². Aita Inazio Omaetxebarriaren *ikerketari jaramon egiterik badugu, hamaseigarren mendera urbilduko ginake* ²³.

Lehenago be esan dogu: guk hamen emoten doguna aldaera bat, bariante bat baiño ez da; hori bai, aberatsena, osuena. Beste danen arteko aldiak eta kutsadura-fenomeniak (*Testu berdinean jatorri ezberdineko balada gai bi edo gehiagok bat egiten duenean osotasun bakarra sortuaz kutsadura gertatu dala esan dezakegu*) ²⁴ poliki-poliki aztertzea be interes-garria izango litzake. Dana dala, balada erlijioso honetan *tradizionalizatzeko-prozesua ez da profanoetan bezain handia. Halakoetan bersiotik bersiora aldaketa nabarmenak egoten dira: ahoz aho erabiliaren puruz dibersifikatu dira aldaerok. Arrateko balada honetan ez da halakorik ikusten: oso hur dagoz aldaera guztiak bata besteagandik* ²⁵. Eta horren arrazoia, hauxe: *Balada erlijioso hau, eta honen antzeko beste batzuk, luma landu batek idatziak diran sundea dabe. (...) Azken batean, aspaldikoa izan arren be, idatzizkoaren finkatze-indarra nabari da* ²⁶.

(22) AREJITA, A.: Op. cit., 32. or.

(23) SAN MARTIN, J.; Op. cit., 122. or.

(24) LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka: Euskal baladak, antologia eta azterketa, Hordago, Donostia, 1984. Lehelengo liburua, 162-163. or.

(25) AREJITA, A.: Op. cit., 32. or.

(26) Ibidem.

Estrukturiaren kontura, irakorri ostera be San Martiñek eta Arejitak diñuezenak.

Gure baladia Arrateren laudorixo batekiñ hasten da; Arraterena edo, hobeto esateko, Arrateko zelaixarena, hori zelaixori egitten jaku-eta, Arrateren sinbolo. Batetik, hantxe hazten da *floridade* edarra eta hori florida-diori da, tokatzen dan moduan, zerurako bideko hasieria. Laudorixua egitteko era be ahozko rejistrokua da bete-betian, *Arrateko zelaiko bai floridadea*. Bigarren estikuan *zerura* agertzen jaku estraiñekoz eta hau datuau komentau biharrezkua da, **zerua** berba klabia da-eta baladian zihar, behiñ eta berriro repetitzen dan referentia.

Lehelengo distiko bixetan **igotziaren** inguruko kanpo semantikuarekiñ egingo dogu tope: *Arrateko* (Arrateren alturia), *andixek gora*, *zerura*, *Aldatza igaro*. Hala eta guztiz be, kontrastia bertan daukagu: aldatzaren gaiñian *zelai landa baten / Birjiña ta Semia atsegin artutzen*. Biribiltzeko: *zerura* igotzeko, lehelengo Arratera igo bihar da, hango zelaixan deskansau, eta gero, hortik zelaittik gora dago *zerura* bidia. Horretxegaittik dagoz han *Birjiña ta Semia*, zerukuak diralako eta Arrateren “zerutasuna” markatzeko. Konturatu *Semia* horren tratamientuakiñ, iñolako reberenzia bakua. *Birjiña* be, antzera, beste adorno barik baiña gitxien *Semia*-ren aurretik, Arraten ez gagoz alpe-rik-eta.

Hurrenguan Arrateko altariaren deskripziñua emoten jaku —baladako deskripziño bakarra— eta santutegixaren berezittasunetako bat: *Salbia* ²⁷. Lirixuaren sinbologiaz ezin geinke seguru larregi esan; badirudi halako pureza berezkua, delikadezia-edo, emoten deskula aitzen. Garrantzitsua bai, edozein modutan, zeruan be asko ei dago *lilio lorarik*-eta —ikus 13. distikua. Gure ustian, honek hirugarren distikuak Arrateren eta baladiaren presentaziñua itxiko leuke eta hamendik aurrera beste parte diferente baten sartuko giñake.

(27) SAN MARTIN, J.: *Op. cit.*, 122. or.

Laugarren distikua *Zerura gura neuke* batekiñ sartzen da —lehen be esan dogu eta oin berriz, zeruaren ideia presente dago beti; eta repetidu egitten da, *zerura boladu*—. Oso adierazkorra iruditu jaku guri. Baiña zati honetan dakagun gauzarik prinzipalena da lehelengo personiaren agertze indartsua: *gura neuke*, *balidakez*, aurreko hiruretan bat be erabilli ez dana. Lehelengo personiori, gaiñera, baladia amaittu arte agertuko da, narradore zeñ aktore modura. Aingeruak be hortxe agiri jakuz, zeruko izakixak batetik eta hegodunak bestetik. Hegodunak batez be, zegaittik eze zerura igo ahal izateko, hurrengo bi distikuetan heguon gaiñian jardungo dau baladiak.

Erreparau —estrukturia komentatzera igarota— bostgarrena zelan hasten dan laugarrenaren azkenekuetako berba batekiñ. Horixe da, hain zuzen, San Martiñek komentatzen dabena **bihurkia** edo *ritornelo* izenagaz, eta egixa da honek oso lotura itxixa ezartzen dabela bertsolerruen artian. Hau baliabidiau eta antzekuak 4-5, 7-8, 8-9, 9-10 (*zeruan-zeruko*), 10-11, 11-12, 12-13 (*ori deiktikua-ollibi adarrik*), 13-14 eta 14-15. (*santu ta santarik-Aita San Pedro*) estikuen artian egiaztatu geinke. 15-16 eta 16-17.en artekoa oso linealak dira, hau da, testuak natural-natural pasau eragitten desku batetik bestera. Laugarrena eta bostgarrena lotzeko beste paralelismo bat be badarabill, baldintzazko perpausena, kondizionalena:

- 7.- *Zerura gura neuke, zerura boladu,*
- 8.- *aingeruak balidakez eguak prestadu.*

- 9.- *Eguak balituzkez argizarizkuak*
- 10.- *urtuko lituzkela eguzkia klaruak*

Azken *urtuko lituzkela* honetako **-la** hori betegarrixa da neurrira egoki iristeko; fijatzen bagara, korrientia da gaur eguneko bertsolari batzuen artian eta gure balada honetan beste behiñ ikusiko dogu 14. distikuan.

Sintaxisa examinatzerá pasatzen bagara, pieza osuan ez dakagu iñun aparteko konplikaziñorik. Pare bat baldintzazko, eta kitto! Ahozkuan gatxa

da urriñago jua ahal izatia, zegaittik eze *bere bizimoldeak baliabide mne-*
moteknikoak esijitzen ditu, eta parataxiak sinpletasunaren abantailatz
gozatzen du: perpaus batek zenbat eta klausula gehiago izan, hainbat eta
zailago duke bere memorizapena ²⁸.

Seigarren distikua oso interesgarria da. Lehelengo bostgarrenarekin
lotzen dalako *Bai eta...bere...* partikuliaren bittartez, zein-da honakua esango
baleu moduan:

9.- *Eguak balituzkez argizarizkuak*

10.- *urtuko lituzkela eguzkia klaruak*

eta ausiko lituzkela ipartxo senduak

Bigarren arrazoia, jakina, estiko bera bi bidar kantatzen dalako igual-
igual. Arrazoiak? Guretako, hor falta dana galdu egin dalako, ahaztu kantau
ebanari, eta repetiziñuakiñ arreglatzen dau. Edozelan, beste bertsitueta be
ez jaku alternatibarik gorde. Hirugarren ohartxo bat be apuntau nahi gendu-
ke, sintagmen barruan ordena beti dala **izena + adjetibua**: *zelai landa baten,*
lirio berdez, eguzkia klaruak, ipartxo senduak, uso zuri eder bat, aingeru
polit bi... Eta hori aprobetxauta, esan deigun semantika aldetik ugari txama-
rrak dirala sensaziño eta kolore notak baladan zihar.

Zazpigarren distikuan lehelengo personiak oiñ arteko hipotetikotasuna barik
ekitzen detsa berbetan: *Zerura nua ni...* Konparau 4.ian ziñuanakiñ: *Zerura gura*
neuke... Progresiñua. Bigarren estikuan eta aurreko *nua*-ren iduleztara, *etorri*
jataz diño: aktibua eta pasibua. Hónek kontrajartziok be baladen espresatzeko
moduaren ezaugarria ei dira ²⁹. Hau zazpigarrenau eta zortzigarrenaren arteko
loturiaz, zer esan? Oso kuriosua dala bai behintzat:

(28) LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka: *Op. cit.*, 62. or.

(29) *Idem.*, 74. or.

13.- *Zerura nua ni ta nork nai du etorri:*

14.- **Orain** etorri jataz iru mandatari.

15.- **Atzo** etorri jataz iru mandatari,

16.- *Uso zuri eder bat, aingeru polit bi.*

Orain / Atzo horren atzian, zeozer ezkututzen ete da? Zetara dator?

Sinbologia: *uso zurixa* euskerazko zenbat eta zenbat kantutan ez ete da agertzen? Gure honetan Amabirjiñaren mezulari dabilkigu eta olibo adartxo bat dakar beraren partetik. *Noe*-rekiñ akordauko gara segiduan, hari be, behin dilubixua amaituta eta arkia Ararat mendi gaiñian geldittuta, uso zuri batek ekarri etsan-eta olibo adartxua, eta holantxe Noek jakiñ urak bajatzen egua-zela. Geroztik Amabirjiñaren mezulari edo sinbolo sarri topauko dogu ³⁰. Aingeruak be hortxe dakaguz bi, *politak*. Ez da arrarotxua egitten hori adjetibua aingerueri aplikatzeko? Bueno, aparte, kuestiñua da ez dirala gehixago agertuko hórrek bixok ³¹.

Beratzigarren distikuan alkarrizketan hasten jakuz lehelengo personia eta usua, eta ikustekua da zelan usuari, zuzenian berarekiñ, *Uso zuri ederra*, oso-osorik, deitzen detsan; hau da, lehentxuago baiña orduan 3. personan erabili daben sintagma berbera. Ba, hori be askotan ikusten da antziñako ahozko literaturan. *Zeruan ze berri? / Zeruan berri onak orain eta beti*. Polittak erantzuna eta zerua famatzeko modua. Aurrera segiduta, ezin geinke nekatu **zerua** zenbat bidar etarutzen daban seiñalatzen. Iñoiz, gaiñera, era oso zabalian, oso generikuan: *zeruko gauzarik* (10 eta 14.ian), baiña oso adierazkorrian neurri berian. Esan gura dogu **zerua**-ren ideia markatzen dala hor, zeru-

(30) ARKOTXA, Josu: "Arrateko Usoa", ...eta kitto! aldizkaria, 124. zka., Eibar, 1995-IX-15

(31) Baladak, generalian, ahotik ahora pasau izan dira eta bidian parte batzuek galdu egin dira, beste batzuek lekuz aldatu, etab. Bestetik, ezin geinke gaurko logikia aplikau eta pentsau hau hamen eta bestia hantxe ipiñitta, hobeto gelditzen dala eta libre dala. Ez, ez dakigu holakuetan zelan jokatu eta, ba, eziñ izango dogu orduan esan 4, 5 eta 6. distikua egokixago egongo litzakiazela, igual, 14.aren ostian, behiñ aingeruak 8.ian presentau dittuanian eta zeruko bentajak aittatu. Baiña ez, ez dakigu-eta aingeru berberak diran ala 4, 5 eta 6.ekua(k) beste bat edo beste batzuek edo zer.

kua dana da ona eta ez detsa ardura zer dan; horretxegaittik 10.eko partitibua: *zeruko gauzarik*.

Ostera be lehenago ikutu dogun punto bat hartu nahi dogu berriro: sintaxis errezaena. Ejenplo gehixago be badagoz, baiña 11.etik 14.era, danetan erabiltzen da kopulaziñua: **eta**. Honek eragitten dabena da testuak oso ligero progresau deixala, ariñ-ariñ, ixa-ixa konturatu barik. Distiko bakotxeko barruko repetiziñuak be badake partia horretan. Euskal Baladak liburuan —nahi eta nahi ez konsultau biharrekua— **eta**-ren erabilleretako bateri **X/X eta Y** izena emoten jako eta “hedakunde formula” ei da ³², hau da, repetitzen dan zatixa gehitxuago zabaltzeko —txipristin baten antzera— balixo ei dau.

20.-*Ollibi adartxo bat **Birjiñak emanik**.*

21.-***Birjiñak emanik ta** noizko izentaurik?*

25.-*Zeruan asko dagoz **ollibi adarrik***

26.-***ollibi adarrik eta** lilio lorarik*

26.-***ollibi adarrik eta lilio lorarik***

27.-***Lilio lorarik eta** santu ta santarik*

Azkeneko ejenplo bixetan bai klarua, gaiñera, **amplificatio** teknikia! Partitibua eta kopulaziñua, eta behiñ eta berriro.

Atzeneko hiru distikuen gaiñian Antonio Zavalak ³³ hauxe diñosku: *Sail ontako 15, 16 eta 17-garren bertsoak zer ikusirik badute beste kanta zaar onekin:*

Gure Jaun onak egin banindu Lenengo aitari, gero amari,

(32) LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka: Op. cit., 75-76. or.

(33) ZAVALA, Antonio: Op. cit., 724. or.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

<i>zeruetako giltzari,</i>	<i>gero anai-arrebari,</i>
<i>azken orduan jakingo nuke</i>	<i>azken orduan sekretotxuan</i>
<i>artia zeñi iriki.</i>	<i>nere maite kuttunari.</i>

Loturia be ez da forzaua (28. estikuan, *zeruan* eta hurrenguan, *zeruko*), eta kutsapena argixa dala esango genduke.

Ariketatxua

1.- Honen baladionen beste bertsiñuak aztertuta, aprobia egizu ahalik eta distiko gehixen uztartzen, alkarren atzetik. Kontuan eukizu bata eta bestiaren artian, loturaren bat —repetitzen dan berbaren bat, idearen bat— ezartzia komeniko dala.

3.- Contubarribat suçediduda

Oin segidan ikusi bihar dittugun hónek koplok Antxon Narbaizak topau zittuan Tolosan, Gipuzkoako Artxibo Nagusian, ondiok urte asko ez dala. Koplon testua eta testuingurua —kontestua— zihatzen aztertu eta gero, Eibarko Udaleko Ego-Ibarra Batzordetik publikatzeko aukeria etorri jakon; eta Narbaizak berak ikertutakuakiñ eta Juan Maria Lekuona eta José Ignacio López de Luzuriaga-ren aportaziño banarekin, liburua prestau eben, 1685eko koplak zaharrak³⁴, eta kalia ipiñi. Esan nahi doguna da hónen koplak informaziño gehixago bihar dabenak haxe konsultau biharko dabela derrigor. Oso interesantia, baita, Anjel Lertxundik orduan idatzi eban artikulua³⁵. Koplak kantauta entzun nahi dittuanak, bi grabaziño dakaz (ik. bibliografiako 36 eta 37. aittamenak). Hona testua:

“Contubarribat suçediduda errebeleco Calean,
errebeleco Calean eta andragasteen artean.
Zeloac gora zeloac beera zeloac euren artean,
Ugarteq orain ateracodau, salsea beregainen.
Vicarioa dogoaleguez alegrea ta librea,
andragustioc baterren beste âdarabile maitea.
Amodioa zorodabeti amoraduen artean,

(34) LEKUONA, Juan Maria; LÓPEZ DE LUZURIAGA, José Ignacio; NARBAIZA, Antxon: 1685eko koplak zaharrak, Ego Ibarra, Eibarko Udala, 1992.

(35) LERTXUNDI, Anjel: “Eibarko apaiz gazte baten ibilerak”, El Diario Vasco, Donostia, 1992ko apirillaren 29xa.

(36) LASUEN, Fran eta Eskuadra Zarra: Fran Lasuen & Eskuadra Zarra, Azterna, Gasteiz, 1996. Honetan J.I. López de Luzuriagak proponitzen daban musikiakiñ.

(37) TAPIA, Joseba; ORDORIKA, Ruper; MARTINEZ, Bixente: Hiru truku II, Elkar, Donostia, 1997.

Ugarteq orain probacen diti(u) zeloak cerzuq direan.
Variacua soiladaleguez aric zapatu goiseco,
ordubietan presente dago Vicarioaren aurrean.
Zeloe gaitic enojaduta asserra zite zanean,
bere Volsearen escatu jaco publico Calebtean.
aeq alaniq yragoarren Ugarte beti Calean,
Magdalenchori bentanaraco videa galduartean.
falta estitu adisquideac Ugartec Vere aldean,
ybarrecoac eguin ditue baqueac aen artean.
San christobalgo señaladuta meriendea formadu,
San christobales acordatuta mirabailesen juntadu.
Aldasetican Vicarioa ta macharirean Ugarte,
ybarrecoac aldean ditu Verelagun sát ambere.
echean ondo guiaduarren ara ordu ocitu,
Verotu baga meriendea jan ecin leique ciertu.
Zua daleguez gaussabearra aldeandabe ifini,
ango abarrac argui daquic errigustiti,
mirabaylesco Palaciooac obato daquis Contuac,
ostera bere eguingo ditus bacoachac Vere Cantuac.”

Komentatzekua

1685eko hónek koplak ez dira klaruegixak —hori hasiera-hasieratik esatia onena— eta argittasun billa dabillanak jo deixala gorago esandako liburu eta artikulura. Gure zeregiña hamen ahozkotasunaren inguruan jardutzia da eta goazen, ba, harira.

Koplak Miguel de Basterretxea batek kantau ei zittuan Eibarko Untzaga plazan, jentiaren aurrian. Ondoren, bertsuotan agertzen dan bikarixuak juiziua sartu ei zetsan Basterretxea horri bere burua irainduta sentidu ebalako. Juiziuari zihar,

Basterretxeak bertsuak kantau, kantau zittuala onartzen dau, baiña ezetz diño, behiñ baiño gehixagotan, autoria bera dan galdetzen detsenian. Ezetz diño, aurretik be ezagunak zirala herrixan bertsuok. Guzurretan badabil, normala izan leike bere burua tapau nahi izatia, baiña hori baiño esanguratsuagua da lekukuak pasatzen hasten diranian, danak esaten dabela iguala: iñork ez ei daki koplen egillia zein dan eta batek edo bik lehendik be entzunda ei zekezen. Gaiñera beste puntu bat dago mingarrixagua bikarixuandako: koplok papelian idatzitta ei zebizen, dokumentuetan esaten dan legez.

Juan San Martiñek, beste alde batetik, bertsuon neurrixari begira, halako tradiziño zabalago baten barruan sartzen dittu ³⁸. Eta gehittu ondiokan Juan Mari Lekuonaren azterketa metrikua eta gaiñerako eritzi interesgarrixok ³⁹.

Kopla zahar hónen gaixa ez da barrixa; ezta iñoren tatxak zabaltzeko, bertsuak etaratzia. Ejenplo bat aittatziarren, Anjel Lertxundik berak aittatzen daben Hazparneko apaizarena ⁴⁰:

*Hazparneko apaizak
semetxo bat badu;
“osaba” deitzen dio,
berak hala nahi du.*

Mamiñera salto eginda, hónek koplok gauza bat lagatzen dabe argi: repetiziñua dala ahozkotasuren erreminttarik prinzipalena. Ikusi daigun zegaittik.

Koplok atenziñua pizteko ohar batekiñ hasten dira: *Contubarri bat zuçdiduda*; nun eta *errebaleco Calean*. Eta lehelengo repetiziñua: *errebaleco Calean* /

(38) LEKUONA, Juan Maria; LÓPEZ DE LUZURIAGA, José Ignacio; NARBAIZA, Antxon: *Op. cit.*, 12. or.

(39) *Idem.*, 23-29. or.

(40) LERTXUNDI, Anjel: *Op. cit.* Etxian entzundakua ei dau eta ez dakigu iñun argittaratu ete dan.

errebaleco Calean eta... Modu polita aurrekoa eta gerokua lotzeko. Ondoren, aditzaren elipsisa: *errebaleco Calean (suçediduda) eta andragasteen artean*; aditza kenduta, bere lekuan **eta** soill hori. Hau sarritan ikusten da ahozko literaturan. Lehen be egin dogu berba honen inguruan (ik. 32. oharra) eta kasu bardiña da. Behin bigarren estiko honetan, kontatzekua da zenbat bidar agertzen dan **artean** puntu hori rimetan: guztira, bostian. Eta lauretan **zeiñen** kasu baten ostian. Buruko miñ haundirik ez **gaurko bersolaritzaren** potuan ez jaustiarren! Jakiña, beste jenero batekin nahasten da hau konposiziñuau —baladenakiñ— eta beste sasoi bat zan.

Hirugarren estikuaren gaiñian, ikusi Lekuonaren ohartxua ⁴¹ eta jakin begi itsua edo gorra ez danak **zeloak gora** eta **zeloak bera** eta **zeloak euren artean** dabizela. Bosna silabako golpietan, saillian-saillian. Izan be, zeluak izango dira geroko akziñuen eragilliak.

Laugarrenian, *Ugartek orain ateracodau...* diñosku, indar haundikua guretako, entzuliak edo irakortzailliak koplia bertan laga ez deixan. Eta zer etara bihar daben? **Salsea**, hau be berbetako berbia, jugosua, gustokua. Honek laugarren bertsoleerro honek badaka trazia, paralelismua, zortzigarrenakiñ, *Ugarteq orain probacen diti(u)*... horrekiñ. Esango genduke hor tarteko bost, sei eta zazpigarrenak pasauta, beste presentaziño bat egitten dabela koplariak **Ugarte** —3. personan— dalako horrena. Nahitta, argi geldittu deiñ bera ez dala Ugarte? Gaitxizena da? Trukua? Ala, kontrara, egillia benetako Ugarte bat dalako eta bere autoretzia azpimarratzeko? Lehenguarrekiñ ahaztuta egitten ete dau hori? Jakingo ez bagendu halako paralelismuok be baladen adierazteko modu bere-berezkuen artian sartu bihar dirala, bagenduke beste hipotesis bat prest ⁴².

(41) LEKUONA, J.M.; LÓPEZ DE LUZURIAGA, José Ignacio; NARBAIZA, Antxon: *Op. cit.*, 29. or.

(42) Guretako, honek zortzigarren estiko honek —laugarrenakin daukan paralelismua-gaittik eta berriro be zeluak aittatzen dittualako— bidia emoten dau pentsatzeko eze beruok kalian baebizen, biharbada bersiño bat baiño gehixago ibilli zeikiala; juiziorako

Itzuli gaittian geurera. Esan ohi da ahozkuak ez dabela gramatikia itxi-itxixan errespetatzen; ba, zortzigarren honetan *Ugarteq orain probacen dau...* biharko litzake, txarto ez bagabiz. Eta gramatika kontuetan sartu garan aldetik, esatekoa da honako estrukturiak oso gustokua dabela egilliak:

5.- *Vicarioa dogoaleguez...*

9.- *Variacua soiladaleguez...*

23.- *Zua daleguez...*

Hurrengo distikuan, egunen barri emotiakiñ, hortik aurrera akziñua hasten jaku —hirugarrenian be apur bat aurreratu arren. Laburtzeko: zeozer suzedidu dala badakigu; nun eta zeintzuen artian be bai. *Ugarte* batek zeluen ondokuak erakutsi bihar ei deskuz eta egunak, akziñua eta lekuen izenak segidan datorkiguz. Ipoin batek izan biharrekuak behintzat, horra hor danak!

Gertatzen dana da seigarren distikotik aurrera ez dala larregi ulertzen zer pasatzen dan (gogoratu 34. oharraren ostian zer diñogun). Guk, dana dala, beste notatxo txiki batzuekin jarraitu egingo dogu. Gorago Ugarteren bueltan jardun dogu baiña ondiokan beste hirutan agertzen da hau izenau seigarren distikotik aurrera eta beti 3. personia erabiltzen da. Hiru hórretatik, birritan posiziño berian (ik. 13 eta 15. bersolerruak). Klase honetako beste paralelismoren bat be etara leike: *ybarrecoac* birritan eta bixetan hasiera-hasieran. Baiña gogorragua begittantzen jaku 17 eta 18. estikuen artekoa:

17.- *San christobalگو señaladuta meriendea formadu,*

18.- *San christobales acordatuta mirabaillesen juntadu.*

Ez ahaztu azkarregi, badaezpada, 42. oharraren inguruan esandakuak.

bersiño danak —edo bat baiño gehixago behintzat— jaso nahi izatia be ez litzake txokantia izango. Ba, danak bata bestiaren atzetik kopixau baziran prueba gehixago eukitziarren, resultaua gorde jakun hau dokumentuau izan leike. Gorago apuntau dogun **artean** puntu horren ugarittasunak be, ze pentsaua ipintzen desku. Egixa esatera, osteraz, ez dakigu nun moztu balizko bata(k) eta bestia(k).

Gaurko edozein bertsolarik, bestetik, badaki zeozer geure koplotan birritan agertzen diran perpaus kontzesibuen gaiñian. Esan nahi dogu:

- 13.- *aeq alaniq yragoarren Ugarte beti Calean,*
21.- *echean ondo guiaduarren ara ordu ocitu,*

Hain zuzen, kontzesibuak (**-arren**), eta edozein menpeko, orokorrian, erabiltziak, beste perpaus bat —nagusixa—, beste zeozer esan biharra dakar. 13.ian betegarri politta da *aeq alaniq yragoarren*; 21.ian, ostera, aurreratxua-go azalduko dogun metafora politt baten osagai garrantzitsuak dakaguz.

Izen propio guztiak —nahiz pertsonenak, nahiz leku izenak— halako gertutasun bat dakarkixue entzule-irakortzaillieri, ezagunak dira kontatzen diran danak eta horrek interesari eusten asko laguntzen dau.

Azkenik, 17. eta 21-24. estikuetan pieza guztiko zatirik polittenetakua erakusten jaku:

- 17.- *San christobalgo señaladuta meriendea formadu,*
21.- *echean ondo guiaduarren ara ordu ocitu,*
22.- *Verotu бага meriendea jan ecin leique ciertu.*
23.- *Zua daleguez gaussabearra aldeandabe ifini*
24.- *ango abarrac argui daquic errigustiti,*

Antxon Narbaizak interpretaziño sexuala etaratzen detsa honi zatixoni ⁴³, eta geu be ados gagoz. Uste dogu, gaiñera, antzera egitten dabela geruago, adibide bat ipintzeko, P. Topet “Etxahun” bersolari zuberotarrak (1786?-1862) ⁴⁴, beste bertso sail batzuen artian, *Bi ama alhaba* izenekuan ⁴⁵:

(43) LEKUONA, Juan Maria; LÓPEZ DE LUZURIAGA, José Ignacio; NARBAIZA, Antxon: *Op. cit.*, 81-82-83. or.

(44) AULESTIA, Gorka: *Bertsolarismo*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1990. 175-181. or.

(45) ETXAHUN, Piarra Topet: *Bertso bilduma (zuberoera-batua)*, Xipri Arbelbidek prestatua, Elkar, Donostia, 1987. 38-39. or.

Hire egüzaita

Zer gizun xarmanta!

Hareki bürüz bürü diñagu zopa:

Ordin danik badiñat bai nik bethi lotsa

Hunki zeitan kota (bis)

Zure aita bitxia

Zer gizon xarmanta!

Harekin buruz buru jan dugu salda:

Ordutik badut beldurra

Gona hunki zidala (bis)

Amaierako distikuan kantatzen dana Anjel Lertxundik oso ondo agertzen dau ⁴⁶, eta guk bakarrik gehitu geinke hor be badaguala autoriaren indibidualidadia ezkutatzeko ahalegiña, arduria kendu nahi izatia. Batetik, *ango abarrac argui daquic errigustiti (ageri)* —mundu guztiak ikusi dau zer pasau dan— eta horretara, autoriak ezeze, *ostera bere eguingo ditus bacoachac Vere Cantuac*.

Zeurera

1.- Hónek gure koplok ez dira oso-oso ondo aitzen; irakorri atzera be, osatu imajinaziñua astinduta eta idatzizu gero zeure bersiñua. Edo ahoz antzeztu, grazia pixka batekiñ...

(46) LERTXUNDI, Anjel: Op. cit.

4.- Jaunac, en resumidas cuentas

Hirugarrena. **Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoz.** Hauxe daka titulua hurrengo testuak eta ordenanza batzuk dira, kontizu, 1754tik 1758ra bittartian erabilli ei ziranak.

Bi lekutan topau doguz oso-osorik publikauta: Gregorio de Mujica-ren Monografía Histórica de la Villa de Eibar-en ⁴⁷, bata, eta Auñamendi argitaletxiaren Diccionario enciclopédico vasco-n ⁴⁸, bestia. Auñamendikuan grafiak pixka bat regularizatu eta euskeriaren gaurko ortografiarekin jazten dittue, zegaittik eze Monografía-n agertzen dana erderazkua da eta, aparte, anarkiko txamarra. Gaur egun kopixa zahar bat —ez dakigu jatorrizkua dan ala ez— Eibarko udaletxeko artxibuan dago gordeta.

Goratuago apuntau dogun Monografía-n zabal tratatzen da herrixaren adminstraziñuan temia historixan zihar ⁴⁹, eta pasarte baten hauxe diño: *Desde el año 1754 al de 1758 fué corregidor de Guipúzcoa, Pedro Cano y Mucientes, y dictó unas ordenanzas municipales sobre elecciones. Traducidas á un detestable euskera que casi no merece el nombre de tal se dieron á conocer al pueblo eibarrés.* ⁵⁰. Urtebetera doia, beste alde batetik, Antxon Narbaizak Eibarko euskara: gutxiespenaren historia titulo liburua etara ebanetik ⁵¹, eta bertan hónek ordenanzok erabiltzen dittu beste testu batekin konparau eta berak defendidu nahi daben tesisaren eutsigarri: *Ez da izan, beraz, gure historian besteak baino euskalki*

(47) MUJICA, Gregorio: Monografía Histórica de la Villa de Eibar (4. ediziñua), Eibarko Udala, 1990. 464-467. or. (1go ediziñua, 1910).

(48) V.V.A.A.: Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Diccionario enciclopédico vasco (vol. X), ed. Auñamendi, Estornes Lasa Hnos., Donostia, 1984. 233. or.

(49) MUJICA, Gregorio: Op. cit., 185-228. or.

(50) Idem., 200. or.

(51) NARBAIZA, Antxon: Eibarko euskara: gutxiespenaren historia, Euskara Batzordea, Eibarko Udala, 1998.

dotoreagorik ⁵². Bere iritxixa da, gaiñera, honek guriak *Grafia gureztat noski kaotikoa, erdaratiko hitzak erruz baina joskera (...) inor ez lotsatzeko modukoa* daukala ⁵³. Guretako, honek testuonek dakazen trabarik haundiñak dira hori sintaxis korapillotsuori eta puntuaziño negargarrixa; zera, administraziñuan korrientia dan moduan, artikulo bakotxa —parrafo bakotxa— igual oraziño bakar batekiñ osatzen da, hasi eta amaittu, eta tartian sintagma sartu eta sintagma sartu agitten dau egilliak. Hori dalata, sosiguz irakorri bihar da, jakitzeko nun hasi eta nun amaittu hórrek sintagmok, eta markatzen dittuan komak ez dabe bat be laguntzen. Ikusi:

Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoç.

1. Jaunac, en resumidas cuentas, onec esan gura dabena da, ze esteila izan inorbere atrebiduba, da adelantauba, elejizera, Alcateric personaric, seiña baitta espada persona onrauba, Idalgua Aberaza, da Erraizac daucasana, da guison Abonauba da oficio Charric esttaucana, baita bere esteila izan oficialic edo oficialeric soldau danic, Erregue maggesttariaren errejimentuban serbicen dabenic estta bere Idacortten da escribicen eztaquichanic eta bardin Iottenbadau, alacoric, izangodabela, vimilla marabidiren multia, da Iaquina egondella.

2. Baita bere errico alcatiac esttaichala permitidu eguitia executinoric bere flogedades Dattozarian Juezac Campoetatic, inor arzera bere Jurisdiccianuan, ó pezquisa eguitera edocean bere persona, ya Cedulequin, ó probisinuequin segatic lelengo biardabe izan instrumentubones exhaubas, Juntan, ó Dipputacionuan, da enconbiar Jaquiela, uso correspondizen dan legues, da Anguizen dan legues bigarren Leguia Provinciaco fueruac, seiná baitta esattendaben legues ttitulo ogeita bat garrenac.

(52) *Idem.*, 109. or.

(53) *Idem.*, 108. or.

3. Baitta bere Alcatte Ordinarichua Errigustietacuac Escribauric iltendanian eguinbiardabela, Alcatte Jaunac, Imbentaricho barricha, Numerichan Dagozan, erregistruena, Liburu gustiena, da Pappel sueltto gusttichena. Escribauba Ylorduco baldin numerala bada, etta imbenttari-chuau, acabau deinian beriala, da demporaric galdubaga, Alcatte Jaunac, bialdu daichala ttestimonio bat Diputacinora, da baldin eguiten espadau izango dabela multtia, Alcatte Jaunac, da erregidore Jaunac, berroguetta amarna ducat bacoachac.

4. Battabere Electtoriei oz eguiten deuzenei Eleccinuetaraco Alcatte Jaunac Eleciniu eguiteco, edo nombramenttua Alcatiac, Errejidoriac, sindicubac eta beste errico empleo gustiac urtebarric aurrera, yzambiacoda-benac, eguiten badabe, Elecino Charric, eta onec izatten badabe, quiebraric, edo Jatten baditube errico errenttac, Electtoriac, eurac Yzambiacodabela fichadore, da Abonadore, da pagau izan biaco dabe la aren faltta gustichac Zergaitterren, Errichac esttabela biar perjuicoric es quiebraric da esttabela Pagauco, electtoriaren Culparic, berac baiño da Conttuban egondituala.

5. Baita bere Justicia, errejimenttu gusticha egon deella Conttuban da cuidado eguin daichela, baita procedidu bere Jitanuen bagamunduen, da pecattu Publicuan dabilzanac Jangoicuan bildurbaga, Baita bere amenzebaubac, izandituala Castigaubac etta desterraubac.

6. Baitta bere Alcatte Jaunac daucala faculttadia moradore gustiac erritic bottazeco, urte bette yrago esquero baldin presenttazen esbajaco bere noblecia ó Ydalguicha, eguina Provinzian usazen daben legues etta lenagotic egonesquero nottificautta edocein bere Alcate Jaunec.

7. Baitta bere erricodan Alcatte Jaunac esttayala permittidu personai esconzettara Juatteric, yrugarren graduban haide esttanic, etta contu izan-deiquiala beguiracia esconsac diranian espaere multauba izangodala.

8. Baita bere egondella Conttuban Justicia Errejimentthu gustticha esteilla nombrau escribauzatt, habaderen semeric verrogeitta amar duca-tten penan bacoachac.

9. Baitta bere Justticia rejimenttubac errichan izenian esttaychala arthu diruric Censora mottibuac, da prettesttuac daucasala pensauaz estta necesidade aundiric, da urgenciaric baleuca bere Consejubaren izenian faculttade errialbaga, da bardin onela attrebimentturic arzen badabe procediducodala persona onen Contra rrigorosamente Leguiac aguinzen daben leguez, etta eguingodala onelaco Censuaren Erredencinua Alcatte Jaunaren, Errejidoren etta sindicubaren haciendettatic, da erri noblea, hizangodala libre da exempto onelaco Censuettatic.

10. Baitta bere Justticia, Errejimenttubac, esttaychala permittidu plaza publicuan tambolinic, es attabalic, es fiesttaric Jai quendu, da reformautta dagozanettatic, Aitta santtubac quendutta Daucasanac.

11. Baitta bere Justticichac procurau Daichala cuidado etta vigilanci andicharequin Castigazia erregueren contra dabilsanak, contrabanduan tabacuac pasazen Gastelera, Erregue Magesttariaren interes errialaren Contra, eta onec, dauquezala señalauta pena andichac, Castigubac, ala Consejo realac ifinita, baitta bere gure Provinciac Decretto, etta cedula errial ascotan gueure oneraco, baitha bere galdu esttittian gueure Ama Provinciacuan fueruac seina baitta combeni Jacusan, gueure liberttadera-co, da Pechupian es egotteco.

12. Baitta bere esttaychala permittidu Justticiac arzia da usazea tabacua esattendeuzena rapé franciacua ceña batta dagguan debecauta Gueure Erregue ganic, bost eun ducatten multtiaren azpichan da esttablecidutta dagozan penen beian da izatteco onelaquac desterraubac errichonetatic.

13. Baitta bere Justticia Jaunac Provinciaco erri gusttiettacuac bialdu daichela urtebarrico ylian, ceina baitta ustarrilian urtegusttiettacuan ttestimonio originala errico Conttu municipalettacua gasttelaco Consejo Errialera, da erregue Magesttariaren escribau nauci Camaracoaren escubettara berroguetta amar milla marabidiren penan, da osteruncian izangodala gueure erregueren Castiguba, ó Gracicha bere vorondattera.

14. Baitta bere Justticiac procurau Daichala, obserbau eraguitia gordecia falttabaga Correxidore Jaunac emoeban auttuba Arrateco fiesten gainian, baitta bere Provinciaco Decrettuan gainian seinettan

Conttenizendan debecacia Cazia, etta Pesquia Multta andichen gainian, da presentte euqui dayela astubaga.

15. Baitta bere gorde Deila Cumplidu da ejecuttau esaten daben legues gauza gusttian orainengo auttuba Providencietaqua, bere ogueta amasaspi Capittulubequin probeiduba gure Correjidore izanzana Provincia onettan Don Pedro Cano Mucientes baitha bere gueruago ettorri izandiran Decretto Errialac.

Jarduna

Guk iristen detsagu hau testuau libururuan agertzen dan polittenetakua izan leikiala eta, duda barik, merezi dabela euskera aldetik, hizkuntza aldetik, azterketa sakontxuagua. Perla bat baiño gehiago agiri dittu —gu bizi garan sasoiko euskeriakin konparatzen badogu behintzat— baiña ez dogu pentsatzen horregaittik testua irakorri eta ulertu ezin leikianik. Poliki-poliki...

Esan dogu, gaur ez gara filologietan sartuko eta, egixa esatera, ahozkotasun marka askorik be ez detsagu topauko. Ezin topau, ze ez ziran ahoz kantau eta belarriz ikasteko pentsau. Zelan, horrekin sintaxisorrekiñ? Iñork esan leike horretxetarako itzuli zirala, kalerik-kale irakortzeko pregoi-jotzailliak, kontuan izanda bestetik, irakortzen ekixazenak gaur baiño gitxiago izan zeikiazela. Ez dakigu **ordenanza** ziranak hola zabaltzen ziran ala ez, baiña nahiz eta hori guztia egixa izan leikian, horrenbesteko egixa be bada, eziñezkua begittantzen jakula ordenanzok ikasi ahal izatia, daken konplikaziñuekiñ, ahoz emonda. Gaiñera zer, ez dira ba, gizakume gitxi batzuendako bakarrik? Háretxeri entzun eragiñ eta listo! Ez, *definitivamente*, guk uste dogu ezin zeikiala izan ahoz aitzen emon eta jentia ikasi zeixazela pretenditzia.

Lehentxuago *gizakume gitxi batzuendako bakarrik* zirala esan dogu. Gregorio Mujicak oso ondo argitzen desku zelan egitten ziran elekziñuak eta zeintzuk izan zeikiazan elektoriak ⁵⁴, eta orduan sasoian danak gizonaezkuak izango ziralakuan gagoz. Horretxegaittik hasierako bokatibua, *Jaunac*.

(54) MUJICA, Gregorio: *Op. cit.*, 190-203. or.

Gitxi dakagu, bestela, komentatzeko. Biharbada aditz batzuen 3. personiaren erabilleria: *esteilla izan inor bere atrebiduba, Baitta bere gorde Deila*. Balio inpersonala agiri deskue ze ez dogu ahaztu bihar oso modu ekonomikua dala, izenik emon barik, bakoitxak jakin deitan berarendako be badala han agintzen dana. Honekin lotuta doiaz, baitta, artikulo askoren atzenian irakorri geinkezen abertenziak: *da Iaquina egondella, da Conttuban egonditjala, da presente euqui dayela astubaga*, guri neurri baten umetako kontuekiñ-edo, akordau eragitten deskuezenak, amaren ahotik bakarrik —zorrotz eta zuzen-zuzenian, hori bai— entzun genduzelako.

Oin zeuk

1.- Lehen esan dogu h6nen ordenanzon ortografixa eta puntuaziñua enredoso txamarra zala, anabasatxua. Zegaittik ez zara ahalegintzen ariñ eta airoso irakortzeko moduan ipintzen? Parrafuak laburtu, frase tartietan enlaziak bota... Jasotxuago.

2.- Nahixago izatera, euskera batuan ipintzen be ahalegindu zeinke.

3.- Eta... h6nen ideko beste batzuk egitten ausartzen zara? Klasia gobernatzeko edo zeure musikia / liburuak / erropia ez deitan edozeiñek nahi daben moduan erabilli...

5.- Del perdón de las ofensas

Juan zan gizaldixan, 1861etik 1873ra gitxienez, Agiña —Aginaga— auzoko San Miguel elizako erretoria Franzisko Arrate eibartarra izan zan. Berak eskribidutakuak ei dira Juan San Martiñek 1972xan Agiñan bertan topau zittuan 46 sermoi ⁵⁵. Eibarko euskeraz, hara, gaurko honen luzerakuak badira danak, aurkikuntza edarra eta garrantzitsua egin eban.

Ez dogu pentsatzen —ez dogu entzun behintzat— gaur dakargun hau argittaratu eta gero, beste bat be kaleratu danik eta uste dogu mereziko leukiala. San Martiñek berak esaten daben moduan, geure euskalkixa — eta euskeria dana— zabalago ezagutzeko oso komenigarrixak izango litzakez hónek testuok. Bestela alperrik dira. Jakiña, hobia da —ezer ez baiño hobia— bata hamen eta bestia han eta urte bira, baiña etaratzia. Oiñ, onena danak batera edo serie batian argitaratzia izango litzake, poliki nahi bada, baiña seguru.

Hori esanda, geure burua deskargatzia nahi dogu. Sermoia hamentxe daka irakorri nahi dabenak; gu, batzuetan, motzegi geldittu gara eta duda bat baiño gehixago gedittu jaku bidian. Holakuetan konturatzen da bat eten eta geldiuna egokixak egiñ eta ondo markatzia zelako inportantia dan. Eta norberaren intuiziñuak be, zenbat eta argixagua, orduan eta hutsune haundixaguak tapau lekiazel. Geuria, ostera, eskas txamar erabilli dogu, itxuria, testu honetan.

(55) SAN MARTIN, Juan: “Franzisko Arrateren sermoietarik bat, Eibarko euskaraz”, Iker-6, Euskaltzaindia, 1992. 435-449. or.

DEL PERDON DE LAS OFENSAS

Ego autem dix vobis: Diligite inimicos vestros benefacite his qui oderunt vos, orate pro persequentibus et caluniantibus vos.

Cristau eguichascuac esdau esanbiar judichuac lez bacarric obra asalecuac euquesenai onchat espada dirauscu Jesucristoc obren Santidadiadi gueitu biechala pureza intenciñoco eta viocheco suentasuna bacarric obra on olacochiequin espera gueinque Cerua. Ceun obra onac espadira perfectuaak eta fariseuenac baiño esaries sartuco Ceruan.

Ceinda bat lapurra dan es bacarric bestiari quenchiarren bere gaucia, baita bere decio esan dabelaco quencia, igualmente Sn. Juanec dirauscunes llegachenda guizona iltera es bacarric quenduric vicicha projimuari baita bere gorrotua euquiric bere contra. Orregatic dirascu Jc. aguinchen dechuet: amai deichusela gorrotachen oitua eta eguin deichosuela ondo gaisqui eguin dechuanari eta erregutu deichela perseguidu eta falso testimoniuaac jaso dechuecenegaitic.

Obligacino gach eta andia bacarric J^o. on batec ipini leiquiana eta bacarric berac bere graciaquin cumplidu gueinguina... Obligacino altu eta perfectua cumplidu esdabena judicho gentil eta bacarric Cristauei escachen jacuena Obligacino estu eta nai ta naiscua; bada bertatic dator arimaco baque unico anaitasunecua baque famelichacua eta baque verdadecua.

Sn. Pabloc esanetan Jesucristori: S Jc. nere anaiac ofendichen banau cenbat bidar parcaucochat? bastante da parcatua deichoran 6 zaspi bidar? Es contestau echan Jc., caspi bidar es da bastante parcatu biechasu ceure anaiari ola da eta beti, Mandamentu danen oservanchiac dichugu.

Juan discipulu eguichascuac beste guizonengandic; mandamentu jasochen ditua guizonen semiac Jn. semien dignidades da Mandamentu achenic ichi dabezena bere testamentuan cumpliduric berac lelengo curuchetic

escatu ebanian baque eta parcacinua bere berduguendaco: Aita Neuria parcatichosue.

Eingosuan acaso projimuac culpa bata abertidu baco bat broma fiestaco bat, falta eceves bat; acaso esango da cumplidu dabelaco abligacinuaq.n ceguidu gura esditalaco bestien perjuiciuac guero anbicino charrac preten-cino injustu eta falchuac. Achenic acaso esango da culpable desondradu gura esditala: gure pasinuac onore ontasun conciencia eta locha eta perjudicau balesun se interes eta deituan esanda bere injusticietaco /—/ Ceruco instru-mentu bat lez, modu orretan /—/ castigau gura izan dituana Jc. euren lujur-icha eta gaistaquericha secretucuegaitic. Baiña guc Ji. sor dechagu falta amaibacuagaiti —/ ascuegaitic /—/ eta viot /—/ gogorragaitic. Sor dechagu Ji. ainbeste mecede artutacuagaitic ainbeste escandalu emondacue-gaitic /—/ lapurreta maldecino murmuracino eta /—/ gaistaquericha egindacuegaitic /—/ Elizaco gauzetan

Ala projimuanac sor descuesenes eceves bachuc eta Ji. guc dechagus sor andi bachut. gauza sorprendentia! Jc. parcatu descucen instantetic sor andi-chac gure pecatuen injuricha andichac ondioc pe daucagus /—/ gure orgui-llua eta ecin convertidu gara parcachera projimuac eguin descusasan injuri-cha eceves bachut. Oindioc icusico gaitue alimentachen gorroto zarrac, une-tan guresta escandalo saltachen dabenac mundu gustian vistara, cecula esdo-gu cedido gura eta bildurres ori concediduric baque projimuez eta Jc. esca-chen descuna /—/ beragaitic.

Da bada fedeco gauza bat parcachen espadechagus projimuari egin descu-zan maldadiac Jc. pe esdescusela parcatuco. Cergaitic faltachen dosun gustian obligacinora ucatuac projimuari sor dechagun misericordicha bat. /—/ dau-casue obligacino bat usacheco misericordia /—/ cergatic munduco fameli-za andicha ecin leeguian vici, gorde ecic bata bestiandaco cadidadeco leguian.

Eta eguicha. Nun vilatucoda cecula guizon ain reservan bere juiciuetan ain ajustaua bere berbetan represino bacua bere condutan cecula inor ofen-

ditu esdabenic? Emenche bertan nundago cristau erabili esdituana asmu-
char icilecua asmacinohar desaire falso testimonio publicuac /——/ obra
gogorrescuac juicio arinac edo berba asaltuac esan esdituanic projimua-
ren contra? Nun dago guizon eguichas daiñoric eguin esdabenic edo per-
judicau esdechanic projimuari deitu edo interesetan? malesias espada lige-
reza eta consideracino baric? Bachuetan basara ofendituac beste bachue-
tan sara ofensoriac.

Libre bagengu gorrotachia eta archia benganchia ofenditu gaituan contra;
derecho. Iguala /——/ euci leuquie bestiac pe /——/ gorrotau ala venganchia
archeco gueure contra derecho ceñequin juango guinaquesen castigu baric
projimuaren vicicha acienda eta deituaren contra igualmente eraco leuque
projimuac pe castigu baric guere vicicha acienda, eta deituan contra joateco
ofenditu gaituenac egon biarco leuquie guere coleraco enojuaren vildurres
momentu bacochian, /——/ baiña gueuc pe momentu bacochian egon biarco
guenduque beran gorrotoco /——/ bildurres. Elichaques egongo, seguru
guere compañian ceinda gueuve egongo esquinchaquesen euren compañian.
fuertiena edo malesiosuena esango licaque afortunatuena aldencheco ves-
tien venganchatic: presisua esango licaque escutachia basuetan: inobe esli-
chaque egongo seguru es bere echian eta es iñonian. gustiac egongo licaques
bildurres billatuco ete diran guizon ilsailen batequin, famelicia esango lica-
que presicho bat lez, munduco bachar andia guizon burruquen circulu bat lez.
Naturalezaco lasua gustia ausico licaque. escutauco licaque confianchia
/——/ seguranchiac galduco licaque momentu bacochian ausico licaques
aisquiretasunac eta munduco bachar andicha etorrigo licaque ondachera. Eta
ainbeste ondamentin bistan Jc. ipini baric ichileique ofensen parcacinuan
mandamentua? Bai mandamentu ori da.

Sigue, del perdón del enemigo

ural eta necesarichua da munduco bachar andichan fundamentua. Ce
ederra justu eta viarra dan, eta parcacinoco erechichen demasean manda-

mentu ondo (sic) deichesuenoc gogorra, Considerau suc bestiac pe obligacheituala parcachera.

Cenbatec ceuc esdaquisuela confesorian consejuz edo conversino eguichasco baten virtutes enchun dabelaco /——/ parcacinoco Sermoi Santu bat abandonau dabe ofendichia edo ichideche acusacino murmuracino eta falso testimoniueri galduco cinuecenac beti? Gaur gozachen bosue baquia eta basara dichosuac, sordechasua Jc. ceueri parcacheco bestieri ipini dechen mandamentuari. Ah! bestiac gorderic mandamentu ori, eguin badabe gustia ceun provechuraco. Cergatic suec eguines esdosue eser euren provechuraco gorderic mandamentu ori? Gurosue egon dein mandamentu bat, locheco bestic min (sic) eta obrac? eta ceundaco libre? Gurosue parcatuac esansaitiasen parcatu baric bestieri? Gurosue eguin daquisuen justicia daiñuac eguin dechuesenari eta ceun falta pecatu eta gaistaquerichac astu eta parcatuac es anditisen betico? Gurosue justici osua bestiendaco eta ceundaco bacarric misericordicha? Gurosue bestiac viar eguindeicen pagau baric, baiña ceuc aldan gustia quenduta. Yaque beste nauci bajo eta igualac parcatu dechuen eguin biosue beste ainbeste. Es dosue eguiten bada erremedicho baric ba janés juango saries infernuco su isugarrichetara.

Ofensoriac topachen espadau bere necesidadietara Cadidadecoric apoioric gueugan; ecin gueinque espera graciatic Jn. precencian.

Gura espadosue euquichia berbaeratic ceuen enemiguaquin eta idistia Jc.pe esaitu icusi guraco eta gorde guraco bere compañian. Ceun enemigua sarchen /——/ esposu ceun viochetan ceuc pe esaries sartuco Jn. vioteta amorichuan. Usauco da ceuequin neurri iguala ceinda ceuc usachen dosuen bestiegn. viotchian daucasuen artian gorroto eta venganza ori, religinoco obra onac esdechue balicho ceruraco eta /——/ Eliza ama Santiac botacochus decreto Condenacinoenac ucatu bendecino Santua eriochaco orduan. Es ceun oracino luciatic, es ceun limosna andichac es vareu es Mesa es ceun penitencia andichac aisquiratuco saitue Jn.

Errezachen dosuenian Aitaguria esaten dosue: Parcatigusus guere sorrac gueuc parcachen dehegun lez gueure sorduneri au da suplicachechugu trata-gaisucenla geuc tratachen ditugun lez bestiac eta parcatu ecic edo parcaturic gaisqui esaten dehasu Ji. oracino orretan: parcachen espenchegu ofendichen gaitueneri, erreuchechugu esdaigusula parcatu.

Aretara viotgorrotu envidichen eta rezentimentus beteric projimuan contra oracino ori errezachen dosunian, desafichachen dosue J^o. eta provocauric guerrria odichuari odichuagaitic. Conformachen sara esdala egon suendaco es parcacinoric eta es amorichoric. Suen oracinua convertichen da orduan maldiciñuan. aichu biar lezquisunac parcacinua provocachen dau /——/ Jn. enojua. Jecristoc dirauscu suetatic bacoachac parcachen espeche viocheti bere anaieri esango dira condenauac baiña parcachen beche esango dira pagauac.

Ola bondadian Ola Jn. humailtasuna! Ofenza sarritan ceinchuequin quejachen garan sarrichagotan dira beguitancino bachuc /——/ aprensino bachuc eguichascuac baiño. Sarritan esan dira eguinac maglesia eta intenciño char baric, sarritan esan dira provocau eta medeciduac guere partetic; baiña Ji. eguin dechaguzan ofensac esan dira eguinac malecia gustiaquin, esquergais-totasun gustiaquin. Ofenditu dogu J^o. maguestade eta grandeza amaibacua gauza gustien Criadoria guere Jn. eta javia. Mundu gustico Erregia

Eta orraitio bere J^o onac gura dau comprendichia esan dein guizoneri aguinduechen mandamentu onetan jartzen da condecino igualian, igualacheitu bere derechuac criaturianaquin obligachen da parcachera parcachen bechegu guere anaieri.

dichosua bada cristau parcachen dituana generosidade gustiaquin ofensa eguin dechesanac. Cergatic asegurachen daben ciurtasunaqn. Jn. Contra eguin dituan ofensen parcacinua, eta apuntau leiquian Jesusen odolaqn. bere izena justuen liburuan.

Enemiguendaco amorichua da agradabliago J^o. martirichua bera baiño eta dirasen Sn. Gregorioc Sn. Estebanegaitic medecien ebalá gueisago erregutu ebalaco verduguegaitic bere vicichia emoebalaco Jesusegaitic baino. Sn. Juan Galvertoc /—/ bere anai ilebanari parcatu vicioetic eta librauric /—/ vicichatic sartu san Elicha baten escacheco Ji. bere falten parcacinua eta oracianuan euala S^o Cristuan aurrian icusi eban S^o Crist^o movichen vurua beragaz dirachala buruaqn. Cein da ceuc parcatu ditusun neuc pe parcachen dechudas. Jesto. dirasen ofensen parcacinua urten biar dabela viotchetic berba orretan Conde (sic) disputa eta asarre publicuac baita bere asarre suave eta bildurrescuan eta resentimentu cecretucuac barrucorrec armachen espada be be ofendichian besua ichulcheco ofensorian odola; armachen dabe orraitic bere intencino eta miña galcheco bere ondra eta ederto balicho dabena gueichago baiño.

Eguichas enchuten da esaten: nic esdot gorrotachen nere enemigua; baiña ecin astu jata eguin destasen malac esdauca vorndate charric; baiña esdot gura eser berag.n es daucat viochian gorrotoric baiña esdot icusi gura nere presencian. Orra parcache modu bat berbas baiña es efectus.

Eta eguichas dirauco Sn. Juan Crisostomoc gustauco lequisu J.c paruchia modu onetan? Gustauco lequisu J.c esango balechu: parcachen dechudas ofensac, es dechut gura malic, baiña esdechut desio icustia nere urrian? Gustauco lesquisu J.c asolviduric erainic ichuran lurrian. Conferc. parcatu es espalechu Ceruan? Esango lichaque ori parcacino eguichascubat J.n partetic? Orain bada suen parcacinua da ichurasco bat al salaco bt, cergatic urtechen esbaden viochetic.

dagos beste bachuc hipocrita eta falso bachuc visitache / ituenac ofendichen dituenac errecibidu echian. Saludau convidau eta alabanchas betecheituenac; baiña achetic biar eguiten dabe erreba jachen bere deitua murmuracino charrañqn.

/—/ Es dira geldichen intriga escutueqn. bajachen bere utilidadiac eta trastornachen /—/ bere vicimodua es dira geldichen asmo bere intriga aspijan eta gusurres.

Bada au gustia es da bestegausaric gorroto envidicha vengancha eguichascu bat.

Es dot esangura orraitio be daladirala biar jacola gorrotoco ceñaillic bat colera eta odolac iciotuta bere cenetic urten da, esper (sic) tachia gorroto bat icustias beste baric enemigua enchutias beste baric bere berbia bates bere eria frescua dananian movimentu pronto colera eta odoleco onec errezoian aurretic urtechen dabenac geungandic guere vorondatia parte artu baric eurentan dira naturalezan movimentu bachuc culpa bacuac an eta llegau leiquezenac esatera meritucuac procurachen bogu guenchen /—— ———/

Acordau saite Sn. Cristobal Martiri Andichag.n artu eban plaza publicuan matraillaco bat persona baju batengandic bere colera euan coleras beteric an eizan ofensorian gainera bota eban lurrera eta etaric bere espatia juan iltera. Baiña acordauric prontuan mandamendu onequin /——/ urteban coleratic gorde eban espatia eta vueltauric erri diar eguitebanagana: Ildeila atrevidua... contestau eban: neuc ilgo neuque cristaua espanis

Generosidade onen urrengo llegau zan ezatera Mar Sn. Andi eta Martir andi bat gerrerosua lurrian eta gloriosua Ceruan.

Modu onetan eranchun biechagu pasiño tentachen gaituanari eta mundu movichen gaituanari venganzara Ez gara Cristauac. Bada cristau eta guizon parcachen dabena.

Quendu deigun guere enemiguac daiñacheco asmo gustiac viurtu gaitian guere amistadeta eta amorichora eta gorpucheco velarrichequin espada ve guichienes /——/ arimacueq.n Enchun gozaua Espiritu Santuari amorichoco verbac. asegurauc descuenac guere parcacinau consolauco gaituana vichan cendatu eriochaco orduan eta eregui biena venturanchaco atia.

Amen

Hau bai sermoia!

San Martiñek diñosku Arrate honen sermoi guztiak erderazko titulua dakarrela, bat be titulurik ez dakan bat kenduta, jakiña; eta geuriak be daukana dauka. Latiñian —*divinas palabras*— dator ostian sermoiaren atarrikua egitten daban zatia: *Nik, halandabe, hauxe diñotsuet: Maitte egizuez zuen etsaiak, mesede egixezue gorrotua desio detsueneri eta errezau egizue persegitzen eta iraindu egitten zaittuenen alde*. Agindu behintzat, ekiñ orduko.

Goratuago idatzi dogu badittuala honek sermoionek pasarte illunak, sasixak hartutako paraje garbixen modura. Dana dala, gaixa ez da ezkutu gelditzen eta titulutik aurreratzen dau Arratek: barkamena. Hurkuari barkatziaren garrantzixa, Jainkuak norberari barkatu degixon eta horretara zerua alkanzau ahal izateko. Hasieria politta daka, *obra asalecu-eri pureza intenciñoco eta viocheco sucentasuna* gehittu bihar ei jakoz. *Ceinda bat lapurra dan es bacarric bestiari quencharren bere gaucia, baita bere decio esan dabelaco quencia (...)* Orregatik dirauscu Jc. *Aguinchen dechuet: amai deichusela gorrotachen oituana eta eguin deichosuela ondo gaisqui eguin dechuanari...* Eta behiñ oiñarrixa —bigarren parrafuan— bota dabenian, hortik aurrera *parcacinua*-ren inguruan ibiliko da, zuzenetik eta kontrakotik, goittik eta behetik, ezkerretik eta eskumatik. Hiru puntako argumentuekin dihardu beti: Hurkua eta norbera, norbera eta hurkua, eta Jainkua juez eta sari partitzaille nagusixa. Barkatziak ondoren goxo asko dakarrez-eta: lehelengo lurrian, bakian eta etsai barik bizi izateko —eta Kristo bera hasarratu eragin barik— eta horren ostetik, gaiñera, betiko bizimodu zerukua. Puntu honetan badaki abadiak zelan ikutu fededunen bihotza: *Errezachen dosuenian Aitaguria esaten dosue: Parcatigusus guere sorrac gueuc parcachen dechegun lez gueure sorduneri*; eta diñogu badakixala zer esaten daben ze hor halako “libertade” baten bizi dirala nahi detse siñistu eragin. Zein-da esango baletse moduan: Zeure kasara errezatzen dozuen Aitagurian, ez dozue zeuek hori eskatzen? Ba, beteizue zeuek lehelengo, zuek zeuok eskatzen dozuena!

Sermoi baten ezin falta entzuliendako deiak edo referenziak: *Ceun obra onac, aguinchen dechuet: amai deichusela ...*, *Cenbatec ceuc esdaquisuela, Gaur gozachen bosue baquia eta basara dichosuac*, banaka batzuek bakarrik ipintziarren. Azkenekua apropos ekarri dogu; aditzian —izenordian ez— sarrittan agertuko jaku hori berezittasunori: guretako gaur singularra dan persona erabiltzia **zuek**-en esanahixakiñ. Ondiokan aillegauko da 2000. urtera hori holantxe erabiltzen daben bateronbat.

Estilua klasiko txamarra da batzuetan, zahar gustokua baiña oso eleganta: *Baiña acordauric prontuan mandamendu onequin /—/ urteban coleratic gorde eban espatia eta vueltauric erri diar eguitebanagana: Ildeila atrevidua... contestau eban: neuc ilgo neuque cristaua espanis*. Iñoiz oraziño oso luziak jaurtitzen dittu eta hurrenguekin lotzeko premiña dakan aldetik *Ceinda, cergatic, Ce, ceiñequin, Yaque-* eta abarren moduko enlaziak sartu biharrian dabill; hori bai, aditzian subordinaziño markia iñoiz ahaztu barik: *dichosua bada cristau parcachen dituana generosidade gustiaquin ofensa egin dechesenac. Cergatic asegurachen daben(...) parcacinua*. Ez jako behin be pasatzen hori atzizkiori.

Oso gustokuak dittu, baitta be, serieak, sintagmen pillaketak. Hiru elementukuak (*Obligacino gach eta andia...Obligacino altu eta perfectua...Obligacino estu eta nai ta naiscua*), laukuak (*arimaco baque unicho anaitasunecua baque famelichacua eta baque verdadecua*) eta iñoiz luziaguak be bai (*Emenche bertan nundago cristau erabili esdituana asmu-char icilecua asmacinochar desaire falso testimonio publicuac /—/ obra gogorrescuac juicio arinac edo berba asaltuac esan esdituanic projimuaren contra?*) Eta, ikusten dan moduan, askotan ez dau tartietan ezer idazten. Baiña serien indarrian konfiantza haundixa daka. Retorika zaharreko leziñua.

Galdera retorikuetarako be —erantzunik eskatzen ez daben galderak, danok dakiguzelako— badaka jokeria: Beratzigarren eta hamabigarren parrafuak ondo erakusten deskue esaten doguna.

Eta prozedimientuen hau katalogo txikixau amaitzeko, aipu edo zitak aittatu gura doguz. San Juan, San Pablo, San Juan Crisostomo... eta Jesukristoren beraren berbak, jakiña, hortxe agertzen jakuz, Franzisko Arratek bere ardi pekatarixeri bide zuzena erakusteko ekarritta. Autoridade-argumentua deitzen jakon lehen.

Eztabaidatxua

Balio dau ezertarako barkatziak? Franzisko Arratek erakusten daban beste?

Barkatu eta ahaztu, ala ahaztia ez da komeni?

Barkamena balore kristaua da? Kristaua bakarrik?

Barkamena eta justizia, bata bestiaren kontrakuak dira?

Barkatzen dakixenetakua zara? Zegaittik? Zer espero dozu bestiengandik?

Barkamena maittasun seiñalia da? Ala desinteresaua izan bihar da?

6.- Caleco biarguiñac basarricueri

Aspaldi batean, Eibarko sozialisten alderdiak argitara ematen zuen Adelante aldizkariaren orrixken artean, 1902. urteko orrialdeen artean zuzenki “Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen” izeneko manifestua agertu da Pablo Iglesias Fundazioan, norbaitek, egunen batean deskuidoz han utzi izan balu bezela. ⁵⁶ Ez dakigu, beraz, *¡Adelante!*-rekin batera partidu ete zan ala ez, ezta 1902. urtekua dan ala beste iñoizkua. Aatoria zein dan be ez dakigu.

Emon daigun baietz, *¡Adelante!*-n agertu zala edo *¡Adelante!*-kin batera. 1902. urtekua ez bada, *urte guchi* beranduagokua izango da: *Sosiedadiac* mende hasiera-hasiera horretxetakuak dira ⁵⁷. Bestetik, testuan emoten dau idazliaren sokakuak —sozialistak hurrian— ez ekela artian kontzejalik eta badakigu estraiñekua 1903-1904an etara ebela ⁵⁸. *¡Adelante!* aldizkaritxua bera be (hamabostian behiñ? ⁵⁹, astian behiñ? ⁶⁰) 1900-1920 bittartian kaleratu ei zan ⁶¹, lehelengo urtietan sarrixago, gero-
ra ahal izan zanian.

(56) AZPIRI, Begoña: “*Caleco biarguiñac basarricueri elesiñuen gañian* edo eguneroko kontuak euskaraz eman ezina gezurtatzen duen testua”, SENEZ: Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria, E.I.Z.I.E., Donostia, 1991 (I). 117-119. or.

(57) ZELAIA, P.: Eibarko historiaren laburpena, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Eibar, 1994. 56-57. or.

(58) PAUL ARZAK, J.I.: Eibarko sozialismoa, Kriselu, Donostia, 1978. 19. or. Toribio Etxebarriak, ostera, diño eze lehelengua 1908xan alkanzau ebela: Esteban Barrutia. (Viaje por el país de los recuerdos (2. ed.), Eibarko Udala-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, Donostia, 1990. 40. or. 1go. ed., Mexiko, 1968).

(59) Idem., 57. or.

(60) ECHEVARRIA, Toribio: Viaje por el país de los recuerdos (2. ed.), Eibarko Udala-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, Donostia, 1990. 192, 202. or. (1go. ed., Mexiko, 1968).

(61) PAUL ARZAK, J.I.: Op. cit., 6, 19. or.

Autoria? Baleike, Begoña Azpirik pentsatzen dabean moduan, Aquilino Amuategi izatia, baiña ezin geinke seguru esan. Edozein modutan, Aquilino Amuategi 1919ko udabarrizan hil zan ⁶².

Eibarko euskeria dala eta ez dala jardutzeko goguz dabillenari, bi rekomendaziño irakortzeko: lehenago be aittatu doten Antxon Narbaizaren liburua (ik. 27. oharra) eta Toribioren Viaje-ko *Aquilino Amuategi* kapitulutxua ⁶³. Hona testua:

Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen gañian

Elesiñuetaco demporan icustendosue bastarra gustiac comprometitzen sela ibiltzen diran votua quentzeco, eta gueyena gusurra, jaunchuac voto batzallien bitartes darabiena; eta onegaichic pentzaudogu caleco biarguiñoc basarricueri, aitzen ematia serbait ser pasatzendan calian.

Urte guchi dala biarguiñoc guengosen, ascomodutaco ugasaben gusurrequin biarreco presiuac galduta, alcarren beserueri campuan mercatzen etzen armia, eta bearguiñen lepora jausten sen erresultaua; merqueta ondo sela esiñ leiquian eiñ biarric, escopetia desacreditauas oian egunetic egunera, eta orregatic biarra guichitzen, ala eta gusti ere basarrico mutilles betetzen tallar gustiac eta gentia sobratzen san, gueuc ere lenas gañera alcarren contra mercatzenraño, eta gueldituguiñan criauric ere mantenidu esiñ eta atzera euren echetara bialtcen guendusela.

Eta biarric charrenac eguiten situen ugasabac, errico biarra desacreditatzen sutenac, amar valio suen gausegachic iru aintzen suenac, eta erria osticopian artzen se biltzanac, gure desgrasiac aprovechauta dirua aurreraterá llegalausiran, eta gaur dirua daucana sela dan jauna, nais eta edoser isan, pentsaisu selaco jaunchuac diran batzuec, ichu ichuan votua emoteco.

(62) ECHEVARRIA, Toribio: Op. cit., 303. or.

(63) Idem., 33-36. or.

Piscabac mejoratzeco pentzau guenduan biarguiñen Sosiedadia eichia; presio obiac ipiñi gueure biarrerri, gueuc probauta biarra entregau ugasaberi acreditaudeiñ escopetia, eta criau larregui es artu, esta beste onelaco errian comenisiran gausa on batzuec eicheco.

¿Uste dosue aintzallec, uguesaba aundic, edo jaunchoc lagunduescunic?

Ona sala ori danac esaten escuen, baña iñoc ere es lagundu; eta gueuc biarguiñ guisajuoc maquiñabat gau eta dempora galduta, eta pauso emonda conseguidu guenduan ofisiuetaco Sosiedadiac eichia, eta desio guendus en gausa asco conseguitzia; eta gaur dagos Eibarren Sosiedadiac presiuac jaso eta jateco beste irabastendabela len irabasten es eban asco; biarra obia eichenda eta gente guchiago sobratzenda oraiñ, biarran creditua gueichu da, eta errira dator asco diru gueyago; eta calia sembat obeto dabillen basarria ere obeto ibiltzendana danac daquigu; eta gura dogu ejempluau erri gustian sabaldu, biarguiñ gustiac gheu besala obeto jarri deichian, eta danoc bat eiñda iñdar gueyago daucagulaco, eusteco conseguidu dichugun gauseri eta aurre-
rá juateco asi garan birian.

Dabiltzas oraiñ jaunguac nundic gure sosiedade ederrac apurtuco, eta nundic biarguiñoc benderago artuco, eta nundic lagun batibe biarguiñan alde-
cari Ayuntamientoura juaten es lagaco; eurac nai daben moduan erria maneja-
tzeco; eta aspertugará osticopian euquigura gaichuen guisonac gueure votue-
quiñ gueuc aintzen ipinches.

Orregaichic lenguan batuguiñan saloyan biarguiñ daneri deichuta, eta pentzatu guenduan gueure artian apartautaco guisonac Sosiedadiequiñ eta biarguiñequiñ ondo beti portau diranac eruatia gueure votuequiñ Ayuntamientoura, biarguiña defenditzeco.

Sobre larregui desgrasias icusi dogu, goicharrac eta betarrocc biarguiñen mejoren contrariuac dirana, eta gueuc apartauta cuac gueure votuequiñ atara-
tzen es badichugu contrariua besteric aintzen euquico estoguna.

Caleco biarguiñac eiñgo dogu aleguiña biarguiñari triunfua emoten; emen votua voto dala, seguru daucagu triunfua; baña basarricueri besela amenasuac emoten descues, vоторic votatzen es badogu contrariuan favore, echetic quentzeco aintzeraño.

Baña votua sela dan norberac naidabenari votatzeco, votantiac nai dabe-

na aintzen ipiñheco, es edoseiñ guisonec iñori quendutaco votuequiñ berari conveni jacosen guisonac aintzen ipiñheco: leguian debecauta dago iñori votua quentzia amenasuequiñ eta compromisuequiñ; nai saltzia eta nais eros-tia, nais aintzia voto truque edoser gausa, nais venetan, nais gusurrarequiñ generalian eichen daben moduan.

Eta guc biarguiñoc gura dogu votua voto isandeilla, Ayuntamientoco eiñ deichian erriac nai dichuan guisonac, eta es comprometedorienac eta tramposuenac. Orregachic quejauco gara biardan lecura, votua biar estan moduan quentzen dabeneigaichic, eta justicia billa jua gausia isandein biardan moduan, eta topatzen es badogu es daualaco biarguiñari norc entzun arrosairic; gueu obligauco gará eichera. Eta uste dogu suer ere lagunduco descusuna gausa guichibat biarguiñan favorecuac ataratzen.

Biarguiñen parteco comisiñaua.

Testuaren harira

Titulutik bertatik agiri dau honek testuonek zer dan. Eta da botua eskatzeko diskurso bat, gaur egun edozeiñ elekziñotako mitin baten entzun ahal izango gendukian diskurso bat. Ahozko markez jositta, guk borradore baten traza guztia hartzen detsagu. Esan gura dogu ez litzakiala oso gatxa izango idatzitta daguanakiñ bakarrik ahozko diskurso bat bota ahal izatia.

Estrukturia oso ondo pentsauta daka honek *Caleco* honek. Lehelengo partian, testua idaztiaren arrazoia dakagu, zetarako dan aurkeztia: *caleco biarguiñoc basarricueri, aitzen ematia serbait ser pasatzendan calian*. Aurreneko parrafua betetzen dau honek lehelengo zatixonek. Bigarrena, historixan zihar eta uezaben arduragabekerixen aurrian, bihargiñen logruak —*biarguiñen Sociedadia eta ofisiuetako Sociadadiac*⁶⁴— eta hónetxek logruok dakezen

(64) Ez dakigu bixak gauza bat diran, ala lehelengua *Gremio Obrero* eta bigarrena, *Federación de Sociedades Obreras* ete diran. Horren gaiñian, ikusi CELAYA OLABARRRI, P.: *Eibar. Síntesis de monografía histórica*. Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, San Sebastián, 1970. 56-68. or., bereziki 65.a.

bentajak aittatzia. Bigarren parte honek referenzia ezin zuzenago batekin mobidu nahi dau irakortzailliaren animua ugezaben kontra; hain zuzen honoko galdera retoriko honekiñ: *¿Uste dosue aintzallec, uguesaba aundiac, edo jaunchuac lagunduescunic?* Erantzuna bertan: *Ona sala ori danac esaten escuen, baña iñoc ere es lagundu;* eta halandabe, *gaur dagos Eibarren Sosiedadiac*, eta *Sosiedadion* alde onak pasatzen dittu ondoren. Juandako denporetatik gaurkotasunera bajatziak —orduan orduko gaurkotasunera, jakiña— bidia errezten detsa autoriari benetan interesatzen jakon puntura —hirugarren partia osatzen dabena— aillegatzeko: jauntxuen amenazuen gaiñetik eta langillien alde, *uste dogu suec ere lagunduco descusuna gausa guichibat biarguiñan favorecuac atarutzen*. Botua eskatzia, azkenian. Zegaittik eze, gorago esan daberen moduan: *calia sembat obeto dabillen basarria ere obeto ibiltzen-dana danac daquigu*. Politta arrazoia eta artistia politikua!

Testu honek —testu zahar guztiak legeztxe— biharko leuke azterketa filologiko barrukuagua, baiña beste zeregin bat daukagu gaurkuan eta bego, ba, horretan.

Oso nabarmena dana da, ostera be, oraziñuak luziegixak dirala: hasi bai, baiña amaitziakiñ ahaztu. Subordinaziñua be badago, kontuz, testu aberatsa da, baiña bittartian kopulaziñua —eta...eta...— asko erabiltzen da, larregi biharbada: *Ona sala ori danac esaten escuen, baña iñoc ere es lagundu; eta gueuc biarguiñ guisajuoc makiñabat gau eta denpora galduta, eta pauso emonda, conseguidu guenduan ofisiuetaco Sosiedadiac eichia, eta desio guendusen gausa asco conseguitzia; eta gaur dagos Eibarren Sosiedadiac presiuc jaso eta jateco beste irabastendabela...* Testuaren puntuaziñoa, beste alde batetik, batzuetan eskasa da. Hori, bat —kopulaziñua—; beste bat da irakortzailliari zuzenian edo 2. pertsonan, disimuluan, egitten jakozen referenziak: *icustendosue*, *basarricueri*, *pentsaisu*, *Uste dosue*, *basarria*, *suec ere lagunduco descusuna...* Eta hirugarren ezaugarri bat, ahozkuaren barra-barra erabiltzen dan forma bat baiño gehixago manejatzen dabela da, baten batzuek, gaiñera, askotan: *icustendosue (...)* *sela ibiltzen diran*, *merqueta ondo sela esiñ leiquian*, *gaur dirua daucana sela dan jauna*, *Baña votua sela dan norberac naidabenari votatzeco*. Baitta deiktikuak be: *eta*

orregaichic pentzaudogu, eta *orregatic* biarra guichitzen, *Orregaichic* lenguan, *Orregachic* quejauco gara... Hónek hiru markok oso garrantzi haundi-kuak begittandu jakuz testuari dakan ahozko karakterra ezartzeko.

Beste batzuek be topau detsaguz baiña. Esan dogu irakortzailliari referen-zia zuzenak egitten jakozela; ba, horrekin batera, oso dialektika politta anto-latzen dau autoriak *caleco biarguiñoc*, *gueuc*, *pentzau guenduan*, *gueuc biarguin guisajuoc*, *conseguidu guenduan*, *gura dogu*, *gure sosiedade ederrac*, *batuguiñan*, eta holakuak sartziakin. Badago hor halako “alkarrizketia” ezkutukua —kalia eta basarrixa— testuari progresiño ariña eragitten detsana. Gaiñera, ez genduke nahi komentau barik laga titulutik bertatik filosofixa bat darixola testuari; hain zuzen, nahiz kalekuak nahiz basarrikuak, danak dira bihargiñak: *Caleco biargiñac Basarricueri* (= basarriko bihargiñeri). Hau anaittasun edo unibersalidadiu orduko sozialismuaren teorixan oso sartuta eguan. Beste notatxo bat: testu honetako sozialismuak *goicharrac* —republi-kanuak— eta *betarro* —eskumako pentsakerakuak— kontrarixotzat hartzen dittu, baiña 1903 eta 1907 urtien arteko elekziño eta agintaldixetan sarrittan republikanuekin batera jokatu eban ⁶⁵. Dana dala, kontrarixorik haundiñak ugezabak dira, bihargiñen —kaleko zein basarriko— kontrapuntua, beste puntako muturrekuak.

Pasarte batzuetan esakera edo *cliché* jatorrak be topau dittugu: *sela merquetaondo esiñ leiquian*, *emen votua voto dala*, *gura dogu votua voto isandeilla*; eta berba gusto haundiakuak: *ascomodutaco ugasaben*, *osticopian*, *Ayuntamentuco eiñ...*

Repetiziño eta paralelismo batzuekin ritmua diskurso batekua konsegi-tzen da, hara: “*biarra obia eichen da* eta *gente guchiago sobratzen da oraiñ*; *biarran creditua gueichu da*, eta *errira dator asco diru gueyago*”, “*Dabiltzas oraiñ jauncquac nundic* gure *sosiedade ederrac apurtuco*, eta *nundic* *biarguiñoc benderago artuco*, eta *nundic* *lagun batibe biarguiñan aldecar* *Ayuntamentura juaten ez lagaco*”, “*Baña votua sela dan norberac naida-benari votatzeco*, *votantiac nai dabena aintzen ipiñheco*, *es edoseiñ guiso-*

(65) PAUL ARZAK, J.I.: *Op. cit.*, 19-20. or.

*nec iñori quendutaco votuequiñ berari conveni jacosen guisonac **aintzen ipiñcheco**” , “**nai saltzia eta nais erostia, nais aintzia voto truke edoser gausa, nais venetan, nais gusurrarequiñ generalian eichen daben moduan**”. Generalian ritmua oso egokixa da eta pentsatzen dogu hau testuau idatzi ebanak zeozer baiño gehituago baekixala retorikiaren gaiñian edo, bestela, lehenago be jardundakua zala antzerako biharretan. Momentu asko dakaz onak, baiña bat dago, guretako, magistrala; pasadutik presentera pasatzeko, eta gaur erabiltzen dabenekua: *Ona sala ori (...) conseguidu guenduan ofisiuetaco Sosiedadiac eichia, eta desio guendus en gausa asco conseguitzia; eta gaur dagos Eibarren Sosiedadiac presiuac jaso eta jateco beste irabastendabela...**

Amaittu egin bihar dogu. Zakarkerixetan ibilli barik egin leikez gauzak, botua eskatu be bai. Hau *Caleco* haxe da muestria. Biharginen burrukiaren harrotasuna erakusten dau, danok batera jardutziaren indarra, eta baikortasuna, optimismua dakarkigu espirituaren barruetaraiño.

Biren artekua

1.- Lagun biri gai bat emonda —ahalik eta zihatzena— prestau deixela diskurso bana, gero danen aurrian botatzeko. Erabilli deixezela nahi beste arrazoi, figura edo baliabide, baiña **danak ahozkuak**. Entzuliak juzgauko dau zeinek egin daben onduen.

7.- Bertso eta kantu batzuk

Ahokotasunaren inguruko azken atal honetara kantu eta bertso batzuk ekarri doguz —baten batzuek bakarrik, gehixago be badira-eta— baiña ez dogu jardungo, aurrekuetan bezela, analizatzen eta abarretan. Testuok emon, argibideren bat edo beste eta hórretxekin nahi dogu amaitzia. Badakigu, gaiñera, Eibarko Udalak badaukala beste taldetxo bat herrixan kantatzen diran ahalik eta gehixenak batzeko preparatzen eta seguru horrek ekipuorrek frutu mamintsuagua ekarriko dabela denpora asko baiño lehen. Guk hónetxek:

ATXIA MOTXIA	TXALO PIN TXALO	GABON
Atxia motxia perolipan, zure semia errotan; errotara nindoiala billatu neban euli bat: etara netsan begi bat, klin-klan, klin-klan, Errota txikixa, klin- klan, klin-klan, klin-klan.	Txalo-pin txalo, Txalo-pin txalo. Katutxua mispilla gaiñian dago. Badago, bego, bego, badago, zapatatxo barrieri begira dago.	Astelena, martitzena, Eguaztenian, Zozuak kantatzen dau Manueltxonian. Ogixa jan ta hil, Artua jan ta piztu, biba Manuel Txistu!

Hiru hónetatik lehelengua eta bigarrena oso ezagunak dira —biharbada, hirugarrena be bai baiña, egixa esanda, ez gara larregi ahalegindu konprobatzen— eta errez entzun leikez ondiokan edade bateko jendiari preguntauta. Bata zein bestiak ume-kantuak dira eta baleike hirugarrena be moltzo berekua izatia. Guk, Asier Sarasuak eta Itziar Alberdik pasauta, Eibarko Udal Artxibuan dagan kantu bilduma ⁶⁶ barri eta biltzailliaren izen bako batetik etara doguz hirurak.

(66) Eibarko kantuen bilduma.

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

HIRU GIZON ILUSTRE

Hiru gizon ilustre iturri bidetik,
mozkor-mozkor eginda Elgeta kaletik.
Aulestik heltzen zion Loperi besotik
ez muzturrez aurrera, ez erortziagaittik.

La esposa decía: “Hiriagaittikan
no le puedo sacarle Tocayonetikan
porque le gusta tanto napar beltzetikan.
No le gustará tanto Urkusuko urikan”

Urkusuko iturrixak baleki berbetan,
zerbait esango leuke astelehen goizetan

ARRAGUETA KALIAN

I

Arragueta kalia
merienda haundixa:
Bost atsoren artian,
sei azunbre ixa.
Jarri ziradenian
mozkortuta ixa
alkarri erakusten, maittia,
Tutulu mendixa.

II

Batak beltza zuela,
bestiak zurixa;
jarritako tokian
egin zuten pixa.
Handik formatu zan
Eibarko ibaixa;
atzeruzka jausitxa, maittia,
itto ziran ixa.

III

Orduan egin zuten
apostu alaixa:
Nork urriñago egiñ
zutiñikan pixa.
Bost andrak jarririkan
oñalian pixa,
ikustekua ei zan, maittia,
haura itturrixa.

IV

Ataiko ate batetik
beste atairaiño
gehiago egongo dira
zazpi metro baiño.
Pantxikatxo gaixoa
txikixa da baiño
pixa egin omen du, maittia,
beste atairaiño.

V

Josepa ta Kataliñ,
Petra ta Marixa,
urriñen egin zuena
Pantxika txikixa.
Egixa baldin bada
haura istorixa,
ederki uzi zuten, maittia,
Eibarko herrixa.

Hiru gizon ilustre-ren lehelengo zatixaren bersiñuak (ez erortziagaittik horretaraino) oso ezagunak dira herri askotan ⁶⁷; hortik aurrerakua, kanziñua erdixa euskeraz eta erdixa erderaz osatzen dabe n tradiziño baten barruan sartu biharko genduke. Pertsona eta leku-izenak Eibarkuak dira. Hau kantua oin dala urtiak *Recordando al Trío Lazpita* ⁶⁸ izeneko zintta baten dago grabata. Hantxe zinttan bazan beste bat, *Libertadia*, politta, Jose Inazio Ansorenak bere Euskal kantak liburuan be badakarrena ⁶⁹.

Bigarrena be oso entzuna da Eibarren. Ez dau emoten oso bertso zaharrek diranik, baiña badake, duda barik, euren grazia. *Los hombres son unos pícaros / que fingen falsos amores;/ después de chupar las flores / abandonan el jardín* erderazko abestiaren musikiarekin kantatzen ei da. Hónek kantu bixok gorago esan dogun bilduman be badatoz (ik. 66. oharra).

(67) ZAVALA, A.: “Bilintx”: Indalecio Bizcarrondo (1831-1876). Bizitza eta bertsoak (*Vida y poesías*), Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1978. 55. or.

(68) TRÍO LAZPITA (LAZPITA, Juan; GISASOLA, Alejandro; ORUETA, Eusebio): *Recordando al Trío Lazpita*, Centro Musical Zarauz, 1981.

(69) ANSORENA, Jose Ignacio: Euskal kantak, Erein, Donostia, 1993. 145. or. *Trío Lazpitak* kantatzen dabana ez da igual-iguala.

SUITE EIBARTARRA

AI ANTON!

Ai Anton, Antontxo zara zu,
kuartillo t`erdigaitik ohia saldu dozu.
Ama datorrenian,
aita datorrenian,
etxetik kanpora bialduko zaitu.

BIHAR DA URTEBETE

Bihar da urtebete ezkondu nintzala
egun bat gutxiago damutu zaidala.
Ai! hau zorigaiztoko ezkondu biharra,
bost aldiz etorri zait begira negarra.

INTERMEZZO (Aho itxian)

ALPERRIK

Alperrik izango dira
etxian hasarre,
ez nabe mudatuko
hiltzen ez banabe.
Hil eginda gero be
arkitzen banabe,
lehengo hitzetan firme
bilatuko nabe.

Hau *Suite Eibartarra* elegantiau Ego-Ibarra Batzordiak kaleratu eban Juan Bautista Gisasola. Musika lanen bilduma liburutik etara dogu ⁷⁰ eta badakigu *Sostoa*-kuak kantau dabela iñoiz. Letriak hiru zati dakaz eta *Ai Anton!* hori behintzat ezaguna dau jendiak; beste bixena ezin geinke esan, nahiz eta bigarre-

(70) V.V.A.A.: Juan Bautista Gisasola. Musika lanen bilduma, Ego-Ibarra, Eibarko Udala, 1993. 222. or.

naren bertsiñuak eta bertsolerruak, banaka-banaka, solte, ezagunak izan, eta hirugarrenak jator samarra emon.

Atzenian, ipiñittako bertsuen beste sail batzuek emoten doguz. Lehelengo bixak San Martiñen Antziñako Eibar ⁷¹ liburutik hartutakuak eta bestiak, Orbe bertsolaria-renetik ⁷². Bigarren honetan ez dogu nahi esan barik lagatzia zenbateraiño asmatzen dabon Xabier Amurizak Orbe-ren esamoldiak eta formulak goraittaten dittuanian. Zeuk ikusi bestela.

KARLISTEN GERRATEKO KANTAK (II)

Gipuzkoan bazter baten
Herritxo bat Irun;
Ia horren gaiñean
Zerbait esan deigun:
Alperrikan atakau
Irun gau ta egun,
Han sartzeko karlistarik
Ezta jaio iñun.

Atakian pasatu
eitugu hiru egun,
gabaz ere igual,
egon arren ilun.
Gu atzeratzekorik
apenas da iñun;
Concha bialdu dogu
Luziferren lagun.

Deskuidu baten karlistak
Hartu balebe Irun,
Kanpairikan osorik
ez zan geratuko iñun.
Lehen argialdi bat izan dogu,
Orain gagoz illun,
Indar geixagon kontra
Asko jaio da bigun.

Harro ta panparroso
baebillen galaz,
ez genduela botako
euskaldunen balaz;
ikusi genduanian
tiratzeko eraz,
laster ipini gendun
eramateko andaz.

Nunbait lehenagotikan
eukon delitue,
Abarzuzako atakien
or da gelditue;
Concha-k izan bihar eban
baltzen peritue.

(71) SAN MARTIN, J.: *Op. cit.*, 48-49. or.

(72) ATXA-ORBEA, Gregorio: Orbe bertsolaria, Ego-Ibarra, Eibarko Udala, 1992.

KARLISTEN GERRATEKO KANTAK (III)

Karlista orrek dirade
Gizonak bastuak,
Orren alde jaiki dira
euskaldun astuak.
Gerrara eruan mutillok,
Etxean gastuak,
Etorrita omen daukaguz
Egunak estuak.

Madrillera juateko
ein biou garrastu;
ez jan ez edan egin
eta bizarrak orraztu;
karga fusillok eta
ezpatak zorrotu;
biziak aurrera ta
ildakuak aztu.

GERRA ZIBILLA

Gerrak baditu berakin
Konsekuentziak
Eriotza bildurgarri asko ta
Destrozo aundiak
Edozein klaseak artzen
ditu poderiak
gero aren esana egiñ bear
ondorengo guztiak
orduán igartzén zaio zenbat
balio duan pakiak.

Ez argirik dago ta
aiñ gutxi illunik
ez dago munduari aurretik total
igartzén dion gizonik
emen ere etzuan uste iñok
onakorik ikusterik
langillia alkantzau ezinda
konbeni zaion ogirik
jende goiko batzuek ez daukate
bekuan errukirik.

Bizimodu erraza emen
Askontzat egon da
Korajia euki duanentzat
Egiteko propaganda
gezur mordo bat esan
gizartera juanda
aitortu urlia ere benetan
txarra izan da
dirua kendu bear zaio orri ere
len gure kontra zan da.

Gaizki grabiak egiten dionak
Projimuari munduan
Sekula ez du ordaintzen
bear den moduan
alperrik apaitzetara
konfesatzera juan
da penitentzia kunplitu
esaten dien moduan
gauza aura presente izango du
eriotzako orduan.
Gauza asko jakiten du gizonak

Denporiarekin
Tratatzen dualako
Klase askorekin
oiñ ere asko dabilnaz aprobetxa-
zen
iñon izerdiarekin
orlakuak zenbat dauden
eziñ geinke jakin
ondo beldurtuta gaude gu
on usteko txarrekin.

Gu ez gera kejatzen
Ondo jaztiakin
Danori gustatzen zaigu
Ibiltzia traje ederrakin
Baña lelengo akordau bear dana da
Bizimoduarekin
Tratau bearra daukagu
Batak bestiakin
Konfianzarik ez dago iñun
Konduta txarrakin.

Urez betetako esnia
Saldi projimuari
Kasorik egin gabe
Kontzientziari
Edozer gauza txar egin da
Bildu dirua ugari
da gero meza ateratzera juan
Urkiolara
San Antoniori
ori etzaio tokatzen
Katolikuari

Konformadadia da
Aberastasuna
Osasunan urrengo
Munduko ondasuna
ori da gure begiz
ikusten deguna
sekula ez da asetzen
asko nai duana
iñun ez dago ondo
kontentatzen ez dana.

Iñor ezdeilla egondu
onelan pensatzen
edozer gauza eginda dala
zerua alkantzaten
alperrik da ibiltzia
sarri konfesatzen
andik ertendakuan badabill
projimua galtzen
Jaungoikua arteza da ta
ez du iñork engañatzen.

Naiz dirala aberatsak
da igual pobriak
estudiatuak eta
eskolarik bagiak
danok daukaguz jarrita
Jaungoikuak legiak
amar mandamentuetan
daude ipiñiak
oiekin ez du zerbitzen ezer
faltsua izatiak.

Lenengo mundu au aberats da
ondo pasau ta
gero ere zerua
askoren esperantza
orrelan dijua
sarri pentsatu izan det nik
borondatetsua dela Jaungoikua
derrigor izan bear du
misteriosua
orren erraz emateko pekatariari
zeruan lekua.

Pobriari laguntzeko da
persona ondraduen itza
baña ortik gañera
askuak gabiltza
norperak belar onak jan eta
bestieri elbitza
utsa kantidaden on bat
llegatu balitza
aspaldiko ejenplo on asko
alperrik dabilta.

LAS MODALIDADES DE LOS EIBARRESES

Eibar ezagutzen det nik
Berrogeta amar urtian
zerbait ibillirikan
kale ta basarrian
segitu duena jentiak
estilo berdiñian
irabazi ta gastatu
umore onian
sufritzen ere oso onak
eztaukatenian

Eibartarrei gustatzen zaigu
geienai gauza onak
ondo da aprobetxatzia
posible duenak
dirua irabazten du emen
lana egiten duanak
zertako ibilli Eibarri
kendu naian denak
danak gezurtatzen ditu
bera ona danak

Eibarrek entzute txarra
daduka kanpuan
Gesurrai baloria
ematen dien lekuan
federik ez degula esateute
bear dan moduan
gurekin konforme eztagoana
obe billa juan
akordauko da txarraukin
trataturakuan.

Irabazten artistak
gastatzen frankuak
meritu auxe dauka
gente Eibarkuak
albidadekuak
alka'ri laguntzen ere
borondatetsuak
elegantiak dira
eibartarren kontuak.

Tallar bat badaukagu Eibarren
escuela de armeria
lanian artutzeko
abilidadia
alperrik da eskatzia emen
igualdadia
jakinduriak dauka
fazilidadia
geruago aurrerago doia
Eibarko erria

BIBLIOGRAFIXIA

- ANSORENA, Jose Ignacio: Euskal kantanak, Erein, Donostia, 1993.
- AREJITA, Adolfo: “Arrateko zelaiko bai floridatea, Birjiña Amandreari balada”, Idatz & Mintz, 21. zka., Labayru Ikastegia, 1991.
- AREJITA, Adolfo; ETXEBARRIA, Igone; IBARRA, Jaione: Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia, Labayru, Bilbo, 1985.
- ARGOITIA, Juan Andrés; AZKARATE, Nerea; GEZURAGA, Xabier: Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk, Euskara Batzordea, Eibarko Udala, 1995.
- ARKOTXA, Josu: “Arrateko Usoa”, ...eta kitto! aldizkaria, 124. zka., Eibar, 1995-IX-15.
- ATXA-ORBEA, Gregorio: Orbe bertsolaria, Ego-Ibarra, Eibarko Udala, 1992.
- AULESTIA, Gorka: Bertsolarismo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.
- DONOSTIA, Aita: Obras musicales (IV tomo), 1966. Baita “Zeruko Argia” aldizkarixaren 32. zenbakixa.1921.
- ECHEVARRIA, Toribio: Viaje por el país de los recuerdos (2. ed.), Eibarko Udala-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, Donostia, 1990. (1go. ed., Mexiko,1968).
- ETXAHUN, Piarra Topet: Bertso bilduma (zuberoera-batua), Xipri Arbelbidek prestatua, Elkar, Donostia, 1987. 38-39. or.
- LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka: Euskal baladak, antologia eta azterketa, Hordago, Donostia, 1984.

- LARRAÑAGA, Ramiro: Síntesis histórica de la América vasca, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1981.
- LASUEN, Fran eta Eskuadra Zarra: Fran Lasuen & Eskuadra Zarra, Aztarna, Gasteiz, 1996.
- LEIZAOLA, Jesús María de: El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica (I. Los géneros), in Obras completas de Jesús María de Leizaola (II. tomua), Sendoa argitaletxea, Donostia, 1981.
- LEKUONA, Juan Maria; LÓPEZ DE LUZURIAGA, José Ignacio; NARBAIZA, Antxon: 1685eko koplak zaharrak, Ego Ibarra, Eibarko Udala, 1992.
- LERTXUNDI, Anjel: “Eibarko apaiz gazte baten ibilerak”, El Diario Vasco, Donostia, 1992ko apirillaren 29xa.
- MICHELENA, Luis - SARASOLA, Ibón: Textos arcaicos vascos - Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XI, Gipuzkoako Foru Aldundia - Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990.
- MUJICA, Gregorio: Monografía Histórica de la Villa de Eibar (4. ediziñua), Eibarko Udala, 1990. (1go ediziñua, 1910).
- NARBAIZA, Antxon: Eibarko euskara: gutxiespenaren historia, Euskara Batzordea, Eibarko Udala, 1998.
- OMAETXEBARRIA, Inazio: “Del Folklore vasco. Sobre el poema viejo de Arrate”, Revista Eibar, 61. zka., 1963ko abuztua-iraila.
- PAUL ARZAK, J.I.: Eibarko sozialismoa, Kriselu, Donostia, 1978
- REYES, Alfonso: La experiencia literaria. Ensayos sobre experiencia, exégesis y teoría de la literatura, Narradores de Hoy, Textos-6, Bruguera, Barcelona, 1986.

SAN MARTIN, Juan: Antzinako Eibar, Ego-Ibarra, Eibarko Udala, 1993.

SAN MARTIN, Juan: “Franzisko Arrateren sermoietarik bat, Eibarko euskaraz”, Iker-6, Euskaltzaindia, 1992.

SAN MARTIN, J.: Eztenkadak, Kulixka Sorta, 57. zka., Itxaropena argitaldaria, Zarautz, 1965.

TAPIA, Joseba; ORDORIKA, Ruper; MARTINEZ, Bixente: Hiru truku II, Elkar, Donostia, 1997.

TRÍO LAZPITA (LAZPITA, Juan; GISASOLA, Alejandro; ORUETA, Eusebio): Recordando al Trío Lazpita, Centro Musical Zarauz, 1981.

V.V.A.A.: Arrate, Parroquia de San Andrés Apostol de Eibar, Editorial Centro Unesco de San Sebastián, 1998.

V.V.A.A.: Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Diccionario enciclopédico vasco (vol. X), ed. Auñamendi, Estornes Lasa Hnos., Donostia, 1984.

V.V.A.A.: Itzaldiak. Laugarren Salla, Euskal-Esnaleak, Donostia, 1926.

V.V.A.A.: Juan Bautista Gisasola. Musika lanen bilduma, Ego-Ibarra, Eibarko Udala, 1993.

ZAVALA, A.: “Bilintx”: Indalecio Bizcarrondo (1831-1876). Bizitza eta bertsoak (Vida y poesías), Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1978.

ZAVALA, Antonio: Euskal erromantzeak. Romancero vasco, Auspoa Liburutegia, Sendoa Argitaldaria, Oiartzun, 1998.

ZELAIA, P.: Eibarko historiaren laburpena, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Eibar, 1994.

: Eibarko kantuen bilduma.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

Eibarko autore nagusiñak

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

EIBARKO IDAZLE NAGUSIÑAK

**R.GALDOS, TORIBIO ETXEBARRIA, ANTONIO ITURRIOZ,
JUAN SAN MARTIN**

Testuetan agertzen diran ezaugarri nagusixak⁵

Ondoko lerruetan testuetan agertzen diran gure idazlion ezaugarri nagusiñak batuko dittugu azpi-euskalkixaren barruan izan leikezen tasun fonetikuak eta morfosintaktikuak erakutsiaz. Jarraixan, esakeren mundu aberatsian geldittuko gara. Horrekin batera, idazle bakotxaren uztakuak diranak, testuetan bertan, oiñ-oharren bidez, azalduko dittugu lexikuaren inguruan nabarmentzen diranak azpimarratuaz.

Gure euskalkixaren gipuzkeratzia

Gipuzkeratziaren eragiña ez da, jakiña, atzo goizeko kontua. Lexikuaren esparruan edozenbat adibide erakutsi leikezen moduan (esparru honetan aldaketak eten barikuak badira be: mailleguak, neologismuak etc., apenas dauken eragiñik hizkuntzaren sisteman) hizkuntzaren bizkar-hazurrakin zerikusi haundixagua daukan alderdi fonetiko eta morfosintaktikuari interesgarrixago deritxogu. Hizkuntzen bizitzan aldaketak urte batetik bestera gertatzen ez badira be, agirixen azterketak eta alderaketak hórrek aldaketon noizkotasunera iristeko bidia eskintzen desku.

Aldaketok pausu diferentietan ikusi geinkez. Kasuistikia ez da horren sinplia. Gure testuen gaiñian bi fase ikusten doguz nagusiki:

1.- Aldaketa gertau da hizkuntzaren sistemaren parte batian eta erregularki aplikatzen da. Batez be jarraixan ikusiko dogun aditzaren monoptongaziñuan lez, eta:

⁵ Lana errazteko hónek laburdurok erabiliko doguz: (G) Galdos, (I) Iturriotz, (E) Etxebarria eta JSM (Juan San Martin).

2.- Forma *barrixa* sartu dan arren, jatorrizkuakin batera segitzen dau, sistemiak hori gertatzeko aukeria emoten dabelako. Adibide bat da *-gaz* atzizkixa, balixo instrumental-soziatibua daukana, gure azterraruan *-kin* atzizkixarekin txandakatzen zala ikusten doguna.

Edozein modutan, batez be Galdos eta Etxebarriaren testuei erreparatzen badetsegu, gure azpi-euskalkixaren gipuzkeratzia astiro baiña etengabe zoiala pentsau geinke. Froga lez hor dittugu adibide: aditz-izenetan esaterako: *etorteko, amaituteko, jarteko, joteko, ekarteko...* gaur egunian gure azpi-euskalkixan erabiltzen ez diranak, baiña bai gure idazliak bizi izan ziran sasoian, euren idazlanetan nabaritu geinkenez. (Harek be *jarten, etorten* etc., idazten dabe). Dana dala, esan bihar da, gure azpi-euskalkixaren *zubi* izatiaren definiñua egoki datorrela. Hor dittugu esaterako:

jarduntzen, ekitzeko... hau da, gure azpi-euskalkixaren *-n-z* amaitzen diran aditz batzuen *-tzen* egittiarena (gaur egun esaten diran *jakitzen* moduak joera horrerri jarraitzen detse; *irauntzen* darabill Etxebarriak berak)

Beste horrenbeste esan geinke *-gaz* deklinabide atzizkixaz. Gaur egun, herri hizkeran behintzat, *-kin* nagusiturik ikusten dogu. Orduan, ostera, sarri edo bakan, bixak agertzen jakuz. Idazle bakotxarengan joko estilistikuak izan leikian garrantzia kontuan izanda be, ugari dira adibidiak: *Gaurko otzagaz be buru utsik?* edo eta *...diño tologabetasun aundienagaz* aurrerago (Galdosek). Garaikide izan eban Etxebarriak, barriz, sarrittan erabiltzen dau. Horra lagin bat: *bigaz, haregaz, emakumiagaz, kezkiagaz...* Iturriotzek berak be badauka beste adibide polit bat gure euskalkixaren hori mugatasun hori markatzen dabena: *arekin koitxauaz* (“Danetik pixkat”).

Herri-hizkeriari fideltasuna⁶

Iñoiz idatzi izan ez dan hizkera bat paperera pasau bihar danian idazliak dudak izaten ditu. Gure idazleon kasuan, hala be, hiru zaharrenak, euren kezka izango da ia sistemia (fonologia) ala billakaera fonetikuak jaso bihar dituen. Euskera idatzi baten erreferentzia badauke, gutxi edo asko eurak irakorri eta halako gain-egitura moduan seguruenik egoki irizten detsena. Baiña hizkeran fenomeno asko gertatzen da eta, azken buruan, eurak danak jasotzerik ezin edota iñoiz merezi ez dabenez, normalian nagusixenak islatu nahi izaten dira. Baiña horretan be badago alderik. Esaterako:

Hasteko, *-i + a > -ixa-ri* dagokixon bustidura danok paperatzen dabe. Iturriotz da baiña era guztietako bustidurak jasotzen saiatuko dan bakarra: *ika-sitxa, eitxeko, zatitxuta..(I)*; ostera, *afaitara, bazkaitara (G)*; *bazkaitarako (E)*.

Iturriotzek /i/ bokalaren ondorengo palatalizaziñua: /t/ > /tx/ sistematikoki erabiltzen dau, baiña sabaiaurreko afrikatuaz transkribatuaz, Etxebarriak ez bezela -honek sabaiko herskariaz transkribatzen dau: /tt/. Toribiok, bada, bustidurak jasotzeko ha era berezixa dauka: *tt* idatziko dau (*eittia, dakitt, aitta..*), Iturriotzek, barriz, *tx* jasotzen dabenetan (*zenbaitx, ikasitta..*)

Monoptongaziñua

Gure euskalkixaren ezaugarrietako bat (Deba arroko inguruko azpi-euskalkixetan be gertatzen dan lez) monoptongaziñua da. Aldaketiak, gainera, seguruenik data ezagun batzuk daukaz. XVIII. eta XIX. mende bittartian gertatua da 1754. inguruko Ordenantzen itzulpenari jaramon egitten badetsagu behintzat. Aditzian gauza jakiña da -eta ondoko hau Juan San Martinek Agínagako erretore izan zan Francisco Arrateren izkribuak aurkitu zittuane-tik badakigu- indikatibuan datiboko laguntzaille iragankorrian bizkaiera literarioko *eu*-morfema *e-* bihurtzen dala; *deutsat > detsat*; *neutsan > netsan* etab.

⁶Hemen aittatuko diran fenomenuak ez dabe inñundik be gure azpi-euskalkixaren billakera-
erak agertzeko asmorik. Hurreratze bat baiño ez dira lan osotuaguen zain.

Galdosek bixetara idatziko dau: *eutsen*, baiña *etsen*, Iturriotzek, berriz, bixetara erabil izaten dau. Datibuan bai: *detsu*, *zestan*, *netsan*; baiña *euki* aditzian: *zeukan*, *zeuken*.

Esan dogun lez, *euki* aditz trinkuan *eu>e*, eta *au>a* agiri jakuz hizkera maillan: *neukan>nekan*, eta *daukat>dakat*. Baiña hemen, ostera, sistema moduan: *eukan*, *eukela*, *zeukan*, *zeuken* etc., idatzi eben gure autore guztiok. Gaiñera, Galdosen kasuan aittagarrixa da, aditzian bizkaiera estandarerra hurreratzeko egiñ eban ahalegiña.

ei>i billakaeria gauza ezaguna da gure hizkeran: *bedinkatu*, *eskindu* (E)

Izenaren monoptongaziñuan be, *au>a*: *laurden>laren*, *aurpegia> arpegia* (G), *daukaguz*. Baiña lehelengo adibidian Galdosek ez dau Etxebarriak lez egingo eta *laurden* idatziko dau.

Diptongo aldaketia. Goruzkotik beheruzkora. Ipuin (c)> *ipoiña* (I), *ipoña* (E)⁷.

Monoptongaziñuaren kontrako billakaeria ikusten dogu *egon* aditzian indikatibo iraganaldiko 3. pertsonetan: *egoan/egozan* (c)>*eguan/eguazen*; gero ahoskabearen ahultasunak eraginda gure azpieuskalkixan: *euan/euazen* emon dabena. Hemen be baiña duda artian dabil Galdos: *eguazela* dator has-teko, gero, ostera, *egozen* (*zegozen*, Etxebarriak) eta barrero *eguazen* bi bider⁸.

Ostera, bizkaierarekin alderatuaz gorde egitten da diptongua. *Handi* (Bc): *haundi*.

Ostiango fenomeno batzuk

⁷ Ikus, barriz, *itxain* (itxoin). Azkuek Markiñakotzat jotzen dau bere hiztegixan (II-438).

⁸ Hitanozko formatzat jotzen ditu *eguazen* horrek guztiak (=eurak *eguazen*) Etxebarriak. (ikus honen gaiñean *Eibarko aditza* 1998: 24).

Bokal aldaketa bikotxa ahoskabearen aurrian eta ondorik: *ukabil* (c)> *ikubil*.

Aittatu leikez baitta be:

Euskalkixan gertatzen dan bokal alternantzia: irten (c): *urten*. Dardarkari baten aurreko bokalaren zabaltzia ikusten da: bazter, izter (c): *baztar, iztar*⁹.

Irekidura hori, dardarkari anitzaren aurrian: berri (c): *barri*; zein hitz barruan be gertatzen da: eguerdi> *eguardi*.

Bokal aldaketa, dardarkarixaren aurrian, baitta be: irakurri (c)> *irakorri, irakorlaria*. (*Idacorri* dator 1754. urteko Ordenantzetan)

Sinkopa bokalikua: *bedratzi*<*bederatzi* (G). Nahiz eta *bederatzi* be irakurriko dogun. *Bedratzi* halaber Iturriotzek (“Egazkiñak”) eta J. San Martinek.

Aittagarrixa baitta be, sandhixetan lehelengo osagaixa dan berbiaren azken silaban doian *u* bokalaren eboluziñua: *zabaldirazu* (E), *zabalduegida-zu* batetik pentsa geinkenez. (*parcatichosue* Arratek (1992: 439). Bestalde, aldaketia kontestu zabalaguan be izaten da: *entzizu* (J.S.M)¹⁰.

Ezaguna da aurrerago aittatu dogun gure azpi-euskalkixaren *-i+a>ixa* billakaeria: *begixa, lotsagarrixa*. Hori erregeliori ondo bete izan da oingo menderaiño. Gaur egungo salbuespenetako bat: *guztiak*, epentesi barik, bixetara agertzen da: *gustierna* eta gero, barriz, *ixa* jarraixan: *gusttichena*, ostera, XVIII. mendeko Ordenantzetako itzulpenian (1956: 465)¹¹. Epentesi edo sabaiaurreko hori berori oso sarri agertzen da gure azpi-euskalkixan, aditz

⁹ *Bazter* -en hedadura giputz zein bizkaierazko hitzunerara zabaldua dago. Hor dogu Bizkaiko *Larrabazterra* herri-toponimua. *Baztar* bestalde, oraintsuago datatua dago. (Mitx. IV. 246). (Ikus, baitta be, Txillardegi 1980: 65).

¹⁰ *-tu* dun aditz partizipioen ezaugarrixa dala esan geinke. Bestalde, aditzian gertatzen diran sandhien inguruan ikus kasuistika zabala *Eibarko aditza*, 28-33. orr.

¹¹ Ordenantzetako 3. 4. 5. 6. 8. eta 13. puntuetan oker ez bagagoz. Bost bider sabaikoa barik, eta lau sabaikoaz. Epentesi barik gelditu dan berbia dogu *guzti* hau. Francisco Arratek mende bat geruago dakarzen beste batzuk: *desafixatu, sarrixagotan* ez dira galdu.

laguntzaillian: *zeixala, zeixazela, zeixon, balezkixo* etc. Mailleguetan be bai: *leixala* (E).

Sabaikua ederto jasotzen dau Iturriotzek: *Gabiño*. /n/ hortz hobietako sudurkaria palatalizauaz. Gure zaharrak erderatiko hitzak eurak be palatalizau egitten zittuen: *Karabiñero, poñetero*¹². Galdosek, ostera, ez dauka eredu garbirik. Adibidez, hitz bera, bi era desberdiñez idatzitta ikusten dogu: *Justina* eta *Justiña*.

Beste horrenbeste beste sabaiko sudurkarixekin: *egiñ, ekiñ, aiñ, oiñ* + bokala, ikusten badogu be, ostera, barrero *egin, ezin*, posiziño berian irakortzen doguz¹³.

Sabaiko afrikatuarekin idazten dabe Galdosek eta Etxebarriak *bakotxa* berbia. Oso zabaldua euskalki gehixenetan. Hasi eguzkialdian eta mendebalderaiño hedatzen dan fenomenoa bestalde, gipuzkeriaren salbuespenakin itxuria. Aztarrenik zaharrenetan be hola agertzen da¹⁴.

Ezaguna da hortzetako leherkarixaren ahulezia. Bokal artian, hitz arruntian: atadi>*atari*, zein sandhietan: joan hadi> *juanari*. Bixotan dardarkari bakuna dabe emaitzia: -d->-r-

Lehelengo adibidian hizketa-maillan galdu egitten da. Dardarkarixa galdu eta sabaiaurrekua sartzen da: ataria>*ataixa* (E, beti).

¹² Ikus *Santaiñes* kalia eta gatzizena.

¹³Sandhietan sudurkari horren eragiñaz leherkarixaren ozentzia daukagu: Jan *da*; (...) zan *da* (G, eta, oro har)...Bestalde, hizketa maillako errejistroeri jaramon egin behar horrek bestiok batzen ez dittuen fenomenuak erakustera eruango dau Iturriotz. Horzkarixa, sabaiko bihurtzia, esaterako. Sandhietan. Ikus harako: “kaletarra izan be ni *txa*”...

¹⁴Hasi XVI. mende hondarran *Refranes y Sentencias*-ko testuetan eta gure herrixan bertan XVII. mendeko Kopletan lekuko dabelarik: “*ostera bere eguingo ditus bacoachac bere cantuac*” azken bertsuak diñuan lez. Axularrek berak be erruz darabil. Ikus Mitx.: *Orotariko Euskal Hiztegia* III.-766. (Bai eta Mitxelena beraren *Fonética Histórica Vasca*, batez be: 1976: 192).

Galdosek idazketa fonologikua egin eban, oingo kasuan, horregaittik bata be ez dau jasotzen: *batedonbateg* irakurtzen digu. Ostera, *bateronbat* (I) eta (E).

Gipuzkeraz, iñoiz, hitz hasieran alboko bat aurkitzen dogu; gurian, ostera, sudurkarixa: lasai, larru (c): *nasai, narru*.

Alboko baten presentzia bokal artian gertatzen da gure azpi-euskalkiak eskatzen daben moduan: *lelen, lelengo*¹⁵ (G).

Kanpai-torrian hitz alkartua irakortzen dogu (G), gurian sudurkariaz ezagunagua da: *kanpan-torrian* (E, Lex: 473).

Gaur egun galdu samar badago be, herskarixa bera gorde egitten da, baiña ez sistematikoki. Dana dala, gure idazliok joera haundixa agiri dabe gordetzeko: (*ogeratu, egun* [zenbakixa], *ago...*), *legunkerixa* (E). Ikusi, ostera, beste adibide batzuk. Galdosek: *gaztiagua; gaztiaua*, barriz, Iturriotzek. Ikusi, baita be: *erabagixa* (I), *eregi* (E). Baiña: *erainka* (I). Azken honek beronek, barriz, *igeslarixa*, idatziko dau.

Oso berezixa da bestalde *suge>sube* (*subia*) hots belarea ezpainkari bihurtzia.

Beste horrenbeste, baiña oinguan berba hasieran, ikusten dogu: Gurrpil, *burpil* (I). Gero, ostera, Iturriotzek berak *gurtzain* idatziko dau *burdizain* edo *burtzain* espero zeikian arren (*burzaiña*, Lex. 283).

Ahoskabia da, berba hasieran topauko doguna. Mailleuetan: *parkatu, korputza* (E).

Sinkopa eta silaba galtzia dago: Sudur> *zur* (sic) (I).

Aditzian gure euskalkixaren aberastasun ederra erakusten deskue

¹⁵ *Lelen* baita be Iturriotzek geroago ikusi dogun “Egazkiñak” irakurgaixan.

Iturriotzek eta Etxebarriak, batez be. Etxebarriak euskalkixa lanabes soilla hartuaz, berau itzulpenak egitteko gei dala erakutsi nahi desku. Iturriotzengan, barriz, erabillera zuzenaren arduria ikusten da. Aditz laguntzaillian: (igartzen, eskatzen) *gentsan* (eta ez *gaurko* “zetsagun”, *jetsagun* jasotzen dau, barriz, Etxebarriak); *euki* aditzian: *geunkanez* (eta ez “zekagun”).

Aittagarrixa da ez dala ondoko perpausetan aditz-komunztadurarik gertatzen: “esan *eben* alkarri” (G, “Mertzedezenan”). Esan (*z*)*etsen* alkarri, espero behar genduan lekuan. Etxebarriak be beste horrenbeste egitten dau, beste kontestu batian bada be: *Ez eban sermoilarixak...gor biri*. (“Jan-txakur bi”).

Adurra-darixola (I) eta (G); hemen, aditzaren pertsona edo denboriari lotu barik aldatzen ez dan adizkixa. Etxebarriak be hola darabil. Edozein modutan, ez da erabillera hori ezezaguna beste euskalki batzuetan.¹⁶

Toribiok berak, ostera, *dario* aditz partizipio lez darabill *erion* edo *jarion* baten lekuan: *Suteixan, burdiña gorixak txinpartak dario zittuala*. (Lex. 690). *Dario* diturala (Job, XVI. 10).

Alderdi morfo-sintaktikora joaz, aittatu deiguzen gaingiroki, gure ustez merezi daben zehaztasunak:

Erakuslien maillan ez detsa Galdosek, esaterako, sistematikoki bizkaieraren arauari jarraitzen. Hau da, hari jarraiki izenaren aurretik jarriko dau batzuetan: *a sube-gozua*, *edo: áren danen artian*; izenari lotuta bestetan: *gaz-tiori*; baiña, ostera, *egun artan* edo *gau artan* be irakortzen dogu.

Deklinabidiaren esparruan nabarmendu geinkez:

¹⁶ Esaterako, Pello Salaburuk Baztango euskaria aztertzen dabelarik Mariano Izetaren adibide bat hartuaz honako hau adierazten desku: “Aipagarria da dariola adizkia adberbio huts bezala erabiltzen dela Baztanen, nik dakidala, pertsonaren edo aldiaren bereizketarik egin gabe: etxera itzuli behar izan dut, odola dariola” (1991: 917).

Hasteko, aurreratu dogun lez, *-gaz/-egaz* soziatibo zein instrumentalera-ko erabilli izaten dabela gure idazliok gehixenetan. Lexikoian be holan islatzen dau Etxebarriak.

Inesibuan, genitibo edutezkuaren ordez erabiltziari dagokixonez bestalde, hizketa maillango errejistro hau beti agiri da Etxebarriarengan singularrian eta izenlagun+izena sintagmetan: ederran, pastelan, esanan, emaztian, giza-jostunan.

Destinatibuan: *norendako*, *zeinendako*: *bakotxandako* nahiz eta iñoiz gipuzkerara jo ohi daben: *bakotxantzat* (E). Adlatiboan: *-rutz*: *gorutz*.

Oso berezixa gertatzen da, *zenbateraiñok*, *noraiñok* adlatibo bukatuzkuaren marka daben formia: *egunsentiraiñok* (noraiño, noiz arte), kasu honetan eta zelakua, *zenbateraiñokua?*: (sei) *libraraiñok* galderiari erantzungo leskixona.

Zenbait posposiziñoren aurreko izena inesibuan jarri biharrian mugatzaille soillarekin doa: *Odeiak*¹⁷ *ziar* (I). Ohi danez, posposiziñuari dagokixon izena inesibo kasuan juaten da. Baiña normalki *mendixan zihar* edo *mendittik zihar* eratako formak ezagunak badira be, gure oingo testu honetan ikusten dogu *zihar* posposiziñuaren aurreko izena mugatzaille soillaz edo plural markaz datorrela. (Ikus baita be *arizti batzuek zihar*, I). Mugatzaille soillaz, ostera: *tunela zihar* (*tunelian zihar* litzake formarik arruntena). Badirudi honetan bizkaieraren erabilleria dogula nagusi¹⁸. Beste horrenbeste gertatzen da *orma-*

¹⁷ Lexikoaren ikuspegitik, ez da, dana dala *odei* forman gure azpieuskalkixan ezagutzen. *Oda*, *odia* darabil Etxebarriak. (Lex. 577-578).

¹⁸ "Gizaldiak zear" deitzen dau, esaterako, aita Onaindiak kapitulu bat bere *Larrea eta Kameldarrak* liburuan. Bilbo 1968. Azkuek ez dau ez Morfologian ezta bere Hiztegian gurea moduko adibiderik jasotzen. Euskaltzaindiak be ez (1985: 1.443) Agirrek, ostera, bere Gramatika mardulean *hitz positiboak* deitzen ditu. (1991: 559-560). Bertan hemen ikusten dihardugun erabilkeraz: izena+mugatzaillea(k)+posposizioaz eskintzen diran adibiderik gehixenak, hain zuzen, idazle bizkaitarrenak dira: Kirikiño, Erkiaga, F. Bilbao...Hona hemen bertatik jatoriko adibideren bat: "Lau hankan urten eban etxe atzeko *bidea zehar*"; "*Zelai zehar*" (*Ipuin barreka*, 98 eta 54 hurrenez hurren). "Bide arreska zurixkak *zehar*". (*Arranegi*). Are gehixago, bada, marka barik eransten dan izena: "Erbeste-*zear*". (Abarrak, 8). (Ikus Iturriotzen *orma-zehar*). Edozein modutan Lizardiren aipamen bat ere badauka. Bere prosa laneko: *Itz-lauz*-tik, hain zuzen: *belar-kiskalia zear*. Badirudi, beraz, ahozko eta idatzizko tradiziñua bat datozela.

kontra posposiziñuan (I)¹⁹.

Birdeklinaketa zaliak dira gure idazliak. *Alkarrekingo, enanuakingo, gonekingo* (I); *baketango, arrainakingo* (E)²⁰.

Aittagarria baita be *-enea* jabegua adierazten daben atzizkixaren erabileria: *Arroyabeneko, Mapillaneko, Mertzedezenera...* (G).

Sintaxian, Etxebarriak, esaterako, perpaus modalak egitteko *-tik* dau baliabide erabilliena. *Dukesiak gura ebenetik...* (“Senar begi-bakarra”).

Aditz-izenaren erabileria hor dogu: *izatera, irauntzera* (E). Baldintza zentzuan: *egixa izatera*: egixa bada. Ikus Iturriotzengan, ostera, kontzesibo kutsuan: *probintzianoak izatera*.

Perpaus konpletibuetan *-na* menpekotasun marka *-la* baiño ugaritsuago da hónek testuotan; Etxebarriarengan, esaterako, bere enparauzko lanetan bixon maiztasuna antzerakoa bada be. (Bizkaitar idazle klasiko aittatuenak egin daben lez, bestalde). Hemen, ostera, perpaus nagusiko *ziur izan, ikusi, kontu izan* eta horrelako aditzak galdegaixa bere baittan daroiela, *-na* eskatzen dabe, nahiz eta esan dogun moduan, *ikusi*-ren kasuan esaterako *-(e)la-*dun perpausak be agertu²¹.

Denporia adierazteko, eta perpaus hasieran, *artian* (bixen bittartian) darabil, besteak beste Etxebarriak²². Modua adierazteko, barriz, *lazkotxia* par-

¹⁹Bestalde lexiko maillan Eibarren *beti* ormia esan ohi dala akordau eragitten desku gure idazliak. Orma paretaren *ordez* erabiltziagaittik eibartarrak harro: “*Besteek* paretu edo paretu/biak, Eibarren, ordea: *orma/bixak eta alaxe naiala hitz*”. Antonioren beraren artikulua (1955-VI).

²⁰ Ikusi, honen gaiñian, esaterako, Josu Oregi 1977: 255.

²¹Ikusi baita be, *igarri+ (e) na* (J.S.M. “Ori ta ba-pezu igualak”). Ikus, perpaus mota honetaz, Mujika 1982: 295-335. Baita be: “na deklaratioa” Agirre: 1991:1028.

²² Gaur egun asko entzuten ez dan eran, hain zuzen: “**Artian**, ateko deiza zan geruago ta gogorragua, eta emaztiak, ezagutuko ez baleu bezela deika zanori, esaten zetsan kanpo-kuari” (1. Ipoiña).

tikula izendau geinke (I, “Egazkiñak”) *Legezko* batetik sortua²³.

Aittatu, sintaxi mailan, baita be *ain zoratu eze*,*aztu jakuzen* perpausa (I, “Egazkiñak”). Etena dago menpeko perpaus kontsekutibua ekarri bihar leukian *eze* horren ondorik, atzetik datorren aditzian eragin morfolojikorik barik: *jakuzela* biharko genduke bestela. (Cf. Lex.) Hizketaren eragina nabaria da Iturriotzen pasarte horretan.

Izen barrixak osatzeko sasoian, txalotzekua da Etxebarriak berak egitten daben ahalegiña, itzulpen egokixak lortzeko, bere herriko euskeria, ixa erremintta bakartzat, erabilliaz.

-*ki* atzizkixa, esaterako, gure antologixiak adibide gitxi eskintzen badeskuz be, ostian, sarri erabiltzen dau. Hemen: *ausarkixena*. Barrittasuna da, adjetibuak sortzeko darabilela. Hau berbiau sarri ikusten dogu Etxebarriaren gaiñerako lanetan. Azkuek ez dakar adjetibo lez eta Mitxelenak Etxebarriari berari jaso dau. Badauka Toribiok horren tajuzko besterik: *arrokixa*, esaterako²⁴.

Esakerak

Baiña benetan interesgarririk dira gure autoriek eskintzen deskuezen lokuziño eta esakune jatorrak. Hemen batu doguz euretariko gehixenak:

¡*Baiña ara! demoniua*. (I). Espresiño guztiz jatorra gurian. Harriduria adierazteko espero ez danaren aurrian.

Sekula alakorik...! Norbaiten ateraldi edo ekintza baten aurrian harriduria adierazteko, batez be.

²³ Ikusi Azkue: 1967-I:534. Bere *Morfologia*-n, barriz: “derivativos específicos” deitzen ditu. (1969-I:128).

²⁴ Berba hau berau dakarte Azkuek zein Mitxelenak. Lehelenguak F. Segurarengandik jaso dau. Mitxelenak Azkueren eta noski Etxebarriaren lekukoak jasotzen ditu. (*Arrokia* dakar Etxebarriak Lexikoian : 165). *Gizon txatxar arrokixa* irakurtzen dogu bere “gizonan neurriko demboran” gogoeta-poeman; (III-85). Bestalde, izenondo funtziñuan hor dogu *handiki* bakana.

Loka ibilli (I) Zeozer gaizki euki gauzak zentzuz egiñ ahal izateko (cf. Lex. 527).

Arduratan hasi. Esapide jatorra mugagabia erabilliaz, noski.

Beia jota. Etsi-etsi eginda.

Negarrari emon. *Emon* aditzaz sortutako *barreari emon* eta holakuen parekua. (Ikus, esaterako: *negarrari emon cion* XVIII. mendeko aita Goitia aulestiarrarena).

Esakera honen modukuak oso ondo lortuta dagoz: “*Alako epelkerixak aomiñian izan*”. (*epelkerixia*: memelokerixia, Lex. 312).

Iturriotzen esakera saila haundixa bada, zer esan Etxebarriaren irakurgetan ikusten dogunaz. Hona euretariko gehixenak:

Esanguratsuak dira *entzun gaiztoko andria*, edo eta *danian bestera eitteku*a perifrasiak. Lehenengoari dagokixonez, *entzun-oneku*a erabilli izan dau aurkari lez beste lan batian Toribiok berak²⁵. Bigarrenak, barriz, badau zentzu berekoa testu hasieran: “esanan bestera...eitten ebana”.

Aurrera joaz hona beste zerrenda bat²⁶: *begixa jo*, *auzuak konturatu*, *siñistiak lanak euki* (edo *izan*), *egi agertu*, *aitzen emon*, *talaixan erabili*, *aukeran izan*, *jo biharrian*, *mira eiñda egon*, *ezetzian egon*, *on biharrian esan*, *ondo-eza ein...*

Hona jarraixan euretako batzuen argibidea:

Auzuak konturatu. Barriren bat bolo-bolo zabaltzen danian.

Siñistiak lanak euki. Gertatua, siñeskaitza bada be.

Talaixan erabilli. Zelatan ibilli. Halaber, *talaixan ibilli*. (Lex. 665).

Jo biharrian. Ixa-ixa jotzen.

Mira eiñ. Harrittu. (*Mira eritxi* ere badakar (cf. Lex. 553).

Ezetzian egon. Baietzian egon bezela. Zerbait holan dala (edo ez) sinistuta egon.

²⁵ “Testamentu zarreko iru andrakume: andra entzun oneku” (1967: 393).

²⁶ (Ikusi honetaz *Eibarko esakerak* 1995)

On biharrian esan. Bere onerako esan.

Ondoeza ein. Bat batean gaisotu.

Nerekautan (J.S.M). Berez banaturik idatzi ohi da. *Nere artian*²⁷ alegia.

Tautik pe ez: Bapez. Ezebez. (cf. Lex. 668).

Tajutan egon: Lekutan egon (ez dakar Toribiok).

Mausta-mausta jan: gogoz jan (*Eibarko esakerak*, 126).

²⁷ *Nere kautakuetan* pluralian dakar Etxebarriak; Lex. 57.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

ROMUALDO GALDOS (1885-1953)

Hemen dakargun eibarreraz idatzi eben XIX. mendean jaixotako idazlien trilogia honetan: “Galdos-Etxebarria-Iturriotz”, Galdos dogu adiñez zaharrena.



Aita Romualdo Galdos -edo Y. L. Galdos-tar Erromal berak izenpetzen eban- ez-, Jesusen Lagundiko eibartar poliglota ezaguna dogu. Galdosek olerkixa eta hitz laua erabilli zittuan bere idazlanetan. Batez be lehenengua. Dana dala, gure asmua Eibarko hizkeran egin zittuan testuak aztertzea danez, ez dogu, tamalez, aukera haundirik aurkittu, bizkaieraz idatzittakuak oso urri dittualako.

IDAZLANAK

Nahiz eta bere bizilekua, batez be, Erroman izan, Euskal Herrixan ziharreko kulturaren nundik-norakua hurbilletik jarraitu eban Galdosek. Euskaltzalia eta kultura haundiko gizona, miñ hartzen eban Euskalerriko ondare kulturalaren arrastuak zaintzen ez ziralako. Iraganaren ezagutza ezinbestekua genduan euskaldunok. Horregaittik artxibo askoren egoeriari penagarri irizten etsan.

Idazle lez asko idatzi eban. Erderaz bere Herriko gauzetatik: *Contribución a una Monografía Histórica de la Villa de Eibar* (1927), erlijiozkoetatik pasauaz, euskal kulturua ahaztu barik, Julio Urkixorekin izan zittuan gutun harremanak lekuko (1927-1947). Galdos pertsonaia ezaguna izan zan Euskal Herriko bere sasoiko erlijiozko giroan, batez be. Une puntaletan, gaiñera, izan eban protagonismorik²⁸.

²⁸1920ko hamarkadan Donostiako Irratian, uhiñen bidez, Gipuzkoan egin ziran lehenengo erlijiozko hitzaldiak berak egin zittuan.

Euskeraz, euskalkixaren aztertze eta jorratze balio ez deskuen arren, Galdosen argitalpenen zerrenda bat emongo dogu:

- *Errutenak; iberkeraz artu eta bizkaieraz ipiñiak* (Bilbo 1922)
- *Mikel Garicoits Zorunduaren bizitza*. (Bilbao 1922).-
- *Yosu-Kristo gure jaunaren nekaustea*: “Aita Kardaberaz-ek lehelengo-koz argittaratuta; eta Aita Galdos-ek jakintsuentzat aukeratutako irarkaldia: gipuzkoeraz eta bizkaieraz” (Donostia 1928).
- *Yosu-Kristo gure jaunaren nekaustea, erriarentzat aukeratua, gipuzkoeraz* (Donostia 1928). Beste argitarapen bat bizkaieraz egin eban urte berian.
- *Mujika-tar Matai Gotzai Yaunari ongi etorria; euskeraz eta beste 9 izkuntzaz* (Donostia 1928. urtean).
- *Dabiden abestiak, lenengo eta bigarren eres-txorta*. (Erroma 1936).
- *Yosu-Kristo gure jaunak kurutzean esandako zazpi itzak, euskeraz eta beste 11 izkuntzaz*. (Donostia 1940).
- *Jesus Aurtxoaren lenengo itzaldia*. (Zarautz 1952).

Aldizkarixetatik

- “*Elimeta ta Nomi. Iberkeraz artu ta euskeralduta dago*”, *Euzkerea*, 1930.
- “*Gabonzar on-on batetik Urtebarririk onenera*”, *Jesus'en Biotzaren Deya*, 359-363. orrialdiak (1920); eta 23-24.orrialdiak (1921)

Bere bizitzaren barri gehixago izateko ikusi Zelaia, P., 1987, *Aita Romualdo Galdos S.J. Bere bizitz urratsak*, Eset, Vitoria. Bertan, Galdosen beste artikulu batzuk irakorri dittugu euskeraz, ez baiña gure euskalkixan.

Ikusi, halaber, Unanue, J. M., 1990, *Eibar: Gaiak, idatziak*, Ego-Ibarra. Bai eta be Jose de Artechere-ren goraiamenak Eibarko *Monografia*-rako egiñ eban sarreran (9. orrialdea). (1956ko ediziñua jarraitu dogu). (Galdostarren haurtzaruen barri gehixago, Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* liburu zoragarrixan daukagu).

KRONOLOGIXIA

Bi sasoi bereiztu geinkez Galdosen euskerazko lanetan:

1.- 1936 bittartekua. Ordura arte osatu eban bere lanik haundiña. Orduko sasoi haretan hizkuntza aldetik joera aranazaleari lotuta, bere euskertia garbizalia da. Lagun haundixa izan eban aldi haretan ordenakide ez eze, gogaide be izan zan Raimundo Olabide Jesusen Lagundiko arabarra, Bibliaren itzultzaillia.

1920-1936 urtiotan Galdosen ekoizpena aittatutako Olabidek berak, zelanbaitt erabiltzen eban joera garbizaleko prosa haren inguruan dabill. Hori joeriori hiztegixan eta aditz sintetiko edo trinkuen erabillera ausartian igartzen da.

2.- Gerra ostian, barriz, bere euskerazko ekoizpena askoz urrixagua da. Guk aztertu ahal izan dogun lan bakarrian: *Jesus Aurtxoaren itzaldia* poema lantxuan (1952koa), gerra aurreko joera garbizalia saihestu egitten dabela neurri haundi batian esan geinke, nahiz eta orduko arrastorik geratzen jakon.

Aztergai dogun testuaren irakurketiari ekin baiño lehen, egin deigun, apur bat behiñik behin, Galdosen euskerazko obren soslaia.

Erderaz asko idatzi izan eban Galdosek euskerazko idazlanak be utzi zeskuzen, gehixenak, pentsa leikianez, erlijiño geixez bilduak. Esan barri dogun moduan, kronologjikoki begiratuaz bi urrats nagusi ikusten doguz Galdosen langintzan. 1936ko gerraren aurrekoa bata, guztiz garbizalia sasoiko korronte aranista eta hiperaranisteri atxikiz, eta bigarrena, harrezkero euskeraz idatzi eta argitaratzeko orduan eguan askatasun txikixenaz baliatuz egin ebana. Hesixa ez da, jakina, iragangaitza, geroago ikusiko dogunez, baiña adierazi doguna horrela danik, bere ardatzik nagusixenetan behintzat, argi daguala esan geinke. Garaian garaiko joereri lotuaz, nahiz eta bere kasuan garbizalerao jite horri berandu arte jarraitu. Hemen azpimarratuko dogun moduan, 1952ko bere azken testuetan ondiok joeria aski garbizalea da.

Horrela, bada, hona dakargun irakurgaixak halako freskotasun eder bat emoten desku garbizalekerixaren ittolarritik urriñ. Esan geinke, baita be, aldi horretan gertatzen dirala eibartarraren idazlanik ugarixenak. Jarraixan gerra etorriko da, eta beronek ekarririko isillaldi bortxatuak edonolako idazlanetan izango dau eraginña. Etenaldi haundi harek baiña ez dau arestian aittatutako joeratik aldendu. Denboriaren gupillian jauzi egiñez, 1952. urteko bere *Jesu Aurtxoaren Itsaldia* (ikus Bibliografia) deituriko bertso-lanian arrasto gitxitxuago geratzen bada be, gure idazliak gerra-aurreko korrontiak -nolabaitt esateko- ez dittuala erabat itxi ikusten dogu.

TESTUA

Iruzkin xume honetan Galdosen prosia aztertuz juango gara, ahal dan neurrian ezagutzen ditudun eibarrerazko testuekin erkatuz bai eta garaikide izan eban Toribio Etxebarriaren lanen erreferentzia izanik.

Pentsau leike, Etxebarriak bere azpi-euskalkixan idatzi ebalarik soil-soililik, lekukotasun zehatzagua emongo deskula, ez dabelako Galdosen edo Iturriotzen kasuan moduan euskeriaren zelanbaitt esateko hausnarketa haundirik egitten, honek ez bezela, batez be Galdosen kasuan, euskararen munduan berandu murgildu zalako oso, ixa-ixa *alfabetatzeko* asti barik.

Galdosengana itzuliaz, jardungai izango dogun testu honetan bizkarradura eibarreraz daguala esan bageinke be, -horretarako aditza, esaterako, ezau-garri nagusitzat hartuz- garbi dago gaiñontzeko euskalkixak ezagutziak -batez be gipuzkeria- zein eta seguruenik bere euskalkixan idazteko *ohitturarik* ezak arau jakin baten atzetik abixatzeko eragozpena dakarkixola.

Haren prosiak, bada, noraezian dabillega dirudi bere bizkaieratik eibarrerarako ereduaren billa. Gauzak holan, hemen aittatu geinkezen aldaketa fonetiko edo morfosintaktiko asko egilliaren zalantza orokor horren barruan hartu bihar dira. Horregaittik Galdosen testuak 1920 urtian Eibarko euskeriaren zutabe nagusiñak markatzeko baiño ez dau balio izango.

Laburbilduz, Galdosen prosa aldatuz doian Markinaldeko bizkaieratik iraganbidian dago gaur egunian ezagutzen dogun Eibarko azpieuskalkirutz. Bizkaiera estandarra deittuko gendukianetik ditudun ikutuak ahaztu barik.

Sarrerria aukeran luzetxua gertau bada be, goazen iruzkingai dogun testuarekin. Ez da zorionez horrelako *garbizaletasunik* gertatzen, hona “Gabonzar on-on batetik Urtebarririk onenera” izenburuaz dakargun hitz lauzko honetan. Bi zatittan banatua eta 1920-1921ko *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarixan argittaratuta.

Esku artian erabili izan dittugun lanen artian, bada, oingo hau benetan bizi eta irakortzeko atsegin agertzen jaku. Esan geinke, oro-har, gure herriko azpi-euskalkixan idatzitta daguala, nahiz eta gero ikusiko dogunez, bizkaiera, zelanbait esateko, estandarrera behin baiño gehixago jotzen daben, hiztegi aldetik gipuzkerara jotzen daben antzera.

Testuok Galdosek emoten deskuzen erreferentzixengaittik XIX. mende amaierako lekuko bikaiñak dittugu. Gabonzar ospakizuna atxakixa harturik, orduko bizimoduaren ikuspegi politta eskintzen jaku: zientziaren aurrerape-nak (argi-indar *barrixa* jarri zala esaten desku), ohitturak (Gabonetako ohiturak zelan aldatu diran egiaztatu geinke), danak ederto islaturik²⁹.

Artikuluen ortografixa

Jeusen Konpainiako *Jesusen Biotzaren deya* aldizkarixan agertu ziran bi artikulu laburrak akats ugari eukezen. Ugari izan dira zuzendu bihar izan dittugun erratak. Hasteko, ortografixan ohiko s/z, ts/tz bereizketia ez da agertzen: *Sidar*, *zartu*, *aista*, *autz*, *etzen* etc., guk danak gaur eguneko ortografixa egokixaz ipiñi dittugu. Erabiltzen dittuan orduko *r* gandordunak be kendu egin doguz; berba-akaberan: *amarr*, zein barruan: *zarrtu*. Halaber, *ll>ill* bihurtu dogu. Beti be, ahal dalarik *Eibarko euskeran idazteko oiñarritzko eriz-pideei* jarraituaz jardun dogu. Bestalde, galde-ikurrak gaur idazten diran moduan idatzi doguz. Gaiñerakua lehen bestian laga dogu.

Laburbilduaz aittatzen diharduguzen lanak aztarturik argi geratzen da autoria *beria* daben euskalkixan politto dabilkigula, eta ez jakola ixa ezelako garbizale arrastorik ikusten³⁰. Geixaren muiña ikusirik bestalde, garbi dago, Galdosek berak aitortzen ebanez, buruan hamalau hizkuntza eruan arren *bihotzian*, bere herriko euskeria be bazeroiala.

²⁹“Argi-argi, gabonzar gau ber-bertan lelengokoz tximist-argi barria ixiotuta eukelako” (“Lelengo Aldia Arroyabenian”).

³⁰ Banaka batzuk badittu: *Leiar(rezko)* (kristalezkua, berak itzultzen daben moduan); *arrentzetako* (=arrentzak: letaniak).

Gabonzar on-on batetik Urtebarririk onenera³¹

Gure bizitzan darabilgun lan eta eginbihar guztietan, hasiera on bat ala azken eder bat egittia, zer ete dan hobe; ez da errez esatekoa: gauza guztietan hasiera ona eta azken ederra, biak onak baiño hobiak diralako.

Praille zar baten esakera zan: *ekiñ ondo, ekiñ ondo; ekitzia bakarrik egitiaren beraren erdixa baiño gehixago dalako*. Baiña halako baten agure zahar batek esan eutson: *azkendu ondo, azkendu ondo; azken on batek, lengo oker asko zuzendu leikiazelako*. Biak dira ba ardura haundikuak; hasiera eta azkena: hasieria, ondo ekitzeko; azkena, ondo amaituteko.

Aurtengo urte hau azkenetan darabilgu; datorren urtian egun batzuk barru nahitanahiez sartuko gara. Gura dozue, doian urtia ondo azkendu eta datorrena ondo hasi?

Entzizue ba, orain hogeitabi urte, Euskalerrixan neuk ikusitako jaso bat; eta ikusiko dozue, zelako errez, zelako pozez euskaldun guztiok juan zeinkiazen.

Gabonzar on-on batetik Urtebarririk onenera

Hori juan etorri eder hori, oiñ hogetabi urte guk zelan egin genduan aditzen emoteko; gure Gabonzahar-aparia zelakua izan zan, esan bihar dogu lehelengo; baiña harek afariak aldi bi euki zittualako; aldi bakotxa bere tokian ipiñi bihar dogu: lehelengo aldia *Arroyabenian* eta bigarrena *Mertzedezanian*.

Lelengo Aldia Arroyabenian

Garbi-garbi, Gabonzar goizian hauts guztiak kenduta, zidarrezko ontzitxo bat bezela euren sukaldia hiru ahizta bihargiñek ipiñi ebelako:

³¹ Testu hau eta hurrengo bi zatitan banaturik *Jesusen Biotzaren Deia*-n 1920-1921 urtiotan agertu ziran, hurrenez hurren. Pedro Zelaiak be jaso zittuan Galdosen biografia liburuan.

argi-argi, Gabonzahar gau ber-bertan lelengokoz tximist-argi barria ixiotuta eukelako: epel-epel, egur eder haundi bi sutonduan erretzen eguazelako: Arroyabeneko sukaldia tokirik egokienetakua zan egun hartan, Gabonzahar-afari haundi bat egitteko.

Zazpirak laurden gitxiaguak ziran, eta diñoten lez, Arroyabeneko sukaldia garbi-garbi, argi-argi, epel-epel eguan, ataritan jarteko aukeratuta; baiña ez ziran han ikusten hiru ahiztak baiño: Justina nagusia, Katalin gaztiagua eta Pelipa txikiena³². Baiña mahai-lagunen zaiñ eguzela ezagun zan, mahai haundi eder baten hamar lagunentzako jatontziak ipiñita eguazen-da. Eta halako mahai baten, ate-deia entzunda, esan eben: “hemen datoz”. Halaxen zan izan be: sukaldian agertu ziran, hogetamabost urte inguruko gizon gazte bat, bera baiño arreba zahartxuago bat, eta bixen loba bat, hamasei urteko neska luze on-on bat.

“Gabon, Jainkuak emon; bestiak nun dira ba?” esan eben hiru ahiztak; eta etorri barrixak erantzun eutsen: “Juan gara Mertzedez’enera, eta esan desku Basilik, neska gaztia oindio orrazteko eguala”. Danak barrez jarri ziran; halako neska gaztiori, hirurogetamalau urteko amandre bat zalako. “Baiña berihala datozela”; eta esan da egin, zazpiretarako han ziran beste hirurak be: *hirurogetamalau urteko neska gaztia*, bere errein Mertzedez, eta bere lobarik maittiena (txikiena eta okerrena). Ezagun zan haren danen artian, amandria zala nagusi; danak amandria gora ta amandria behera. Batak ziñotzan³³: “gaurko hotzagaz be buru hutsik? Beti-beti buru-hutsik, elizan izan ezik. “Euskalerriko andriaren buru-zapirik ederrena, ondo orraztutako ulia”; eta egixa esateko, gure amandriaren zidarrezko ule zuri-zurixa, ezin hobeto orraztuta, ikustekua zan. Beste batek itaundu etsan: “beta oneko al dator amandria? Beti letz: iñokin hasarrerik ez, Jaungoikuakin adiskide; beti poz-

³² Herri-euskeria eta araua zelanbait burrukan balittu lez dihardu inoiz: *Pelipa* eta *Felipa*. *Aparia* eta *afaria*.

³³ *Ziñotsan* bihar leuke (eusera batuan *ziotsan*)

kide”. Halakotxia zan amandria, eta halakotxiak bere inguruan gau hartan egozen beste bedratzi lagunak be.

Baiña oindio ez dogu esan bedratzigarrena zein zan; azkenera arte bera be agertu ez zalako. Sukaldepian eukan bere *taller* edo lantegixa, eta zazpirak arte biharrarian jarduntzen eban, eta zazpirak arte ez zan afaittara etorri. Baiña zazpirak jo ta berihala agertu zan gure Santi, lehen esandako hiru ahizten aita, *Arroyabeneko* etxeko-jauna. Jarri zan bera mahaipuruan³⁴, eta jarri ziran beste guztiak bakotxa bere tokixan; zaharrenak lehelengo, gaztienak gero.

Ez dago esan biharrik afaria gogoz jatekoa izan zala; azalili usaintsua³⁵, bixigu erre biguna, txarriki koipetsua eta abar; baiña afari hartan, afal-ondokua izan bihar zan gauzarik onena; afal-onduan *pandero* barri haundi bat jateko zan da. “*Panderua joteko ala jateko* diñozu?” itaunduko desta irakorlariren batek. “*Panderua jateko*”, erantzungo detsat nik; eta badakizue zergaittik?...

Lehen esan dodan hogetamabost urteko gizon gaztia, euskalduna izan arren, Madrillen bizi zan; bere bizipide ta irabazbidia Madrillen eukalako. Baiña Madrillen bizi arren, bihotza Euskalerrira etorten zan urtian birrittan; udan Jon Deunetan (*San Juanetan*), neguan Gabonetan. Eta Gabonetako etorreran, beti ekarten eban (*mazapai*) sube gozo biribil-biribil bat, Arroyabenian eta Mertzedezengan jateko, eta sube gozo biribil horri, Mapilanian da Arroyabenian, Txantioianian da Sakonesanian, Mertzedezengan bezela *panderua* esaten eutsen.

³⁴ *Maipuruan* sintagmaren kasuan badirudi egileak *maipuruan* esan nahi izan dabela. Hain zuzen be, *puru* posposizioak beste esanahi guztiz diferentea dauka gurean. (ikus Etxebarria: *Lanan puruan, Jardunan puruan*, Lex: 634) Ikus, baita be, *puru* horren euskal jatorriaz eztabaidan (San Martin, *EGAN* 1960-101).

³⁵ Hau berbiau ezagunagoa dan *azalora*-ren lekuan erabili dau; besterik dirudixan arren ez da aranatarren uztakoa. Azkuek (1969 I: 114), Behenafarroa eta Zuberokotzat jotzen dau, Mitxelenak bestalde (Mitx III: 526) hitzaren hedadura Lapurdira zein Erronkarira zabaltzen dau, Gèze eta Duboisin-en autoreengandik jasotzen dabela.

Gabonzahar afari hartan joteko ta jateko zan ba *panderu* hori; eta bere zain ziran bihotz guztiak; maitetasunezko janari bat zalako. Afal-azkenaldian guztiak esan eben, *panderua* ekarteko ordua zala, orduraino gela nagusixan giltzpian zan da. Arroyabeneko hiru ahiztak, Mapilaneke euren lehengusiña Ziriakak, eta amandriaren illoba maitienak bata baiño bestiak gurago eben, sube-gozua ekarten, ekarliarak³⁶ izatia; hainbat lasterren haginkadaxo bat bildur barik subiari egittiarren. “*Neu juango naz da zu ez*” ebizen guztiak; eta burrukaren bat izan ez zediñ, esan eben Madrildik etorriak; “Felipa da zintzuena eta onena, eta bera dedilla, subia ekartera”; juan zan Felipa, eta zintzo ekarri eban mahaira *panderua mazapaia*, sube gozua. Hango poza, hango eskuak igurtzia, hango begi zabal-zabalekin subiari begiratzia. Eta ikustekua zan gaiñera, ha sube-gozua; gozozko begiak, gozozko burua, dan-dana gozozkua; haginkadarik berak egiñ ezin, eta berari haginka egitten etseneri, gozotasuna emotekua.

Lehelengo zaharrenak, gero gaztienak, guztiak zati eder bat jaten eguzela, atia batedonbateg jo eban. “Zein ete da?” Jaiki zan mahaittik. Justiañ juañ zan atera eta berihala etorri zan, bederatzi-hamar urteko hiru neska polittekin. “Gabon”. -”Jainkuak emon. Zer dakarzue?”- Nagusienak, Iñozentziak, erantzun eban: “Aita ta amaren orde, eta osaben orde, danok euki daizuela gabonzahar on bat eta urtebarri hobe bat; eta gaiñera, zu *Floren (Floren Madrillen bizi zana zan)* bihar geurera afaittara etorteko, huts egin barik; eta beste guztiok be, kafia hartzera etorteko”.

“Eskerrik asko” -”Gaiñera (esan eban *Luz-txok*, txikixenak) gaiñera gure amaren izenez, keixa mozkorrok zuen artian jateko, geure amak ber-berak patxar gozuan ipiñittakuak dirala ta”. Eta hori esanaz leiarrezko (*kristalezko*) ontzi eder bat mahai gaiñian ipiñi eban.

“Jarri ba zeuk be” esan etsen hiru neskatxueri mahaixan eguzen guztiak; “guk zeuen keiak eta zuek gure sube-gozua jan daigun”. -”Horretxegaittik eto-

³⁶ Holan dator orijinalian. *Ekarlariak* esan nahiko dau, kontizu.

ri gara ba”; diño tologabetasun³⁷ haundienagaz, hirugarren neskatzak Kresenek. “Ez horregaittik”, esan eben berihala beste bixak; “gabonzahar da urtebarri onak emotiarren baiño”.- “Gabonzahar da urtebarri onak ederto emonda dagoz”, esan eban Madridik³⁸ etorriak; “eta oiñ, hartu keixa mozkorrek eta subegozua”. Eta alaitasun eta pozik haundiena bihotz eta arpegi guztietan zala, nahikua barre egin eben, bai lehengo hamarrok, bai ta gero etorritako hiru neskok be. Halakoren baten jo eben bedratzirak; eta hiru ahizta bihargiñak mahai-xa jasotzen hasi ziran.” “Eta Gabonzahar-afarian kaferik ez?” -esan eban Ziriakak. “Kafia Mertzedezzenian hartuko dogu”, diño madriltarrak; “kafe ederra egitten dakialako. Mertzedeze’nera ba. Baiña lehelengo, jaunari eskerrak emon bihar detsaguz, afal-ondoko otoitzak esanaz”. Jan aurretik egiñ eben lez, afal-onduan be, ekin mahai-lagun txikienak eta beste guztiak erantzunaz, esan zittuen otoitzik ederrenak. “Oiñ Mertzedezenera”; eta haruzkuan, eruan zittuen hiru neskatzak euren etxeko ateraiño.

Galdos’tar E.

(Jarraituko da). (*Jesusen Biotzaren Deya*, 1920)

Gabonzar on-on batetik Urtebarririk onenera Bigarren aldia. Mertzedezzenian

Mertzedez’ eneko sukaldia be, gitxi gorabehera, Arroyabeneko sukaldia lakoxia zan: A ze kafia Mertzedez’ena: *diabrua baiño baltzagua, infernua³⁹ baiño beruagua eta zerua baiño usain gozotsuagua*. Kafiari edo patxarrari zurrut-txo bat egin, sube gozuari haginkadatxoren bat emon, da haretan da honetan, aurrera zoian Gabonzahar. Baiña ez egizue uste izan, afaitako jana-

³⁷Tologabetasun apaltasuna edo adierazteko gure *tolostu*-tik darakar berba barrixa eta ez gipuzkeratiko *tolestu*-tik.

³⁸Holan dator orijinalian.

³⁹Lexikuan ez dauka Galdosek eredu garbirik. *Infernu* hau, esaterako, gure *ifarñu*-ren orde. Edota *ixotuta* barik *ixiotuta* klasikua XIX. mendiaren bigarren aldikua dan Francisco Arrate abade eibartarrak be *ixiotu* darabil (San Martin 1992: 435 eta h.h.).

ri ugarixak edo afal-ondoko edari gozuak Gabonzahar hartako gauzarik ederrena izan zirala. Gauzarik ederrena beste janari bat, beste edari bat zan han: bihotzen janedana, barruko janedana. “*Oilluana*”; esan oi eben sarri. Esan eta egin: zer egitten dau oilluak, ura edaterakuan? txurrit txiki bakotxian, burua jaso gorutz, Jaungoikuari eskerrak emon gura balego bezela. Hori egitten eben gure mahai-lagunok be, euren afari ta afal-onduan.

Esan eta egiñ. Aurten hartutako ogasun⁴⁰ guztiakatik eskerrak emoteko; badakizue zer jatortan⁴¹ burura?... -dio Basilik-. “Hamabi laurden gitxiago dira: Andra Mariaren agurtza deuna (*errosariua*) oin ekiñ ezkeru, urte honen azkena eta barrixaren hasiera ondo baiño hobeto egingo ditugu”. Ez dago esan biharrik guztiak ontzat emon ebela halako bihozkada ederra.

“Ekin ba Mertzedez, emen zeu zara etxeko andria-ta”. Eta ekin etsen guztiak, etxekoandriaren jarrai: *Kurutze santuaren... Nere Jesukristo Jauna...*

Arrentzetako (*letaiñetako*) azken-deiak esaterakuan eliz-nagusiko kanpai-torrian kanpairik haundienak hamabi danbada geldi-geldi jo zittuan: urte zaharra juan eta barrixa helduta eguan; eta urte zaharra haiñ ederto azkendu-ta ba zoian, urte barria be ederto hasitta etorren.

Agurtza deuna esanda gabon esan eben alkarri: eta “bihar arte, Jaungoikuak gura ba’dau”. Honek hitzok, ez ziran agur egiteko bakarrik, baitta alkarri deitzeko be: hurrengo egunian, goizian goiz, Igarri ezetz nun?...

Beste mahai baten, gure Jauna hartzen dan mahai garbi-ederrian: han eguazen danok ixil-ixilik, goizeko zazpiretan.

⁴⁰Bizkaiera zaharrekoa da, gaur eguneko ondasun-en baliokide: “Gozaldu, barazkaldu, askaldu ta afaldu ta **ogasuna** galdu”. 1596ko *Refranes y Sentencias*-en (1964: 161).

⁴¹*Jatortan*-en kasuan, pentsatu geinke *gure* hots belarea /x/ transkribatzeko erabili dabela (ikus, ostera, Markinako euskeran Mogelen *iatort*, *Peru Abarkan* 1970: 55).

Azkenekua

Zer darakusgu gabonzahar afari eder honek? Euskaldun guztiok eztaba-
da barik gura dozuena.

Lehelengo afari eder bat senide eta lagunen artian; gero afal-onduan kar-
tetan, abesten eta ipuiñ kantari. Gero agurtza deuna (*errosario*) santua; eta
urtebarri egunian, guztiok gure Jauna hartzera. Bera da, urte-azken gozuen
eta urtebarri zoriontsuena.

Romualdo Galdós, S.J.

(Jesusen Biotzaren Deya, 1921)

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

ANTONIO ITURRIOTZ URIZAR (1900-1984)

Biografixa laburra⁴²

Gure Antonio hau izen bera izan eban Antonio Iturriotzen semea dogu. Antonio Iturriotz aitta gure Herriko errepublikanuen buru genduan XIX. mende hondarrarian, Eibarren sozialismuaren hazixa erne aurretik. Alkate izan zan 1897-1901 urte bittartian Gregorio Mujikaren *Monografia*-ri jaramon egiten badetsagu, behintzat. Iturriotz aittaren barri laburra emoten desku Toribiok bere



Viaje por el pais de los recuerdos liburuan (28-30. orrialdeetan). Antonio aitta prosista ona izan genduan erdaraz⁴³. Semiak, itxuria, euskaraz gure zorionerako, aittaren trebetasuna jaso eban. Edozein modutan Iturriotz aita-semien bizi-gorabeherak zerbait gehixago merezi dabe. Gu, baiña, oin momentuan interesatzen jakun Antonio euskal idazliarengana itzuli gaittian.

Antonio Iturriotz Urizar, XX. mendearen hasierakin batera jaixo zan martixan 3an. Gure herriko Eskola Armerixan ikasi eta *maestro-armero* titulua lortu eban. Gero, bizitza abenturazale baten harixan Moskun ikusten dogu, bertako unibersidadian Zientzia Politikuak ikasten.

Euskalerrira itzuliaz 1936ko Gerra Zibillian hartzen dau esku *gorri-xen* esparruan. Valentziatik Afrikako Oran-era igesi doia itsasoz eta handik Dominikar Errepublikara.

⁴² Heriotza-data eta beste xehetasun batzuk Antonioren seme izan zan Aitor Iturriotzi zor detsaguz.

⁴³ *La Voz de Guipuzcoa* egunkarixan irakorri geinkez haren aletako batzuk.

Azkenik, Mexiko estatuko hiriburua izango da bere exilioko ezargunia. Han idatziko dittu bere euskerazko lanak.

Eta holan da. Iturriotz Gerra Zibillaren sasoian euskeraz idazten ikusten badogu be, hamahiru urte zaharragua zan Toribio Etxebarriak bezela, gerra ostian ekingo detsa *benetan* eginkizun hari.

Iturriotzen euskalgintza

Itzulpengintza

Dakigunez bere ekoizpen literarixua zenbait literatur-itzulpen burutzerara mugatu zan. Hain zuzen, Pio Barojaren *Zalacain* eta *Las aventuras de Jaun de Alzate* itzuli zittuan.

Ez da baiña gure asmoa aittatutako lanak aztartzia eibarreran egiñiko ekoizpenaren erakusleho izatia baiño. Horrela bada Iturriotzek, *Eibarko euskeran*, berak inoiz diñuan moduan, han hemenka plazaratu zittuan artikuluak dittugu, herri-miñez beteta, gatz eta piper, zalantza barik interesgarrixenak. Euskalki arteko interferentziak oso bakanak ez badira be, nahiz eta gauzatu, gure ustez pertsona irakurtzalearengan itzuriezina gertatu ohi diralako da. Hori guztiori horrela dala ukatu barik be, bere idazlanok euskalkixarekiko fidelotasun nahikua haundixa erakusten dabe⁴⁴.

Iturriotzen idatzixak

Hona *Antologixara* ekarri dittugun artikuluak bi moltzotan datoz. Ez dirudi aukera haundixegirik genduanik. Hautaturikuak, dana dala, atsegiñez irakurtzeko modukuak dira. Lehelengua “EGAZKIÑAK” izenekua *Mexikon* idatzita dago, eta *EIBAR* aldizkarixan agertu zan: *1958’garrengo Dagonillaren 19’an*. Bigarrenaren datak 1966ra garoiaz. Bost artikulu laburreko

⁴⁴Iritzi berekoa da Juan San Martin, diñuanean Eibarko hizkeria jatorren erabilli dabena Antonio bera izan dala. (Ikus *Iker 1. Eibarko aditz-laguntzailearen paradigmak* 331. orrialdia).

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

sorta da “Danetik pixkat. Aintziñako gogorapenak Eibarko euskeran” dau izenburu eta *EGAN* aldizkarixan XXV. alian dator. Testu laburrok aittatutako aldizkariko 96-98 orrialdiak bereganatzen dittue. Idazlanotan Iturriotzek bere urriñeko Eibarko ume eta gazte denborako oroitzapenak dakarz.

Zeguazen moduan agertuko dittugu orduko grafia ezertan be ikutu barik.

EGAZKIÑAK

AMAIKATXO egazkin (avión) pasatzen jakuz odeiak ziar gaurko egunetan, gure aldetik begistada bat merezi izaten eztezkuela.

Oso ederrak, indartsuak eta biskorak izanda be, ezitxugu aintzakotzat artzen, ikustiaren ikustez oitxu gara-ta.

Baiña burdiñazko txorixok begixen aurrian, ditzudanian, beti etortzen jata burura, bizi naixen artian sekulako aztu ezingo dodan zeozertxo, emen azaltzera noiana.

Zuek, gau eguneko gaztiok, orrenbaten⁴⁵ eingo dozue barretxo errukitsuren bat kontu-kontari natorkizuen gertaera kaxkar au dala-ta; bateronbategan esan be esan leike: “Ako⁴⁶ agurian xaxaria⁴⁷, alako epelkerixak aomiñian ditzuala”. Baña, dana dala, biotzeko kutunian dakartena da ta nik bai uste zuetarikoen⁴⁸ bat izan neikiala lagun, gertaera zar onen unak ausnartuz, ulerbera edo “konprehsibua” izaten⁴⁹.

Ekin deixogun ba: 1910'garreneko garagarrilla, Sanjuan maitien illa.

Sasoi onetara ezkeror lorik be ezin ein izaten genduan, eguneri ta gaueri bultzaka, Sanjuanak noiz etorriko.

¡Baña, ara! demoniua, or ikusten dogun arratsalde baten Orue'tarren inprentako Elias, eskillaratxua bizkarrian, papel-zorrua besapian eta itsaskai edo engrudo ontzixa beste eskuan zeroiazela. Betikua, autubazaille ta jakingose giñalarik granujok⁵⁰, jarraitxu gentzan ondorik⁵¹ inprenteruari. Kantoi

⁴⁵Seguruenik? Ikusi hurrengo artikulua moltzuan *orren baten* banaturik. J.S.Martinek dakarren esanahia: “aproximadamente” Iturriotzen bigarren *orren baten* horrekin hobeto uztartzen da (Ikus *Botanika Lexikoa Eibarren eta...in Euskera* 1990-2, 35. liburukia).

⁴⁶ *Ako*<Harako. Esapide jatorra gaur egun gitxi entzuten dana. Mitxelenaren ustez: “es una forma muy reciente, y se encuentra en N. Etxaniz, Gandiaga y en diálogos populares” (Mitx. II-313).

⁴⁷ Harrigarriro grafia horrekin idatzita. *Txatxaria* Etxebarriak.

⁴⁸Errata seguruenik. *Zuetarikoren...*

⁴⁹ Ulerbera edo *konprehsibua*. Testuan barrena sarri erabiltzen daben era, berba bat bere erdal ordainaz esplikatua nahian. (Ikusi, halaber: *Itsaskai edo engrudo; ezazi edo enano; txede edo intentziño*).

⁵⁰ Eibarren zentzu despektibo barik esan izan jako edozein mutil koskorri.

⁵¹ Oso sarri agertzen dana, gaiñera, bizkaierazko literaturan. Ikusi, esaterako, Mogel J.A. “ondoric, ondoringo, ondoringuak”. Cristaubaren icasbidea... Euskaltzaindia. *Euskararen lekukoak*. 14.

egoki batera eldu zanian ipiñi eskillaria orma-kontra ta an ezarri eban zeozer, guretzat arritxutzekoa zana. Sekula alakorik...!

Egazkin edo abioi aundi bat zetorren, berakin ega eingo eban bibote izugarririk gorutz zuzen-zuzen zitxuan gizonakin. Egaldixa⁵², Sanantoniuetan Durango'n izatekoa.

Ene, ba mutillak!, zer juau au...! Esaten, aobetian, mutil-koskorrok; ordurarteko egazkiñak ipoin-gauzatzat baño ezbageunkazen. Erriko kalertzetan ikusi zitxetekan⁵³ mutil-pilluak gure bibotedunari adurra-darixola begira. Arek bai gure amesak, gure eztabaidak, gure zalapartak. Zoratu giñan danok. Ain zoratu eze, Sanjuanak eurak be aztu jakuzen. Zer zan a!!

Egunak juan ta egunak etorri, aundi ta txiki, geruago ta beruago giñoiaz⁵⁴ Eibar'aldian, Durango'ko gertakizun galanta zala ta etzala⁵⁵.

Ala-biarrez, bein edo bein, eldu zan ordua. Mutil-koskor pillo bat Durango'ra juateko erabagixa artuta genden. Oñez juan biar ta boltza ariñakin gaiñera. Ala be pozarren. Jakiña, etxekuan ixilixan.

Amak somau zoztan⁵⁶ nere buruan nerebixana ta domeketako erriala emon biarran semaiko bat emon. Abarketak nai nik jantzi, ta orduan, amak:

-Tira mutil! Tira mutil!: abarketak domeka artsalderdixan? Eztago abarketarik illuntzirarte.

Gero au dala ta bestia dala, euki ninduan etxian ordubixak jo ebeneño.

Xemeikua boltzilluan, zapata estuak, eta ordubixak erlojuan zirala ikusiz, kendu jakon amari bildurra Durango'rutz artuko nebana: nik, amar urteko ume-gorri nintzan onek. Eta emoeztan kalerako baimena.

Ataixan nitxuan zain laguntxo aritxalarixok⁵⁷.

⁵² *Egaldixa*. *Egaztadia*-rekin batera erabillia. Guztiz arrunta gurian.

⁵³ Hau aditz-forma hau ez da gure inguruan ezaguna. Gure *zeikezen*-en baliokide. Batuko *zitezkeen*-en parekoa.

⁵⁴ *Gindoyazen* Etxebarriak (Lex.: 131). Horrela dator Eibarko aditzaren bilduman.

⁵⁵ Sandhi edo lotura honetan ez da gurean afrikadarik sortzen. Beraz: *ez zan*. Ikus, gero-ago egoki: *ezan* egixa...

⁵⁶ *Zestan* da gure hizkeran. Bergara aldekoa da *zostan*.

⁵⁷ *Aritxalarixok*. Iheslarixok. *Aritxan* ibiltzetik ei dator -diñosku Etxebarriak-: "Se dice del que abandona la casa paterna". *Ibilarixanak*-en berbiaren etimologia ere emoten desku. Honako hau aurre-eransten detsalarik: "Según mi amigo Luis Ormaetxea: aritxalarixa, ardi-galdua, *ari-billa aldendua*" (216).

Abixau giñan Isasi'xan gora ta, Otelerekorutz giñanian, or dator Urkuzu'ko⁵⁸ lando aundixa bost edo sei zaldi aurrian zitxuala. Urten danok bere ondorik aintxixiketean eta Elgetakale'ko Miel Txotxolua ta neu eldu giñan lelen atzeko burpil bien erdiko ardatzian jartzera. Ipur-mamiñak lokatzeko⁵⁹ añakuak ziran ango burdiña-dardarak, baña gu, ezta konturatu be. Aurrera!

Aurrerakizun laburra, orraitxio: baiba, Baldaxar gurtzain edo kotxeruak igarri bezero ezegokixak zeroiazela atzekaldian eta jaurti eban zartailukada bat, jo ninduan arpegixan ta lurrera bueltaka bota ninduana. Latiokara ta lurrian artutako danbatekuaz kornot barik⁶⁰ gelditxu nintzan. Artu lagunak besuetan eta eruan ninduen errekarra, bai ainbat bidar burua uretan sartiaz berialako bizkorren gorbiztu⁶¹ be ein nintzan.

-Zer egingo juau ba oin, Anton?- galde eiezten.

-Zer eingo dogun? Ori be esan? Durango'ra jua ta arioplanua ikusi.

Eta danen aurrian urten neban, begi bata kedarrria⁶² baño baltzago ta arpegixan alde batetik besterañoko zanbruaz⁶³.

Ermu'ra orduko, lagun aldria urritxuaz zoian, igeslarixeri esker. Aritxixo'ko aldapan gora, Ardantza'ko Txakur Karo billau ta galde ein gentzan:

-Txakur, mezedez, oindiokan urrin dago Durango?

-Durango? Ara, mutillak; begira aldapa gaiñari... Ikusten dozue? Ba pasau axe ta... fitx! Durango'n zaoze.

Ezin, ba, Txakur'ek sinistu alako ibillaldi garratza eitxeko lain giñanik. Orregaitxik bota eban bota ebana.

Mitxelenak, ostera, bere Hiztegixan -Etxebarriarendik- lokuziñua baiño ez dau jasotzen: "*arixan eiñ irse de la casa paterna*". (Mitx. II. 468).

⁵⁸ Ahozko billakaeria lekuko idatzixetan be indar hartzen jua izan da. Urkuzu eta Urkizu bixak batera irakurtzen dira hiri toponimian XIX. mende hasieratik gitxienez (Euskaltzaindia 1995: 471).

⁵⁹Sóltatzeko. (Cf. Lex. 527).

⁶⁰Konorte. Etxebarriak *konorta*.

⁶¹*Hobetu/ osatu*. (Cf. Lex. 406).

⁶²-a itsatsiarekin.

⁶³*Zanbrua*. Marka, ubeldura. Mogelek *euli*, ta *manduarena* alegia polittian honela darabil aittatutako berbia: "mandazaiñaren cigorradac atera daruadaz zambro gogorrac" (20. ipoiña). Altzibarrek jasoa (1992: 206).

Juan da juañ giñoiázela, bat emen, urrēgua arutzago, así giñan lagunak bide baztarrían lagatzen ta, Aritxíxo gañera orduko, Miel ta neu gelditxu giñan bakarrik. Bixok eldu be, Durango'ra, Jaungoikuak dakíxan orduren baten.

Nik neroían semeikuagaz⁶⁴ erosi Santa María elixaurrian laranja bat, erdixan bi ein, ta jan genduan. Kitxo gure diruok, Miel'ek lausikorik ezbazeroían.

Orretan, burdiña zarataz⁶⁵ bai txinparta jaríxoz, agertu jakun tranbia. Ene bada ta ba!; zer zan a! Ao-zabal gēngozkíxon begira, ezazi edo enano txikírrin bat etorri jakunían. Beriala lotu giñan berakín izketan:

-Zuek -esaezkun- probintzianuak zarie⁶⁶, ezta?

-Probintzianuak?

-Bai, nuntarrak⁶⁷, ba, bestelan?; eibartarrak edo.

-Eibartarrak probintziano izatera, bai, -erantzun gentzan.

-Eta zer, tranbixa ederri⁶⁸ begira, e? Eibar'en ez baña bai Durango'n, tranbixak.... Ji! Ji! Ji!... Ta aldendu zan pozik, gízontxua.

-Ji! Ji!...? Buruaundi!! -deitxu gentzan.

Burua euki be, erregaldarian lazkotxia eukan.

Ein genduan andik egazkín-ípoiña zeuan alderutz. Benetako ípoiña, axe, bada erlamiño arek ez-eban ein Isasi'ko Oíllalokiak ein zeikían baño egazta-

⁶⁴ Hemen be sarreran aittatu dogun bizkaieraz emon ohi dan soziatibo-instrumentalaren arteko nahasketia dogu. *Semeikuaz* bihar dau. Azkueren ustez nahasketia hizkuntza erromanikuen eragiñez etorri jaku. (Cf. *Morfología*, I/338-321, 339). Badirudi baiña hori nahastiori ezer izatekotan fonetikua bihar dabela izan. (Ikus Euskaltzaindia 1995-I: 428). Bestalde, bizkaiera literarixuaren zutarrizat jo geinkezen Mogelek zein Frai Bartolomek ez dabe aittatutako kasua beti artez erabiltzen. Bizkaierazko soziatiboak: -gaz>(g)az>az emon izango eban garai batian horrek fenomenorrek dakarren nahasketiakín. Badirudi markiñar fraidiak abadiak baiño maizago dagiala arestian aittatutako nolabaitteko lizentzia hori. Ikus esaterako: "Errazoi guztiagaz escatuten dau euroen meseden nik borondate osuagaz eta vijotz pinagaz". *Icasiquizunac*: "Hitzaurrea". (Altzibar-ek bildua 1992: 289). J.A.Mogelek ongi hainbatetan, ostera: "Ardaoz berotuaz" (1970: 39).

⁶⁵ Hemen, barriz, instrumentala ongi erabilliaz (*zarataz*, *gurian*).

⁶⁶ Gaur egun entzuten dan adizkixa. Toribio Etxebarriak *zaraz* dakar (Lex. 21). (Ikus, baita be, J.S. Martinen sarrera liburu berari 11. orrialdian). *Diraz* ikusi geinke Francisco Arraterengan XIX. mende erdian. Birrittango pluralizatzaillia oso usua zan XVII. mendian bertan: "Cenbat laungoico *diraz*"? *Doctrina christiana*. Nicolás de Zubia durangarrak 1691an.

⁶⁷ Eibarko euskeran leherkari gorraz *nuntarrak* eta ez *nundarrak*.

⁶⁸ *Ederreri*, berez.

da aundixagorik. Ori berori zala-ta bertan bera su emon eta erre eben.

Guk ezgenduan orretxen beste be ikusi, ara eldu giñanerako zalapartak eta jentien anka-jokuak baño ezbazebizen, txapel-okerrak⁶⁹ an da emen ondorik zitxuela.

Ori ezkeru etxerutz artu biar, laster zetorren illuna-ta.

Txede edo intentziñoz amak emondako zapata estuak zatitu eztezen anak⁷⁰. Ezin, ba, eurekin bidian osteratu. Orrela, oñetakuak eskuan, ortozik abixau izan nintzan⁷¹. Ederra girua, antxen neukana.

Urriñegi izan jakun Durango'rañokoa ume-zorri bixori, ta bidia nola moztu arduratan, asi giñan nundik nora juan biar genduan ez galdezka.

Zaldibar'erutz artzeko esaezkuen. Berriz'era barik. Zaldibar'ko tunela ziar ba'zan biderik laburrena. Ta bai guk ondu be, tipi-tapa trenbidetik ibillixaz, tunelaren aorañokua; baña, ara orduko gau illuna zalarik, bildurtu giñan tunelian sartzen.

Basarritxar baten esana entzunaz, basotik, arizti batzuek ziar, jo genduan Jañagaña'ra. Jakizue sasoi artan Zaldibar'tik Jaña-gaña'rako bide-zabala burutasunian⁷² be ezeguala.

Baña, ariztixan galduta sortu giñanian, Miel ni baño be gaztiaua izan-ta (bedratzi urteko umetxua) emoetzan negarrari Ama Doloretakuak baño soil-lago⁷³. A ikusitxa, nik be negar. Axe bai guk geunkan erromerixia: gosiak eregitxa, anak zatitxuta, nekian nekez beia jota, basoko kerizak gabe bal-tzian sorgin-dantzetan, bildurrez ikaraka ta nora jo geinkian be ezjakinian.

Nik eztatix zela, baña nundik edo andik atara genduan adoria⁷⁴ ta bai aurrera ein be, Ermu gañera agertu arte. Andik, erdi-arrastaka ba'zan be, eldu giñan, gaberdirako, Eibar'era.

Nik entzun nitxuan entzuteko agirakak:

-Ikusten dok zer ein duan, tonto-lapiko? Juari barrero, arioplano ikus-

⁶⁹ Goardia zibillak.

⁷⁰ *Zatitu eztezen. Zatitu zizkidaten.*

⁷¹ *Ortozik. Oiñ hutsik.*

⁷² *Imajinaziñuan be ez.*

⁷³ *Hemen gogor, zaratatsu esan nahi dabela dirudi. (Lex. 655).*

⁷⁴ *Adole Etxebarriak.*

ten⁷⁵, zapata estu ta guzti... Juango intzake?

Buru-makur, begiak lurrari jositxa esan neban ezetz. Baña ezan egixa, garbai⁷⁶ izpirik biotzian somatzen ezpaneban. Tranbiak ezautu. Durango be bai, ta enanuakingo artu-emonak aintzakotzago nitxuan neke ta gañerako lor zitxal⁷⁷ guztiak baño.

Etxatan, ez, garbatu...!⁷⁸

Antonio Iturrioz

Mexiko'n, 1958'garrengo Dagonillaren 19'an, (*EIBAR* aldizkaria, 18 zkia./ 1958ko urria)

“EGAZKIÑAK”

Irukin laburra

1910 urteko oroitzapen xamurra dakarkigu Antonio Iturriotzek bere urrutiko erbestetik. Eibar txiki eta batu ha gogoratuaz lerro eziñ atsegiñaguak jaulkitzen dittu. Normala dan moduan, orduko sasoiko ohitura eta bizimoduak oso aldatuta agertzen jakuz. Egilliak, kuadro tzar bat marrazten jardungo baleu bezela, eta bertan, ohol zabalían, emeki-emeki, pertsonaiak eta objektuak, paisaiak eta guztion zertzeladak kokatuaz joango. Eta gero -auto-reak darabilen berbia erabilliaz-, ehun soila mezulari, *itsaskai*⁷⁹ batez orma gorrixan erantsirik lagako leukez.

Eta halakotan gertatu ohi dan bezela, oroitzapenezko bilduma honetan *pintxelaz pintxela* beretzat gauzarik nimiñoena litzakiana, guretzat, eta zer esanik ez ondorengoentzat, lekuko ezin estimagarrixagoa bihurtzen da. Hasi,

⁷⁵Bitxia egun *ikusten* hori, ipar-alderagoko bizkaieran entzuten dana (Lea arroan esaterako) baiña ez gure artian. Mogelengan ageri dana, bestalde: ...”itanduko neuskezu ioaten zarean Meza nagusira Jaungoikoaren berbea *entzuten*”. (1970: 38).

⁷⁶ Ikus *garbatu*. Etxebarriak ez dau izen bezala jasotzen.

⁷⁷ *Lan neketsua* lez erabillia. *Gorpu-lorra* jasotzen da “Biamamunean amarretan izan ziran elizkariak eta elizkari-ostean *gorpu-lorra*”. (*Latsibi*: 1989: 312).

⁷⁸ Damutu.

⁷⁹ Letra etzanak besterik esaten ez dan bittartian guriak dira.

esaterako, txanpon mota desbardiñetatik: *xemeikua*, (*semaikoa* eta *semeikua* be idazten dau, *erriala* (domeketako *pagia* zala enteratzen gara), *lausiko* aspaldikoa bera be aipatuaz⁸⁰ zein eta *bost edo sei zaldirekin* ibiltzen ziran Urkuzutik Ermu alderako *lando aundixak*. Testuak, *granuja*, *mutil-kozkor*, eta *ume-gorri* zenbaitten Eibartik Durangorako ihesalditxoak erakusten desku. Zertara eta *arioplanuak* ikustera. Domeketako oiñetakuak aldiari, *ixilixan* ama konturatu ez deiñ, azkenean artikulua egilliak eta bere lagun Mielek lortuko dabe bakarrik euren helburua⁸¹. Baiña bertara heldu eta ikuskizuna ez da gure mutillen ahalegiñaren neurrikua. Ez da hurrik be. *Abiaziñua* oindiok ixa-ixa hasi barrixa da eta horregaittik *benetako egazkin-ipoñia* iritziko detse hari abioi hari, zergaittik eze, *erlamiño arek ez-eban ein Isasi'ko Oillalokiak ein zeikian baño egaztada aundixagorik*. *Lurreko* garraioak nagusitasuna eukan ondiok, kontizu. *Tranbia*, bada, *arioplanuaren* antitesia. Harek, honek ez bezela, heldueran bere indarra agertuko dau: *burdiña zarataz bai txinparta jarixoz, agertu jakun tranbia*. Holan ba, hegazkin desiratu harek, txatxarra eta auspo gitxikua izatiaz aparte, ez zeukan *jaiki* haundirik.

Alderaketa guztiz esanguratsuak darabiz, hara nola ipotxaren burua *erregaldara* baten bestekoa dela diñuanian. Edo eta arestian aittatu bezela, Durangoko abioien *hegatzadia Isasi'ko Oillalokiak* egin zeikeana baiño haundixago ez zala aitortzen dabenian. Azkenian *tranbia ezagutziak* berak askoz txundituago lagako dittu gure gizontxuak: *-Ao-zabal* bere hitzetan-.

⁸⁰ Azkuek ez dakar gure hau baiña bai: “*lauzuriko* o su variante *lauziriko* era el ochavo, -dio-; literalmente *de cuatro blancas*”. (Morfología I/165). Etxebarriak, ostera: *lau+sus?* (Lex. 512).

Testuan, edozein modutan lehentxuago datorren *semeikua*-ren zentzuan erabillia dirudi. Etxebarriak be erabilli ohi dau: *lausikuari* begiratuta. (Nafarroako Margaritaren *Heptameron*-etik itzuli eban *Leku askotakua izan leikian ipoña*. *Jardunda gogor*. Argitarabariko orri mekanografiatuak 97. orrialdea).

Bazan, bestalde, Mogelek (1970: 43) behintzat, *laumarai* deitzen eban moneta: “*laumarai* esketan ez padau”; eta gure artian gaur egun be *lamaiko* deittu ohi dana. *Cuatro maravedises* itzultzen dau Azkuek.

⁸¹ Jazteko ohiturak eurak be islaturik geratzen dira lan atsegin honetan: astegun buruzurixan abarketak, domeketan zapatak.

Mexiko urriñ haretatik bada, hor doiaz pertsonaia gehixenok ohitturia zanez norbere gatzizenaren zama arinaz: *Miel Txotxolua*, *Txakur Karo*, *Baltaxar*.. Bata *Miel Txotxolua* bidai-lagun izango dau narratzailliak, bestia, ostera, *Aritxixon* topauko dabe. Honek nagusixago izaki dagokixon tratua hartuko dau *mesedez* eta guzti, horregaittik, hain zuzen, *zuketa-n* zuzentzen jakoz. Elgeta-kalekoa dau laguna gure Antonek; Ardantzakoa da, barriz, *Txakur Karo*.

Baltaxar gurtzaiña gupidabakua da: *Urkuzu-ko lando aundira* pagau barik inori igotzen lagatzen ez detsana. Hartutako *latiokariaz* eta jaustiaren ondorengo *danbatekuaz zanbrua* agertuko jako.

Bestelako kokapen zehatzik ez da falta, hara nola *Orue'tarren inprentako Elias*⁸² gure mutillen *jakin-gosia* piztuko dabena. Orduko sasoiaren seguruenik gaur baiño ohartuaguak egongo ziran herritarrak ormeri begira!

Antonio Iturriotzen prosa, bada, oraingo honetan itzulpenak ekarriko leskixon hersturatik aske, eder, jori eta anitzkoloretakoa dogu. Egixa da lexikuan sarrittan bere euskalkitik kanpo *hegan* egitten dabela, halanda be, esan geinke testuaren *hezurdura* gure herriko hizkeran eginda daguala. Eroso darabil, zalantza barik, bere herriko euskeria; baiña bihar dabengan euskera *ikasira* joko dau. Bere jaioterrixaren sasoi bateko kuadro erraldoia, bada, Iturriotzek lagatzen deskuna.

Narratzailliak ixa beti kontu-kontari dihardu, baiña han hemenka barneratzen dittuan alkarrizketa bakanak bizittasun haundiz lortu dittu. Gatz eta pipar darixo, esaterako, ipotxarekin⁸³ dabengari -berak *ezazi* deitzen dau. Haren jardun zirikatzailliari: *zuek probintzianuak* eta, gaiñera, inoiz tranbierik ikusi bakuak, haren bederatzi-hamar urteko *ume-gorrixen* mendekua

⁸² Mende hasieran Pedro Orue arabarraren inprenta zan gure herrixan bakarra. Geruago agertuko da S. de Diego-rena.

⁸³ *Ezazia* da enanua eta bere ezdeusa nabarmentzeko *txikirriña* dala esaten jaku. *Txikirriña*, *txipirriña* tipigarrixak dittugu gurian.

beren adiñian egin leikian gauza bakarraz hezuramitzen da: burlia:
Buruauñdi!

Itzulialdixa elorribide izango da gure lagunentzat *ortozik* bata, *negarrari emonda* bestia, halako batian *arrastaka* bada be, gaberdixan Eibarren izango dira. Aurretik, Jañagañako bidean, sorgiñak be ikusiko dittuez: *basoko kerizak gabe baltzian sorgin dantzetan*. Baiña, lorrak lor, Iturriotzek berak diñuan moduan, *garbatu* bariko abentura izan eben. Amak semeari luzatzen detsan azken agiraka zuzena eta oldartsuaren aurrian mutil koskorraren gogoeta antoljikia da. Ezagutu zittuan neke *-lor-* guztiak ez ziran ezer izan: arioplanuak baiño tranbiak, Durango eta enanua *aintzakotzago* izan zittuan eta.

Iturriotzek narraziñua bizi eta erakargarri eruatzen daki, are bizixago bihar danean, jator eta graziaz beterik, deskripziñuetan, alderaketan, hara nola *Urkuzuko lando aundixaren zurruntasuna* adierazteko: *Ipur-mamiñak lokatzeko añakuak ziran ango burdiña-dardarak* diñuanian. Edo eta jarraixan landotik jauzi eta begi bata *kedarria baño baltzago ta arpegixan alde batetik besterañoko zanbrua*z geratzen jakonian. Hizkuntza hiperbolikua erakarriz irudi ezin bisualago lortzen dau. Hitz-alkartuak be ederki darabiz eureri testuaren barruan kokapen ezin egokixagua emonaz. Hor dittugu *landoaren* pasadizua lekuko, haren *burdiña-dardaren* gogortasuna, gure mutikoen *ipur-mamiñak* lokatzeko modukuak ei. Edo eta *egazkin-ipoñña* amaitu dalarik bertan egozen *anka-jokuak, txapel-okerrak* atzetik zittuala.

Bestalde, esakera jatorrez hornitua, ondo uztartuta testuan kutsu artifizial barik: *¡Baña ara! demoniua, sekula alakorik..*; literatur sena baebala erakusten desku gure herrikideak, *izurrik* bariko prosa erabilliaz, bestiak beste: aliteraziñua, elipsia, sinonimia eta alderaketa ezin dotoreago erakusten dittu.

“DANETIK PIXKAT”.

(Aintziñako gogorapenak Eibarko euskeran)

Oindio mutil-koxkorra nintzala, bein baten Atxe’kora eruan ninduen, baserri artan egonaldi naikua luze bat emotera. Gitxi gora-bera nere urtietan zebizen mutillak ba ziran, eta onez-gaiñera, etxera jasota zeuken Urlixaneko Gabiño, gerora Eibar’en arri-jasotzallia izango zana.

Gabiño’n aitxa, gizajo aundixa, zerbaitx loka ebillen burutik, guk orduan ondo igartzen ez ba’gentsan be. Eta Ferrol’en soldau egona zalarik, guri (mutil-koxkor taldiari), soldausketak⁸⁴ erakusten zailtzen zan. Ara zela zan alakoren bat: illuna jausten zanian bialtzen ginduzen bide-txior batez aurrera ta sasi-osteren batetik⁸⁵, an eiñgo eban orrua garratza:

-Alto! ¿Quién “vives”?

Guk, jokalegia ikasitxa geunkanez, gelditxu ta bertan-bera erantzutzen genduan, danok batera:

-Karabiñero! Eta orduan berak.

-Aurrera, poñetero!

Aurrezkero, illabetiak jua da etorri, Eibar’ko kalietan agertu zan, geruago ta aboziñaukerixa⁸⁶ nabarmenaguak egiñaz. Bere burua garbitxu biar ebala esaten zeskun Untzaga aldeko ume-zorrixori. Ala, bein zerera igo eban⁸⁷, Astaburuaga jaunak Notarixia zeukan etxe aundiko tellatura, anditxik buruz-berakua eitxeko asmuhan. Eta guk beetik, “salto Urlixa, salto saltooo...!” eskatzen gentsan. Eiñ eban egonalditxua berutz begira ta alakoren-baten buruari erainka aldendu zan gallur artatik.

⁸⁴ Hedadura gitxiko berbia dirudi.

⁸⁵ Hitz alkartu esanguratsua. *Sasidun ostea*.

⁸⁶ *Especial* itzultzen dau Etxebarriak. Eta jarraitzen du: *Que se usa mucho en Eibar*. (Lex. 102-103). Gaur egunian ez da entzuten. Bitxia bestalde Iturriotzek berba honetaz egitten daben definiziñua. Bere beste lan batian gure herriko euskeriaren defentsa sutua egitten dihardualarik hara zer adierazten deskun: “Gauz (sic) edo izakera bitxiei *abosiñaua* esaten zaie an (Eibarren alegia); brintxolaua dotore ta argiak diranei”.

⁸⁷ Elementu kataforiko oso egokixa batez be hemen bezala hizketa maillango errejistruak lortzeko.

Una erabilli dau, ostera, aurreko irakurgaixan, bizkaierari eta gure azpi-euskalkixari dagokixuen legez.

Beian zanerako artu gizon gizajua⁸⁸ danon erdixan eta an izan zitxuan erreklamaziñuak...: “miña luzia baña saltorik ez”, bata: “ollua zu galanta”, bestiak. Eta berak:

-Errezoia daukazue, mutillak, baña...iño!, andik goitxik bera utsune itzala ikusten najuan. Bildurra sartu jatak.

Orraitxio aren elburu edo destinua benetan zan arrigarrixa. Goiz baten, an ikusi genduan Ardantzan, tren-bide baztarrian, trenak zatitxuta. Orduantxe konturatu nintzan zela ziran parkatu eziñak arekin koitxauaz guk erabillitako biotz-gogorkerixak.

+++++

Seme nausixa, Atxe’kuan, Joxe Lux zan, eta zenbaitx gure aldeko basarri-erretan, sasoi artan oitxura ebenez, Araba’ra eruandakua genduan, “erderak artzera”. Berak eta bixok alkarrekin etxetik urtetzen genduanian, kaletarra izan be ni txa, erderaz eitxen zestan: “mira qué pradera, mira esto, mira aquello”. Da, gari-sail eder batera eldu giñanian.

-Mira qué pan!- esan zestan .

-Pan, ogixa da: garixa, barriz trigo- nere erantzuna.

-Ik eta nik baño obeto jakixek erderaz Salbatierra aldean, eta an garixari edo garitzeri “panes” esaten jetsek.

Ala izan be. Araba’ra galeperretara juaten asi giñanian, nai baño geixagotan deitzen zeskuen ango gari-sail jabiak:

-¡Eeeh...!, cuidado con los panes.

Erderak artzera basarri-mutillak... Ez dot ezer esango orren kontra; baña, dana dala, pozik juango nintzake, bai beintzat aal ba’neu, Aitzgorri barreneko basarri bakartiren batera, ditxudan urtiak-arren, EUSKERAK ARTZERA⁸⁹.

+++++

⁸⁸ Normalian andrazkuari esaten jako eta. Aurrerago *gizon gizajua* egoki erabilli dau. “*Koittaua* se dice de la infancia y de las hembras”. (Lex. 488).

⁸⁹ Toribio Etxebarriak erabilli ohi daben *erderak hartzera*-ren mimesian edo sortua.

Gerra-denporan, amaika gora-bera ta alkarrekingo ibillaldixak erabilli genduzen Joxe Lagun eibartar ondo ezagunak eta bixok. Jakiña, ondio ez giñan ain zarrak be ta emakumiak zirala-ta ez zirala makiñabat bidar jardun izan genduan.

Joxe'n ustez, naikua ei zeikian gonekingo eskobia gauzona izateko. Orrela, nun edo nun neska itxusiren bat ikusten genduanian, laster botako netsan:

-Joxe, ori be gauzona ete juagu)

Eta berak:

-Dudia...?

Baña, bein-baten Santanderrerutz giñoiazela, azkenengo janordua noiz izan genduan aztuta ta urrengokua noiz geinkianaren aztarrenik be barik, aka-burik ezeukan oiñazko ibillixan noiz-eiño pot, an ikusten dogu, Jibaja inguruan, ortuan atxur txiki batekin txarka-txarka⁹⁰ porru-sailla jorrocketan⁹¹, itxusiagorik asmau be ezindako atso baltza. Sagar erria baño zimurrago arpegi-xa, begi ezkelak⁹², zur kakua, agiñik bariko ao-zulua ta zazpi xentimoko ziarro puru kalikañua⁹³ bera baño baltzagua kolorez; sorgin arteko akelarreren batetik iges eiñdakua begitxantzen zan.

Ointxe probauko aut, aixkiria, esan neban nerekautan, laguna buruan nebala ta bota netsan:

-Ikusi or, Joxe, goizaldeko intzak dir-dir daukan uda-lora eder ori. Zer diñok ba oin...?

Eta berak:

-Anton...! Ontxe ipiñi estak joko estua...

Joko estua, bai; baña ezta orduantxe be ezetzik nere lagunak.

+++++

⁹⁰ Beherago datorren *dir-dir* onomatopeiaz batera aliterazio polittak.

⁹¹ Jorratzen, alegia. Ikusi gure hizkeraren *gipuzkeratzeaz* esaten dana. Baiña J. Gisasolak joan zan mendian ziñuanetz: "Los bizcainos (sic) dicen *joketan, gomutetan*, en vez de *jokatzen, gomutatzen*" (*Euskal Erria*, 1890: 472).

⁹² Tuertua.

⁹³ Gure hizkeran erderazko *puro* hitzari holan esaten jako. Bestalde, *Kalikañua* edo *kali-keñua*. Ziarro-puru mota bat. Merkierna. *Txorta-abarra* be esaten jakona. (Ikus Lex. 696).

Elgeta kalia, Badet'eneko aurrian Trifona'neko dendia zeuan. Denda onen gañian bizi zan Tomas Ontxakua, eta gorenenguan Maria Manu. Trifona ezeguanian Maria Manu'k zaintzen eban dendia.

Bein-baten, lustrerik onena dendia artantxe saltzen zala-ta, bialdu ninduan amak gauza bristadatsu⁹⁴ ori eroatera.

-Ze koloretakua esan detsu amak, or orren baten⁹⁵ kakan kolorekua? -esan zestan Maria Manu'k.

-Kakak kolore asko izateitxu, María -erantzun netsan. Zaplateko eder bat ondo merezi neban orduan nintzan ume-mokuak.

Mejiko'n, Magetzian. (*EGAN* 1966, XXV. 96-98 orr.)

⁹⁴ *Briztaratsu* biltzen dau Etxebarriak. (Lex.: 271). Eibarko eskopeta onak *briztadia* eukela esaten ei zan.

⁹⁵ Seguruenik? Banaturik eta lotuta idatzi dau. J.S.Martinek dakarren esanahia: "aproximadamente" hemengo honekin hobeto uztartzen da. Ikus "*Botanika Lexikoa Eibarren eta*"...in *Euskera* 1990, 2 35. liburukia (2. aldia).

“Danetik pixkat. Aintziñako gogorapenak Eibarko euskeran”.

Oinguan ekarri dogun irakorgeixak *EGAN* aldizkarixan izan eban argi 1966. urtean XXV. alian. Eta hemen autoriak berak adierazten deskun lez, *Eibarko euskeran* egin nahi dittu pasadizuak. Aurrekoak ez bezela, lau testu laburrek osatzen dabe goixan aittaturiko izenburu bereko gorputza.

Barriro be gaztaroko oroitzapenak ardatz hartuta *burutik loka ebillen* gizasemiaren patu trajikua kontatzen da hasteko. Bere izenik emoten ez dan pertsonaia horren pasadizua literatur egille ospetsu batek hezurmami-ttuko leukian itxurakua da: herri txiki bat, erdalgaizto egiten daben iñuzentia, baiña iñuzente guztiak bezela, atzenian beti egixa diñuala frogatuko dana eta, jarraixan, horrelakuetan mutikuak izan ohi daben doillorkerixia. Honi jarraiki *erderak hartzera* baiño -Etxebarriak be badarabilen esapide politta, lautadara erderaz ikastera joten eben eibartarrak aittatuaz-, *euskerak hartzera* askoz pozago joango litzakian narratzailliaren herrimiña. Hirugarren pasadizuak bestalde, Antoniok bere adiskidia zan Joxe *Lagun* izenekuakin, gonazale amorratua bera, *katarra*⁹⁶, andra kontuan, izan zittuan urteerak eta azkenik Antonioren beraren gertaeria: dendara amak bialdu ebanekoa kontatzen deskuz. Horra motzian esanda lau kontatera labur baiña atsegiñak. Azpimarragarrixa hirugarren testutxoan ezin bikaiñagua dan *atso baltza*-ren erretratua. Bertan ez da ezer falta. Harek deskribatu eta guk ikusi. Berihalakuan marrazteko modukua⁹⁷.

EGAZKIÑAK aittatzerakuan adierazittakuak balio dabe oin datozen irakurgai hónendako. Aurrekuak baiño zortzi urte geruago argittaratuko diran honetan zihar, nabari da hizketa maillarekiko fideltasun oindiok

⁹⁶ *Katarra* “katu+arra” alegia, esaten jako gurean *andratan* bere *eragiña* erakutsi dabenari.

⁹⁷ *Peru Abarka*-n ageri dan atsuaren idarokizuna jaso dabela esan leike. Ha be ez zan makala: (...) ”bekoki guztia tximur tximur eginda, bere mamin da guzti: begi ezkelak ta gorrituak, pitzaz ta bekarrez beteak; betseina katuaren gisakoa; betuleak erdi-zuri ta erdimuturrak; betazpiak baltzituak; ortzak antxina ioanak, oi utsak agiri dituala; suurra azpiti auts gorriz betea, muskil baltza dariola, ganeti zubita: lepoa makurra ta jita artua”. (1970: 41. 42).

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

haundixagoa: idazkera fonetikua esaterako, bai eta lexikoan be, nun bere herriko berbak erabiltzen saiatzen dan.

TORIBIO ETXEARRIA IBARBIA

Eibarreraz idatzi ebenen zerrenda honetan, Toribio Etxebarriaren izena eta aipua ezinbestekua dogu. Berandu ekiñ etsan eus-kalgintziari; biziaren udazkenian berak esango eban moduan. Dana dala, harrezkero idatzi zittuanak ezin bazterrian uzteko adiñakuak dira. Egixa da bere lanen artian ardatza *Lexikoia* eta *Ibiltarixanak* dirala bertan emoten deskuzen adizki, berba, ohitura eta esakera aberatsez hornitu zittuanak. Eta zer pentsa ha guztia erbeste *hotzian* bere Arratepeko zulo honetatik urrin moldatu ahal izan ebala



kontuan izanik! Hainbat eta hainbat datu, xehetasun eta ñabardura galdu izango jakon seguruenik *bidian* berak aitortzen dabenez⁹⁸. Bakardade haretan nori kontsultau ezinik -bere emaztiaren laguntza ezin estimagarrixagua izan ebala aitortzen desku- jorrabidia malkartsua egingo jakola pentsau geinke.

Gure antologixa honetan Toribioren lanen hautaketa egin biharrian aurkitu izan garanian, hitz lauzkoen artian itzulpenak aukeratu bihar izan dittugu nahi eta ez. Horretara mugatu zan eta, gure herikidearen prosa-lana euskeraz. Hortxe doguz, ixa bere azpi-euskalkixa baiño ez dabelarik bittarteko, Etxebarriaren fruituetariko batzuek.

ITZULPENAK

Aukeratu doguzen testuak itzulpenak dira. Etxebarriaren itzulpengintzia Bibliako pasarte batzuk eta, batez be, Nafarroako Margarita erregiña ospe-

⁹⁸ 1941. urtean apurtu egin behar izan ei zituan hainbat paper alemanek hartu eta susmagarritzat jo ez zeixen. “Una especie de monografía de nuestra forma dialectal” egiten ziharduala diñosku bertan. (Ikus bere liburua: *Recordando la guerra*; 165. orrialdia). 185. orrialdian zehaztatze haundixagoz: “Entre otras cosas, un vocabulario de curiosas voces vascas, nombres sustantivos, adjetivos e infinitivos en vías de extinción”.

tsuarenak, burutzeraz mugatu zan, gehixen bat⁹⁹.

Baiña aittatutako geixak edozeinen esku dagoenetik, hona ekarri ditudun ipuiñok argitarabarikuak dira. Etxebarriaren famelixa Eibarko Udalarari helarazi zetsazenetik hautatuak izan dira. Laster konturatuko garanez, ipoiñ misoginuak dira; bertan andrakumia ibilgona hutsa eta irudi maltzurkua agertzen da: Toribioren berbekin esateko, *xelbia* oso. Itzulpenon balore literarixuen gaiñean esan geinke. Etxebarriak, bere apaltasunian, baebala halako literatur sentsibilidade bat. Hain zuzen, itzulpenak tajutzen ditudun moduan: alkarrizketa labur eta bizi, pertsonajien manikeismua agertuaz, baita esaldiak ordenatzeko eran: apropos, perpausaren ordena lojikua aldatu egiten eban, narraziñuari halako antziñatasun bat emoteko. Hórrek ñabardura guztiongaittik, ba, ipoiñok errez irakortzen dira..

Testuok, makinaz idatzita zetozen egoera ez oso onian, eta eziñezkua zan fotokopiaz baliatza. Hori dala eta, ortografixa maillan orrazketa egin dogu eguneangora egokittuaz. *H* grafixa sartu dogu arauak eskatzen daben lekuan.

Afrikatu eta txistukarixen euren arteko neutralizaziñuaz ez dogu oiñ arteko idazliekin esan doguna berresango. Guk bereizketia gorde egin dogu. Ñ-ak be gorde egin ditudugu euren aurretik bokal sabaikua sartuaz. Kontsonante baten aurrekuak kendu egin ditudugu: *Katalin*, *ipoinlarixa* (kontsonante aurrian), baiña *Kataliñek*, *ipoiña* etc.¹⁰¹. Sabaiko albokoa /ll/ /ill/ idatzi dogu. *Erretillua*, *azpilla*, *erabilli*, edo eta *frallia*, idazten dau berak, jakina.

Idazten ditudun sinkopei dagokixenez, osteraz, laga egin ditudugu: *eiñ*, *aindu*, *deiñ*

⁹⁹ *Ibilarixanak*-en 391tik 490 orrialderaiño batuta dagoz (Itxaropena, Zarautz 1967).

¹⁰⁰ Toribiok, hitzari beste hitz edo morfemaren bat jarraitzen badetsa be: *aiñbeste*, *eiñda* idazten eban. Palatalizazioaren ardura haundixa ageri dau, ba, berak.

¹⁰¹ Etxebarriak berak, iñoiz, zalantza ageri dau: *aiñdu*. Ikus: “Gudarako jendia biharrian” ipoiña. Beherago, barriz: *aindu* idatziko dau hortz hobietako sudurkariaz /n/-z. Eta hori gitxi balitza, geruago “Erantzun egokixa” ipoiñean: *agindurik* aurkituko dogu.

tt-ak errespetau egin dittugu bere obra guztian erabiltzen ditte eta. Nahiz eta ordurako sabaiaurreko afrikatua adierazten eban *ixa* beti, *tx*, alegia. Toribiok berak emoten desku aztarrenik *aitxatu* berbia aittatzian, diñuanian: “Alterna con *aittatu*”. (Lex.: 114). Gaur egun herrigunetik aldentuta dittugun basarrietara mugatzen da bere erabilleria. Ez dau baiña beti /tt/ idazten. Salbuespenik badau: *itxo*, esaterako. Palatalizaziñua markau barik be laga izan dau: *beitu*. Lexikoian, oster, *beittu* (Ibid.: 231). H-ak, oster, bihar diran lekuan ezarri dittugu. Azkenik, gaur egun guztiz baztertuak diran zenbait grafia, oster, ez dittugu aintzakotzat hartu. Hala nola y grekuak: *daroyala*, *zeroyan*..

1.- SENAR BEGI-BAKARRA ETA EMAZTE ARIÑA

Alenzon-go Dukiak (Margaritan lehenengo senarra) eban zerbitzari bat begi-bakarra ordu gaizto bat ezker. Baiña nahiz da akats hau arpegixan eta urtiak aurrera¹⁰², ezkondu zan emakume gazte ederragaz. Eta Dukiak eta Dukesiak gura ebenetik zerbitzari hau bere kidekuen artian gehixen, sarri eban honek etxetik huts egin biharra Jauregixan, emaztiak alperrik ohia berotzen zetsala¹⁰³.

Eta hau izan zan okasiñua, andrakume ariñak begixa joteko bere sasoi-ko gazte bati; zeindegaz ederto konpontzen zan behiñ alkar aittu ziranetik. Baiña ez zan izan hau ixilleko ipoiña, auzuak be konturatu ziran erebixen¹⁰⁴ tratuagaz eta zurrumurrua heldu zan senarran belarrixetara.

Eta sinistiak lanak euki arren senarrantzat zori oneko emaztiak haiñ ondo hartzen ebanetik, hainbeste legunkerixa eta gozamenekin, pentsau eban probia eittia, erabagitzeko zalantza mingarri hau edo mendekatu merezi letz egi agertzen bazan zurrumurru lotsagarrixa.

Honetarako aitzen emon zetsan emaztiari, aldendu biharra ebala kanpora egun batzuetarako, Dukian mandatu bategaz. Eta behiñ illuntzia urtentziaz bat senarra guzurrezko juan-biharrera, emaztiak deittu zetsan betiko bidetik Aiskidiari, sekulako jolasetarako.

Baiña ordu erdi baiño lehen, hor nun uste barik ate-joka zan bateronbat ataixan. Ezaguna eban emaztiak senarran ate-jokeria,¹⁰⁵ eta zein zan jakiñaz hartara estutu zan Aiskidia laga biharko ete eban narrua; baiña ez

¹⁰² Bere itzulpen guztietan herri-errejistruak erabilli izaten dittu. Honako hau *tempus fugit* latindarren esamolde famatuaren gure bertsioa litzake.

¹⁰³ Esan barri dogun moduan, lehelengo parrafo honetan hiperbatonaren erabilleria ikusten dogu: Dukiak *eban*. (...) Eta Dukiak „gura *ebenetik*”..

¹⁰⁴ *erebixen*: zerabilten.

¹⁰⁵ Atia jotzeko *era*.

hala emaztia, zeñiek aindu zetsan lagunari jantzi eta itxain zeixala nasai baztar illun baten.

Artian, ateko deiza zan geruago ta gogorragua, eta emaztiak, ezagutuko ez baleu bezela deika zan hori, esaten zetsan kanpokuari:

-Zein da horrelako zaratia darabixana? Ordua al da hau baketango etxian deitzeko ainbeste kanpaikin? Nere senarra etxetik balitza, ez zenduke bizkarrereko berotu makala eruango!

Senarrak, entzunaz emaztian orruak, ziñuan bere aldetik orrua aundi-xauegaz:

-Zabaldirazu, andra atiori! Egun-sentiraiñok bihar al nozu ataixan, mada-rikatuorrek!

Pekatarixak ikusi ebanian Aiskidia jantzi eta gertau zala urtentzeko aukeria emon zeixonian, zabaldu eban atia eta hasi zan esanaz senarrari besarkatuaz:

Aufa! Zer alaitasun neria! Pozarren zure itxulitziakin¹⁰⁶! Amets¹⁰⁷ zoragarrixa nerebixan zure zaratak esnatu nabeanian! Pentsatzen neban begi galdutik oiñ ikusten dozula!

Eta hau esanaz, estaldutzen zetsan ona, probatzeko begi galduak ikusten ete eban, ametsetan pentsau eban bezela; eta begitsuan eban artian senarra, emon zetsan Aiskidiari nahikua asti urten zeixan akerra konturatu barik.

Baiña ez zan ala izan albidade guztiak alperrik; eta senarrak esan zetsan zorrotz emaztiari:

¹⁰⁶ Grafia honekin dakar, baitta be, bere Lexikoian (442). Gainontzekuetan be beti *tx-z* idazten dau.

¹⁰⁷ *Ames* orjinalian.

-Ez andra, ez nozu gehixago talaixan erabiliko! Zu harrapau gurarik neu harrapau nozu! Jaungoikuak lagundu deizula hobia izaten! Ez ba munduan andrakumian burugintzak azalduko dittuanik. Eta nere ondo hartze guztiak alperrikuak izan diranetik zuretako, bihar bada aintzakotzat ez hartziak aurrean, hobeto erakutsiko detsu.

Eta laga eban bizi-alargun¹⁰⁸, negar eta hilleta haundixetan, nahi ebanera joteko. Baiña, batera eta bestera, lagunen bitxartez, guztiro garbatu zanetik¹⁰⁹ pekatarixa, aurrera leixala izatekotan, alkartu ziran gero, eta baketan bizi izan ziran handik aurrera, hill arte.

¹⁰⁸ Andra ezkondua senarrak laga eta alde egitten dabenean.

¹⁰⁹ *zanetik, diranetik*: zanez, diranez...

2.-JAN-TXAKUR BI¹¹⁰

Fray Anselmo de Turmeda. Katalana, hamabostgarren gizaldixan bihurri askoko bizitza eruan eban fraille ipoinlarixa. Hamen bere aletako bat.

Fraile sermoilari bat, Tarragonako lurretan Cambrils deritzen den herritik zoiala etxeruntz, Gabonetako sermoia eitten izanda gero, aurkitu zan San Francisco-n kideko Fraile bigaz, eta egun onak emotian ondoren, itaundu zetsen hareri ia nora zoiazen.

Eurak Tortosa-ra, eta, ordiaz¹¹¹, euren aldetik gura izan eben jakin, zelan hartu eban herri hartako Retoriak Gabonetan.

Sermoilariak ez eban zer gorde egixa, eta esan zetsen, adurra darixola ago ertzetik:

-Hobeto ezin. Sinistiak be lanak dittu; hango arkume erriak, hango haragi gixauak, era batera eta bestera saltsa txukunekin; ardau gorri, galeper, usakume, pipar eta abar, uste hantxe zala antxiñako Paradisua. Eta atzo erosi eban aurre-rako, sei librarañok itxas-aingiria, eta entzun netsan aintzen Katalin, bere nes-kamiari, gertau zeixala labarako pastel bat arraiñ haregaz. Hontara, arin bazabiz, bazkari ederra harrapau zenkizue¹¹² eguardirako heltzekotan hara.

Ez eban sermoilarixak guzti hau esan belarri-gor biri¹¹³; ba entzutiaz bat, jaso zittuen abittu barrenak eta hasi ziran arinka herrirutz, Retoriarena, baz-kari ederran asmuhan.

Katalin, Retorian neskamiak, ikusi-eziñ haundixa eban Fraillien¹¹⁴ aurka,

110 *Jan-txakurra*: iñoren kontura dabillena.

111 Ordez, zerbaiten truk.

112 *ze(i)nkie* usuago. Ikus Galdosen *zeinkiaz*en (“Gabonzar on-on batetik...”).

113 Hasieran aittatu dogu solezismo hau Galdosen eta Etxebarriarengan irakorri dogu.

114 *Fralle, Frallien*...beti orijinalian.

honek ez ebelako ondo ikusten, Retoria emakumiagaz bizi izatia. Eta beti haren kezkiagaz, esan zetsan Retore jaunari:

-Bazkaldu deigun, jan-txakurren bat agertu baiño lehen.

Retoriak hainbeste bildur ez eukanetik, esan zetzan:

-Zer jan-txakur agertu laike¹¹⁵ hona egun honetan?

-Fraille alperren bat, gertau doran pastel ederran usain gozuak tiratuta.

-Hala bada, bazkaldu deigun Jaungoikuan izenian, eta kitto.

Eta aindu ziran mahaira, eta jartiaz bat, hor nun gure fraille bixak ate joka ataixan. Kataliñek beitu eban giltz zulotik eta ikusirik fraille bi zirana, itxuli zan ondoezik lurra jo biharrian:

-Zer da, itandu zetsan Retoriak hartara ikusirik neskamia.

-Izan leikianik txarrena. Fraille bi dagoz atian!

-Egixa esakeriana -Retoriak- bildur daben gaitzak hiltzen¹¹⁶ dau gizona!

-Ez ba, Jaungoikuan heriotziagaitik! Kataliñek eindako pastel ederretik ez dabe jango fraille hórrek¹¹⁷.

Eta gorde eban ezkutuan pastelan erretillua eta juan zan atia eregitzera.

Sartu ziran frailliok egun onak emonaz eta Retoriak esan zetsen:

-Asko poztutzen nau, haiñ egoki bazkaitarako zuek heldutziak; baiña ez dot aukeran gauza haundirik mahairako, sardiña zahar batzuk izan ezik.

-Jauna -erantzun zetsan bixetatik ausarkixenak¹¹⁸- zure borondate ona, janari on ugari guztien beste estimatzen dogu.

Berba honen hartu-emonan ondoren, jarri ziran danak mahaira eta neska-

¹¹⁵ *laike/laikianik:leike/leikianik* bixetara darabil.

¹¹⁶ *illtzen* idazten dau palatalizaziñua markatuaz.

¹¹⁷ Ergatibo plurala

¹¹⁸ Bitxia adverbio-egitura daben berbia adjetibo lez erabillirik ikustea. Edozer dalarik Lexikoian be badakar (196).

miak ekarri zituan¹²⁰ sukaldetik, azpillakada sardiña bakotxantzat.

Bedinkatu eta hasi ziran hortzak lanian, eta honetan fraille ausarkixenak, apur bat janda gero, ebagi zetsan burua bere sardiña bati eta eruan eban belarrira, zegozer aittu bihar balezkixo bezela arraiñari, eta gero ekarririk aurrera, ein zetsan, guztiak aitzeko moduan, bere erantzuna, esanaz:

-Ez dot uste egixa izan leikianik zuk diñozuna!

Retoria eta Katalin mira einda zegozen Frailliak ziharduanakin. Eta beste apur bat jan, eta jarraixan, eñ eban beste hainbeste, sardiña-burua eruanaz belarrira eta gero erantzunaz hari:

-Sardiña txaplatori!¹²⁰ Ez dot sinisten diñozuna, ez ba Retoria zekenkerixa hori eitteko gizona!

Andrazkua nola dan beti dana jakin biharreko sorgiña, Kataliñek ein zetsan kiñu Retoriari, eskatu zeixon frailliari, azaltzia zer demonio erebixan¹²¹ arraiñakingo jardunian. Frailliak ez baleu gura bezela azaldu, harekin erebixana, ezetzian egon zan luzero, baiña azkenian, Retorian erreguetara apaldurik, esan zetsan:

-Jauna, nik argituko dot sardiñiagaz erabili doran autua guztiro, baiña zuk ez ukatzekotan egixa izatera harek diñuana.

Retoriak aindu eban baietz juramentuz, eta Frailliak orduan esan eban honetara:

¹¹⁹ *zituan* idatzi du oraingoan /tt/ ahaztu egin jakola dirudi.

¹²⁰ Andrazkuak ez horren ondo margotzen diran hónek ipoiñotan, *sardiña* bera be (hamen gauza ligorra, jateko ez onena, emia dogu; eta *txaplatia*-k andrazko ozpina, ezatsegina, adierazi nahi dau. (cf. Lex. 683).

¹²¹ *erebixan*: zerabilen. Aurrerago: *zeixon*: ziezaion.

-Retore jauna: Nik itandu¹²² detzarana sardiñari izan da, zein dan itsasuan arraiñik haundiña¹²³ eta gizenena; eta erantzun destana da, uretatik kanpora denbora asko daroiala gatzetan, eta ahaztu jakola gauzia; baiña ezkutuan dozun itsas-aingiriak freskua danetik, ez ba egun bi uretatik atara dabela, jakin leikiala ondo gauzia.

Hau entzunaz hasi zan barre algaraz Retoria eta esan eban mahaixa ikubillakin apurtu biharrian:

-Bai demoniua! Egixa sardiñiak ziñuana! Eta aindu zetsan Kataliñi, eruan zeixazela aurretik sardiña zaharrok, eta ekarri zeixala¹²⁴ itsas-aingiria, apainduta eukan bezela laban.

Eta honetara lortu eben fraillioik gura eben bazkari ederra.

3.-ENTZUN GAIZTOKO ANDRIA¹²⁵

Txanbolintxeru batek eukan entzun gaiztoko andria beti kontra ein biharrekua, esanan bestera dana eitten ebana.

Eta behiñ, eztegu¹²⁶ batzuetara zoiazela soiñua joteko tratua einda, bera oiñez eta emaztia asto gaiñian tanborrakin, ibai bat igarotzerakuan, esan (zetzan) senarrak emaztiari on biharrian:

-Kantaizu baiña ez tanborrik jo, astorau ez deiñ azpikua.

Bestera aindu baletza letz¹²⁷, esatiaz bat, hasi zan tanborra joten, eta astua,

¹²² *Itandu* eta *itaundu* bixetara darabil.

¹²³ Superlatibua: *haundixena*-alegia-. Ohar palatalizazioaren eragina.

¹²⁴ *zeixala/zeixazela:zezala/zitzala*; hurrenez hurren.

¹²⁵ Ipoik klasikua. Beronen muin berekoa dogu J. S. Martinek *Zirikadak* (1960: 119-121) liburuan dakarrena.

¹²⁶ *Estegu* testu honetan, *eztegu*, oster, Lexikoian (368).

¹²⁷ *Aindu balio*.

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

izuturik, sartu zan ur haundixetara, hondoratu zan andriori eta gehixago nun zanik b'ez.

Eta senarra hasi zan ibaixan gorutz korputzan bila, kristau bezela lur emoteko. Begira zan batek, orrua ein zetsan esanaz:

-Zer darabizu, gizon?

-Itxo jatan emaztian bila.

-Baiña zoratu al zara? Bila ibaixan gora?

-Bai, jauna. Beti zan ba, koittaua, danian bestera eittekoa.

4.- ERANTZUN EGOKIXA

Ez dakitt nungo erregiari, zein bere jatorrixakin harrua, esan zetsen behin, nola ebillen erbesteko gazte bat, guztiro bere antzerakua, bera beziñ hazixa eta adin bardinekua.

Erregiak hainbeste entzun ebanetik bat baiño gehixago gandik,¹²⁸ gura izan eban erbesteko gaztiori ezagutzia. Eta berak agindurik, eruan eben erregian aurrera, eta ikusirik honek egixa zana¹²⁹ esaten ebena itandu zetsan esanaz:

-Esairazu, gazte: ba aldakizu¹³⁰ zure ama iñoiz izan zan alde honetan?

Eta gaztian, jarraiko erantzuna:

-Nere ama ez Jauna; baiña nere aitta bai sarri.

5.- AKER ETA MAKILATUA

Baserriko gizon batek eban emazte ederra, eta bizi ziran morroi bat ebela, baserriko lanen laguntasunerako.

Eta senarrak susmua hartu eban, morroia eta emazte ederra, ez ete ziran ondoegi konpontzen. Emaztiak igarri zetsan senarrari zer arantza zerebixan bularrian, eta zauri garratz hau osatzeko asmuan gustuak utxi¹³¹ gabe, esan zetsan:

-Jakin deizun, esango detsut morroia ondoren darabiranetik, aindu detsarala gaur gabian bere zaiñ egotia kortako atian, holako ordutan.

¹²⁸ Horrela banaturik dator idatzia.

¹²⁹ Sarreran adierazi dogun moduan ikusi + (e)na idazten dau kompletiboetan.

¹³⁰ Ikusten dogun moduan, *al* galdegillia etenbarik darabil.

¹³¹ *Itxi*-ren aldaeratzat jotzen dau. (Cf. Lex. 717). Aurrerago, zerebixan z-z idatzi dau lehenago ez bezala.

Eirazu ba mesede, nere soiñekua jantzita¹³² esandako orduan, kortako atian agertzia.

Hau esanda gero senarrari, juan zan morroiagana eta aitzen emon zetsan zer aindu zetsan senarrari, eta zer biharko zetsan esan hari eta zer eiñ agertu zeñian kortako atian.

Hala, esandako orduan, senarra zala kortako atian zaiñ, emaztian goruntza¹³³ eta goniakin, argitu zan morroia makila bategaz, esanaz han zain zanari:

-Baiña haiñ errez sinistu dozu esan detzurana, zoruorrek? Hara ba bizkarrian merezi dozun sarixa, andra gaiztuorrek! Dana ba izanda zeu probatzeko!

Bata alde batera bizkarra berotuta eta bestia bestera makilliakin, alde eben autuko bixak lotara¹³⁴, hurrengo goizera arte.

Goizian, senarrak aurkitu ebanian morroia gosariko orduan, esan zetsan lagunki: -Eskerrak zuri, gazte, zintzua zanari, bestela deittuko zesten hor zihar akerra.

-Akerra eta gaiñian makillatua, esan eban morroiak bere barrurako.

6.- UTXI HORTAN!

Zaldun jator baten emaztia zan, alde on guztiak eukiko zittuana, izan ez balitza¹³⁵ miña ariñegi erabiltzen ebana, eta bihar baiño gehixao jarduntzekua.

¹³²jantzitta idaztea ahaztu jako, itxuria.¹³³Justillo, corsé, sostén (Lex.413).

¹³⁴ Autuko bixak: ipoiñeko protagonistak.

¹³⁵ Baldinkeran 3. pertsona singularrian aditz laguntzaille iragangaitzian -a hori agiri da eibarkeran.

Eta behiñ auzoko festa baten, eiñ ei jakon ondoeza eta geldittu ei zan berba barik. Estututa lagunak, juan ziran senarrangana, zetsela¹³⁶ esaten nola emaztia zan berba barik.

Senarrak hau entzunaz, esan eban:

-Utxi hortan, irauntzera¹³⁷ ba, izango da lurrian emazterik onena!

7.- BIXAK GUZURRETAN

Ziran¹³⁸ lagun haundixak ofiziotako auzo bi: bata eunlia eta bestia giza-jostuna. Denboriakin hasarratu ziran, eta lehengo aiskidetasuna bihurtu jakuen alkar ikusi eziñian.

Eta giza-jostuna zan beti gaizki esaten alde guztietan eunlian gaittik; eta eunlia, bere aldetik, beti ondo esan biharrian giza-jostunan kontura.

Ikusirik andrazko batek zer erebixen, itandu zetsan eunliari zergaitik hainbeste ondo esate giza-jostunan gaiñian, harek bestera ziharduan artian bere kontra.

Eta erantzun zetzan eunliak:

-Jardun deigun bixok guzurretan.

¹³⁶ Hiperbaton harrigarria.


¹³⁷ *Irauntzen badau...*

¹³⁸ Joskera ez oso ortodoxo honek harako antzinako dotriñetako galdera ha ekartzen desku gogora: *Zer da Jaungoikoa?* Da..

JUAN SAN MARTIN

Ez goiaz Juan San Martinen obra ugari-
xa hamen aittatzera. Horretarako edozenbat
argitalpen kontsultatzea baiño ez daukagu.
Guri, antologixa honetan guztian bezelaxe,
Eibarko euskeran egin dabenen ekarpena-
ren lagin bat erakustea interesatzen jaku.

Esan, labur-labur, Juanitok euskeraz
hasieran *Otsalar* ezizenez olerkia landu
ebala. *Euzko-Gogoa*-n argittaratu zittuan
poemak bere bizitza guztian euskaltzale
borrokatu izango zanaren perfilla erakus-
ten dabe: euskaltzaletasun zabala, kritikua baiña sakonera joten ebana, aurre-
rakoia baiña bere ideiegaittik iñor baztartzan ez ebana. Amets garbi bat
buruan: Euskal Herrixa euskeriaren aberrixa bihurtzekua, bere txikittasunean
kulturaz haundi eta guzurrez txiki izango zana.



Euskeraz idatzi dittuan artetik bi dira eibartarrak eta auzo diran plazen-
tzarrak protagonista dittuenak: *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965).
Batez be lehelengua. Bertatik etara doguz hurrengoko ipoiñok.

Gaur egun be gogor dihardu lanian. Bere atzenengo bi liburuak:
Euskararen ostarteak (1998) eta *Giro gori* (1998) erakusten deskuen letz.
Lehelenguak, hitz lauz, euskeriak historian zihar izan dittuan gorabeherak
aztartzan dittu. Bigarrenian, bere aspaldiko poemak batuta liburu argittaratu
dau Euskal Herriko Unibertsidadiak ediziño elebidun dotorian. Azkenik esan,
oin be bere artikuluetako asko *EGAN* aldizkarixan argitaratzen dittuala, bai-
tta Hondarribixako herri-aldizkarixan be.

Oin datozen pasadizuak *Zirikadak* liburu bikaiñetik etara doguz. Egixa
esatera, liburu guztia da bere egun eta hogeita lau ipuiñetan bizigarri.

HORI TA BA-PEZ IGUALAK¹³⁹

Plaentxiatar zelebriak guzitendako dauke zerbait, hárek zirrikatuko ez dabenik ezta jaixo¹⁴⁰ munduan, halabe¹⁴¹ akatsen batzuek billatzen ba-ditue.

Behin, auzoko, herri nausi bateko, dantzari talde bat jua ei zan Plaentxiara. Puntarengo dantzarixen famia zeroien eta euren ustez ez zan Euskalerrri osuan iñor berak aiñakorik, -azaleko itxuraz behintzat-, ez dantzan ta ez ostiantzekuetan.

Baña, plaentxiatarrak konturatu ziran euskeraz tautik pe ezekixela, hasieran “*Ola lagun*” eta amaieran “*Agur*” izan ezik. Noizik peiñian botatzen ei zittuen euren batzuek: “*Vamos a tomar un akeita*”; “*Espera, que he de hablar por urrutizkin*”; “*Mañana iremos a la Txadona a jaupa; creo que tocan hasta el txaneuzkiñ*”. Gauza harrigarri hónek entzunda, plaentxiatarrak harritzea ez zan harritzekoa. Gutxi falta izan ei jakuen harrika hasteko be.

Háretariko batek, zerbait somatu ei eban, plaentxiatarrak eurendako hoztasuna eukela¹⁴², eta batengana hurreratuta, esan ei zetsan:

- *Es que, mire usted, yo no se bien el euzkera, pero mi aita y mi ama sí. Porque, mire usted, yo me apellido Etxegoitia, Roteta, Landazuribekoa y Agirrebeitia; cuidado que soy euzkotar de pura cepa, tengo apellidos como para regalar a los maketos, he mutil.*

- Hoba heuke hik euskaraz baheki, -diño plaentxiatarrak.

Bestiak barriz, igarri zetsan beragaittik zerbait esan ebana ta:

¹³⁹XXV, 40-41.orrialdeak. Bestalde, San Martinen oin-oharrak (J.S.M.) laburdurekin adierazten ditugu. Berak diño liburuaren hitzaurrean, bokal arteko -x-ak kendu egin dituala (8. or.). Guk sartu egin dittugu. Gaiñera, egungo ortografixara egokitu dogu testua.

¹⁴⁰Juanitok b

¹⁴¹ Batez be.

¹⁴² Gaiñerako idazlien moduan, *euki* aditzean ez dau monoptongatzen.

- *Habla usted por mí.*

- Bai, hiregaitxik pe neuk berba ein biharko juat, hik eztakik eta.

Geroko egunetan be, Plaentxian honelako jardunak entzuten ei ziran:

-Hor-ba, hor-ba¹⁴³, nora heldu garan azkenian; euskeria baztertuta Euskalerrixa dantzekin salbauta dagolakuan. Kaiku madarikatuak!

-Holako semiak mundura ekartzia baño lau librako ogixak eixia be hobe dok. Laukuakin zer jan dagok, baño holakuekin ez jan ta ez jantzi.

-Bai, tajutan gauaz¹⁴⁴ Euskalerrixa salbatzeko. Euskal-dantzarixak euskeraz ez jakitzia: ogixa huts-hutsik mausta-mausta¹⁴⁵ jatia modukua dok.

-Hori dok pa. Oingo gaztiak, kanpo-larrosa ta etxe-kardo. Euskeria gure errixaren anima ber-bera izanik, erabat baztertuta hor dabixak¹⁴⁶ inportantzia gitxiagoko gauzekin Euskalerrixa salbatzeko asmuetan. ‘Txotxoluak halakuak.

-Txoriburu petralok, apelliduak aldatuta Extremadurara bialduko najitxukek¹⁴⁷.

-Nik, galleguegaittik trukauko naitxukek pa. Ze, euskal dantzari batek euskeraz ez jakitzia, oraiñela eskuetan hartu-ta lurrera txixa eixia modukua dok.

Plaentxian guztiak ziran iritxi horretakuak.

¹⁴³ Norberan ustea berretera datorren esapidea.

¹⁴⁴ *Gauaz eta ez gaozak.*

¹⁴⁵ *Gogoz jan (Eibarko esakerak, 126).*

¹⁴⁶ Dabixak, dabiltzak (J.S.M.).

¹⁴⁷ *Najitxukek eta naitxukek* biak darabilz, baiña azken hau bestiaren kontrañua da. Ikus *najeukiaz (Eibarko aditza: 72).*

MURGIL LUZIA¹⁴⁸

Azkenengo gerratian, tekniko aleman bat ebillen Plaentxiako kañoi-fabrikari, Alemaniako eitzen ziran biharren direktore. Plaentxiarrak diñenez, harro txamarra ei zan. Bere ustez, ez ei zan bera lakorik.

Plaentxiarrak, haizpietan peskan eitzen zaliak dira ta zer esanik pe ez, murgillari onak dirana. Behin, alemaniarra, ba ei ebilen panpana¹⁴⁹ jotzen, Plaentxian ez euala bera lango murgillaririk esaten. Berbatu da plaentxiatar batekin eta ein dabe posturia norek¹⁵⁰ murgil luziagua ein. Domeka goizeko bedratzietarako zitau ziran presapian. Alemaniarra zintzo jua zan bere ordurako, baiña plaentxiatarra ez zan azaldu beste ordu erdi batian. Ta, hara nun agertu zan bizkarrian morrala ta eskuetan arda botia zeroiala. Alemaniarrak mendira edo ete zoian itxuria hartu bihar izan zetsan, ta harritturik esan zetsan:

-Hi, baña, murgilla eitxekotan gelditxu giñuan da hi, morrala ta botia ditxuala hator?

-Ni bai, ni egun guztirako najoiak.

Hori entzun ebanian, bildurtu ei zan alemaniarra ta arrio¹⁵¹ ein ei-eban. Handik aurrera ez ei eban erabilli panparreriarik.

“BERORI”

Abade jaunak deittu zetsan dotriñan hebillen ume baten gurasuari ta esan zetsan:

¹⁴⁸XXIV, 38-39. orrialdeak.

¹⁴⁹Panpan, *fanfarronada, afán, exceso de confianza*. Panparrería ere hortik etorriko da, noski. (J.S.M.)

¹⁵⁰Normalian, *nok* entzuten da.

¹⁵¹Arrio, *evadir a un desafío, generalmente por cobardía*. (J.S.M.).

-Hi, Paulo, hire semiari berbetarako edukaziño pixkat emon bihar detsak; ze, hikan tratatzen najok eta. Ba-dakik hori eztana itxura bestien aurrerako be.

-Lelo madarikatua. Horrenbeste jakin bihar heban ba. Hikan tratau abade jaunari? Ederki horixe. En fiñ, lotsagabe txamarra be bada-ta; baña, neuk era-kutsiko detsat hari, gizonak da batez be abade jaunak nola tratau bihar diran. Txakurto halakua.

Etxera juan zan Paulo eta semiari esaten detsa:

-Hi, baña, ik eztakik abade jaunari “berori” deittu bihar jakona ala?

-Izena aldatu detse ala?

-Ez!, ze izena aldatu ta ze otxo-kuarto¹⁵². Izena aldatu detselako ez; abadi-eri errespeturako beti holaxen deitu bihar jakuelako.

Ondoren emon zetsan milla esplikaziño, berorika zelan ein bihar zan kon-prendidu eixan¹⁵³.

Hurrengo egunian juan zan dotriñara ta soltau zetsazen, abadiari, “bero-rikada” batzuek. Abadia poztu zan gurasuak¹⁵⁴ bere esana aintzakotzat hartu e-bala ta mutillan edukaziñua leunduko zala pentsaurik. Hala be, berekautan pentsatzen eban zuka eingo baleskixo be nahikua litzakiala. Ta modu onian preguntau zetsan:

-

Norek esan deuk “berori” ein bihar jatala?

-Ba, aitak esan jestak hiri “berori” esateko.

¹⁵² Otxo-kuarto, *qué caray* bezelako esaera bat Eibar aldean (J.S.M.).

¹⁵³ *Zeixan*, Toribiok.

¹⁵⁴ Hemen be singularra ta plurala azentoak aldatzen ditu: gurasúak, *el progenitor*; gurá-soak, *progenitores* (J.S.M.).

KONTUZ....!

-Hi, Jerolimo, hurrenguan andriakin laztanka habillenan, bentana ondolik erretirau heike, auzuen barregarri izaterik nahi ez-pok behintzat. Ze, atzo afal-onduan nere andria ta bixok lotsatu be ein giñuan zueri begira.

-Baña, norekin diharduk? Atzo etxetik kanpora ibilli nintzuan barren!

ZEIN BAIÑO ZEIN TXARTUAGO

Gerra ondorioan, Eibarko atso zahartxo bat, burutik eitten ebala-ta, eruan eben Santa Agedako zoro-etxera. Sartu orduko tope eiñ ei eban beste eibartar bikin eta antziñako ezagunak ziranez, alkar agurtu ondoren, esan ei zetsen, sartu barrixak:

-Da, ondo zaoze hemen?

-Ondo bagendenazen¹⁵⁵ ez giñonazen hemen egongo. Hemen ondo, erlojua bakarrik dagon.

Bigarrenak barriz:

-Hemengo gauzok ondotoxo jakitzera helduko haiz, da kontaigun¹⁵⁶ kontau Eibarko barri.

-Ene! Eibarren etxerik pe ezton geldittu zutiñik. Barrenkalia be lautu jone!¹⁵⁷

Egixak izan arren, beste bixak eziñ holakorik siñistu. Ta diñotse alkarri:

-Hau, gu baiño askoz be txartuago jakarrene¹⁵⁸.

KARGA ARIÑA¹⁵⁹ (¿)

Euskaldunok, geure ahulkeriaz, urtetik urtera euskeria era guztietan makalduaz eta lordinduz¹⁶⁰ goiaz. Euskalerriko herririk gehixenetan zaharrak gaztiak baiño askoz be hobetuago dakixe euskeraz, sasotik-sasoira mailaka-maillaka, ez bakarrik gitxituaz, bere aberastasuna eskastuaz doiala esango genduke. Gaztiak ez dakixe zaharrak bezin ondo berbak alkarri josten, ezta bihar dan moduan erabiltzen be. Gaur, Eibarko gaztiekin be hori berori gertatzen da –aintziñan be halan izango zala uste-; zaharrentzat *ikus*

155 *Bagenden, bagengozen*, hika neskak; jarraixan: *giñazen/giñakenaz*, hika baitta be neskeri zuzenduta.

156 *Konta eigun*.

157 *Dabe* hika, neskak.

158 *Dakarre* hika, neskak.

159 Ikusten dogun moduan, euskeriaren ajiak ez dira atzo goizekuak.

160 Lorrindu.

juat eta *ikusi jetsat* gauza bi dira. Gazterik gehixenak barriz bixetara *ikusi jetsat* erabiltzen dabe. Ta, hortik pentsau zeinke, irakorle, bati esan ezker: “Hire arrebiari ikusi jetsat”; txarrera hartu leikiala. Bakarrik, gaurko gazterixa ardura bakua eztau ezerk harritzen.

Antzerakua zan behin eibartar gazte batek Plaentxiako Turkuari esan zetsana be, baiña plaentxiatarak euren erara erantzun zetsan. Hara zer pasau zan:

Plaentxiatik Eibarrera eguneroko osteria eitten daben Turkua errekadistiari jaso jakona da. Goizian ba ei zoian betiko moduan Eibarrerutz ta Maltza inguruan Eibarko gazte batek, oiñ *auto-stop* esaten jakon erara, gelditzeko seña egin zetsan, esanaz:

-Turkua, Eibarrera eruangoztazu?

Da Turkuak atzeko hots barik erantzun ei zetsan:

-Bai, botaik gaiñera.

Turkuak, gelditu barik aurrera jarraitu eban, eibartar gaztia kamiño baztarrian agua¹⁶¹ bete agiñekin laga-ta.

ZARRAZTADA HOTSERA

Behin, plazentziar bi, Eibarren egun guztia txurrutian pasau ondoren, berandu batian, bazoiazan etxerutz.

Eibarko urteran, Urkuzuko ittur-onduan gelditu zan bata txixagiñan ta bestiak aurrera jarraitu eban, bidian harrapauko ebalu pentsaurik. Baiña poliki-poliki Azittain alderutz hurreratu zanian, konturatu zan bestia ez zala agiri eta itxuli¹⁶² zan zer gertau ete jakon jakitzera. Barrena-zaharreraiño juan zan da iñor agiri ez, Loiola¹⁶³ pasauta be ez. Berekautan ziñuan: “Nun sartu dala baiña gizon hori. Eibarko ardauak hainbeste tiratzen ete juek ba?”

¹⁶¹ Ahoa.

¹⁶² Itzuli. Beti sabaikua agertzen da, hemengo moduan, Etxebarriaren obran.

¹⁶³ **Loiola** tabernia, baiña **Loixola** basarrixa Azittain gaiñan bereizten dittu eibartarrak.

Urkuzura heldu zanian, han billau eban lagatako lekuan bertan, itturri kontran¹⁶⁴.

-Baiña gizon, zeitten¹⁶⁵ hago?

-Zeitten egongo nok pa. Ez nok ikusten txixagiñan nagola ala?

Bestiorrek, begiratuta esan zetsan:

-Eztok parren¹⁶⁶ txixarik eitten.

-Ezetz? Da hori zaratori zerena dok pa orduan?

Itturri zaratigaittik ziñuan.

NUNDIK JAUSI?¹⁶⁷

Kortasoneko obran ebillen pioi bat, surra piparra lazkotxia eukana, ta astelehen guztietan erdi lafiauta¹⁶⁸ biarrera juaten zana.

Holako astelehen baten laugarren pisotik kalera jausi zan, beste bihargin batzuek masia eitten euazen askara. Gizajua, atara eben irabolikaz¹⁶⁹ melamela einda eta konortik barik.

Han ibilli ziran bihargin guztiak astorauta, Kortaso bera aurrengo zala; pipar-gorritzko surduna senera ekarri eziñik. Halako batian arnasia bueltau

¹⁶⁴ Itturi kontran. Posposiziñuaren aurreko izena marka barik (Cf. Iturriotzen *orma-kontra*).

¹⁶⁵ Zer egitten hago, jakiña.

¹⁶⁶ Barren. Esaten danari indarra emoteko erabiltzen dan adberbiua.

¹⁶⁷ Hemengo pasadizoan agertzen diran oharrak San Martinenak beranak dira.

¹⁶⁸ Mozkortuta zenbaiten “argotean”.

¹⁶⁹ Irabolika, *cemento* (*cemento hidráulico*-tik noski).

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

eban, da Kortasok eñ eban dei bat:

-Ia batek azkar ura!

Senara etorrena hasi zan berbak soltatzan da, esan eban:

-I..., Kor...taso... ardaa...edateko...nundik jausi bihar jok pa?

LABURDUREN ZERRENDA

FLV= *Fontes Linguae Vasconum*

LEX= *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*

IBIL= *Ibilarixanak*

MITX= *Orotariko Euskal Hiztegia*

BIBLIOGRAFIXIA

Agirre Berezibar, J.M., 1991, *Euskal Gramatika Deskriptiboa*. Bi liburutan. Labayru Ikastegia. Bilbo

Altube, S., 1929, *Erderismos*. Gaubeka, Bermeo.

———, 1960, *Euskera* V, 61-65.

Altzibar, X., 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bizkaiko Foru Aldundia.

Añibarro, 1969, *Gramática bascongada*. ASFVJU-ren ediziñua III.

Aranbarri, F., 1996, *Ermua eta Eitzako euskara*, Ermuko Udala, Ermua.

Argoitia, Azkarate, Gezuraga, 1995, *Eibarko euskeraren esakerak*, Eibarko Udala.

Askoren artean, 1982, “Juan Antonio Mogel: Peru Abarka liburuaren mendeurrena dala eta”, *Euskera* XXVII -1 27.

———, 1988, *Bergarako euskera*, UNED, Bergara.

———, 1992, *Bizkaieraren lekua gaur*, Euskal Ikaskuntzen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo

———, 1998, *Eibarko aditza*, Aditz Batzordia, Eibarko Udala, Eibar

Azkue, R.M., 1969, (1923), *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

———, 1969, (1906), *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La Gran Enciclopedia Vasca.

———, 1989, (1919), *Latsibi*, Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak, 15. alea.

Baraiazarra, Luis., 1986, “Markina-Xemeingo euskara aztertzen”. *Euskera* XXXI (1986,1) 143-159.

- Etxebarria, Toribio., 1967, *Ibilarixanak*, Itxaropena, Zarautz¹⁷⁰
- , 1986, (1965), *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Euskaltzaindia, Bilbo
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatika*. Lehen urratsak-I. Iruñea.
- , 1995, *Eibarko hiri-toponimia*, 13, Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala
- Etxeberria, F., 1999, *Bilingüismo y Educación en el País del Euskara*, Erein, Donostia.
- Gaminde, I., 1988, “Bizkaiko Aditz Trinkoen Alokutiboak”. F. L. V. XX. 52 181-240.
- Intxausti, J., *Euskal Aditza, Gipuzkera eta bizkaiera*, Arantzazu, Oñati.
- Iturriotz, A., 1955, “Etxaitar jaunari”, *Euzko Gogoa*-VI.
- Izquierdo, J., 1996, *Plazentziako aditzaren paradigma*, Argitaragabia.
- Knörr, E., “Una traducción de Uriarte al vascuence alavés: la Bula”, Euskaltzaindia. *Iker* 2. 279-315
- Michelena, L., 1976, *Fonética Histórica Vasca*. Donostia
- , 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Desclée de Brouwer, Bilbo (1998. urtera arte argitaraturiko hamar liburukiak aintzakotzat hartu dittugu, hórretako bakoitxaren aipamena egiten dalarik).
- Mogel, J. A., 1970, (1899), *Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- , *Cristaubaren icasbidea...* Euskararen lekukoak 14, Euskaltzaindia.
- Mujika, G., 1956, (1912), *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, Eibarko udala, XVIII. mendeko itzulpena, 464-466.
- Mujika, J.A., 1982, “-(e)la eta beste konpletibatzaileak”, *Euskera* XXX-VII 295-335.
- Narbaiza, A., 1992, *1685eko Kopla Zaharrak*, Ego Ibarra.
- Ondarra, Fr., 1992, “Bizkaierazko testu berri bat” Euskaltzaindia, *Iker* 6, 357-391.

¹⁷⁰Hórretaz kanpo, kontuan izan dira, lan argitarabarikoak, gehixenak itzulpenak: *Kalia eta Dimna, sortaldietako ipoiñak*. *Ibilarixanak*-en aurkitzen ez diran Heptameron-eko zenbait itzulpen, bai eta Juan Timoneda-ren ipoiñ sorta bat berak *bidastien laguntasuna* tituluaz itzuli ebana. Halaber, Bibliako pasartiak: *Job-en liburua*, esaterako.

Oñederra, M.L., *Euskal Fonologiaren palatalizazioa: Testu azterketa: asimilazio bustiduraren erregelak. T. Etxebarriaren Lexikoia.* (100-134). Euskal Unibertsitatearen argitalpena.

———, 1998, “Ahoskera lantaldearen errendapen txostena”, *Euskera* 1998-1, 265-274

Oregi, J., 1977, “Birdeklinaketa”, *FLV* IX, 255.

Rodrigo, Garzia, Arregi, Kontxi., 1981, “Hikako aditz-joko alokutiboa Markina aldeko subeuskalkian”. *F. L. V.* XIII-38.

Salaburu, P., 1991, *Euskera*, 3 36. liburukia (2. aldia).

San Martin, J., 1959, “Mogel, Agirre ta Galdos, Eibartar euskeltzaleak”, *Eibar* 27- 10-11

———, 1960, *Zirikadak*, Itxaropena, Zarautz.

———, 1965, *Eztenkadak*, Itxaropena, Zarautz.

———, 1967, “Mogel, Agirre ta Galdos Eibartar euskeltzaleak”. *Zeruko Argia*, 1967-12-03

———, 1992, “Francisco Arrate. Eibarko Aginaga auzoko parrokoaren sermoi argitaratuak. Juan San Martinek bilduak”. *Euskaltzaindia, Iker* 6, 435-449.

———, 1990, “Eibarko hiztegia. Toribio Etxebarriaren Lexikoiari eranskina”. *Euskera* 35, 340-365.

———, 1992, “*Botanika Lexikoa Eibarren eta*”...in *Euskera*, 2 35. liburukia (2. aldia).

Sarasola, I., Michelena, L., 1990, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia

Txillardegi, 1980, *Euskal Fonologia*. Ediciones Vascas.

Urkijo, J., 1964, *Los Refranes y Sentencias de 1596*, I liburukia, Auñamendi, Donostia

———, 1967, *Los Refranes y Sentencias de 1596*, II. liburukia, Auñamendi, Donostia

Villasante, L., *Sintaxis de la oración compuesta*. Arantzazu, Oñati.

Yrizar, Pedro de., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. Caja de Guipúzcoa.

Zuazo, K., 1998, “Euskalkiak gaur”, in *FLV* 78, 191-235.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

Testu labur
soltiak
ariketekin

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

SARRERIA

Antologixia liburuaren hirugarren atala hainbat aldizkarittan topautako materixalen bilketia da.

Hasieran pentsau genduan lehen aittatutako Eibarko idazle haundi hórrez aparte, agertuko jakuzela makiña bat eibartar hamen eta han eskribitzen. Baiña hori ez da haiñ erreza izan.

Lehelengo garaiko aldizkarixetara joten badogu¹, gipuzkeraz idatzitta dittugu eta geruago, batuaren inplantaziñuakiñ eta euskalkixen berpiztera arte -”...eta kitto!” sasoiria arte- bakar batzuk agertzen jakuz Eibarko euskeria erabiltzen.

Goixan esandakuari lotuta eta pretentsiño haundirik barik, esan geinke eibarreran eskribidutako euskeriak hainbat pauso izan dittuala:

1. euskera zaharra (Udaletxeko aktak)
2. garbizalekerixia (Iturriozen itzulpenak. 50eko hamarkada)
3. euskalkixena (Juanito San Martinen *Zirikadak*, *Eztenkadak* liburuaren sasoi);
4. gipuzkeria (Imanol Laspiurren lehelengo garaixa. 60ko hamarkadia);
5. batua (Amatiñoren egunkarixetakua eta 70eko hamarkadatik aurrera)
6. euskalkixa (“bueltatzia”² ...*eta kitto!!* aldizkarixa)

Testuak billatze lanak hiru pausu izan dittu:

- billatzia
- aukeratzia
- antolatzia

¹ 50. hamarkadako Buenos Aires eta Méxicoko Eusko-Deya.

² Eibarko herri honendako pizkunde garai modukotzat hartzen dogu hau. 80. hamarkadaren azken aldera udaletxera haixe freskuak heldu ziran (Fernando Muniozguren, eta Begoña Azpiri dittut nik goguan) eta hónekin batera proiektu eta ideia barrixak: bertako euskeria jasotzia (grabaketak), aisialdirako euskeriari aukeria emotia (udako eta gero urtian ziharko AISIA), tertulixa literarixuak egitteko asmua, Ego Ibarra taldia sortzia (eibarko kulturaren gordaillua), “... eta kitto!” (gaur egun gure Eibarko euskera idatzixaren eredu), e.a. Bultzakada haundi honekin euskalkixak aurrerapausu inportantia emon dau, kontuan izanda gehixenok batuaren indarra bertan ikusten gendula.

Billatzia hasieran mugatua izan da. Hau da, idazle eibartarren erreferentzia genduan aldizkari batzuetan jardun dogu: *Eusko-Deya* (Buenos Aires 1952-1964), *Eusko-Deya* (México 1954-1958), *Zeruko Argia* (70eko hamarkadara arte), Eibarko aldizkarixetan *Kezka*, *Revista Eibar eta Goi-Argi*. Hasieran, gaiñera, izen konkretuen billa ibilli giñan, baiña gero, danetik irakorri eta ezagunak ez diran pertsonen testu polittak be geureganatu dittugu.

Data mugatzia be egin biharrekua ikusten genduan bez, 60ko hamarkadan jarri genduan topia. Orduantxe uste dogulako izan zala Euskaltzaindia eta batuaren eragiñik haundixena euskeran; hori zala eta, gure ustez, gatxa izango zan eibartarrez egiñiko testuak topatzia³. Gauzia holan izan zan eta hasieran mugatutako lana zana zabaltzen jua zan eta 70eko hamarkadaraiño be heldu izan gara⁴.

Billatze-irakortze prozesu hori urtietakua izan danez baiña, argittalpen barrixak sortu dira gure artian, hónek gaiñera euskalkixak mantentzeko, gordetzeko eta berpizteko garaikuak, hala nola “...*eta kitto!*” Eibarko gure gaur egungo euskaldunen aldizkarixa. Noizian behingo, hilleroko eta, oiñ, astero-ko aldizkari hau bihurtu jaku, zorionez, gure ahozkuaren testigu idatzixa.

Ondorengo orrixetan topauko dittuzuen testuak ez dira hasieran apartautako guztiak, dudarik barik. Bidian oso interesgarrixak edo beste euskalkixen eragiñ haundixa zittuenak laga egin dittugu.

Horrela ba, azkenerako galbahittik pasautako testuen antologixia dogu. Hasiera-hasieratik gure asmuaz zeozer atsegiña egittia zeguan, hau da, gogoz irakortzekua. Baiña, gure poza ariagotzen jua zan ikusterakuan testuekiñ Eibarko historixa - ohitturen isladapena egin ahal genduala. Horrela izan da ba azken eskeman, bigarren atalian jai batzuen barri (Sanjuanak, Aratostiak), Eibarko sasoi bateko lanen kontuak (Damaskiñaua, Armagintzia), kale

³ Nahi izanda, Eibarko lehengo gauzeri buruzko kontuak jakitzeko, lehelengo iragarkixak euskeraz topatzeko, eta abar, oso irakurketa polittak eta gomendagarrixak dira.

⁴ Hau da *Zeruko Argia* aldizkarixakin pasau jakuna.

batzueri egindako kantuak (Arraguetari eta Arraindikalian), eta azkenengoz herrixan ezagunak eta bakoitxak alderdi ezberdiñetan, politikan (sozialismuan), kulturaren (liburu saltzailliak), modan (jostuna) eta aisialdian zer esana euki daben besteren bat (billar jokalarixa).

Lehelengo atalian, ostera, eta Eibarren xeblekerixak egiñ eta batzeko bidiari jarraituz, hamen eta han liburuetan jasota ez daren testuak batu ditugu. *Herri Filosofixan* Pedro Zelaiak lehiaketa baterako jasotako pasadizuak; *Humor Eibarres-en* izen honekin *Revista Eibarren* jasotakuak⁵; azkenengoz *Lapiko txikixa* jarri gentsan izenburuakin *Goi-Argi* andrazkuen elkartiak etaraten zeban aldizkariko barriketa eta esamesak.

Euskalkixa

Euskalkixaren erabilpena aittatzia beste puntu bat da. Honetan be irizpide aldaketak egon izan dira biharraren hasieratik amaierara.

Antologixia egitten hasi giñanian, eibarreraz idatzitta, esku artian gerabixazzen testuak besterik ez genkazen, zer esanik ez arauen gaiñian berba egitten badogu⁶. Hori zala eta, gure lana (sarreratuak eta komentariuak) batue-raz egittia pentsau genduan.

Batuerarako beste arrazoi bat antologiaren irakorliak izan ziran, hau da, gehixenak bide horretatik eskolaratutakotzat hartzen genduzelako (eibartarrak edo kanpotarrak).

Azkenian urten dabena beste kontu bat da. Atal batzuk eragin barrixaren ondorioz, eibarreraz:

⁵*Humor Eibarrés-en* etaratakua, *Eztenkadak* eta *Zirikadak-etan* agertutakuak dira. Guk antologia honetan ipiñitxakuak, liburu horretan batuta ez dagozenak dira.

⁶ Garai haretan, kontuan izan, gure euskalkixa bultzatzen zeban talde txiki-txikixa zeguala eta eibarrera etxietara eta ahozgora mugatuta zeguan. Eibarrera idatzixari indar haundixa emon etsan "... eta kitto!" beranduagokua da.

- sarrerria;
- izenburuak;
- Markano'kin Ameriketara⁷;
- Gure jentia⁸.

Beste batzuk, ostera, lehen esandako batuaz eskolaratutakuentzat euskalkixakin lehenengo kontakturako pentsautakuak:

- zelebrekeriak atalian testu multzo bakotxari egindako sarreratxua
- bigarren ataleko 2.1; 2.2; 2.3; eta 2.5. puntuak.

Erabilpen didaktikua

Testuak huts-hutsian jasotzia baiño nahixago izan dogu, honekin batera azterketarako edo lanerako proposamenak be botatzia. Holan ba, testuak aztertuta azaldu ordez, batzuen-batzuk hartu eta ustiaketarako proposamenekiñ etaratzen dittugu. Hori, gure ustez, analisiserako beste modu bat izan leike.

Testuaren lanketia, normalian, eskema hau jarraitzen dau:

- ulermena;
- hizkuntza;
- iritzi pertsonala;
- ekoizpena.

Hori bai, aztergaixaren edukiña edo balixuaren araberan, gehixago sakondu da atal baten edo bestian.

Irakorliandako gixia

Irakorlien artian asmo ezberdiñak egongo diralakuan eta biharra erreztu nahixan, bi proposamen diferente botatzen dittugu:

⁷ Testu honen lanketia proposatzerakuan arrazoitzen dogu aukeraketia.

⁸ ...*eta kitto!*k egindako bidia jarraitu eta errespetatziarren.

1. Testuak disfrutau nahixan irakortzia nahi dittuenendako. Hónek, testuok grisez ipini dittugunez, kolore horretara jotia besterik ez dake.

2. Testua irakortziaz gain zeozer gehixago lantzia nahi dabenendako. Grisez daguana irakorri eta ondoren proposatzen diran ariketak egiñ. Hónek ez dira derrigorrez danak egin bihar, bakotxak ikusiko dau zeintzuk interesatzen jakozen eta, horrez gain, bidia zabalik dauka barrixak asmatzeko.

ALDIZKARIXAK

1.- Zelebrekerixak.

1.1. Herri filosofia.

“Eibar, gizon filosofi herrikoikoak”. ZERUKO ARGIA

1.2. Humor Eibarrés. REVISTA EIBAR

1.3. Lapiko txikixa

“Ezin ixilik egon”. GOI-ARGI

“ !!!Eibar beti Eibar! ! ! “. GOI-ARGI

2.- Lehengo (antxiñako) kontuak.

2.1 . Gu bai zintzuak, gu! (Sanjuanetako jaixak.)

“Granujak”. REVISTA EIBAR

2.2. Umiak beti ume. (Damaskinaua.)

“Umetako kontuak”. REVISTA EIBAR

2.3. Espionaje industrial. (Armagintzia)

“Apurtu, ez”. REVISTA EIBAR

2.4. Aratostiak.

“Markano ‘kin Ameriketara’”. REVISTA EIBAR

2.5. Kalien barri.

“Arraguetari”. REVISTA EIBAR

“Arraindikalia”. REVISTA EIBAR

2.6. Gure jentia

2.6.1. Sozialistia.

“Candido Eguren: *Eiñ eiñ bihar dok. Nahixak bakarrik eztau balio. Alkartasuna bihar da*” ...ETA KITTO!

2.6.2. Librerixan.

“Maritxu eta Pakita: *Hogei urte kulturian alde lanian*”
...ETA KITTO!

2.6.3. Billar jokalarixa.

“Juanito Saez de Zaitegi: *“Billarra habilitadezko jokua da*”
...ETA KITTO!

2.6.4. Jostuna.

“Pakita Arrizabalaga *“Sahietsa”*: “*Josten erakutsi eiñ bihar leukie*” ...ETA KITTO !

1.- ZELEBREKERIXAK

Badirudi herria txikia denean eta bizimodua ez hain hertsia eta kontrolatua, errazagoa egiten zaigula jende xelebrea, bizkorra eta batzuetan kertena aurkitzea.

Horrelako pertsonak gero eta gutxiago ditugu gure artean. Zorionez, gurean baina, izan ditugu ilustratu hauen ateraldiak batzen ibilitakoak. Juan San Martín dugu, esate baterako; 1963an Egan-en “Eibartar zelebriak”⁹ izenburuarekin hasi zitzaigun lan honetan. Harrezkero, *Zirikadak*¹⁰ eta *Eztenkadak*¹¹ liburuetan, eta hainbat aldizkaritarako zelebrequeria ugari jaso izan ditu.

Hurrengo orrietan komentatuko dugun bezala, Don Pedro Zelaia ere ber-baldiko bitxikeriak batzen ibilitakoa dugu.

Esaera eta pasadizu hauek benetan politik eta gure kulturaren ondarea direlakoan jaso egin ditugu, oso atseginak eta errazak direlako irakurtzeko, garai hartako jendearen pentsatzeko modua agertzen dutelako eta, horrez gain, gehienetan gure euskalkian idatzita daudelako.

1.1.- HERRI FILOSOFIA

Filosofoak Grezian izan badira ere, Eibarren ez dugu horien faltarik izan, ezta gutxiago ere. Herritarrak, jatorrak, euskaldunak, herri sikologoak, eibartarrak, eta gainera... filosofoak. Horrela, bere irteerak, huskeriak izango balira bezala botatzen zituzten. Kayetano Kareaga¹², Martzelo Katu-Baltza, Otua,

⁹ SAN MARTIN, Juan. “Eibartar zelebriak”. *Egan*. 1963, 1-3 zenb. 11/15 orri.

¹⁰ SAN MARTIN, Juan. *Zirikadak*. Itxaropena Arg. Zarautz, 1960. Seigarren argitalpena Elkar. Estella, 1984.

¹¹ SAN MARTIN, Juan. *Eztenkadak*. Itxaropena Arg. Zarautz, 1965.

¹² Ikusi SAN MARTIN, Juan. “Kayetano Kareaga Joan Zaigu. Euskaldun eredugarri onek Eibarren zati bat eramán du illobira”. *Zeruko Argia*. 1966 - Urtarrillak, 10. 3. orrialdean.

Artikulu honetan aurki ditzakegu “Eibar, Gizon Filosofi Herrikoikoak” jaso ez dituen Kayetano Kareagaren ateraldiren bat gehiago. Horrez gainera pertsona honi buruzko informazio gehiago eta honi eginiko azken agurra.

Antonio Castañares “Capollas”, On Antonio Azpiri eta Petit Patxoia genituen horietariko batzuk.

Badirudi C. R. Arrate elkarteak ateraldi sariketa antolatu zuela 1965 urtearen aldean. Bertan, Don Pedro Zelaia izan genuen irabazle. Juan San Martinen hitzetatik jasota, hirurogei bat ateraldi prestatu zituen ekitaldi honetarako¹³.

Hona hemen hilabete batzuk beranduago Juan San Martinek *Zeruko Argia* adizkarian atera zituen irabazleak aurkeztutako 16 ateraldi artikuluko batean:

EIBAR. GIZON FILOSOFI ERRIKOIKOAK.

Gure Eibar'en tipo xeblebre asko izan ditugu. Filosofi errikoi jabe ziranak. Burutsu eta zentzu askoren jabeak. Eta txispa askokoak. Orra or euren ateraldi batzuk gure Eibar'ko euskeran jarriak.

Marzelo Katu-Baltxa, Orbea'neko biargiña zan. Eta Frontoi Zarreko eskil-lara onduan bizi zan. Umoretsua benetan.

Orbea'nian, zapatu baten, urtetzeko ordua etorri ixa ta kintzenarik agertzen ez, Banko'tik ez etorrelako dirurik. Orduan, artu eban Katu-Baltxak txorixo bat sartu eban sutako laban.

-¿Zer eiten dok orrekin, Marzelo?

-Zidarra urtutzen, eztaok bestiori ta.

Askotan, biarrera berandutxo eltzen ei zan. Puntualidadia falta. Egun baten, Mateo Orbea'k:

-I, Marzelo, etorri ari orduz.

¹³ Ibidem SAN MARTIN. “Oraintxu izan da Eibarren. C. R. Arrate alkarteak antolaturik, bertako ateraldien sariketa bat -ain zuzen ere, juraduko izan naiz- eta Pedro Zelaya adiskideak irabazi zuan. Guztira, irurogeiren bat ateraldi presentatu zituan ...”
Lehen aipatu dugun moduan artikuluko hau 1966ko urtarrilaren 16an argitaratuta dagoenez, “oraintxu” dionean San Martinek aurreko urteko zerbaiti buruz diharduela uste dugu.

-Etxakat baiña erlojurik!

Emon ei etsan Mateo Orbeak erloju bat. Baiñan, lengo moduan, gure KatuBaltxa berandu. Orduan Mateo'k:

-Zergaitik ator oiñ berandu?

-Etxakau argirik ta ikusi eziñ erlojua!

Itxura danez, nerbixuetatik gaixorik jarri ta Santa Ageda'ra eruan eben. Lagun batzuk juan dira bixitxatzera:

-Ta, Marzelo, ondo abill ala?

-Ondo? Eta erlojuari begiratuaz, esan eban:

-Emen, ondo auxe bakarrik dabil.

Rufo plaentxiatarra Marzelo Katu Baltxa'n lagun aundixa zan. Rufo, mutil zar eginda gero ezkondu zan, ta beti inbitatzen ziarduan gure Marzelo bere etxe barrixa ikustera etortzeko. Juan zan ba Marzelo eta esaten detza Rufo'k:

-I, gora begiratik, or dauaz urdai azpiko ta lukainkak...

Marzelo'k, barriz, lurrera bakarrik begiraten eban.

-Begiratik gora, gizona, or daok zer ikusixa!

Ta Marzelo'n erantzuna:

-Or goixan ezer balegok, emen beian kerixia egingo leikek!

Kayetano Kareaga erritar filosofiaren jabe zan. Bere ateraldiak oso zabalduak izan dira Eibar'en. Bere adimenetik urtenak dira esaera auk:

“Tontuaren seniderik urrenengua: arrua”.

“Ez daukanaren borondatia: gauza eskaxa”.

“Munduan bada gauza bat, gutxiago daukanak geiago daukanari emoten deusana: lotsia”.

“Munduan arrokeri asko sortu daben gauza da izpillua”.

Bere laneko abilidadiaren ezaugarri degu Gernikan erregearen aurrekaldean gertatua. Alfonso XIII-garrenari pistola bat erregalatu omen zion Eibarko etxe batek. Erregea arrituta gelditu omen zan pistolaren dibuju zoragarriegaitik. Eta, Gernika-ra etorri zan batean, deitu omen zuan Eibarko etxera, dibujante ura lanean ikusi nai zuala. Beste gabe, an zan gure Kayetano

bere laneko gauzekin, lasai-asko erregea ta bere inguruko zaldunen aurrekaldean lanean. Ta, jaun batek galdetu omen zion:

“Ainbeste zaldunen aurrekaldean lana egiten ez al zera nerbioso jartzen?”.

“Ez. Dakidalako zuetariko iñork ez dakiala nik aiña”.

Ikusi eban beiñ, domeka baten Kayetano’k zeken fama zeukan gizon bat Arrate’ko bidetik gora ta esan eban:

-An joiak, Urlixa, kamiñuetatik gora, gastuari begiratu barik.

Kayetano’k ikusten zitxuazentian ume txikiak euren kotxetxuetan amak bultzatuta, esaten eban:

-Gu zerbait izango giñan, alako kotxietan txikitatikan oitu ba giñan. Guk, amaren altzorik be ez gendun izan: ama, jostuna zan da.

Kayetano’k esaten ei eban:

-Badakizue biajerako gauza bi txarrenak zeintzuk diran? Guardasola ta andria. Guardasola, zaindu ezin dalako. Andria, iges ezin jakolako egin.

Benetan biargiña zan “Otua”.

Egun baten, bere biarreko lagun “Kuixa” esaten zetsana falta zalata, esan zetsan kontraiaixuak:

-I, Otua, “Kuixa gaixotu egin dok eta jarri ari makiña ontan bere orde.

Ta Otua’n urteeria:

-Gaxotu? Bedar txarren bat jan jok ala?

Otua’n semiak jo egin ei eban Guardia Civil baten semia. Etorri da Otua’rengana, asarre ta arpegi illunez, guardia zibilla.

-Su hijo de V. Ie ha dado una paliza al mío. Yo les enseñaré a Vds. lo que es bueno. En este pueblo he de comer vivo a alguno!

Otua'n erantzuna: -Ikusten dok oiñ arte asko eztuala jan!

Gerra egunetan, abioiak ba zetoze bonbardeatzera adierazteko, Otua ipiñi ben abixatzaille bere fabrikan. Baiña, nunbait, berak txistua jo baiño lenago, egazkiñak etortzen ziran askotan. Orduan, ona emen zer esan eban Otua'k:

-Ara mutillak, emendik aurrera, gabillaratik gorakua ikusten dodanian, joko juat txistua.

Zozola eta Otua G.A.C.'ko biargiñak ziran. Egun baten an zeguan gure Zozola estututa, artuak kokua eukela ta.

-Gure artuak -esaten eban- zorrixakin dauaz (kokua jaukek). Zer dok ona ori kentzeko?

Otua'k erantzun zetzan:

-Onen-onena orrazi estua!

Antonio Castañares ta "Kapollas" bat dira. Eibartar peto-petoa da bera.

Noiz ezkondu biok?, esan eutsen beiñ Kapollas'eri.

-Eventual balitza iru illebeterako bai, bañan...

Zergaitik ez aiz ezkontzen?, beste baten.

-Iñoren umerik desgraziada eitxerik etxuat nai.

Egun baten, "Gregorito"neko tabernan, buruakin lunia apurtu eban. Orduan, Eibar'ko kronikan agertu zan noticia:

"El único que había atravesado la "luna" era un eibarrés".

“Semana Grande”, Agostuan, pasauta gero esan eban Kapollas’ek:
-Oñ datok Bahamontes’en etapia: aldatz gora Eibar’ko familietan.
Aurraz jan diruak ta gero letreruak etxietan: La familia no recibe.

Kapollas ta Benito Azkarate, Bar Camposantuan ziran. Ta diño Benito’k:
-Badakizue Kapollas’ek amalaukua atara dabela? (Kiniela).
Ta Kapollas’ek:
-Bai baiña 14 gradukua.
Orrela zan. Berak pagatzen eban errondia.

On Antonio Azpiri eibartar abade famatua izan zan. Oso errikoia eta urte-
raldi onekua.

Egun baten, ba zoian kalia ziar eta ikusi dau “Manifestaziño aundi bat.
Urreratu da talde bategana eta diñotse:

-¿Zer zabiltzate, mutillak?
-Zortzi orduko biarra eskatzen dogu.
-¿Zortzi orduko biarra? -dino abadiak.

-Bai, zortzi orduko biarra. ¿Ezta naikua ala?

-Bai orixe! Emen gu, ordu erdi bakarrik egiten degu eta bera eranakin.

Beste bein billatu eban mutil talde bat kolegiotik urtenda, liburuz beteta.

Diñotse Don Antonio’k:

-¿Zer liburu daroiazue?

-Geografia Universal.

Orduan, Don Antonio’k:

-¿Badakizue nun dagon Urkuzei? ¿nun Orbe ta Takillangua? (Eibar’ko
tokiak) Mutillak ezetz arpegia ipiñi eben. Ta Don Antonio’k:

-!Orixo dagok ondo! Geografia Universal asko ta Eibar’ko barri eztakizue?

Petit Patxoa zolixa, umoretsua zan. Eibartar peto-petua. Urteera argi-argiekin.

Lasuen'eneko tabernan letrero bat zeguan: Perdiz, 50 peseta.

Sartu zan kanpotar bat eta galdetu eban:

-Qué ración dan con 50 pesetas?

Eta Petit Patxoiak, an kuadrillatik galdera entzunik, erantzun eban:

-El agujero del estómago.

Fiesta del Arbol egunian, Obispo jauna etorri zan Eibar'era. Eta kale eta leku asko erramaz apaindu ebezen.

Patxoiak, eztututa lez, esan eban:

-!Fiesta del Arbol! Ederto gauaz. Alemanak, paguak bota itxuen gasoje-notarako. Oiñ, Obispuagaitik, piñuak bota. Fiesta del Arbol eukiko juau bai!

Udako bero ikaragarri batekin, Plaentxia inguran, gazte kuadrilla bat zeguan peskan. Alako baten aingira bat ikusi eben. Jarrantu detse ezkutu-lekura. Ta bai oratu be, baiñan ezin atara.

An zeguan, pretil ondotik begira gure Petit. Ta entzunik gaztien diarra ta esana eguzki galdatan: !!Aingiria, aingiria, baiñan ezin atara!!, esan etsen Petit'ek:

-Erakutsi eixozue mantekaua ta ikusiko dozue ze bizkor urtetzen daben!

Beste egun baten, Untzaga'n ziran. Geratu da bere albuana HAIGA zoragarri bat ta kanpotar batzuk zerbait galdetu zetzen. Ondoren etorri jakon Isasi'ko panaderua jakin naixan zer berba ei eben.

-Zer esan deuek?

-Biar billa dabizela.

Da, zer esan detzek?

-Maltza'ko Kayetano'n kanterara bialdu jixtuadaz, antxe falta dirala biargiñak eta.

Domeka baten, negu-neguan, badoia Patxoia bere lagun batzuekin mendira. Onetan, txabola bat billau eben eta asi dira su egiten berotzeko asmotan. Etorri jakue basarritarra ta diñotse:

Mutillak, zelan bururatu jatzue txabola barruan sua eitxia?

-Ez, zera, mantekaua eingo genduan dagon otzakin.

Pedro ZELAIA'k Datnta (sic). Zeruko Argia. 1966. Azillak, 27. 9 orr.

1.2. HUMOR EIBARRÉS

“Eibar” aldizkariak 1952an hasi zuen ibilaldi berezia “hoja parroquial” moduan, zortzi orri zituela eta hileroko argitalpenekin¹⁴. Lehenengo bidea utzita “Eibar” aldizkaria bezala ezagutzen dugu.

Zuzendaritza eta lan gehiena Pedro Zelaiaren, Don Pedroren, eskuetan egon zen, joan zen arte.

Aldizkari honetan oso irakurgai politikak aurkitu ditugu eta lan honetan aurkezten ditugu. Hala ere, gauza interesgarri asko erabili gabe geratu dira: aintzinako kontuak, abestiak, ohiturak, kultura, iragarkiak...

Atal honetarako atseginak egin zaizkigun batzuk aukeratu ditugu.

HUMOR EIBARRÉS

OKERREKO LEKUAN

Eibar'ko pelukeria batian sartu zan itxura bako gizon argal bat, azala ta

¹⁴ Ikusi LIZARRALDE, M. “Eibar”. Euskera Eibarren. Tesina. 1984. 31-33 orr.

azurra bakarrik agiri jakozen. Kokota, igarra ta ximela eukan. Pelukeruan sillan jarri zanian, esan eban:

-Arreglaidak kokot au.

Da pelukeruak, kokotetik begiak kentzeka, erantzun zetsan:

-Ori ez emen. Okerreko lekura jo dok. Juari apopillo Txaltxa'neko tabernara; ango txuletak arreglatzekua dok ori.

Revista Eibar. nº 121, Marzo 1970.

ELGORRIXA ZALA-TA

Beñ, juañ zan guraso bat bere semiari elgorrixa osatzen ibilli zan medikuarengana. Kontua pagatu biar-ba. Orraitxiok karutxua iritxi zetsan. Ta andriak medikuari:

-Zerbait merkatuko destazu baiña.

-Merkatu? Zer dala-ta?

-Ba, eskerrak nere semiari, aurtan darabizuzen irabaziak ez zenduzen izango bestela.

-Zer ba?

-Ba, bera izan zalako eskolako guztieri elgorrixa pegau zetsena.

BION ONERAKO

Gabian, berandu baten, sartu da taberna gizon bat. Naikua mozkortuta. Eskatu dau kopa bat. Tabernariak, kopa erdi bakarrik atara zetsan.

Gizona ez egon, ordia, guztiz mozkortuta ta diñotsa:

-Eztago deretxorik. Au eztoñ kopa osua. Nik betia eskatu juat. Ta tabernarixak:

-Parkatik, baiña bion onerako egin juat.

Revista Eibar. nº 126, Octubre 1970.

“UNO CON OTRO”

Bi lagun sartu ziran taberna batean meriandatzera. Batak jan eban tortilla frantzesak. Bestiak txuleta eder bat. Ordaintzeko ordua etorri jakuenian, bardiñ kobrau eutsela ikusirik, tortilla jan ebanak protestau eban esanaz:

-Baiñan zelan da au, prezio bardiña txuletak eta tortillak?

Etxekoandriak erantzun eban:

-Bai, guk “uno con otro” kobratzen dogu.

Revista Eibar. nº 129, Enero 1971.

NESKAME BAT

Eibartar jator baten etxian neskamia falta zala-ta, juañ zan arengana neska txepel bat. Ta diñotsa:

-Esañ deste neskamia falta dozuela ta, emen nator ni...

-Ederto. Ta zenbat soldata eskatzen dozu?

-Ara ba... ajustau aurretik, nik galdera edo preguntatxo batzuk egin nahi detsudaz.

-Zeuk esango dozu.

Artu eban sakia gure neskiak:

-Badaukazue etxian labadorarik? Badaukazue baita be aspiradorarik? Izango dozue, ezta, telebisiñoa? Eta frigorifikoa, eta...

-Zu, neska, itxain apurtxo bat. Orain, neuk preguntatxo bat egin nahi detsut: zuk badakizu pianua joten?

-Ez, erantzun eban neskiak.

-A!, orduan ez zaitugu behar.

Revista Eibar. nº 139. Enero, 1972.

INDAR BAKO BERBIA

Urlixa eibartar peto-petua zan. Apurtxo bat berbatsua. Ta noizean-beiñ,

itxura danez, mingaiña labandu egiten jakon. Egun baten, etorri jakon ezagun bat asarre, esanaz:

-Zertan abill i? Ik zer daukak neregaitik esateko?

Ta bestiak, irriparez:

-Baiñan, ik eztakik nere berbiak eztaukala indarrrik?

ANDRA GIZONAK ASARRE

Untzaga onduan bizi ziran. Egun aietan, musturtuta zegozen andra-gizonak. Alan gauzak, zapatu gabian, itxuraz, afaldu ondoren, juan da etxera gure Ramon. Andria lotan zegoan eta zelan gure gizonak urrengo goizian goiz jai-kitzeko asmoa zeukan kazara juateko, txarteltxo au ipiñi eban andrian oge onduan:

-Maritxu, esnatu nagizu goizeko seiretan.

Gero, ogeratu zan bera. Urrengo goizian, alako baten, bandiaren pasakalliakin, esnatu da. Jaiki da laisterka ta ikusten dau almoada onduan beste txarteltxo bat. Ona zer esaten eban:

-Ramon, seirak dira.

Revista Eibar. nº 141. Marzo, 1972.

BAKAZIÑUAK

Gizon talde baten, alkar-izketa luze bat izan eben zenbat egunian biarra egitia komeni zan ikusteko.

-Ta, zer erabaki juen?, galdetzen dau beste batek.

-Astian egun bi egin biar zirala.

Ta bestiak.

-I, ta bakaziñuetzaz ez juen ezer esan?

Revista Eibar. nº 142. Abril, 1972.

EZTUL TXARRA

Urlixa eztulka zeguan. Bere osasuna ez zan zoragarria. Esaten detsa batek:

-Eztul txarra daukak!

Arek erantzun;

-Eztul txarra? Artuko leikiek kanposantuan dagozenak!

ARRATE EGUNIAN

Sermolari ospatsu batek berba egiñ eban Arrate egunian ango eleizan. Baiñan, nunbait, ez zan Ezoziko Ama aitatzen gogoratu. Bazkal orduan, sermolaria ta plaentxiatar bat alkartu dira, eta abadiak, konturaturik bere Ezoziko amaren aztutzearekin, diñotsa:

-Barkatu egidazu, Arrateko Ama gogoratzian, ez naiz gogoratu Ezoziko Amarekin.

Plaentxiarrak erantzun:

-Eztaukazu barka eskatu biarrik. Alkartu bazenduzan, orduan bai. Ori ofensa izango bait-zan plaentxiatarrentzako. Zer ba, guria, Ezoziko Ama, Amama da.

QUE ME VOY

Gaixo bat jua da sendagillearengana.

-¡Que me voy, Don José!

Arek erantzun eutsan:

-Si te vas, estás bien. Lo malo es que te lleven.

Revista Eibar. nº 143. Mayo, 1972.

PLEURESIA MAKIÑAK

Eibar'en, beñ batian, ur ufal aundiak izan ziran. Ta bai sartu be ura, ugari gaiñera, makiña almazen batera. An ziarduan Urlixak urak kentzen. Ontan esaten detsa beste batek:

- Kalte asko egiñ jatzue?
- Bai, makina bat ur jakek makiñak!
- Bestiak:
- Pleuresia jakek ala?

OIGA, MESIE

Galdos Txiki ta bere lagun batzuk alkartu ziran beñ batian eiztari frantzes batekin. Aren eskopetiakin zoratuta, esan eban batek:

- Erosiko naikek, ba eskopeta ori...
- Galdos Txikik:
- Neu juango nok, ia saltzeko daukan...
- Urreratu da frantzesagana ta diñotsa:
- Oiga, mesié, vender escopeter?
- Frantzesak:
- Xe ne compren pa...
- Galdos Txikin errakaua auxe izan zan:
- Esan jok aitana dala ta eziñ leikiala saldu.

Revista Eibar. nº 144. Junio-Julio, 1972.

LETRA TXARRA

Seme bat juan da bere aitagana. Txeke bat firmatu biar eban aitak. Firmatu dau, baiñan, itxura danez, letra txarrakin.

- Semiak diñotsa:
- Aita, ori da letra txarra...

Aitak:

-Eutso! Firmaik euk letra dotoriakin, ia pagatzen deuen bankuan.

AUTSA KENTZEN

Sartu zan bat tabernara. Mostradorian tortilla zati batzuk ageri ziran. Asi da gure gizona eureri putz egiten.

Tabernarixak diñotsa:

-Ez eixok putzik egiñ. Ez dauaz beruak.

Bestiak:

-Ez, autsa kentzen jiarduat.

ABERIXIA

Illuntziko zazpiretarako etortzeko zan andriagana. Baiña, lagunekin batu zan, ta berandutu.

-Zer esan biar jetsat andriari?

Lagun batek:

-Aberixia euki duala.

-Baiña, kotxia osorik dagok, eta zelan ori esan?

Revista Eibar. nº 145. Agosto-Septiembre, 1972.

KLOROFORMUA GASTAU

Urlixa arda zalia zan eta askotan ekilibrixua be bazekian galtzen. Sasoi baten klinikara juan biar izan zan. Operatu eben erniatik eta etxera etorri ta, laster, ardauan kulpaz, galdu dau ekilibrixua eta jausi da lurrera eta buruan herida aundi bat egiñ jakon. Burua bendauta ipiñi eben.

Orrela zeguala, badoia kalia ziar eta lagun batek diñotsa:

-Zer daukak buruan?

-Operaziñoko konplikaziñuak.
-Ernia bategaitik burua lotu, zelan dok ori?
-Ez, baina, klinikako kloroformua amaitu zuan eta, mailukiakin buruan golpia emonaz, kendu josten sentidua.

Revista Eibar, nº 184. Junio-Julio, 1976.

1.3. LAPIKO TXIKIXA (BARRIKETAK)

EZIN IXILIK EGON

Esaten dabe andrazkuok lapiko txikia daukagula baña... zelan egongo naiz ixilik nere laguneri nik entzundako kontu au kontau barik?

Badakizue zer dan? Juan zan egun baten ni plazan berduria saltzen nenguala bi neska edo señorita nere aurrian berbetan eguazen. Euren uste-tan ixilik baña... Marinaxik belarriak tente eukazen. Zer uste dozue esaten ebala señorita orrek?

Mutil batek errekaui eietsala ta.. eztakixala baietz ala ezetz esan... Mutil ona dala, aberatsa gañera baña.. elixara eztala juaten da... ezkondata gero zer?

Beste lagunak esaetsan baietz esateko, alako mutillak gitxi diralako ta... baña elixako kontu onek duda aundixa emoten zetsan. Ta ni gauza guztiok entzuten, nere porru-patatak alde batera laga-ta... Badakizue zegatik? Arek esaten eban mutilla nik ondo ezagutzen dotelako. Precisamente juañ zan jai-xan susak batuaz etorri zan gure etxera ta... susekin tortilla jaten eban bitar-tian... ixilik egon eziñ ta... kontau netsan plazan entzundako dan dana... Bai pozik entzun zituala señorita aren ez-baixak!!! Badakizue zer esaestan mutil benetako eibartar onek?

Biotzez maite dabela nik esan netsan neska orixe, bene-benetako neska ona dalako ta... bera eztala juaten elixara oñartian lagun en esanak eiten jarraitu dabelako, ez Jaungoikuakin sinisten eztabelako ta... danen bistan Trinidad e egunian konfesau ta komulgau eiñ biar dabela ta... aurtengo Sanjuanak ez-tixuala pasau biar neska orren baietz entzun barik.

Ba-dakizue nortzuk diran neska-mutil onek? Kaletarrak dira ta... danon

ezagun-ezagunak Nik pozik esango netsukie baña... baña... igual asarratuko litzakez ta... etxata komeni mutil onekin asarratzerik, gure baserrian etxe-etxekua dalako ta gañera barritxua naizela esatia etxatalako gustatzen. Zaindu zuek Ermu alderako pasiuak ta... laster konturauko zarie zeintzuk diran. Pazientzia badaukazue itxoin Sanjuanak etorri arte. Badakit esango dozuela ¡Vaya pareja! ¡Aitaren..!

Plazan kontuz ibilli ipuiñak kontatzen... bestela... Belarri asko daude listo.

Marinaxi

Goi-Argi. 2.zka. 1950eko maietza.

¡¡EIBAR beti EIBAR!!

Aberats ta pobre... pobre ba aberats danak lagun ta iñok eziñ igarri zeñ dan aberatsa ta zeñ dan pobria. Kintzena ta propiña. ederrak artu-ta... jaixak beintzat ondo pasau... Gero, jai ostian, dakanak eztakanari emon ta... aurrera berriz bearrera gogor.

Sekula eztoigu ikusi Eibar'ko plazan ainbeste egazti ta... danak aidian saldu ta barriz egazti billa etxera juan biar izan genduan. Aurten egaztirik jan barik iñor ezta gelditu... ta esaten jardun eban arraindun batek berrogeta urtietan dato-rrera Eibarrera baña ezabela sekula orrenbeste langosta saldu... Berrogetak eka-rrri zitxuala goixian ta... barriz ekarri biar artsaldian beste ainbeste baño geixa-go... ¡Aupa Eibar! Bat bakarrik munduan Eibarren modukorik.

Pareja barri asko ikusi ditxugu jaixetan ta poztu gara batzuk ikusi gendu-zenian. Esperantzia galdu txamartuta genkan guztiok piztuta gelditxu gara... Bati partikular zorionak emongo gentsakez... gure lagun... (Eznajoian izenik ipintzera; bestela errefresko barik gelditxuko non-da).

Nik lenago esan netsuen pareja Urkiolan izan da. Eztakitx zer erabagi daben... bata fraille ta bestia monja juan ala bixak ezkondu. Jai ostian etorriko jaku mutilla keixak jatera-ta ikusikogu arpegi alegria ala tristia daukan. Beragaz egon arte ixiltzera noia.

Marinaxi

Goi-Argi. 4 zka. 1950eko julixua.

2.- LEHENGO (ANTXIÑAKO) KONTUAK.

2.1. GU BAI ZINTZUAK, GU ! (Sanjuanetako jaixak)

GRANUJAK

Errebal'eko kalia jeuan pasialekuko armailla gaiñera igo ta gizon berbatzu bati entzuten jeuntsagunian, naita "Juan panaderuan anaia, Benitxo" besterik ulertu ez, edo Notxe'neko aulkiren baten jarritxa bere "Guitarra mía" abesten jua ari entzutean: "Etorri dok Txanbolin Madri'txik" esanda, ba-jekixagun Sanjuanetan sartu giñala. Ez zuan asko biar!

Illuntzi argitsu luzia; goiz afaldu ta Untzaga'ra, suak ikustera. Aitxak, urtian bein beintzat, afalondoko kafia etxekuekin artzen jua Untzaga'n, eta umiok, gurasuen onduan, mantekaua jaten.

Suak ikusi ta musikeruak jo ta ke. Antxe, amaika urtekin, neskiakin lenengo dantzia. Berak etara najinduan. Gogoratuko ete-dok gaur? Nik baiño urte erdiren bat geixago jeukan; gero lotsaz gorri-gorri eiñda gurasuengana barriz.

Etxuan orduan iñok Eibar'tik urtetzen. Bestera, ingurutik eta urriñ-urriñetik, eibartar asko Eibar'era; Sanjuanetan etxera!

Etxeuan gure kanpaipian etxerik, umiak gurasuekin lotan ipiñitxa-edo, urriñetik etuazan senide arentzat oeren bat aukeratuko etxuanik; edo lengusu bateren etxian jan eta besteren batenian afaltzera, ara ta ona erabilliko ez jua aspaldikoren bat.

"Salve" bat be izaten zuan Ospitxalian, Juanito Gisasola zanak sortu zuala uste juat, eta ederra izaten ei-zuan, etxakixat baiña noiztik abesten zuan. Neu, iñoiz ez nintzuan izan, ta ez nintzuan sozialistia; etxakixak zergaitxik ez giñan juaten, ba-litzakek gauza barrixa zalako ta lenagoko oitxurarik izan ez.

Korridetara be gitxi. Iñoiz, korridaplaza gaiñetik zeozer ikusteko alperriko alegiñak eiñ. Bein bai, atian egoten zuan Amaña zanak mutiko pillo bati duan sartzen laga euskualako. Aunditxuaguak eiñ giñanian, naixago izaten genduan mendira jua; asteko, Matxari'txik ziar, gero, Ixu'ra, ta aundixaguak

eta urriñago. Illuntzirako baiña, afaitxara etxera ta, ezpanak garbitxu orduko, Untzaga'ra, etxian lagatzen jeuskuen ordura arte.

Neskak sanjuanetan, soiñeko barrixekin urtetzen juen; mutillok be bai iñoiz. Arek, txarto, baiña guk baiño erdera geixago eitzen juen; ta guk eskumia goixan genduala dantzan. Gero erbesteko elegantiak etorri itxuan bestera izan biar zala erakusten. Nobixotan asteko, ogeiren bat urte biar, geixenok beintzat.

Orregaitxik edo benetan lotsatixak giñalako, gure lagun arteko bostek, neu tartian, mutilzar geratzeko erabagia artu genduan. Gero, bostok ezkondu giñuazen, lenago edo beranduago, baiña bostok. Ori dok emondako berbia!

Gaur? Naiko najeukek jakin zortzi-amalau urteko mutikuak -gu granujak giñuazen- zer eitzen daben Sanjuanetan. Eta orren gurasuak ia Untzaga'ra eruaten ditxuen mantekaua artzera. Ala gaurko gaztetxuok lengo arek baiño granuja aundixaguak ete-ditxuk?

BEIZTEGI, Jon. Revista Eibar, nº 184. Junio-Julio, 1976.

GRANUJAK (ustiaketa)

Herrietako jaietako ohiturak asko aldatu dira urte batzuetan. Zer esanik ez 1930-40 hamarkadara joko bagenu. Hemen dugu jaietan, Sanjuanetan, Jon Beistegik egiten zuenaren laburpena, ohitura dexenteren pilaketa aurki daitezkeelarik.

Hala ere, tradizioak beti tradizio eta zalantza beti berdina: “gu, txikitxan, formal-formalak ez giñuan, baina oiñguak?, gabaz urten eta egunez etxeratu”. Badakizue, gaztedia beti granuja.

ULERMENA

Kokatzen

1.- Atera itzazu agertzen diren pertsonaien zerrenda. Ahal izanda aurki ezazu informazioa hauei buruz.

2.- Aipatzen diren toki izenak atera. Gaur egunekoak dira? Betidanik horrela izan dira, aldaketarik egon da urteetan zehar? Koka itzazu tokiak liburu amaieran dagoen mapan.

Ohiturak

1.- Lehengo garaietan jaietako dantzetan binakakoa izaten zen. Dakizuenez, esku batekin lagunarena heltzen zen eta bestea neskak mutilaren lepoan ipintzen zuen eta mutilak gerrian. Eskua eskuarekin lotuta zihoan hori ondo goian joaten zen. Neskek zein esku zeramatzaten goian?, eta mutilek?

2.- Sanjuanetan bezala, San Andresetan, zein zen, batez ere emakumezkoen artean, jantzien inguruko ohitura?

Hiztegia

1.- Ohar zaitetz testuko bi hitz hauetan: *musikeruak* eta *korridaplaza*. Biak, edo hobeto esanda, baten atzizkiaren erabilera eta bestean hitz osoa, badute bere sustraia gurean, nahiz eta jakin ez direla erabilpen zuzenenak. Topa ezazu ordezkoren bat.

HIZKUNTZA

Bokalak

Beti batua oinarritzat harturik, puntu honetan aztertu egingo ditugu eibartarrez izaten diren bokale elkarketak. Honek, deklinabide atzizkiak edo edozein hitzi zerbait gehitzean, sor daitezkeen aldaketak definituko ditu. Beti kontuan izan beharko dugu zein den oinarritzko hitza eta atzizkia gehitzera-koan suertatutakoa.

1.- Ondorengo hitz hauei inesiboa gehitzerakoan aldaketak gertatzen dira. Nola gertatzen dira? Ondorioa atera.

-e + (-an)	-o + (-an)	-i + (-an)
<i>urte + (-an) =</i>	<i>ondo + (-an) =</i>	<i>goi + (-an) =</i>
kanpaibe =		
ospitxale =		
etxe =		
-e + (-an) =	-o + (-an) =	-i + (-an) =

2.- Honako hitz hauetan gure euskalkian ohikoa den /x/ fonema agertzen da. Noiz? Zein kasutan gertatzen da? Zertarako?

naixago
aundixaguak
goixan
geixenok
lotsatixak

a) Egin ezazu hitza eta atzizkiaren arteko banaketa. Hitzak hartuta, zein da hauen arteko antzekotasuna?

b) Aurreko ariketa kontuan izanda, zein kasutan uste duzu esan dezakegula /x/ fonema sortuko dugula? Zertarako?

c) Ateratako ondorioa kontuan edukita asma itzazu eredu honetako 10 adibide.

d) *Nobixotan* hitzak ere /x/ darama. Goian aipatutakoen modukoa dela uste duzu? Zein hizkuntzatik hartuta dago? Zein da duen amaiera? Zertarako erabiltzen dugu /x/? Eman beste adibideren bat.

3.- a) Esan bokale elkarketa hauetan zein den emaitza:

neska + (-rekin) >

sozialista + (-a) >

luze + (-a) >

guraso + (-ekin) >

guraso + (-ak) >

buru + (-ak) >

b) Hau ikusi ondoren saia zaitez erregelak ateratzen.

c) Bila itzazu testuan a, e, i, o, bukaeradun beste adibide batzuk.

Bustidura

1.- Sailka itzazu bustidurak. Testuko adibideak ipini:

<i>it > itx</i>	<i>in > iñ/ñ</i>	<i>il > ll</i>

Aditza

1.- Aditz hauen parekoa aurkitu

erabiliko ez juen

artzen juan

jeuan

entzuten jeuntsagunian

etxuan

etxeuan

sortu juala (zuzena *sortua zebala* izango litzake, hittanoan ezin leikiala-ko *-la* eta ez bestelako atzizkirik eruan)

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

*abesten zuan
ez nintzuan izan
etorri itxuan
naiko najeukek jakin*

EKOIZPENA

Egin ezazu idazlan bat gaur egungo eta zure txikitako Sanjuan jaiak erkatuz.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

2. 2. UMIAK BETI UME . (Damaskiñaua)

UMETAKO KONTUAK

I, jasoidak boliori, biar piskat einbiajuat da...

¿Da zuk, zeaitxik esto zu jasotzen?... Beti neuk, dakan pisuakin...

Asmia jaukat, da asko kantsatzenok. Gañera, zeozetarako aiz nere sekretarixua.

(Da ori esandakuan barrez, betikua, artu bolia lurretik da mai gañera altzau ixil-ixil).

Zu aitxitxa, zeaitxik ipintzetsazu beti ezpateri, Toledo or gaiñian?

Ba, olaixen esaten dabelako eitxeko.

Zeñek?

Kakalarduko katuak! Zeñek esangojok ba? Pagatzen dabenak, joyeruak...

Da urria, zeaitxik da batzuetan orixa, da beste batzuetan berdía?

Neri zer esaten destak ba. Ixilik egonari, da lagaidak biarrian.

Tontua dirudik ainbeste preguntakin...

Ba asarretzen bazara, eznaiz juango geixago pikatzallianera.

Bueno, olan ezari jarri. Naibok ikastia, eonari ixilik beira.

Eztot nai ikasterik...

Ba juari akelarrera!

Aitxitxa... da urriak zeaitxik balio dau ainbeste?

Afrikatik ekartzen dabelako, ¿karajo! Ainbeste pregunta. Juari kalera da lagaidak biarrian.

Eurixa da...

Eiñik ba. Nai duana, baña kanpora amendik, naitxa pikutara.

Ba asarretzen bazara nerekin, eznaiz izango zure sekretarixua, da estetsut eingo errekaurik. Bapez.

Ba ez tok eukiko pagarik domekan. Da ez aut eruango banderillak jatera. Da gañera, esango jetsat amari, zer gaiztokerixa eieban pasauzan astian; ganbaran ezkutuan, neri zigarrua ostu, da erre.

Bueno, ni eznaiz asarratu, aitxitxa. Ni zure laguna naiz beti. Badakizu gauza bat? Ba, zuk obeto etxen dozuzela ezpatak da tortugak da dana, or denda bateko eskapartian dagozenak baño.

Klaro ba! Orrek estranjeruendako etxejuek, da entenditzen eztaben jentandako. Ontxe esaestak ederra.

¿Nai dozu errekaurenbat etxia?

Ba, juari pikatzallianera, onek ezpatok eruatera, da bueltan ekarri-dak “kaldo” pakete bat. Da kontuz ibiliari olixuakin zikindu barik... Bestela orrua etxejok ire amak da.

Noiz bialdu bianozu urretara? Ni beti pikatzallianera... Da urretara, sekulabez!...

Eonari ixilik. Urria karu daok, tontokerixetan ibiltzeko. Gero galdu eiala esan da, arrantza eiñ.

Ba, oiñ ez noia...

Nai dok belarrondoko bat?... Juari errekaura I fiña aiz da. Ik, segiduan eingok gañera. Ire modukorik...

Bueno ba, nere egunian, erregalaukostazu grabautako tortuga bat?

Bai, amar urte etxetxuanian. Baña, oiñ, errekaura aintxitxiketa batian.

Da olaxen ikusi neban, beste askon moduan, grabauko asuntua; egunero atan da orretan. Gora ta bera, aitxitxan grabauko boliakin, askokin astunaua, oiñ, San Andresetan, ondo merezi daben Peliri, emongotsena baño. Orregaitxik nai izan dot, Eibarko euskera peto-petuan eitxia au, berba etxendoun moduan. Andres zan nere aitxitxa, da olan erakutsi estan.

EM. Revista Eibar. n° 177. Noviembre, 1975.

UMETAKO KONTUAK (ustiaketa)

Testu hau benetako Eibarko historiaren zatitxoa dugu.

Familian atzera egiten baduzu, beti topo egingo duzu grabadorea zan amamaren aittarekin, marrazkia ikastera joan zen amamarekin... Hala ere, “grabauko asuntuan” idazleak berak azkenean dioen bezala, ezagutzarik ez baduzu, gairatzeko aukera ezin hobea duzu hau.

ULERMENA

Artikuluari bi atal bereiz daitezke: alde batetik, lehenengo atalean, aitaita- ilobaren arteko elkarrizketa eta, beste alde batetik, bigarren atalean EMek emandako argibideak.

Lehenengo atala

- 1.- Non eta zertan ari dira aitita eta iloba?
- 2.- Zeri zeritzon “kaldo” garai haietan?

Bigarren atala

- 1.- Zer dela eta idatzi du testu hau?

HIZKUNTZA

- 1.- Testuan oso ondo bereiztuta daude hitanoa eta zutanoa.
 - a) Erlaziona ezazu pertsonai bakoitza bere errejistroarekin eta azal ezazu horrelako banaketaren zergatia.
 - b) Atera itzazu hikako aditzak eta murrizketarik gabe idatzi.

2.- Testua, ahoskatzen den bezala idatzita dago, hau dela eta galketa ugari gertatzen dira, horietariko bat bokale artean dagoen /g/rena da. Beti gertatzen da? Zutabeetan jarri adibideak.

Galketa dago	Ez dago galketarik

Zer dela eta uste duzu zuk ez dela kasu guztietan gertatzen. Bereiz ezazu ahozkoaren erabilera eta idatzizkoarena.

3 .- Bustidura kontuan, egin ezazu zerrenda bat motaka banaturik¹⁵

i + t > itx	i+n>ñ Aurreko diptongoaren i-a galduta	i + n > iñ Aurreko diptongoaren i-a galduta	i+l > ll

Bustidura hauek automatikoak dira ala esanguratsuak? Zein grafia erabiliko dugu?

¹⁵ Testu honetan autoriak, elkarrizketak eta murrizketak egiteko orduan, nahiko era garbian batzen du ahozkoa. Baina, batez ere bustidura aztertzeke orduan era ezberdinez idatzitako formak ditu. Bustiduraren aurreko diptongoa, esate baterako, batzuetan desagertuta agertzen da eta hurrengoan agerian: *gañera/gaiñean*.

IRITZI PERTSONALA

1.- Onik atera daiteke Eibarren eginiko damaskinaduetan Toledo jartzen badugu? Arrazoindu.

EKOIZPENA

1.- Jaso ezazu damaskinatuari buruzko informazioa (hobe Eibarkoari buruz bada) eta azalpen testu bat egin ezazu.

2.3. ESPIONAJE INDUSTRIALA. (Armagintzia)

APURTU EZ

-Ik eskindu eutsazan baino errial bi merkiago saldu ei-jeutsazak.

-Zelan dakik ba, ik?

-Kapuajo'ri entzun jeutsak, Anbroxio'k.

-Zoratu ditzuk danak. Oszilante bakoitxian ez genduazan iru errial baino irabazten, ta orrek errial bi merkiago guk baino! Ezin lajeikek!

-Ba, olaxe dok. Bosteun oszilante, esmitzbentsonak Brasill'erako, ta iru-reun esmitzbelga Arjentina'ra.

-Olan jarraitzen ba juagu, zorrixak jango gaitxuezak danok. Zorrez jota bankuan, ta zorriz beteta, poltsikuak beintzat. Zeozer ein biar juagu!

Ta, aleginak eginziran. Fomento'an, bein ta barriz alkartu ziran Eibar'ko olagizonak eta arduradunak, baina alperrik: Ainbestetik merkeago ez saltzeko erabakiak artu gaur, ta, biar bertan, ogorlekoak lau pezetan saltzen bata eta bestea.

-Ez ditzuk izan baina oszilantiak. Antxinatik jeukaguazan Nagant zar batzuk baino, ta ez gero "beritabliak".

Ez ez ziran oszilantiak, Nagant'ak be ez baina; amabi tiroko 9 mm'ko automatikak baino, barri-barrixak eta merke be merke, "datorren zapatuan jornalak emon bear jitxuagu-ta".

Erri batek, bere danari eusteko, iñoren aurrean zeozer dala erakutsi ta arpegi emoteko, baita beste edozertarako be, ez dau naikoa izaten bere seme argiren batzuk alegintzea, ta, gitxiago, bakoitzak bere aldetik eta burutakizunetatik jokutzen ba'dau.

Ezertarako, baiña batez be, kopiñen antzera erabiliko ez ba'dabez, bere nortasuna ta erri osoaren atzeko-bultzada indartsua erakutsiko dituen Alkarte baten buruak sortu bear. Ori egiten dabe la..... edo estaduak, ori erri aurreratuetako erostaille, saltzaille ta bestelakoak, ta ori galtzen dabenean, estaduak eurak be, nortasun barik, iñoren azpian geratzen dira.

Olakotxe Alkarte bat sortzea nai izan zan Fomento'ko batzarretan, baiña alperrik. Bere erria baiño, bakoitzak bere burua maiteago.

Ez zan Alkarte a onartu, ta gitxiago indartu. Txarra zala, ez zala ezertarako gauza, alperrikoa zala, ta, berrialakoan zapuztu. Ta gaitza ta okerra, ez etozan txarra edo ez ain ona zalako. Alkartea osotu ta bizi izaten laga ez jakolako baiño.

Iñoren, bai agintari naiz erbestetik etozen erostailleen aurrean, Eibar'ko Alkarte baten buruak agertu al izan ba'genduzan, nai obeak, nai makalagoak, gure nortasunaren erakusbide arek ez eban ogorlekoric ain merke saltzen lagako, ezta eibartarren esturasun, lan-eza ta lorik artu eziña ain kezkarriak izango.

Orra ba, erri batek, txiki nai aundi, bere buru erakutsi, bere nortasun izena agirian erabilliko daben Alkarte buruak izan bear; ta iñoiz ez ba'da osoan ona, urrengoan izango da ohea, ta ordu estuetarako an eukiko dau bere izatearen ezaugarri ta euskarri.

Ta, onegaitik edo orregatik, edo sator jokoan, barrutik naiz kanpotik, Alkarte ori apurtzen alegintzen danak, ez dau errian bizi izaterik merezi.

BEIZTEGI, Jon. Revista Eibar. nº 144. Junio-Julio, 1972.

APURTU, EZ (ustiaketa)

Gerra Zibillean apurtu arte, gaur egun Errebal kalea izenaz ezagutzen dugun tokian Kontadorenekuen etxea zegoen. Bertan, dakigunez, Ignacio Zuloaga margolari ospetsua jaio zen.

Familia honek etxea utzi eta gero, bere gelek beste bete behar garrantzitsuetarako ireki ziren, hau da, "Sindicato de Fomento Industrial" izenez ezagututako elkarte lana egiteko. Gune honetan Eibarren lantegiak zituztenek bilerak egiten zituzten haien kontuei buruz hitz egiteko.

Jakin ere, badakiguu eraikuntza honetan ugazabek bazkariak eta guzti izaten zituztela. Janari horietaz Patxika arduratzen zen. Zerbitzatzeko, berak eman-

dako sukaldaritzako “ikastaroetara” zihoazten neskatiela ezkongaiak hartzen zituen. Beste batzutan, Patxikaren jatetxera, bertara, joaten ziren bazkaltzera¹⁶.

Artikuluari, *Fomento* bilera toki bezala agertzen zaigu (*Fomenton*), baina ezin izan dugu inon ziurtatu “Sindicato de Fomento Industrial” edo “Sociedad de Fomento” horretan horrelako gairik tratatu zenik.

ULERMENA

Egitura

1.- Bereiz itzazu testu honetan nabariak diren bi zatiak.

a) Zertarako uste duzu erabili duela Jon Beistegik lehenengo atala?

b) Hizkuntz modu ezberdinen erabilpena nabaria da. Zertan datza?

c) Jon Beistegi Elkarte bat eratzearen alde zegoen. Zertarako uste zuen derrigorrezkoa zela?

Kokatzen

1.- Testu hau hobeto ulertzeko interesgarritzat jotzen dugu On Pedro Zelaiaren *Eibarko historiaren laburpena* (50. orrialdetik, 65eraino) irakurtzea. Horrela, garai bateko arazoak eguneratzeko aukera ezin hobea izango duzu. Hala ere, irakurketa laburragoa egin nahi izatekotan, lehen aipatutako liburu bereko “*Armagintzaren jausialdia*” atala (64-65 orr.) gainbegiratzea “ezinbestekoa” ikusten dugu.

Eibarko historiaz pixka bat jardun ondoren, zein garaitan kokatuko zenuke testuaren lehengo ataleko kontua?

¹⁶ Paz Gisapolak kontatutakoak dira, bera ibilita baitzen bazkari horietan zerbitzatzen.

2.- Aurki itzazu testuan azaltzen diren armen izenak.

Ohiturak

1.- Euroa bertan dugun honetan, gogoratu egingo ditugu oraindik gure etxeetako nagusiek ezagutu izan zituzten txanpoien izenak eta balioak¹⁷.

	PEZETA	EUROA
ERRIAL 1 (25 zentimokoa)		
ERRIAL 2 (50 zentimokoa)		
TXAKUR HAUNDIXA - PERRUA (10 zent.)		
TXAKUR TXIKIXA (5 zentimokoa)		
ZENTIMUA		
XEMEIKUA		
OGORLEKUA		

Hiztegia

1.- Zer uste duzu esan nahi duela “*beritabliak*” hitzak? Zein hizkuntzatik hartutako mailegua da?

2.- Nola erlazioa dezakezu **Apurto ez** izenburua, edukinarekin?

HIZKUNTZA

Testu hau Eibarko historiako atal aberatsa eskeintzeaz gain, ezin dezakegu eibartarraren adibide garbi eta puruena denik esan. Hala ere, badaude ondorengo lerroetan ikusiko ditugun hainbat puntu aipagarri.

¹⁷Dirurik ez dugula esateko, garaiko txanponak kontuan izanda era jator ezberdinak aurkitu ditugu: etxakat lamaikorik, zentimorik barik, perrorik, pezetarik... Lamaikua (lamarai, lamaraiko) gaztelaniazko *cuarto* txanpona da. Antzinako *maravedia*-ren laurdenari deritzo.

Aditza

Ezaguna da gure herrian hika egitearen ohitura handia izan dela, batez ere gizonen artean eta andrazko batzuren artean esparru itxietan. Horrelako aditz erregistroa erabiltzeak berezitasunak eskatzen ditu. Hau da, alokutiboan erabilpena¹⁸ derrigorrezkoa dugu. NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago ager daiteke, hiztunak aurrean duen hizketa lagunarena.

Eibarko aditzaren erabilera, bai erregistro neutroan (edo eztabadakoa) eta baita erregistro markatuko hitanoaren forma alokutiboak eta ez alokutiboak ondo jasota ditugu *Eibarko aditza*¹⁹ liburuan.

Baturako aditzaren erreferentzia hartzen badugu²⁰ aditz alokutiboak erabiltzeko muga batzuk ditugu, baina, bai gure iritziz eta baita Eibarko aditz batzordekoen iritziz²¹ ere, ez dira eibarreraz muga hauek beti betetzen.

Ondorengo ariketak hitanoa (alokutiboak eta ez alokutikoak) lantzeko pentsatuta daude. Aditzak *Apurtu ez* artikulutik hartuta daude, baina denak ez ditugu eibartar zuzentzat joko, hauek izartxo baten bidez adieraziko ditugu (*).

¹⁸Ikusi EUSKALTZAINDIA. "Alokutiboa" 13. kapitulua. *Euskal Gramatika*. Lehen urratsak-II. 385 orrialdea.

¹⁹Ikusi ADITZ BATZORDIA. *Eibarko aditza*. Eibarko Udala / Euskara Batzordea. 1998ko Otsaila.

Alokutiboei buruz sarreran zerbait azaltzen da: 1.1.21. "*J*" alokutibuaren markia hittanuan. eta 1.1.24. *Aditz trinkuen NOR-NORI-NORK jokabidian, ez dogu adizki alokutiborik jarri paradlgmetan*. Honez gain aditz laguntzaileko erabilpenean laukiz-lauki azaltzen ditu erabilpenak.

²⁰ EUSKALTZAINDIA. Op. cit. 390 orrialdea. 13.3 *Pare bat ohar gehiago*.

²¹ ADITZ BATZORDIA. Op. cit. 27 orrialdea. 1.1.23. *Baldintzan hittanua erabiltziaren gaiñian*.

Atal honetan baldintzaren erabilpenari buruz dihardute.

Gure testuan harridura perpausetan agertzen zaigu: *Ezin lajeikek!*

1.- Esan ezazu aditz laguntzailea zein eskematakoa den:

	NOR	NOR-NORI	NOR-NORK	NOR-NORI-NORK
<i>Eutsazan</i> ^{*22}				
<i>Jeutsazak</i> *				
<i>Jeutsak</i> *				
<i>Lajeikek</i> ²³				
<i>Ba'juagu</i>				
<i>Gaitxuezak</i> *				
<i>Juagu</i>				
<i>Jeukaguazan</i> ^{*24}				
<i>Jitxuagu</i>				
<i>Ditxuk</i>				
<i>Dok</i>				
<i>Dakik</i>				

2.- Lotu itzazu lehenengo zutabeko hika-ko errejistroko aditz forma hauek bigarren zutabean ipinitako batuko erregistro neutrokoekin:

<i>Lajeikek</i>	<i>dugu</i>
<i>Ba iuagu</i>	<i>da</i>
<i>Juagu</i>	<i>gaitu</i>
<i>Jitxuagu</i>	<i>dakizu</i>
<i>Ditxuk</i>	<i>dira</i>
<i>Dok</i>	<i>daiteke</i>
<i>Dakik</i>	<i>badugu</i>

²² ADITZ BATZORDIA. Op. cit. 22-23 orrialdea. 1.1.14. "EDUN/EUTSI" NOR-NORI-NORK aditz-jokorako laguntzaillien adizkixetan "U" sustraixaren presentziaz. Ematen du ez-alokutikoa den aditza (hika-ko tratamendua) alokutibo bihurtu nahi duela. ?

²³ ADITZ BATZORDIA. Op. cit. 38 orrialdea. 2.1.5. Laguntzaillia, *EDIN: NOR Ahalezkua Oraina-Hipotetikua.

²⁴ Geure iritziz iragana egiteko orain aldiko forma bera *Jaukaguz* (eduki) aldaketa batzuekin erabili du eta ez *geunkazen/geunkaguzen**. Lehen esan bezala hemen ere ematen du a/za hori sartzean alokutibatu nahi duela aditza. ?

3.- Asmatutako aditz forma hauei eibartarrerako parekoa jar iezaiezu:

TESTUKOAK	EIBARTARREZ
<i>Eutsazan*</i>	
<i>Jeutsazak*</i>	
<i>Jeutsak*</i>	
<i>Gaitxuezak*</i>	
<i>Jeukaguazan*</i>	

Erakusleak

Erakusleen erabilpenari dagokionez baditugu ezberdintasunak batuarekiko. Hor dugu, oraindik ondo gorderik gurean, euskera zaharreak hirugarren pertsona singularrean erabilitako *ha* forma.

Honez gain, eta azentuaren erabilpena dela eta, singularra-pluralaren arteko ezberdintasuna egin dezakegu²⁵.

Bila ezazu testuan ondorengo erakusleen parekoa:

Horrelaxe

Hura

Hark

Ere, Erebai

1.- Eibarren jatortasunez erabili izan duguna “*BE*” da. Aurki itzazu testuan horrelakoa duten perpausak²⁶

²⁵ Ikusi IMANOL LASPIUR. “Azentu Diakritikoa Eibarko Euskarari”. Euskara XXIV (2. aldia)

²⁶ Orokorrean *ere, ere bai, baita ... ere*, gaizki erabiltzen diren elementuak ditugunez ari-keta hau zuzentasunaren bidea jorrazteko erabil dezakegu.

- a).....
- b).....
- c).....
- d).....
- e).....

2.- Aurreko ariketan agertutako “*merke be merke*” perpausak zer esanahi du?

MINTZAMENA LANTZEN

Honako honetan ekonomiaren aldaketari buruz zerbait jakin ahal izan dugu. Eztabaida ezazue zuen artean **KONKURRENTZIA IREKIA DUEN MERKATUARI BURUZ.**

2.4. ARATOSTIAK

MARKANO'KIN AMERIKETARA...

Kanta berri batzuek
dituguz atara;
aitzen emoten gatoz
erri ontara.
Arioplanuan juateko
asmuetan gara;
biar urtetzen degu
Ameriketara.

Amairu lagun gera,
guztiok argiak:
ez gaitu bildurtuko
otsak eta euriak.
Bizirikan etortzen
bagera erdiak,
kontauko dizuguz guk
ango berriak.

Biar urtetzen degu
guziok aidian,
ikusiko gaituzu
agurka bidian.
Ondo urtetzen besku
daukagun idian,
ez gera etorriko
beste urte bian.

Nueva York'era guaz
lenengo runbuan:

Angel Markano jauna
degu pilotua,
gazte-gaztetatikan
estudiatua.
arek artzen duanian
martxa diretua,
laister izango gera
Amerikakuak.

Benito Regil jauna,
gizona justua,
oserbaziñorako
dao nonbratua.
Agustin Echeberria,
mekanikokua,
Serafin Esnaola,
kozinarakua.

Polo Norte'n ei daude
ain paraje baltzak,
arako egin dituguz
aproposko galtzak.
Eskuetan arturik
galtzairuzko lantzak,
galdu ez gaitezen an
otsak edo artzak.

Izotzez einda ei dago
ango mendi dana,

andik Brasil'eraño
berriz urrenguan.
Gero Polo Norte'ra
irugarrenguan;
bazterra billauko degu
badago munduan.

ara gora igotzen
izangou lana.
Edukitzen badegu
edana ta jana,
esperantza badegu
Ilegauko gerana.

Igotzen badegu ango
mendi tontorrera,
begiratukou andik
zer dao beste aldera.
Biderik ikusten
badegu aurrera,
laister Ilegauko gera
munduan bazterrera.

Aparatu eiten eñ degu
urte bian lana,
ortan gastatu degu
geure diru dana.
Biderako ere berriz
biar degu jana,
orreatik eskatzen degu
errialtxo bana.

Ona berri-berriak
guk amaika bertso
esanaz nola diran
gure pasadiso.
Jaungoikuari eskatzen diogu osauna oso,
berriz ona etortzeko
danok animoso.

(He aquí el flamante avión de Angel Marcano y su cuadrilla, en los Carnavales de 1930 recorrieron nuestras calles antes de emprender su fantástico vuelo, al que hacen relación estos versos que ellos mismos compusieron como recuerdo perenne de aquella gesta)²⁷.

Revista Eibar, nº 35. Agosto-Septiembre, 1960.

²⁷ Hemen utzi nahi izan dugu aldizkarian gaztelaniaz ipinitako gehigarria argibiderako balio baitigu. Honen bidez gainera ezagutu dugu lehengo kontu bat, hau da, mozorrotuta irtetzeaz gainera abestia eta "gehigarriekin" (karroza modura edo) ateratzen zirela.

MARKANO'KIN AMERIKETARA ...

Testua bi bertsio ezberdinetan aurkitu dugu, bata “Revista Eibar”²⁸ eta bestea Juanito San Martinek²⁹ argitaratua. Guk, jatorrizkoa San Martinenarenetik hurbilagoa egongo zelakoan berau aukeratu dugu.

Zortziko hauek eratzerakoan gipuzkoako bertsolaritzaren eragina nabaria da eta, beraz, eibartarreraren berezitasun batzuk nahiko ezabatu edo goxotuak aurki ditzakegu.

Hau dena kontuan izanda, uste dugu testu honen balio aberatsa gure historiarekin, jaietako historiarekin³⁰ hain zuzen ere, lotu beharko genukela. Horrela, eta testuari mamia atera nahian, honako honetan gure galderak ez dira batuaz joango, eibartarraz baino, erantzunak ere euskalki honen praktikarantz bideratu nahian.

ULERMENA. TESTURATZIA.

1.- Zertarako osatu zittuezen hórrek bertsuok?

2.- Nundik-norako biajia egitteko asmotan dagoz?

3.- Zenbat lagunek osatzen dabe taldia? Batzuen izenak be badakiguz. Zein da bakotxaren betebiharra?

²⁸ Revista Eibar, n°35. Agosto-Septiembre, 1960.

²⁹ Ikusi SAN MARTIN, Juan. Eztenkadak, Zarautz. 1965. 100-106 orrialdeak.

³⁰ Eibarko Aratostietaz hitz egiterakoan *Armaginek konparsa* aipatu beharrean gaude. Hauek ere bere kantu eta guztiz atera ziren, bata habaneraz egina eta bestea zortzikoan, lehenengoa ez omen dago osorik jasota, bigarrena osteran Juan San Martinek “Kezka”, 1976, 22-23. orrialdeetan argitatu zuen. Azken urteetan, dakidanez, aintzinako ohiturak berreskuratu nahian konparsa hau, kantu eta guztiz, atera izan dute gure herriko kaleetan zehar.

Ahoz-ahoko gure herriko Gabonetako eta Santa Agedako beste kanta batzuen berri jakitzeko ikusi SAN MARTIN, J. Antzinako Eibar, Ego Ibarra. Eibar, 1993. 31-35 eta 45-48 orr.

Anjel Markano	kozinerua
Benito Regil	mekanikua
Agustin Echeberria	pilotua
Serafin Esnaola	oserbaziñorako

- Zeren eskian dagoz? Zenbat eskatzen dabe?
Badakizu zer egitten zan orduan sasoian batutako diruakin?

BERTSOGINTZIA

1.- Bertsolaritzan ze izen emoten detsagu hamen dittuguneri?

2.- Azpimarratu egizuz oiñak eta aztertu zelakua dan errimia: aberatsa, pobria... Arrazoitu erantzuna.

HIZKUNTZA

Hizkuntzari begira nahiko testu morokildua dakagu: Eibarrera forma txukun eta garbi-garbixak, gipuzkeraz ohitturazkuak diranen onduan. Azken hónek alde batera lagata, guk aztergai, guri dagokigun euskera hartuko dogu.

Hiztegitxo berezixa

Banakako berba polit batzuk jaso geinkez bertsuotan. Garbizaleren batekin tope eginda be, esango zeskun erderakadak edo kalkuak dirala, baiña hamen oiñarri peto-petua neurtzen ez gagozenez, aittatu egingo dittugu.

Ipiñi beste modu baten hónek berbok:

aitzen emoten gatoz

aproposko galtzak

daukagun idian

billauko dogu

llegauko gara
galtzairuzko lantzak
galdu ez gaitezen an / otsak edo artzak.

Bokalak

1.- *l, n* eta *r*-ren aurrian, batzuetan bokal alternantzia izaten da eta beste batzuetan, ez. Etara adibidiak.

e>a gitten dau	e>a espero eta ez egin

2.- Batuko *atera*, testuan *atara* agertzen jaku. Eibarreraz zelan da erabiltzen dogun beste forma bat?

Zein da ondoko fenomenuari emoten detseguzen izenak
atera > atara
atera > etara

2.- Billatu egizuz bokal elkarketa hauetako adibidiak:

-o + a- > -ua-	-e + a- > -ia-

Kontsonantiak

1.- Berba egitteruzkuan, bokalen arteko /g/ fonemia galtzia jokaerarik normalena da gure euskalkixan. Hamen baiña, bertsuen neurrixaren premiña dala edo ez dala, batzuetan bete dau.

Billaizuz galketia daken adibidiak:

2.- Sarrittan topatzen dogun beste bokalen arteko galketia aditzaren aspektua [+perf.] danian da. Kasu honetan /t/ fonemia galtzen da³¹. Testuan esan bihar dogu hau [+gert] agertzen danian gertatzen dala, baiña bakarrik -tu- + -ko- egitten danian. Topau holako kasuak.

EKOIZPENA

Aurtengo aratoste jaixetan konparsen antxiñako moduetara bueltatzeko asmotan gagoz. Kuadrillan koko jantziko zarie eta bertso batzuen premiñan zagozie. Asmatu egizuz.

31 -au amaiera hau gaztelaniazko hitzetatik hartutakuetan erraztasunez pasatzen da: *pasau, enterau, juntau, preguntau...*

Ez ostera beste batzutan: *erdiratu, atzeratu, aittatu, minberatu...*

-tu-ren aurreko bokala -i- bada galketia emon barik bustidura izango dogu: *amaittu, garbittu, aittu, egarrittu...*

Erregela finkorik ikusten ez dogunez, onena Toribio Etxeberriaren Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibarrera jotia izango da.

Ikusi ADITZ BATZORDIA. Op. cit. 1.1.25. *Jokaera konposatuko aditz nagusixa edo aditz-adierazlia*. 28 orr.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

2.5. KALIEN BERRI

ARRAINDIKALIA

Ba zan baztar txukun bat
gure Eibar zaarrian
oso alaia ta jatorra
jatorrik bazan errian.

Barrenkalia alde batetik eta
erreka garbia bestetik
ez zan bertako gizonen artian
anaitasuna besterik.

Torreko kanpaiak din-dan
goiz esnatutzen giñuzen baña
ederra ezaten zan ango
labetako ogi erre usaña.

Apurtu zan leku maitia
zori txarreko urte batian
baña ezin dabe aaztu
jaio ziranak Arraindikalian.

Urtiak joan eta urtiak etorri
gora-bera asko munduak
jarraitu daigun alkaturik eta
!gora Arraindikalekuak!

Revista Eibar. nº 134. Junio-Julio, 1971.

ARRAINDIKALIA (ustiaketa)

Testuak esaten duen bezala Eibar zaharrea bazen baztar txukun alai eta jatorra. Hori genuen, gaur egun desagertua baitago, Arraindikalia.

Bertso horien bidez geratu zaigu gure lehenaren oroitza eta neurri horretan jotzen dugu baliagarritzat. Herenegun ixilaren lekuko.

ULERMENA

Kokatzen

1.- Bila ezazu liburu amaieran dagoen planoan non zegoen *Arraindikalia*.

Aurki itzazu testuan kalearen mugak eta gero planoan kokatu.

Egitura

1.- Esan ezazu, bertsoz-bertso, zer den kontatzen zaiguna:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

2.- Zure ustez, zein gertakizun historiko egon daiteke ezkutuan 4. bertsoan?

BERTSOGINTZA

1.- Neurtu bertsoak eta esan zein motatakoak diren.

2.- Aztertu errima eta esan nolakoa den.

HIZKUNTZA

Aditza

1.- Atera itzazu zerrenda batean testuan agertutako aditz laguntzaileak, bestean batuko parekoa:

Testua	Batua

2.- 10. lerroan *esnatutzen giñuzen* aditza dugu, aurreko ariketan laguntzailearen batuaren parekoa aurkitu duzu. Oraingo honetan, aditz nagusia aztertuko duzu.

Eibarreraz uste duzu horrelako erabilpena dugula *-esnatutzen-*? Zertarako uste duzu erabili duela?

3.- 19. lerroan *jarraitu daigun* subjuntiboko aditza aurkituko dugu. Aditz nagusiari begiratzan badiogu, zein da baturako aukeratutako bidea? Zein da eibarreraren ezberdintasuna³²? Beti horrela jokatzen dugu?

Espresaerak

1.- Olerkigintzan askotan oso esaera jatorrak aurki ditzakegu. Hori da hemen gertatzen zaiguna.

³² Ibidem ADITZ BATZORDIA.

Atera itzazu oraingoak perpaus hauek eta ahalegindu zaituz barneratzen.

EKOIZPENA

Eman dezagun, zoritxarra dela medio, Untzagako enparantza desagertu dela. Gai hau erabiliz osa itzazu hemen eginiko moduko bertsoak.

ARRAGUETARI

Bertso bat edo bi
Jartzera nua ni
Arragueta zuri
Kale jator orri
Eibarren ez bai da zu bezelakorik.

Etzera aundia
Eztare txikia
Ondo ebakia
Da zure neurria
Arikitxa ta Urkuzuko zubiak.

Zure neskatillak
Zein baño zein fiñak
Aukera eziñak
ain dira sorgiñak
Eibarko mutillentzat Jaunak eginak.

Zure etxeoandrak
Leyal ta maratzak
Bakite ateratzen
Gizonen arantzak
Arraguetako etxiak lore-baratzak.

Gizon biargiñak
Langille abillak
Baitare artistak
Naiz kontrabandistak
Arraguetan danetik daukagu pixkat.
Abade, torero
Sortzen da noizero
Baitare bankero
Inork nai ezkeru
Amerikan be baditugu bakero.

Gure umoria
Naitarez obia
Kalterik gabia
Beti da garbia
Biotz illun guztien alaigarria.

Triste garanian
Arragueta aldian
Edo ezinean
Emen lañopian
Izar bat agertzen da Arrate ganian.

Arraguetan jayo
Eta bertan azi
Euzko odolez naiz
Bizi eta ezi
Beti maiteko zaitut kale ta aberri.

Euzkera degunez
Beti gure izketa
Euzkeraz eiten da
Emen berriketa
Ontan beti nagusi da Arragueta.

BERGARECHE, Jose.

ARRAGUETARI (ustiaketa)

Arragueta, larregi aldatu ez den kale horietakoa dugu. Buru batean estu eta txikia, bestean pixka bat zabalagoa Ibarkurutzera heltzeko. Azkenengo aipatutako plazatxo hau dugu askok, erabilpen erdaldunean, “la fuente de los cuatro caños” izenez ezagutzen dutena. Gaztelaniazko izen hau erabiltzeagatik, ziur, batek baino gehiagok oihuren bat jaso duela.

ULERMENA

Kokatzen

1.- Bila ezazu, liburu amaieran dauden planoetan non dagoen Arragueta kalea.

Aurki itzazu, testuaren arabera, zeintzuk diren kale honen mugak.

Oraingo honetan koka itzazu hauek planoan.

Bat zatoz testuan jarritako mugekin eta benetan direnekoekin?

2.- Bitxikeria. Ezagutzen duzu Arragueta kalea Grabadores kalearekin lotzen duen “pasabidea”? Eman izena.

Ahal izan ezkerro, joan zaitez ezagutzera. Orain dela urte mordoa makina bat ume joan izan ginan egurra hartzera han zegoen harotzegira eta sifoia eroatera.

Egitura

1.- Bertso hauetan bertsoz-bertsoko gaiaren banaketa ondo finkatutakoa dugu. Jar ezazu zein den hauetako bakoitzean erabilitakoa.

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.

BERTSOGINTZA

1.- Neurtu bertsoak eta esan zein motatakoak diren.

2.- Aztertu errima eta esan nolakoa den.

HIZKUNTZA

Bertso hauetan ez dago, egia esan, gauza oso berezirik atal honetarako, bokalismoa ez bada. Kontuan izan behar dugu bertsoaritzan kanpoko eragin garbizalea jaso izan dugula.

Bokalak. Bokal elkarketa.

Azken posizioko bokalari *a* gehitzen zaionean, nola gauzatzen dugu hitza?

-e + -a	-i + -a
<i>umore</i> + a >	<i>garbi</i> + a >
<i>obe</i> + a >	<i>alaigarri</i> + a >
<i>gabe</i> + a >	

EKOIZPENA

Zu Eibartarra zara, eta dudarik gabe zure kalea (jaiotzakoa zein bizi zarenekoa) munduko zoragarriena da. Nola ba geratuko zara bertso polit batzuk egin gabe honen omenean.

Nahi izanda, erabil dezakezu hemen autoreak aukeratutako bertso mota eta egitura.

3.6. GURE JENTIA

3.6.1. SOZIALISTIA

CANDIDO EGUREN

Eiñ eiñ bihar dok. Nahixak bakarrik eztau balio Alkartasuna bihar da.

Candidok esan doskunez ipuin asko pasatakua da bera: reboluziñua, republikia, gerria, kanporantzia ta... 30 urte erbestian izandakua dogu, Frantzian izan zan aurretik 6 urte kartzelan pasau ta hiru urtian pena “de «»muerte”ko amenazuakin egonda. Frantzian eiñ zitxuan lanak alde guztitakuak: barrenderuekin ta... zuluak eitxen eh... zerian... kalietan ta... konstrukziñuan ta gero tallerretan ta... almenetan ta... en fin: ibilerra edarra!

—Kanbixo haundixa topau dozu Eibar?

“Bai, eh... nik ikusi nebanetik, treinta y cuatrotik esan leike urten izan dotela Eibartik, ta... handik hona ba... kanbixo haundixa ikusi dot!; ez bakarrik pertsonak... ze... nik, ixa eh.. .larena eztot ezautu Eibarren

etorri naizenian hona; ta ostian eh... kaliak eta, ba... erakutsi eiñ bihar nun, ibili bihar nintzan, enekixan nun ibilli... galduta zeuan gure Eibarkua”

**— Liburuzalia zarala entzun
dogu, irakurtzia bakarrik ala
idaztia be gustatzen jatzu?:**

“Bastante irakurri izan dot, hori izan da nere afiziño haundixa. Idatzia ez, neuk ezta hori zerrori; batzuk esaten dabe idatzi eiñ bihar dala bestiei be erakuste-ko...baina...guk ikasi dogunagaitxik bestien memorixetatik gauzarrik esan leike, nik gehixen ikasi doten modua, liburuetan baiño...bizi izaten, bizimoduan ikasi dot gehixen”

—Ta euskerian arluan Eibarren zer ikusten dozu?

“Ba hamen eh..., Eibarren orduan gure denporan eh...nik eh... ofizinan be, kalia be, etxia be...euskaraz.

Gero kanpotarra etorri zanian, 1914ean etorritako jendiak euskara gaiztua ikasi eben, harek etortzen zianian erdara eitxen genduan, baina harek jua ten zianian geure artian euskeraz beti. Behin pasau jakun eh...hiru bagoiazan, zinera ta bat eh... erdalduna zan naparra baina erdelduna, ta bestiok Eibarkuak bixok; ta eki etsaun zineko kritika bat eitxe ta erderaz eki etsaun; baiña gero berotasunian euskerara pasau giñazen ta naparrak esaoskun: -nik etxuat ezer aitzen—. Baiña urtean eztan neri: hi!!, txotxo!! hik ondo ein dok asarratziaz ez dok ulertzen ta gure euskeria, baiña...ikusiok ze modutan ibili gaitxuan euskeraz ta...horrek parkatzia be badaukak, eh?; baiña nik eh bajaukat hiri esateko: hik badaroiak hamen 6 edo 8 bat urte ta... orduantxe gelditxu zan hori zerrori: euskeria len eguneroko hitza zan. 1914an etorri zianak asimilau genduazan, baiña azkenenguak eztoz lelenguak asimilautako moduan asimilau ta heurak gehixau dia oiñ momentuan gu baiño”.

— **Irakurri dittuzu aurreko “...eta kitto!”-ak?:**

“Bai... ba batek mendixan ta beran zerak kontatzeitxu, bestiak musikia ta... nik politika asuntua ta... ez tot nahi hor asuntuan sartzerik ze norberan burua etara bihar da aurrera ta politika asuntuan beste berba batzuk gehitzia ura-uran gainian botatzia da”.

— **Zelan ikusten dozu gure herrixa gaur egun?**

“Gaur egunian gauzak gaizki..., mundu guztian doiaz gaizki eh... ez... krisisa dala ta... Nik hau ekin netsan ikusten Frantzian, hemengo aldian hobeto doazelako preparauta industrialmente ta teknikamente. Beste herri batzuk igotzen juango balitzakez, Estados Unidos ta... gu haren arrastrian juango giñakez igotzen baiña krisisa dao.

Ez bakarrik dirua krisisa, krisis tekniko batean gaoz ta ondiokan sektor terziarixuan, serbiziuak, jentia eztao formauta...go ra doiaz baiña Frantzia, Estados Unidos edo Alemaniako maillara alleatzeko ondiokan asko falta jaku.

Gaurko produziñorako, zibilizatutako naziñuen merkau txikitxu eiñ da, ta hori merkauori zabaldu eiñ bihar da, ta hori zabaltzeko dirua zabaldu bihar da. Kapitalak interesik ez badau ataratzan ez dau balio ezertarako. Gure aberastasuna lana da, eitxen dan guzia da, produktua da ta ez dirua, dirua errepresentaziñua da. Mondragoien hartu daben moduan, geuk hartu bihar dogu erresponsabilidadia, geuretako eiñ biharra eta geuretako irabazi, horretarako hoixe preparaziñuori bihar dogu eta sakrifizio hori, ze...koperatibak eitxeko han sakrifikau eiñ behar izaten da: estatuan laguntzak be egongo dira baiña martxan ipintzeko dirua jarri bihar dabe soziuek. Gaur pasatzen dana da kapital gehixao bihar dala”.

— **Eragiñik euki dau hamengo inbersiñuetan bertako egoerak?**

“Leku baten, nahi dan lekuan izan, polo nortian edo surrian, bakia bihar da, bakeik ez badao han lana ezin leike trankil eiñ eta han bere prozesua industriak ezin leike bihar dan moduan eiñ, sobre todo kapitalistia bada, ze dirua, esaten dabe... erbixa baiño bildurtsuaua dala”.

— **Gaur Eibarren egoeria:**

“Denpora baten euki genduan Eibarren —El piloto— baiña, gaur, Elgoibar batek, Mondrago batek, Renterixa batek emoteskuez lau buelta.

*Hamengua gatxa da, lehen lau txanponaz einda zeuan fabrikia. Gaur oster
preparaziño haundixa bihar da ta inbertsiño haudixak. Produkziño teknikua
ta sektore terziarixua desarrollau bihar dira”.*

—**Gauzak konpontzeko:**

*“Solidaridadia bihar da, nahixa bai baña —eiñ eiñ bihar dok—.
Barruan badaukagu danok hartz txiki bat ona, ta iaber haretzek irabazten
daben. “Mundu honek ezin dau segiru beti gerra ta holakuetan, egunen
batian konponduko dira gauzak, hala dakat esperantzia nik behintzat”.*

...eta Kitto! 1989ko Maiatza / 5. Alea.

**CANDIDO EGUREN: Ein eiñ bihar dok. Nahixak bakarrik eztau
balio Alkartasuna bihar da.**

1897. urteko abuztuaren 6xan izan zan gure herrixan lehelengo lanuztia
Kintana Anaien fabrikan. Hori izan zan Toribio Etxebarriak eskribidu zeba-
nez, Eibarko sozialismuaren hasieria eta bultzakada ez txikixa³³.

Pixka bat lehenago hasi ziran “truk-biharraren” kontra lehelengo ahale-
giñak egitten³⁴. Sistema hau zan Montadoriak erabiltzen zebena, neurri baten,

³³ Ikusi ZELAIA, Pedro. Eibarko Historiaren laburpena. “...eta kitto!”. Euskara Elkartea. Iruñea, 1994. 52-53 orr.

³⁴ Ikusi ETXEBARRIA, Toribio. Ibilarixanak. Eibarko Udala - Kutxa Federazioa. Zarautz, 1993. 136-138 orr.

Lan honetan Toribiok lan trukea kentzearen aipamena egiten du, Jose Gisasola bere arme-
ria eta damaskinatuan ideia maixuari bertsoak botatzen dizkionean:

*Zuek ziñan orduan
truk'biharra kentzen,
ogixa pixaturik
esniak neurtutzen;
lan orduak moztu eta
jornalak jasotzen.*

Toribiok ere *Truk'biarra kentzen* bertsoaren azalpena eman beharrean ikusten du bere
burua eta horrela dio “*El sistema del trabajo a trueque era el imperante en la Armería
al tomar cuerpo “la cuestión social”*”

bihargiñeri ordaintzeko. Bihargiñen alde ziharduan erakundiari Iturrioz jaunak *Gremio Obrero* diñotsa³⁵.

Aittatutako *Gremio Obrero* hori, baiña, ez zan gure artian lehenengua izan, 1858. urtera arte gurian Burdiñaren Gremixua izan genduan eta hori tradiziñuori zala-ta, errezago sortu ziran denporiaren jua-eturrixan izena aldatzen joan ziran bihargiñen aldeko lana egitten zeben taldiak. Lehenengo gremixo ziran, denpora gutxira, elkarte eta, azkenian, sindikatu.

Baiña, zein izan zan gremixo eta sozialisten arteko erlaziñua? Gorago esandako *Gremio Obrero* (1888xaren inguruan sortutakua, 1902ra arte) edo *Bihargiñen Gremixuan* prohibiduta zeken erlijiñua eta politika autuetan sartzia, batez be pentsakera ezberdiñetako jentia batzen zebalako. Baiña, apurka-apurka, 1902xaren inguruan, sozialisten eragiña argi eta garbi ikusten zan, hónek lehenak, argixenak, bixkorrenak eta ausartenak ziran³⁶.

Sozialismuaren azken garai indartsu eta eraginkorretakua dittugu Benigno eta Marcelino Baskaran, Aquilino Amuategi, Toribio Etxebarria, Martin Erkiaga, Jose Gisasola, Galarraga eta beste batzuekin batera Candido Eguren, sozialista zaharra.

Artikuluaren erabiltzen dan gaixa alde batera lagata testu mota berezixa dogu hau: elkarrizketia. Horrelakuetan aukera politta dakagu -elkarrizketatzaillia eta transkribatzailliaren fidelitasunaren arabera- ahozko modu eta erabilpen hain zainduak ez diran esapide eta perpausak jasotzekua.

HIZTEGIXA

• Erderakadak

1.- a)Candidok, elkarrizketan, baten baiño gehixagotan erdera erabiltzen dau. Billatu testuan.

³⁵ ZELAIA, Pedro. *Op. cit.* 49. orr.

³⁶ ZELAIA, Pedro. *Op. cit.* 56. orr.

b) Erabillera hórrek Eibarren sarrítan entzundakuak dira, ala elkarrizketatutakuaren ezjakinttasuna dala uste dozu?

c) Gaur egun beste moduren baten esango genduke? Zelan?

2.- a) Testuan, azken paragrafuan, “iaber” agertzen jaku. Zelan sortutako berbia dogu?

b) Zelan izan biharko litzake?

• Esakerak

Zer esan nahi dabe esakera hónek?

“(…) *politika asuntuan beste berba batzuk gehitzia ura-uran ganian botatzia da.*“

“(…) ze *dirua*, esaten dabe... *erbixa baiño bildurtsuaua dala.*”

“(…) *Renterixa batek emoteskuez lau buelta.*“

Azken esamoldian lau zenbakixa erabiltzen da. Zein da gaztelaniaz erabiliko genduan pareko esaeria?

• Gure berbak

1.- TXOTXO!³⁷

Gaur egunian bateron batek berba hau erabiliko baleu gu izendatzeko, lehenengan behintzat, belarriko miña emongo leskigu. Gure aittitta-amamak baiña beste esanahi batekin erabiltzen dabe. Zeiñetarako?

³⁷Ikusi ETXEBARRIA, Toribio. Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar. Euskaltzaindia. Bilbao, 1986. 696. orr.

2.- ZERA (ZERIAN... / ZERORI)

Ahozkuari sarritan erabiltzen diren formak zein deklinabide kasua edo zer gehituz lortu dira:

Zerian:

Zerori:

Normalian, momentuan burura etortzen ez jakun zeozeren ordez erabiltzen dogu³⁸, atzian etentxo bat egiñ eta gero ostian nahi doguna bota

Adb: *zerian... kalietan.*

3.- GATXA

Gatxa berbia horrelako ahozkerarekin geure-geuria da. Batuko zein berebarekiñ uste dozu dakala loturia?

HIZKUNTZA

Bokalak

Hiatuak ondo markatzeko -x-a sortzen da kasu askotan. Egoera honetako adibidiak topau:

-i + -a > ixa

-i + -a (deklinatutako hitzetan) > -ixa-

-i- + -o > -ixo

-i- + -o->-ixo-

-i- + -u- > -ixu-

-i- + -e- > -ixe-

³⁸Amamak, etxera ganorabako informaziñua ekartzen gendunian be holakua botatzen zeskun:

“...bai!... zera!..., zereko zeraren zerian...”

Bustidura automatikuak

-in, -in -il- eta -it- bustidura honek, automatikuak diran adibidiak aurkitu:

-in > -iñ

-in- > -iñ-

-it- > -itx-

-il- > -ill-

EKOIZPENA

Egunkari baten egitten dozu biharra eta atzerriko orrixa betetzia tokau jatzu. Testua osatzeruzkuan edukiña kontuan izatiaz gain, maketaziñua be kontuan izan.

2.6.2. LIBRERIXAN

MARITXU ETA PAKITA

Hogei urte kulturian alde lanian

Eibarren daonik librerixarik zaharrenetaikuan oiñ dala bost urte arte ibilli zian Maritxu ta Pakita, ezaunauak Eibarren-Ayerbe librerixakuak-moduan. Eibarko librerixa honetan zelako aukeria eta zelako funtzionamendua egon dan azkenengo 20 urte inguruan kontatuko deskue Maritxu ta Pakitak. Izan be Eibarrek euki daben liburu zabaltzaille kompletuenetakua dogulako.

Zenbat urte dia hasi ziñatela?

“20 urte inguru izango dia gu hasi giñanetik. Ta zelan hasi? ba... len paragerixia geneukan ta... 20 urtian euki ta gero kentzia pentsau genduan paragerixia ta librerixia ipini.”

Librerixiak diru asko emoten dau?

“Ez, ez, ez, ez... Librerixiak eztau diru askorik emoten. Eztao inor be librerixiakin aberastu danik, librerixiakin ezin leike aberastu.”

Liburuekin hasi ziñatenian zelan moldau ziñaten?

“Generalian nobedadiak eskatzen genduazen eta nobedadiak bialtzen eskuezan. Gero bueltatzeko be deretxua eukitzen da, hori bai!! Segun ze dondiziotan hartzen dan ta zerian bueltau eiñ leike. Oiñ eh... ekartzen daben momentuan pagau eiñ bihar. Ta gero, saltzen eztana, bueltau ta hurrenguekin kendu. O sea: maularik eztaka. Erropetan da maularak geratzen dia: Librerixan be gelditzen da, bistia euki biozu pixkat... zer erosi bihar dozun jakittekota ta... sasoz bueltau ta... zeregiña daka!! kontuz ibilli bihar da, ze erosi zeinkez liburu batzuk sekula be eztozuzenak salduko!!”

Eibarren irakurtzeko oitturarik badao edo zer?

“Bai!! len baiño gehixao, gu hasi giñanian baiño gehixao!! Frankismotik hona eztakitt ba ze... guk bost urte izango dia laga genduana ta... oiñ be egoten gara baiña nizian behin bakarrik. Holan izanda kontaktua galtzen da. Jentian irakurtzeko oitturia haundittu egiñ dala pentsatzen dou guk baiña... bost urte badia dendia laga genduana ta galduta dakau kontaktua.”

Eibarren pentsatzen dozue zerikusixa dakala holako denda bat egotia? Kulturekin edo... zer pentsatzen dozue?

“Baietz pentsatzen dot nik -diñosku Maritxuk-. Gu alegindu gara, gu beti alegindu gara horretan. Ta hogeitertian nik pentsatzen dot asko eiñ doula. Ze, jakina!! -diño Maritxuk-, hasten zara gauza batekin librerixiaz kanpo eta hasten zara beste zer batzuk ipintzen, ezta? Ta eukitzen genduazen periodiko estranjeruak be: batez be inglesak, frantsesak eta italianuak be eukitzen genduazen... horretxek batez be. Prentzia estranjerua bastante hartzen genduan.

Arratsaldeko bostetan trenian bialtzeskuen. Jentian hori-ezta bape be ezaban irakurtzen. Kanpoko prentzia eukigenduan denpora askuan, baiña galdu eitten genduan ze... bueltatzen genduazen baiña portia pagau bihar!! Ta ekar-

tzen eskuezenek heurek moztu ebezen... ezin zan halan jarraitu, esan ezkuen ezinleikiala bialdu ze... paketia eruan da paketia ekarri heurendako be neketsua zan, ta batez be alperriko biharra!! Ta heurek laga etsen azkenian ekartziari.

Gero euskerazkua be asko hasi giñan saltzen, orduan indar haudixa hartu eban euskerazko guztixak. Guk eukitzen genduan batian “tema vasco” eta bestian “euskerazkua.”

Anekdotaren bat.

“Ba ointxe gertau jaku bat, ointxe hamabost egun diala. Etorri jakun maixu bat, urtietan hamen egon zana ta gero Zamorara destinau ebena ta... “¡Hola !, he venido a hacerles una visita; no he querido marcharme sin despedirles a ustedes” gu geu berakin aztuta ta berak geu ezautu!!”

Ta jentiakin tratuan eta, zelan portatzen zan jentia?

“Ondo, ondo. Ta Unibersidade Laboralera etortzen dian mutillak ta... zelako errespetuakin ta... zelako mutillak haretzek be!!

Eztakau iñungo kejarik, danekin ondo konpondu gara. Oiñ eh... orduan danak “de Usted” eitten zebe berba ta oiñ ultimamente gaztiak danak “tu” eitten deskue.”

Liberixan danetariko liburuak zekazuezan edo zelakuak?

“Librerixa baten ezin leike eukin dana, eztao munduan librerixarik dana dakanik!!

Eibar dan herrixandako gure librerixan beri egon da liburu asko. Baina ipini izan dabe periodikuetan esaten eh...: liburua erosi bihar bada Eibartik kanpora urten bihar dala, ta hori ezta egixa!!

Guk nobedadia dana eukitzen dou, ta ezpadao eitxen da alegiña topatzen. Benetan, hori, libururik eztaola Eibarren esatia, ez jaku gustatu ze... Eibar baten jentiak ezta kanpora juen biharrik!”

...eta kitto! 1990ko Ekaina /17. Alea

MARITXU ETA PAKITA

Hogei urte kulturian alde lanian. (ustiaketa)

Eibarren, euskerian bultzatzaille izan dan Estaziño kaleko Ayerbe Liburudendako Maritxu eta Pakita ahiztak dittugu hurrengo elkarrizketan. Eurak kontauko deskue zelan hasi ziran negozio honetan eta zer zan zekena.

ULERMENA

- 1.- Zenbat urte dira Ayerbe librerixa moduan zabaldu zala?
- 2.- Lehenago zer saltzen zebeu denda honetan?
- 3.- Liburudendan sartzen zan guztia bertan geldittu bihar zan edo beste aukeraren bat zeken?

HIZKUNTZA

Bokalak

- 1.-Bokal alternantzia. Topaizuz testuan adibidiak:

i > u	e > a	u > o	o > u

2.- Bokal-harmonia³⁹

Fosilizatuta gelditu jakun kasu bakarra agertzen da. Jakingo zenduan zein dan?

3.- Diptongua

Nahiz eta bi diptongo motako berbak topau, hamen euskeraz jatorrak diran beruzkuak aztertuko dittugu⁴⁰.

Emondako hitzak taldeka antolatu eta esan zeintzuk diran 2. maillako beruzko diptonguak⁴¹:

<i>Eibar</i>	<i>oiñ</i>	<i>aukeria</i>	<i>euki</i>	<i>ezautu</i>	<i>bueltau</i>
<i>leike</i>	<i>eztau</i>	<i>pagau</i>	<i>bueltau</i>	<i>eiñ</i>	<i>sasoiz</i>
<i>zeinkez</i>	<i>baiño</i>	<i>noizian</i>	<i>dou</i>	<i>eitten</i>	<i>heurek</i>
<i>jarraitu</i>	<i>haundixa</i>	<i>maixu</i>	<i>destinau</i>	<i>geu</i>	<i>euskerazkua</i>

Kontsonantiak

1.- Sandhia. Hau fenomenoau bi berba alkartzetuzkuan emoten da. Normalian ahoskatzerakuan egitten da, baiña hamen idatziz be ipinitta daka-gu. Bete kuadrua testuan emoten diranekeiñ⁴²:

-z + d- > -zt-	-z + b- > -zp-

³⁹ Bokal-harmonia asimilaziño bokalikuaren fenomeno bati esaten jako. Honetan datza: *i* eta *u*-ren eragiñez hurrengo silabako *a>e* bihurtzen da. Testuan agertzen dan kasuan *u*-ren eragiña kontsonantiaren ondoren be emoten da.

⁴⁰ Beruzkuak azentua diptongoko lehelengo bokalian daroia eta honen bigarren partiak bokala erdi moduan funtzionatzen dau.

⁴¹ Kontuan eduki honek kontsonante baten galeria dagonian ematen dirala.

⁴² Nahiz eta beste egoera batzuetan be gertau (-z + j- > -tx- / -z + l- > -l- / -z + n- > -n-), hónetxek dira argixenak eta Eibarko edozeinek egitten dittuanak.

2.- Galketia.

Bokal artian kontsonante galketa ugari emoten da ahozkuaren eibarreran. Galtzen dabenaren arabera adibidiak sailkatuko ditugu:

- -g-
- -r-
- -r (azken posiziñuan)
- -d-
- -tu-n egiten dan partizipiuaren -t-

EKOIZPENA

Edozein herritan bihar diferentia topau zeinke. Aukeratizu interesgarria iristen jatzun bat, prestau galdetegia eta pasaixozu horretan diharduan bati.

Lana egitteko erabakizu lehenago zelan jasoko ditzun erantzunak: hitzez-hitz, berak esandakua moldatuta, zuzenduta...⁴³

⁴³ Hau ariketia aprobetxatu leike kazetaritzako elkarrizketa atala lantzeko.

2.6.3. BILLAR JOKALARIXA

JUANITO SAEZ DE ZAITEGI:

“Billarra habilidadezko jokua da”

Jokuak hiru modutakuak izan leikez euren ezaugarriak kintutan eukita: kalkulozkuak, suertezkuak eta habilidadezkuak. Askotan hiru gauzok konbintzen dian arren. hori zelan dan jakitzeko Eibarren ta Donostian billarrian kanpeoi izandako Juanito Saez de Zaitegikin izan gara berbetan.

Billarra habilidadezko jokuen barruan sartzen dana izango litzateke. Habilidadia izatiaz gaiñ kontrakuak eitten dittuan mobimentuak ta bolak nundik nora dabizen be kontutan euki bihar da. inportantiena tiruak eitten dianian ondo azertatzia litzake. Horretarako, asko praktikatziaz gañera, nerbixo eza, asko ta ondo begitzia ta distantzixak ta inpultsua ondo kalkulatzia ezinbestekuak dia.

Billarra, itxuria danez, XVIgarren gizalditik jokutzen da mahai kuadrua luzian hiru bola edo gehixao ipiniaz ta neurri batzuk dakazen palo batekin bultza eiñaz. Billarra ba, konzentraziño ta koordinaziño haundixa eskatzen daben jokua dogu erreza emoten daben arren. Juanitok kontatzen dosku billarrian nundik norakua zelakua izan dan Eibarren.

Zelan hasi ziñan billarrian?

“Eibarren jaixo mil nobezientos diezinuebian ta billarrian hasi... hamen-txe Casinuan, hamabi urtekin lelengo aldiz. Hau kasunuau (Casino Eibarresa) nik beti ezautu dot. Eztakitt zenbat urte baña... ixa ehun urte eukiko dittu.

Gure etxe barruan konsergia bizi zan, oiñ daonan aittitxa, Urdanpilleta Juakin. Ta gu etortzen giñan hona orduan eh... kafia hartzeko, urakin izaten zan, basuak ipintzen zittuen ta ura hortik (Ibarkurutzeko iturrirttik) ekarri ta... maixa preparau batzuekin ta... gero, jenterik ez zeuala ba, billarrian lagatzezkuen jokutzen. Ta holaxeik hasi nitzan ni billarrian.”

Len billarra gehixao zeuan, ezta?

“Eztaziño kalian bat: Guruzetan; hau (kasinokua) beste bat, bi: Rialtuan bi (oiñ zinian daon lekuan gañian lelenko pisuan); gero bar Modernuan, Errebalian, hor be billarra euan; gero karlistetan be bai; elixa aurrian, Zentro Katolikuan, han be bai; Batzokixan; kasino Amistadian; plaza Barrixan, republikanuen zentrua euan lekuan; ta gero Casa del Puebluan bi.

Nik lelenkotan eneban parterik hartzen, gaztia nitzan ta... baña jokatzen zeuben. Año bentinueben edo treintan edo... Casa del Pueblo aurrian zeuan “Campeonato de Eibar”, Eibarko kanpeonatua. Ta Fermin Ziorragak etara eban treinta edo treintaiunuan.

Gero gerriak urten ta, gerra ostian, ni hona etortzen nitzan ta hortxe jarduten neban billarrarian. Fermiñek be musian edo... subastauan edo, hamen jardute eban kartetan ta. Ta... harek eh... preguntau eiñ estan: -Hi Juanito!! Hik segiduko dok etortzen billarrarian jokatzeke!!?-. Baai. -Ba bixok jokatuko juau-. Ta haxe izan zan nere maixua. Alkarrekin ibiltzen giñan egunero. Holan ibili giñan gu... hogetamar urtian bai!! Pentsaizu, ni harekin hasiko nitzan ba... kuarentaikuatruan edo zinkuan, ta: sesentaitresian irabazi notzan.”

Kanpeoi be izan zara, ezta?

“Kultural Arratian, inaugurau zebeñian, sesentaikuatruan edo zinkuan edo; han be neuk etara neban kanpeoi. Especialidade mordua eiñ zittuen han, especialidade baten Tanbok etara eban ta ni bigarren; ta beste danetan neuk etara neban. Hurrengo urtian be neuk etara nittuan danak barriro.

Sesentaiseisian, ni ”corte de navaja” ikasten neuala, Donostiara juaten giñan domeketan, ta nik aprobetxatzen neban billarrarian jokatzeke. Beste batzuk ha kursillua eitten genduanian eratera ta... nik nahixao neban billarrera jokatzia. Orduantxe, kursilluan gabizela, tokau zan kanpeonatua ipintzia Donostian bertan; regionala zan. Parte hartu genduan: Donostiakuak bi, Eibarkuak bi eta Irunguak; neuk etara neban.”

Zer bihar da billarrian jokatzeko?

“Entrenamentu haundixa bihar da, ta gehixao danakin ikasteko be hobe. Ta gero ba: pultsua ta bistia.

Billarrian modalidadiak dao: bat da librian (bola batekin beste bixak jotzia); “al cuadro” beste bat (kuadruak eitten dittue ta cuadro barruan bi bola bakarrik, bigarrenian bola bat etara eiñ bihar); beste bat dao “a una banda” (bolia jo ta beste bolia jo baño len banda bat jotzia litzake); beste bat dao hiru bandatara, oiñ horixe dao modan (hirugarren bolia jo baño len gitxienez hiru banda jo bihar dittu boliak).”

Gau egunian badao Eibarren lengo afiziñorik?

“Ez, eztao asko, billarrak be gitxitxu eiñ dia. Hor eh... sala de juegosen edo hen eztao zer ibiltzen dan, ni horra ez naiz juaten eta, baña ostian hamen gitxitxu eiñ da, bueno, gero bizimodua be kanbixau eiñ da, len eh... kasunuetan eta... kafia hartzera juaten ziñan ixa leku guztietan billarra euan, oiñ ez, oiñ hamen (Casino Eibarres-ian) eta besteren batian.

Oiñ beste afiziñu batzuk dao. Badaoz banaka batzuk, baña ostian gitxi. Oiñ gau-pasak ta zeretan ibiltzen da gazterixia. Juaten dia kafeterixetara ta eztao billarrik. Billarrian eitteko espresamente honatxe etorri bihar da, Dos de Mayo-ko kasunuan be badao (reglamentarixua da hangua).

Reglamentarixuak dakaz 2’84m luzeran ta 1’42m zabaleran, ta hamen-guak eukiko dittu 2’20m x 1’10m. Zenbat eta haundixaua gatxaua, luziaua.

Gero zera: orduan billarra, ni hasi nitzanian sei txakur haundi kostatzen zan, baña oiñ kanpuan ordua 500 peseta kostatzen da ta gaztiak eztao dirurik.”

...eta kitto! 1991ko Urria / 29. Alea.

JUANITO SAEZ DE ZAITEGI:

“Billarra habilidadezko jokua da” (ustiapena)

Jendiaren artian Zaitegi izenez ezagutzen zeben billar jokalarixa daukagu hamen.

Ointsuan Ibarkurutzian bota daben etxiaren behekoaldian, Arikixan parian, pelukerixan egitten zeban biharra. Kalian be pelukero alkondara urdiñakin topatzia oso normala ei zan.

Gaur egun dendetan eta, kanpoko aldiak, izen dotoriak ipinitta dittuen moduan, garai haretan letrero barik, jakitzeko ulia moztu eta bizarra kentzen zala, Zaitegik lokalaren kanpoko aldiak erderaz “bacía”⁴⁴ deitzen jakon ontzixa zekan txintxilik. Batek baiño gehixagok buruan eukiko dau haixiak hara eta hona mobitzen.

ULERMENA

Gaur egun, “bidio-jueguen” garaixan sartuta gagozela, billarrak, Juanitok esaten zeban moduan gero eta leku txikixagua daka. Aukeria aprobetxauta zeezer gehixao ezagutuko dogu honi buruz.

1.- Zer bihar da billarrarian jokatzeko?

2.- Zenbat billar modalidade aittatzen dittu Juanito Saez de Zaitegik? Azaldizuz.

3.- Lehen billarra zein lekutan topau zeikian?

⁴⁴ Bacía: Vasija cóncava con una escotadura semicircular en el borde, usada para contener líquidos, y también por los Barberos para mojar la barba. Diccionario Anaya de la Lengua. Edit. Anaya. Madrid. 1991 .

Ez dogu honen itzulpen zihatza topau, baiña ontzixa edo txoleta deittuko gentsan guk.

Gaur egun leku horretan denpora pasarako beste aukeraren bat emoten dabe? Zeiñ?

Aittatizuz denporia pasatzeko bururatzen jatzuzen beste irtenbideren batzuk.

HIZTEGIXA

Sarreran esan dogu Zaitegiren pelukerixaren atian ontzitxo bat esegitta zeukala. Lehengo holako tresnaren batzuk askok ezagutu be ez dittugu egiñ.

Liburuetan begiratzen edo bati eta beste bati preguntauta, topaizuz gaur egun erabili ez arren, lehen biharrerako ezinbestekuak ziran tresnen izenak.

HIZKUNTZA

Bokalak. Diptonguak eta hiatuak.

Ayerbenekuen testua aztertzerakuan beherazko diptonguak ikusi genduzen. Hamen, oinguan, goruzko diptonguak⁴⁵ eta hiatuak ikusiko dittugu.

a) Kuadrua bete alde baten goruzko diptonguak ipiñiz eta bestian hiatuak.

goruzko diptonguak	hiatuak

⁴⁵ Kontuan izan diptongo klase hau ez dala euskeraz jatorra.

b) Kopurua kontuan hartzen badogu zeintzuk dira ugaritsuenak. Hau ikusita erregelaren bat etara ahal dozu? Idatzizu.

c) Testuan hiru bokal elkarren onduan be topau dittugu. Hona hamen:

<i>zeuan</i>	<i>euan</i>	<i>subastauan</i>
<i>kanpeoi</i>	<i>neuala</i>	<i>(jokatu) juau</i>
	<i>gatxaau</i>	

d) Diptongorik edo hiatorik egitten da? Zelakuak? Sailkatu. Espero zana da?

Kontsonantiak.

Bustiduria

1.- a) Billaizuz -iñ- egitten diren kasuak. Zein egoeratan emoten da palatalizaziñua?

b) Begiratizu oiñ beste adibideren bat *in* + bokala > *ñ* egitten ez dana:

c) Ondorixo moduan esan ahal dogu *in* > *ñ* bihurtzen dala beti?

d) Batzuetan gure euskalkixan i-k palatalizaziño biharra egiñ eta gero galdu egitten da⁴⁶. Topaizuz holako egoerak.

2.- a) Orainguan t-ren palatalizaziñua⁴⁷ ikusi dogu. Zerrendatxo bat etaraizu.

b) i + t dagon guztietan palatalizatzen dau? Jatorra da forma hori gurian?

⁴⁶ LIZARRALDE, M. *Op. cit.* I.2.1.2. *N-ren palatalizazioa*. 68 eta 69. orr.

⁴⁷ LIZARRALDE, M. *Op. cit.* 69 eta 70. orr.

IRITXI PERTSONALA

Aurreko ariketiakin zuzen lotutako proposamena da hau. Grafia kontura jotzen badogu, ezbardintasunik ikusten dozu tt ala tx grafia erabiltzeko? Zuk Eibarren erabiltzen dogun soñua tt ala tx-eren ingukua ikusten dozu? Eztabaidatu.

EKOIZPENA

Kirolari amorratua zara baiña zure lagunari ez jako bape gustatzen. Konbenzidu egin bihar dozu, argumento onak erabillita, zeintzuk diran kirolaren abantaillak.

Argudiozko testu hutsa egin barik lehelengo zatixan, sarrera moduan, azaldu aukeratutako kirola nun praktikatu ahal dan eta zertan datzan.

2.6.4. JOSTUNA

PAKITA ARRIZABALAGA “SAHIETSA”:

“Josten erakutsi eiñ bihar leukie”

Gaur egunian erropia karu daola danondako gauza ezauna da. Josten dakixanak ostera erropa ederrak eitteko aukeria eukitzen dau esku ona euki ezkeru. Oiñguan Pakita Arrizabalagak (“Sahietsa” izenakin be ezautua) arixa ta jostorrazakin zelan hasi zan ta horrek gaur egun zelako estimaziñua dakan kontatzen dosku.

Pakita hamairu hamasei urte bittartian hasi zan josten ikasten Mercedes Alberdiñian, Eibarren bertan. Berak diñoskunez: “Eibarrek euki daben onena izan zan. Pentsaizu!! alargun geldittu zan etxian lau seme-alaba ta hiru zar ekazela, ta berak bakarrik eitte eban biharrian. Egunero

seiretako mezetara juaten zan ta gero lana: guri josten erakusten zeskun ta kanporako be lana eitteban. Pentsaizu!! Zelako emakumia!! Horri bai, horri monumentua eiñ biharko jakon Ze... horren moduko emakumerik ezta izan be eiñ!!

Gero, hamazortzi urtekin, madridera jua nitzan “kortia” ikastera han akademixan ikasi ta titulua hartzeko. Han neuala, hara, Aginaga bat be etorzen zan txoferra ta kotxiakin ta zera esaeztan: - Eibartik honaño etorri kortia ikastera ta hamengo metodua eruan biozu? Neuk erakutsikotzut Madrideo Grand aPELLIRUKO modistiak neri erakutsi zestana-. Ta halan-teik ha metodua ikasi neban, berak erakutsi zestan.

Han ikasittakuakin hamen josten hasi nitzan ta korte klasiak emoten be bai.”

Alabiak afiziñua ekala ikusi zebanian berari erakutsi zetsan zekixan guztia ta gaur egun: “alabia da modistia, nik dana berari laga netsan.”

• **Pret a porter aurretik ta ondoren zein da ezbardinttasuna?**

“Ba, horrek apurka-apurka eboluzionatzen dau. Gaztien gauzak zelan datozen, prakia da datorrena, ta minifaldia. Hori aurreko denporetan be suertatzen zan ta modia kanbixatzen zan: batzutan gona motza eruaten zan, bestetan luziaua; batzutan bizkarrak zabalauak, bestetan estuauak... baña alabia nere aldian ona da moda gauzetan.”

• **Len emakumiak josten zeban, oiñ ez hainbeste; zer iristen jatsu?**

“Nik esan bihar dotsut eskoletan, unibersidadian edo klasia emoten dan lekuan, kolegixuetan... erakutsi eiñ bihar leukie, obligatorixua izan biharko litzake emakumiak hori ikastia.

Familixako ama batendako lau operazinuak eitten jakitzia bestekua da josten pixkat jakitzia. Hori kolegixo guztixetan eskatu biharko litzake, ze hori jatia morukua da!!”

Anekdotak benetan barregarria kontatu ditugu Pakak, benetan gaur egunian etxe askotan pasatzen dituzten agertzen dituztenak: “oiñ dala gitxi dentista bat ezautu neban konponketa bat eittera bertara jantzerian ta, harek: -Ene!! Semiak apurtu ezta alkondara bat ekarri biotzutan konpondituzun-. Ta begiratu notzerian zera esan nola: zer? alarguna zara ala? Ta berak: -ez, enaiz alarguna baña... gaurko andrak ezta josten-.

Pentsatu!!!... Bada botoirik pe josten ezta ba!! Hori penia da!!”

Izan ei zan Eibarren oso andereño ona izan zana. Hau oso listia zan ta, zera esateutsen berakin ikasten ebizanei: -Eibarrek dakana eukinda gitxi ikasten da.”

• Len kursilluak eitten: zian, oiñ ez, zeaittik?

“Ezebes, oiñ dana geldi dau. Zelan gauzia einda saltzen duen esperuan egoten da. Nere alabiak esaten dabenez: -ez leukie preziuak hain goixan ipintzera obligau bihar-, ezta? Hobe izango litzakela preziuak txikitu ta salduak gitxitzia ze, horrek komertzio guztia izorratzen dau. Erropia erostia arregalua izan biharko litzake.

Gaur jentia salduak etorri arte itxaitten dau, ta erropia bota eitten dau!! Saldua datorrenian erosten dau.”

• Zelakua da jostenen eguna?

“Ba, antzerakua. Guk ondiokan hori gorde dou. Zelebratzen dou. Oiñ be preparauta dakau, enkargauta dakau zelebratzeko. Baña... Merzedesi, nik ikasi nebanekuari, hari eñ biako jakon monumentua!!”

• Eibarren josteko afiziñuak jarraituko ete dau?

“Bai, bai. Ondo erakuste dabe. Asko dauz erakusten dabena. Beste zeregiñik ezta emakumiandako oso gauza ona da: ikasi, erropak eñ ta... arratsaldia pasatzen dabe. Oso gauza ona da.

Ondo ikusten dittut horrek korte akademixok, eztaoz asko baña ondo dao. Fiñak dianak juaten dia horra, ta arratsaldia erropak eitteko aprobetxatzen dabe beste batzuk kafía hartu ta jokuan eitten daben bittartian. Danetik dao: bihargiña dana ta eztana. Baña gaur gazterixia ibiltarixa dator”.

• **Modia, zer da?**

“Modia bueltia emoten dau. Oiñ dala hogeï urte eruaten zanak bueltia emoten dau. Koloriekin bardiña pasatzen da. Modia bueltaka dabil, koloriak be bai.

Guk gaur boutique bat dakau San Andres Pasialekuan. Parisera, Barzelonara desfiliak ikustera, Madridera ta juaten dia ta eiñdako gauzak ekartzen dabez. Guk konpocketak eitten douz. Sahietsa izena bizi giñan base-rrikua da, tradiziñuak jarraitzen dau: -Arrizabalaga Sahietsa-.”

...eta kitto! 1991ko Azaroa / 30. Alea

PAKITA ARRIZABALAGA “SAHIETSA”:

“Josten erakutsi eiñ bihar leukie”

Gaur egun erroparen bat erosi bihar badogu zuzen-zuzenian, gehixenok iñungo dudarik barik, kaleko edo azalera haundiko denda edo holako “boutique” ra josten dogu. Batez be lehen, gizonezkuak sastriagana eta andrak jostunagana juateko ohitturia zeken. Bihar hau zan, jostunarena, Pakita Arrizabalagak, Sahietsanekuak, zekana.

ULERMENA

Pakita Arrizabalagak lehengo gauzak kontatzen Mercedes Alberdi aittatzen dau. Zergaittik?

Gaur egungo andriaren egoeria bardiña da? Zertan aldatu dogu?

HIZKUNTZA

Kontsonantiak

Bokalen artian aldaketa ugari dagozen moduan kontsonantien artian be sarrittan ikusten dittugu.

d > r aldaketia nun emoten da? Adibidia emon.

Aditza

Hitzetan emoten diran galketez gain aditzetan kontrakziño ugari egittten dittugu.

Artikulan, aditzetan, kontrakziño ugari topatu dittugu. Billatizuz eta laukixa osatu. Jasotako aditzaren onduan ipiñi, eibarraz idazteko oiñarrizko irizpidiak⁴⁸ jarraituz, murrizketarik barik idatzitta egon biharko litzakezen moduan.

baiezko aditza		ezezko aditzak	
kontrakziñua eginda	kontrakziñua egin barik	kontrakziñua eginda	kontrakziñua egin barik

Ohar zaittez “ez leukie” agertzen dala eta ez “eleukie”. Pentsatu honetan.

⁴⁸ Ikusi. Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak. Eibarko Udala. Euskara Batzordea. Eibar. 1997.

Deklinabidia

1.- Destinatibo singularra, batuaz norentzat galdetzen doguna, zelan egitten dau hamen? Adibidiak emon.

2.- Nahiz eta adibide bakar bat agertu, berau aprobetxatzea nahi dogu Eibarren bizidunekin erabiltzen dogun inesibo kasua aittatzeko.

Zelan egitten da batuaz? Eta Eibarren?

EKOIZPENA

Pentsaizu holako jai dotore-dotore batera konbidau zaittuela. Argi dago ezin zarala edozein modutan juan.

Erabakizu lehelengo zer jantziko dozun eta gero, jostun batengana juanda, pausuz-pausuz esan biharko detsazu zelan nahi dozun hori erropiori. Idatziz egiñ.

BIBLIOGRAFIXIA

ADITZ BATZORDIA. Eibarko aditza. Eibarko udala / Euskara Batzordea. 1998.

ANTOÑANA, P; ARANGUREN, J. G. eta beste batzuk. Narrativa vasca actual. Antología y Polémica. Edit. Zero ZYX. Colección “Guernica” nº 21. Madrid, 1979.

ANAYA. Diccionario Anaya de la Lengua. Edit. Anaya. Madrid. 1991.

APARICIO LOPEZ, Teófilo. 20 Novelistas españoles contemporaneos. Estudios de crítica literaria. Estudio Agustiniano. Valladolid, 1979.

ARRONDO, Bittor eta beste batzuk. Hitzez hitz. Literatura idatziaren antologia / aztergaia. Erein. Bilbo, 1984.

ESTEBAN, J. eta SANTONJA, G. Los novelistas sociales españoles (1928-1936). Antología. Edit. Anthropos. Editorial del hombre. Barcelona, 1988.

ETXEBAARRIA, Toribio. Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar. Euskaltzaindia. Bilbao, 1986.

ETXEBAARRIA, Toribio. Ibitarixanak. Eibarko Udala - Kutxa Federazioa. Zarautz, 1993.

ETXEBAARRIA, J. eta beste batzuk. Euskal testuen azterbideak. Literatura II. Labayru Ikastegia. Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Bilbo, 1985.

ETXENAGUSIA, K., KORTAZAR, J. eta ETXEBAARRIA, A. Euskal idazleak Bizkaieraz. Antologia. Testu azterketa. Ariketak. Labayru ikastegia. Bilbo, 1980.

Eibarko idazlien eta idazlanen antologia

EUSKALTZAINDIA. GRAMATIKA BATZORDEA. Euskal Gramatika. Lehen Urratsak- II. Euskaltzaindia. Bilbo, 1987.

EUSKALTZAINDIA. Eibarko hiri-toponimia. Onomasticon Vasconiae 13. Euskaltzaindia. Iruñea, 1995.

GAMINDE, Iñaki. Aditza Bizkaieraz. 3 tomo. Udako euskal Unibertsitatea. Iruñea, 1984

HERNANDO, Miguel Angel. Prosa vanguardista en la generación del 27. (gecé y la gaceta literaria). Ed. Prensa española. Madrid, 1975.

LASPIUR, Imanol. "Azentu Diakritikoa Eibarko Euskaran". Euskara XXIV (2. aldia)

LEKUONA, Juan Mari. Ahozko Euskal Literatura. Erein. Donostia, 1982.

LIZARRALDE, Myriam. Euskera Eibarren. Tesina. 1984.

MITXELENA, Luis. Fonética Histórica Vasca. Publicaciones del Semanario Julio de Urquijo de la Excm. Diputación de Guipuzcoa. San Sebastián, 1985.

MURUA, Ane eta beste batzuk. Ahoz aho. Ahozko Euskal Literaturaren antologia / aztergaia. Erein. Bilbo, 1984.

MUJICA, de Gregorio. Monografía Histórica de la Villa de Eibar. Tercera Edición. Ayuntamiento de Eibar. Zarautz, 1984.

NARBAIZA, Antxon. Eibarko gatzizenak. Ego Ibarra. 1990.

SAN MARTIN, Juan. Zirikadak. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1960.

Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaiza

SAN MARTIN, Juan. Eztenkadak. Gertaera barregarridun liburua. Kuliska Sorta. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1965.

SAN MARTIN, Juan. Antzinako Eibar. Etnografia Gaiak. Temas de etnografía del antiguo Eibar. Ego Ibarra. Eibar, 1993.

VILCHES de FRUTOS, María Francisca. La generación del Nuevo Romanticismo. Estudio Bibliográfico y Crítico. (1924-1939). Tesis Doctoral 41/84. Edit. de la Uni. Complutense de Madrid Servicio de Reprografía.

ZELAIA, Pedro. Eibarko historiaren laburpena. . . . eta kitto! Euskara Elkartea. Iruñea, 1994.

*Kardantxillua kantuan entzun eta aittu batek
zer txori klase dan igartzen ez badau, ez da
kardantxillo ona edo ez da kardantxillua.
Bakotxak beran kantua dakan moduan,
eibartarrok geure euskeria dakagu.*

(Imanol Laspiur)

*Eskribiturik daude
Eibarko izkeran
berba batzuek erderaz
bestiak euskeran
guk onela ikasi genduan
gazte denporan
berrira mudatzeko
ezgaude epokan
entendituko zendun
zer esanai dotan*

(Gregorio Atxa-Orbea "Orbe" bertsolaria)



Eibarko Udala
Euskara Batzordea